



Iturria: *Telemake: Ulizeren semearen gertakuntzak*, François de Salignac de la Mothe Fénelon / Jean Pierre Duvoisin (Eli Kruzetaren edizioa). Euskal Editoreen Elkarte, 1997.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/D/DuvoisinTelemake.htm>

## TELEMAKE ULIZEN SEMEAREN GERTAKUNTZAK

JEAN PIERRE DUVOISIN

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabetgo Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

## LEHENBIZIKO LIBURUA

Kalipzok etzezakeien sosegurik aurki Ulize goanez geroztik. Bere atsekabeen, ezin hiltzea zen haren hiragarri. Haren egoitzan etzen gehiago entzuten haren kantua. Zerbitzatzen zuten ninfak etziren hari mintzatzera menturatzen. Ardura paseatzen zen bakar-bakarra sorropil liliz estalietan, zoinex beti irauten duen uda-berri batek inguratzen baitu haren irla. Bainan leku eder heiek, urrun gozatzetik haren oinazea, mintzen baizik etzioten Ulizen orroitzapen erdiragarria, zoina hanbat orduz han ikusi baitzuen bere aldean. Maiz geldi-geldia egoten zen itsas bazterrean, zeina bustitzen baitzuen bere nigarrez, eta beti itzulia zagoen Ulizen untzia itsaspean begietarik galdu zuen aldera.

Bet-betan ikusten ditu pesiak hautsirik heldu zen untzi baten porroskak, sakeren alkiak puskatuak, arrauak hor hemenka legarraren gañean, lema bat, masta, soka batzu itsas bazterrean igeri. Gero ikusten ditu bi gizon. Batek adinekoa iduri zuen, bertzea, gazte izanagatik, Ulizen kidekoa zen. Han zuen haren eztitasuna, haren bekokia, haren haltura, haren ibiltze superra. Jainkosak ezagutu zuen Telemake zela, gizon handi haren semea, bainan, jainkoen ezagutza gizonena baino hainitz urrunago hedatzen den arren, ezin asmatu zuen nor zitakeien Telemakekin zen gizon espantagarri hura, zeren jainko handienek apalagoei nahi dituzten guziak gordetzen diotzaten, eta Minerba, zeinak Telemake laguntzen baitzuen Mentorren iduriaren azpian, etzuen Kalipzoz ezagutu izan nahi.

Bizkitartean, Kalipzo bozten zen estrapu batez zoinak bere irlan emaiten baitzioen Ulizen semea, hain bere aitaren iduria. Hurbiltzen da harengana, eta, alegia ez-jakin nor zen, erraiten dio:

— Nondik heldu zaitzu ene irlan leihorreratzeko aski atrebentzia? Jakin zazu, arrotz gaztea, ez dela ene erresumara nihor ausartatzen non ez den gaztigatua.



Ahal-bezenbat solas mehatxagari horietaz gordetzen zuen bihotze-ko bozkalentzia, zeina bere nahigabez ahurpegiari agertzen baitzaioen. Telemakek ihardetsi zioen:

— Oi zu, nornahi izan zitezin heriotzearen azpiko edo nausi, iduriaren arabera jainkosa batentzat baizen ezin hartua izanagatik, ez ote zare ukitua izanen seme baten dohakabetasunaz, zeinak bere aita haizeen eta itsasoen gogara billatzean, ikusi baitu bere untzia zure harkadien kontra porroskatua?

— Zein da bada billatzen duzun aita hura? —dio jainkosak.

— Ulize deitzen da —ihardesten du Telemakek—. Hamar urte iraun duen setio baten ondoan, Troiesko hiri famatua herraustu duten erregetarik bat da. Haren izena Grezia eta Asia guzian aipatua izan da, haren balentziaz guduetan, eta oraino gehiago haren zuhurtasunaz bilzarretan. Orai, itsasoen hedadura guzian erabilia, iragaiten ditu uhurperik lazgarrien guziak. Iduri du haren sor-lekuak ihes dabilala haren aintzinean. Penelopa haren emazteak eta nik haren semeak, haren berriz ikustea etsitu dugu. Hura jakin nahiz non den, haren lanyer berekin nabila. Bainan, zer diot? Menturaz orai itsasoetako leze izigarrien zolan hortzia dago. Urrikal zaite gure dohakabetasunei eta, oi jainkosa, balin badakizu Ulizen salbatzeko edo haren galtzeko dohamenek zer egin duten, otoi, jakintsun eragizu Telemake haren semea.

Espantitua Kalipzo eta ukitua ikusteaz hain gaztetasun handian hanbat zuhurtzia eta mintzatzeko dohain, etzezakeien begiak ase hari beha, eta bazagoen ixil-ixila. Azkenean erraiten dio:

— Telemake, ikasiren derautzugu zer gertatu zaion zure aitari. Bainan luze da kondatzeko. Zure neke guzietarik hats-hartzeko ordu da. Zato ene egoitzara. Han errezibituren zaitut ene semea bezala. Zato, izanen zare ene gozagarria leku bertze guzietarik aldaratu huntan, eta eginen dut zure zoriona baldin jakiten baduzu hartaz gozaten.

Telemake jarrikitzen zitzaioen jainkosari, ninfa gazte multzu batez inguratua, zeinen gainetik buru guziaz altxatzen baitzen, hala nola oiha-nean haritz handi batek bere adar lodiak heltzen baitu inguratzen duten zuhaitzen gainetik. (...)

Heltu ziren Kalipzoren egoitzako atera, zeinetan Telemake espantitu baitzen ikusteaz arrontasun baten itxuraren azpian begiak askies dezaketen guziak. Han etzen ezagun ez urre, ez zillar, ez marmola, ez harroñ, ez erretaula, ez gizon molde. Harpe hura gerendan argindua zen, bobedaka, denak harri pollit eta maxkorrez beteak; mahats gazte batek bere laira zaluak bardin alde guzietara hedatzen zituen. Haize amoltsuek, iguz-

kiaren erregariengatik leku hartan beiratzen zuten hozgune goxo bat. Amarantaz eta bioletez estali pentze batzu beheara azantz eme batekin zoazen iturri batzuek egiten zituzten asko lekutan mañha toki batzu briedioa bezen garbiak eta arrasoak. Mila lore sortu berriak hedatuak ziren harpe hura inguratzen zuten sorropil ferdetan. Han edireiten zen oiha bat urre sagarrak ekartzen dituzten zuhañ flokatsu hetaz egina, zeinen lorea tenore guzietan berritzen denak, berduratzen baitu usain guzietarik goxoena. Oihan harek iduri zuen sorro eder hek koroatzen zituela, eta egiten zuen ilhun bat iguzkiaren arraiok zilla ahal etzezaketena. Han etzen behin ere entzuten xorien kantua baizik, edo azantza, harroka baten gainetik zarrapoz beterik punpullaka erortzean egiten zuena ur-hox batek, zeinak pentzea barna ihes egiten baitzuen.

Kalipzoren harpea goihen baten ixurian zen. Hantik ezagun zen itsasoa, aldiz mirail bat bezain arrasoa eta bardina, aldiz zoro baten pare, harri peñen kontra muthiritua, zeinetan, bere tirainak mendiak bezala altxatuz, orroz lehertzen baitzen. Bertze alde batetarik ageri ziren hibai bat eta haren erdian irla batzu, tillul loratuz eta burzuntz luzez inguratuak, zoinen kapeta superrak altxatzen baitziren hodoietaraino. Irla hoik ibentzen zituzten ur-errekek iduri zuten elgian dostatzen zirela. Batzuek beren ur argiak lasterrekin botatzen zituzten, bertze batzuen ura hila eta nagia zen. Zonbait, inguru luze batzu gaindi, heldu ziren gibelat, beren ithurburura bihurtzeko bezala, eta etzuten iduri utz zeila hegi xarmagarri hek. Urruntik ezagun ziren goihen eta mendi batzu hodoietan galtzen zirenak eta zoinen bilgura pollitak begien mirengarri baitziren. Aldeko mendiak aihen ferdez estaliak ziren, bihurtuneka dilindan zaudenak. Mahatsa, purpura baiño distirantagoa, hostoan ezin gorde zaiten, eta bere fruituaz hondoa lehertua zen. Pikoak, mingranak, oliberak eta bertze zuhañ guziek elgia estaltzen zuten eta ibentzen baratze handi bat. Kalipzok Telemaki berenazko edergallu hoik erakutsi ondoan, erran zioen:

— Pausa zaite. Zure arropak bustiak dira, alda dezatzun ordu da. Gero berriz elkar ikusiren dugu, eta erranen deraitzut gauza batzu zoiñetaz zure bihotza ukituren baita.

Ordu berean Mentorrekiñ harpe baten lekuri barrenen eta gorde-renean, bere egoitzaren aldekoan sarrerazi zuen. Ninfek izan zuten arta toki hartan zedrezko egurrez bizteko su handi bat, zoinen usain goxoa alde guzietara hedatzen baitzen, eta arrotz berrientzat han berean utzi zituzten arropak.

Telemakek, ikusirik harentzat eman zutela xamar bat ile hautez egiña, zoiñak bere xuritasunaz elhurrarena ilhautzen baitzuen, eta purpu-



razko soñ bat urhez aihendatua, gizon gazte bati, hanbat berregintza ikusiz, berenaz heldu zaion atsegiña hartu zuen.

Boz ziñ batekiñ erran zioen Mentorrek:

— Oi Telemake, hoik direia bada Ulizen semearen bihotza bete behar duten gogoetak? Orhoit zaite hobeki ihardukitzeaz zure aitaren izena, eta garhaitzeaz zure toleian dabillan zoria. Neskatila baten pare apaindura zoro bat maite duen gizon gaztea ez da gai ez zuhurtziaz, ez omenez. Omena etzaio zor nahigabeen egartzen eta atsegiñen ostikatzen dakien bihotz bati baizen.

Hasgorapen batekiñ ihardetsi zuen Telemakek:

— Galaraz nezatela jainkoek nagikeria eta atsegiñak ene bihotzaz nausitzera utziren ditudan baiño lehen. Ez, ez, Ulizen semea ez da behiñere bentzutua izanen bizitze bano, faun eta guri baten gozoez. Baiñan zer zeruko laguntzaz, gure zorigaitzaren ondotik, ediren dugu ongiz betetzen gaituen jainkosa edo emakume hori?

Mentorrek erran zioen:

— Beldurti zaitezi ondikoz etzaitzan galka. Zure untzia porroskatu duten harkadientzat baiño beldurrago izan zaitezi horren lausengu enganagarrirentzat. Begira duzula siñestetik ihardukiko derauzkitzun elheak. Gaztetasuna ariñki fidatzen da eta geroari behatu gabe. Begira duzula entzutetik Kalipzoren solas ezti eta lausengariak, zeñak lerraturen baitzaizkitzu hala nola suge bat lilipetan. Posoñ gorde haren beldur izan zaitezi. Etzaitzezila fida zure buruari eta zaude bethi nere erran onen begira.

Orduan itzuli ziren Kalipzoren gana, zeñak igurikitzen baitzitu. Ninfek, ileak bihurguneka moldatuak eta arropa xuritan, berehala zerbitzatu zuten ontuntza bat arronta baiñan hauta gozoaren eta garbitasunaren aldetik. Han etzen ikusten bertze haragirik saretan atzaman zituzten hegastiñena baizen, edo ihizian hil zituzten aziendena. Zilhar untzi handi batzuetarik ixurtzen zuten urhezko xata lorez khoroatu batzuetara arno bat jainkoen edaria baiño eztiagoa. Saskietan ekarri zituzten Udaberriak agiñtzen eta Udazkenak lurraren gaiñera berduratzen dituen fruitu guzietarik. Ordu berean lau ninfa gazte kantuz abiatu ziren. Lehenik kantatu zuten jainkoen gudua diganteen kontra (...), gero Bakuzen sortzea eta hura Zilene zaharrak altxatu zuen moldea. Atalanten lasterra Ipomenekiñ, zeñak bentzutu baitzuen Ezperidetako barzetetik jenikako urhe sagarren medioz. Azkenean, kantatua ere izan zen Troiesko gerla. Ulizen guduak eta haren zuhurtzia zeruetaraiño handietsiak izan ziren. Lokotoe, ninfetarik lehenbizikoak, bertzen boz eztei baltsatu zuen bere arrabitaren soñua.

Telemakek entzun zuenean bere aitaren izena, matelak behera jautsi zitzaizkon nigarrek dirdira berri bat eman zioten haren edertasunari. Baiñan, nola Kalipzo ohartu baitzen etzezakeiela jan eta bihotz-miñ batek tinkatu zuela, kheñu egiñ zioten ninfei. Berehala kantatua izan zen Lapiten eta Zantoren gudua, eta Ifernuetara Orfek egiñ izan zuen jauspena hantik Uridizen atharatzeko.

Ontuntza akabatu zenean, Kalipzok aldarazi zuen Telemake eta huneletan mintzatu zitzaioen:

— Ulize handiaren semea, ikusten duzu zer begitarerekiñ errezi-bitzen zaitudan. Herioak ez du nere gaiñean eskurik eta nehor haren azpiko denik ez daite sar irla huntan non ez den bere atrebentziaz gaztigatua, eta zure estrapuak berak, etziñtzazke nere aiherkudeari geriza, bertzenaz ez baziñdut maite. Zuk duzun zorion bera izatu du zure aitak. Oi! baiñan ez du hartaz baliatzen jakiñdu. Luzez irla huntan begiratu izan dut. Bere baitan zuen hemen nerekiñ bizitzea herioaren beldurrik gabe, baiñan, bere sor-leku erromesera bihurtzeko lehia itsuak, ontasun hauk guziak utzarazi izan zioizkien. Ikusten duzu zer galdu duen berriz eziñ ikusi izan duen Itaka harentzat. Nahi izan niñduen utzi, goan zen, eta kalerna pesiak aspertu niñduen. Haren untzia, haizeen dostarkulu luzez ibili ondoan, itsasoaren zolara hondatua izan zen. Balia zaitezi hanbat zorigaitz ikusgarriaz. Haren nofraiaz geroz ez duzu zeren gehiago deusere iguriki, ez haren berriz ikusteko, ez eta ere haren ondotik Itakan erregiñatzeko. Haren galtzeaz sosegu hartzazu, hemen edireiten duzunaz geroz dohatsu eragiñ nahi zaituen jainkosa bat eta erresuma bat eskeiñtzen derautzuna.

Kalipzok erabilli ziotzan oraiño bertze asko solas, erakustera emaiteko zenbatetaraiñoko zorionaz Ulize gozatu izan zen haren aldean. Erran ziotzan haren gertakuntzak Polifeme Tartaroaren harpean eta Antifate, lestrigondarren erregearen baitan, ahantzi ere gabe zer gertatu zitzaioen Zirze Iguzkiaren alabaren irlan, eta zer hesturetan izan zen Zila eta Kariben artean. Erran zuen zer pesia Neptunek azkenean bihurtu izan zuen handik goan zenean. Nahi izan zuen adiarazi nofraia hartan galdu izan zela, eta etzuen erran nola feaziendarren irlan leihor hartu izan zuen.

Telemakek, zeñak bere burua lasterregi utzi baitzuen Kalipzoz haiñ ongi ekarria izaiteko atsegiñari, ezagutu zuen azkenean haren amarrua eta Mentorren erranen zuhurtzia. Laburzki ihardetsi zuen:

— Oi jainkosa, barkazazu ene atsekabeari. Orai erdira baizen ez naitete. Geroxago, behar bada, izanen dut eskeiñtzen derautazun zorionaren dastatzeko indar gehiago. Orai utz nazazu ene aitaz nigar egitera. Zenbat duen merezi nik baiño hobeki badakizu.



Kalipzo etzen orduan haren gehiago behartzera menturatu. Egiñ ere zuen haren atsekabean sartzeko itxurapen bat, eta Ulizentzat urrikaltzeara, baiñan hobeki ezagutzeagatik gizon gaztearen bihotzeko bideak, galdata zioen heia nola egiñ zuen nofraia eta zer gertakuntzaz edireiten zen aurkintze hetan.

— Ene dohakabetasunen kondagailua luzegia leiteke.

— Ez, ez —ihardetsi zuen Kalipzok—. Berantzen zaut heien jakitea, konda daiztadatzu lehen bai lehen.

Luzez behartu zuen jainkosak. Azkenekotz Telemakek eziñ ihardu zioen gehiago, eta huneletan miñtzatu zen:

— Itaka utzi nuen galdegitera goateko nere aitaren berriak Troiesko hiriaren sethioetik itzuli izan ziren bertze erregeei. (...) Ez Neztor, Pilozen ikusi nuenak, ez Menelaz, begitarerekiñ errezi bitu niñduenak Lazedemonan, eziñ erran zarotedaten heia oraño bizi zenetz nere aita. Bethi duda eta menturretan bizitzea higuñdurik, Ziziliara goateko xedea hartu nuen. Entzun nuen irla hartara haizeek bulkatu izan zutela nere aita, baiñan, hemen ikusten duzuen Mentor zuhurrak, jazar egiten zioen hola-ko gogoeta ozarrari. Alde batetik, begietaritzen zerauzkidan Tartaroak, digante izigarri batzu gizonak iresten dituztenak; bertzetik, Eneren eta troiestarren untziak epaitza hetan zabiltzanak. «troiestarrak —zioen—, grek guzien kontra subermatuak dira, baiñan orenen gainetik, Ulizen semearen odola gogotik ixur lezakete. Itzul zaitezi Itakara, —zioen oraño—. Menturaz zure aita, jainkoez maitatua, zu bezaiñ laster harako da. Baiñan, baldiñ jainkoez haren galtzapena dohatu badute, bere sorlekua berriz behiñere ez baliñbadu ikusi behar, haren aspertzera bederen goan behar duzu, zure amaren libratzera, lur guziari erakustera zure zuhurtasuna eta zure baitan, Grezia guziari, errege bat Ulize bera egundaiño izatu den bezen gaia».

Solas horiek etziren galgarriak, bainan ez nuen aski umotasun heien entzuteko. Ene lehia baizen ez nuen entzun izan. Mentor zuhurrak maitatu ninduen niri jarraikitzeraino haren erranen kontra abiatzen nuen piaia atrebitu hartan, eta jainkoez huts baten egitera utzi ninduzten, zeina ene balenoriotik zentzarazteko zerbitzatu behar baitzaudan.

Telemake mintzo zelarik, Kalipzo Mentorri beha zagoen. Balditua zen. Zerbait jainkozko haren baitan iduritzen zitzaioen, bainan bere gogoeta nahasiak etzetzakeien berez. Holetan gelditzen zen beldurkude eta aiheruz bethea arrotz haren aintzinean. Orduan beldurtu zen agertzera utzezazan bere asaldua. Telemaki erran zioen:

— Aintzina mintza zaite, eta askies-zazu ene jakiteko lehia.

Telemake huneletan jarraiki zen:

— Aski luzez, alde izan ginduen haizea Ziziliara goateko, bainan gero kalerna beltz batek zerua itzali zeraukun eta gau ilhun batez inguratuak izan ginen. Sismisten argira, ikusi gintuen bertze untzi batzu gure hestura berean sartuak, eta laster ezagutu gintuen Eneren untziak zirela. Guretzat etziren harkadiak baino gutiago beldur izaiteko. Orduan, bainan berantegi, ohartu nintzen gaztetan zoro baten berotasunak zer ez ninduen utzi behatuki ikartzera. Hestura hartan, Mentor agertu zen ez xoilki bihotzdun eta kaliputsua, bainan ardura baino alegerago. Hunek sustatzen ninduen. Ohartzen nintzen ezin bentzutuzko indar bat ibentzen zerautala. Deskantsuz manu guziak emaiten zituen, noiz eta ere lema idukitzailea asaldatua baitzagoen. Erraiten nioen:

— Ene Mentor maitea, zertako ez ote dut nahi izan zure erranei behatu? Ez ote naiz dohakabe nere burua baizen ez dudalakotz nahi izan sinetsi, adin batean zoinetan ez baita ez ethorkizunaz konturik, ez iraganaren frogantzarik, ez zuhurtziarik ordu berekoaren begiratzeko? Oi, baldinetaria behin ere hestura huntarik ilkitzen bagare, nere buruarentzat izanen naiz aiherutsu, nere etsairik gaitzenarentzat bezala. Mentor, zu sinetsiren zaitut bethi.

Iri aire batekin ihardetsi zerautan Mentorrek:

— Begira dut egin duzun hutsaz zuri jazartzetik. Hura ezagut dezazun aski da eta hartaz zerbitza zaitezin bertze aldi batez zure nahikarietan begiratuagoa izaiteko. Bainan hesturatik ilki ondoan, balenoria menturaz itzuliren da. Orai bihotzak behar gaitu lagundu. Hesturan sartu gabe behar da hura ikusi eta haren beldur izan, bainan han eroria denean, hartaz nardatu behar da. Izan zaite beraz Ulizen seme gaia. Agerrazu bihotz bat mehatxatzen zaituzten gaitz guziak baino handiagoa.

Mentor zuhurraren ezitasunak eta bihotzak ukitu ninduten, bainan oraino gehiago espantitu nintzen ikusi nuenean zer asmurekin troiestarretarik salbatu gaintuen. Noiz-eta-ere zerua garbitzen abiatu baitzen, eta troiestarrek, hurbildanik ikustean, ezin falta ezagutuko baikintuzten, ohartu izan zen heien untzi bat gurearen karantzakoa pesiak apartatu zuela. Haren gibela lore mota batzuz khoroatua zen. Berehala Mentorrek, gurean ezarri zituen lore mota berezko khoroak, berak lotu zituen, troiestarrenen kara bereko xingolez. Manatu zuen gure sakerei ahal bezenbat alkien gainera apal zitezien, etsaiek ezagut etzetzaten amoreagatik. Hola, heien untzien erditik iragan ginen. Gu ikustearekin irrintzinaz abiatu ziren, galduak uste izan zituzten lagun batzu ikusten balituzte bezala. Itsasoaren oldarrak bortxatu ere gaintuen aski luzez heiekin ibiltzera.



Azkenean egon ginen gibelaxago, eta haize muthiriek Afrikako aldera bulkatzen zituztelarik, Ziziliako bazterrik hurbilenera arrau indarka heltzeko, azken egin ahalez bermatu ginen.

Nahi bezala hara heldu izan ginen, bainan guk bilhatzen ginduen etzen hanbat gutiago ondikozkoa ihes eragiten zeraukuten untziak baino. Ziziliako aurkintze hetan ediren gintuen bertze troiestar batzu, greken etsaiak. Han erreginatzen zen Azezte zaharra, Troiestik atharaia. Leihor hartu izan ginuen bezain laster, hango berekoek uste izan zuten, heien oharkabean harrapatzeko harmaturik heldu zen irlako bertze zenbait jendaia ginela, edo arrotz batzu heien lurrez nausitzera heldu ginenak. Erretzen dute gure untzia, eta lehenbiziko oldarrean, gure lagun guziak sarraskitzen dituzte. Ez gaituzte ni eta Mentor baizik begiratzeko, Azezten aintzineran eramaiteko, gure ganik jakintsun eragin ahal zedin amoreagatik, heia zer ziren gure xedeak eta nontik heldu ginen. Hirian sartzen gara eskuak giblean amarratuak eta gure herioa etzen luzatua gu jendaia krudel bati ikusgarritzat zerbitzatzeko baizen, grekak ginela jakinen zenean.

Lehenik eraman gaintuzten Azezten aintzineran, zoina, bere urhe zigorra eskuan, populuen juiatzen hari baitzen eta sakrifizio handi batetako abiaduretan. Boz garratz batekin galdatu zeraukun heia zein zen gure herria eta zertako egiten ginduen piaia hura. Mentorrek ihardetsi zuen berehala, erraiten ziolarik:

— Ezperia handiko bazterretarik heldu gare eta gure herria ez da hantik urrun.

Hola, begiratu zen erraitetik grekak ginela. Bainan Azeztek, hau gehiago entzun gabe, ustez beren xedeak gordetzen dituzten zenbait arrotz ginela, manatu zuen egorriak izan gaintezin hurbileko oihan batetara, zeintan zerbitzaturen baikin gathibu bezala haren artzainen azpian.

Holako bizitze bat heriotzea baino dorpeagoa iduritu zitzaudan. Oihu egin nuen:

— Oi Errege! hilaraz gaitzatu hanbat eskarniagarriki erabiliren gaituzun baino lehen. Jakin zazu Telemake naizela, Ulize zuhurra, Itakako erregearen semea. Itsaso guzietan bilhatzen dut nere aita. Baldin ez badezakat ez hura ediren, eta ez banaite nere herrirat itzul, ez gathibutasunari ihes egin, ezin jasanen dudan bizi hau idek derautazu.

Hitz horiek ahotik athara bezain laster, oste guzia sumindurik oihuz abiatu zen hilarazi behar zela Ulize krudelaren semea, zeren Ulizek bere amarru gaixtoez eragoitzi izan baitzuen Troiesko hiria.

— Oi Ulizen semea! — erran zerautan Azeztek—, zure odola ez dirot ezezta hanbat troiestarren orhoitzapenari, zeinak zure aitak Kozite beltzaren bazterretara bulkatu baititu. Zu eta zu laguntzen zaituena, biak galduren zarete.

Ordu berean, osetikzahar batek erran zioen Ankizen hobiaren gainean hiltzera behar gintuzketela eraman, ziolarik:

— Hoi odolak gizon handi haren itzalari eginen dio atsegin. Hori jakiten duenean Enek berak, ukitua izanen da ikusteaz zenbat maite zinuen berak gehienik lurraren gainean maite zuena.

Oihu batez orok laudatu zuten solas hori, eta etziren gehiago gure heriotzeaz baizen alhatu. Jadanik Ankizen hobira eramaten gaintuzten. Han altxatuak ziren bi aldare, zoinetan su sakratua biztua baitzen. Begien aintzinean ginduen sarraskitu behar gaintuen marrauz. Lorez khorozatu gaintuzten, eta gure bizia begira zezakeien urrikalmendurik etzen. Gureak egin zuen, Mentorrek deskantsuki galdatu zuenean erregeri mintzatzea. Erran zioen:

— Oi Azezte! Telemake gaztearen dohakabetasunak, zeinak ez baitu behin ere troiestarren kontra harmarik ekarri izan, ez balin bazezake uki, nonbait zure onak berak uki zeitza. Ethorkizunaren eta jainkoen gogoen ezagutzeko bildu dudak jakintasunak erakusten deraut, hirur egun iragan gabe, akometaturen zaituztela jendaia barbaro batzuek, zoinak, hibai baten pare, mendi gainetarik heldu baitira zure hirian inhautzeko eta zure lurren arrogatzeko. Lehen bai lehen aintzin zakitzote. Zure gizonak harmetan ezarzkitzu eta astirik galdu gabe, hirira bilarazkitzu elgian dituzun artalde aberatsak. Baldin nere erranak gezurak badira, gure hilaraztea, hirur egunen buruan, haizu izanen zerautzu. Aitzitik, egiak balin badira, orhoit zaitezi ez dela nehoi bizia khendu behar, zoinaren ganik bat bederak idukitzen baitu.

Azezte harritu zen hitz horietaz, zeinak Mentorrek erran baitzioizkien egundaino gizon batean ediren etzuen zintasun batekin. Ihardetsi zioen:

— Ikusten dut, oi arrotza, jainkoek, zeinek zoriaren emaitza guziez hanbat gaizki dohatu baitzaituzte, zuhurtzia bat eman derautzutela dohatzutasun guziak baino prezagarriagoa dena.

Ordu berean gibelatu zuen sakrifizioa eta eman zituen berehala premia ziren manu guziak, Mentorrek mehatxatu zioen akometazioneari aintzintzeko. Nihondik etzen ageri ema ikaran zaudenik baizen, gizon zahar makurtuak, haur ttipiak nigarra begian hirira heldu zirenak. Idiak eta ardiak orroaz multzuka heldu ziren alhapide gizenetarik, eta, aterpean jar-



tzeko, heirik aski etzezaketan ediren. Alde guzietarik etzen oihurik baizen, jendeak elkarri sorka, elkar adi etzezaketanak, nahastura hartan arrotz bat adiskide batentzat hartzen zutenak, eta lasterka zabiltzanak jakin gabe nora zoazen. Bainan hiriko lehenbizikoak, beren buruak ustez bertzeak baino zuhurragoak, iduritzen zitzioten enganatzaile bat zela Mentor bere biziaren begiratzeko gezur bat asmatu zuena.

Hirugarren eguna erori gabe, holako gogoetaz betheak zaudelarik, agertu zen mendien mazelan herrauts zirimola bat, eta gero barbaro harmatuzko oste ezin kondatu bat. Himeriendarrak ziren, jendaia krudela, Nebrodeseko mendietan daudenekin eta Akragasen bizkarrean, zeintan irauten baitu negu batek haize epelek egundaino gozatu ez dutena. Mentorren erranez irri egin zutenek, galdu zituzten beren gathibuak eta beren artaldeak. Erregek Mentorri erran zioen:

— Ahanzten dut grekak zaretela. Gure etsaiak gure adiskide zin bilhakutzen dira. Jainkoek gure begiratzeko egorri zaituzte. Zure balentzia-tik ez dut zure erranen zuhurtasunetik baino gutiago igurikitzen. Gure laguntzara laster egizue.

Mentorrek begietan erakusten du larderia bat gudularirik superrenak harritzen dituen. Hartzen du erredola, kaska, ezpata eta lantza. Lerrokatzen ditu Azezten soldadoak, heien buruan eta etsaiei hurbiltzen da nahasmendurik gabe. Azezte, nahiz bihotzez bethea, bere zahartasunean etzakiokeien jarraik urrundarik baizen. Ni hurbilago danik jarraikitzen natzaio, bainan ezin higual dezaket haren balentzia. Guduan, hunen kuirazak Minerbaren bethiereko Egida iduri zuen. Lerrotik lerrora heriotzea guzietan bazabilan hunen ukaldien azpian. Gose krudelak toleiatzen duen Numidiako lehoin baten pare, eta ardi herbalezko artalde batean sartzen dena, porroskatzen du, sarraskitzen du, odolean igerikatzen da, eta artzainak, urrun artaldearen laguntzetik, ihes egiten dute, haren errabiatik beren buruen begiratzeko.

Barbaroak, zeinak igurikitzen baitziren hiriaren gainera oharkabean erortzera, berak ohartu gabe atzamanak izan ziren eta asaldatuak. Azezten soldadoak, Mentorren manuez eta egintzez sustatuak, indar bat beren buruak gai idukitzen etzutena erakutsi zuten. Ene lantzaz ardiki nuen etsaietako erregearen semea. Ene adinekoa zen, bainan handiagoa ni baino, ezen jendaia hura digante kasta batetarik heldu zen, zeinek Tartaroen ethorki bera baitzuten. Nardatzen zen etsai batez ni bezain herbalaz, bainan, ez haren indar ikaragarriaz, ez haren bekunde dorpe eta basaz harritu gabe, haren bulharretara bulkatu nuen nere lantza, eta hatsarekin batean, goiti eragin niotzan odol beltz batetarik hibaiak. Lehertz

ninduen erortzean, eta haren harmen harrabotsak mendietaraino iharde-tsi zuen. Haren despuilak harturik Azezten gana itzuli nintzen. Mentorrek arras nahasi ondoan etsaiak, sarraskitu zituen, eta ihes egin zutenak oiha-netaraino bulkatu.

Hanbat guti igurikia zen garhaitzia batek iraganarazi zuen Mentor jainkoek maite eta usnatzen duten gizon batentzat. Azeztek, ezagutzaz ukitua, abisatu gaintuen guretzat zer-nahi-denen beldur zela, baldin Eneren untiak Ziziliara bihurtzen baziren. Bat eman zeraukun berak, ordurik galdu gabe gure herrira itzultzeko. Dohainez gaintu gaintuen, eta lehen bai lehen abia gintezin othoiztu, amoreagatik beldur zen ondiko guziei aintzin gaintezin. Bainan ez lema idukitzailerik, ez sakerik etze-raukun eman nahikatu, heientzat sobra hirrisku izanen zelakoan Greziako bazterretan. Eman zerauzkigun Feniziako tratulari batzu, zeinak, lurreko jendaia guziekin tratutan zirelakotz, deusen beldur izaitekorik ez baitzuten, eta heiek, gu Itakan utzi ondoan, Azezteri behar zioten bihurtu bere untzia.

Bainan jainkoek, gizonen gogoetaz dostatzen direnek, bertze hestura batzuei begiratzeko gaintuzten.

#### LEHENBIZIKO LIBURUAREN AKABANTZA



## BIGARREN LIBURUA

Tiriendarrek, beren supertasunaz, sumintarazi zuten Zezoztriz handia, Egiptoko erregea, hanbat erresumez nausitu izan zena. Tratuan bildu dituzten aberastasunek eta itsasoaren erdian jarria den Tirreko hiri ezin hartuaren bortiztasunak, hantu zuten jendaia heien bihotza. Etzuten nahi izan pagatu Zezoztrizek bere garhaizietarik heldu zenean ibendu izan zioten zerga, eta tropaz lagundu izan zuten haren anaia, zeinak, gibelat itzuli zenean bazkari handi baten bozkalentzien erdian nahi izan baitzuen sarraskitu.

Heien balenorioaren zebatzekotzat, Zezoztrizek itsaso guzietan heien tratuaren trabatzeko gogoia hartu zuen. Haren untziak alde guzietara bazabiltzan feniziendarren bilha. Buruz buru egin ginduen Egiptoko unti hetarik multzu batekin, Ziziliako mendiak begietarik galtzen abiatu ginenean. Lurrak eta portuak iduri zuten ihes zoazela gure gibelean eta hodoietan iraungitzen zirela. Ordu berean hurbiltzen ikusten ditugu Egiptoko untiak, uraren erdian igeri dabiJan hiri bat iduri. Ezagutu zituzten feniziendarrek eta nahi izan zuten hetarik urrundu, baina etzen gehiago muga. Heien belak gureak baino hobeak ziren. Alde zuten haizea. Gu baino saker gehiago zuten. Heltzen zaizku, hartzen gaituzte eta Egiptora preso eramaten.

Alferretan erran nioten ez ginela feniziendarrak. Doidoia jautsi ziren ene aditzeraino. Feniziendarrek tratu egiten duten zenbait gathibu ginela uste izan zuten, eta halako hartzapenetik izanen zuten irabaziaz baizen etziren alha. Jadanik ohartzen gare Nileko uren nahastekaz zuritzen dela itsasoa, eta ikusten dugu Egiptoko hegia hurren itsasoa bera bezain apala. Gero Farozeko irlara heltzen gare, Noa hiriari hurbil dena. Hantik igaiten gare Nilaz Menfizeraino.

Gure gathibutasuneko lastimak ez balin bagintu atsegin guziei sorhaitu, bozturen ziren gure begiak Egiptoko lur aberatsa ikusteaz, baratze atsegingarri baten pare, oro ixtunez arregatua. Bazterretara ez ginezakeien begira ikusi gabe hiri aberatsak, bazter-etxeak leku atsegin batzuetan jarriak, alhorrak, behin ere pausatu gabe, urhea bezain horiko uztaz urthe oroz estaltzen zirenak. Sorroak artaldez betheak, laborariak leher-tuak lurrak bere sabeletik frangatzen dituen azpian, artzain batzuek inguruetako oiharzunei ihardetsarazten zuztenak bere xirula eta xaramelen soinu ozenak.

Mentorrek erraiten zuen:

— Nonbait dohatsua, errege zuhur batek manatzen duen populua! Nasaizian eta zorionean bizi da, eta bere dohatsutasuna zor dion hura maite du. Oi Telemake, —zioen oraino—, hola erreginatu behar duzu, eta zure azpikoen boskarioa egin, baldin egun batez jainkoek zure aitaren erresuma gozarazten baderautzute. Maita zaitzu zure azpikoak, hala nola zure haurrak. Dastazazu hetaz maitatua izaiteko atsegina, eta hanbat egizu non behin ere ezin goza ahal ditezin ez bozkarioz, ez bakeaz, orhoitu gabe errege on bati zor diotzatela emaitza balios hek. Beren buruak larderietan ezartzeaz baizen alha ez diren erregeak eta bere azpikoen zebatzaz, bentzutuagoak idukitzeagatik, jendekiaren izurriak dira. Berek nahi bezala lotsagarri dira, baina higuin eta gaitzetsiak ere, eta beren azpikoen zebatzaz beldurrago izaiteko dute ezenetz azpikoek heientzat.

Ihardesten nuen Mentorri:

— Zorigaitzaren handia! Ez dugu zer orhoitu siñestez zoinen arabera behar baita erreginatu. Ez da gehiago Itakarik guretzat. Ez dugu berriz behin ere ikusiren ez gure sor-lekua, ez Penelopa, eta Ulize ospe handi batez inguraturik bere erresumara bihurtzen balitz ere, ez du behin ere ene han ikusteko bozkalentziarik izaturen. Ez dut behin ere izaturen haren manuen betetzeko atsegina nerorrek manatzen ikas dezadan. Hil gaitezin, ene Mentor maitea, hemendik aintzina ez dugu zeren bertze gogoetz alha. Gaitezin hil, gutaz jainkoek urrikalmendurik ez dutenaz geroztik.

Hola mintzatzean, has beherapen luze batzuek trenkatzen zituzten ene solas guziak. Baina Mentor gaitzen beldur izaiten zena jen zitezin aintzinean, etorritz geroz etzakien zer zen heien beldur izaita.

— Oi Ulize zuhurraren seme guti gaia! —zioen—. Zer bada! Zure zorigaitzari amor egiten diozu! Jakin zazu, egun batez, Penelopa eta Itaka berriz ikusiren dituzula. Ikusiren ere duzu bere lehenbiziko ospean eza-gutu ez duzun hura, ezin bentzutuzko Ulize, zoriak ezin zeba diron hura, eta zeinak bere ondikoetan, zureak baino handiagoak, oraino erakasten baiterautzu nola nahi etsiaren gaitzesten. Oi! jakin ahal baleza pesiak bulkatu duen leku apartetan, ez haren pairakortasunari, ez haren bihotzari jarraitzen ez dakielako haren semeak, berri horrek ahalkez urtaraz lezake, eta hain aspaldidanik egartzen dituen dohakabetasun guziak baino garraztagoa leikioko.

Gero Mentorrek ohartarazten ninduen zer bozkarioa eta nasaizia hedatuak ziren Egiptoko elgi guzian, zeinetan edireiten baitzen hogoi eta bi mila hiritaraino. Espantitzen zen hiri hetako manamendu zuhurrez;





aberatsaren kontra beharraren alderako zuzentasunaz, haurren altxatzeko molde onaz, zeinak amorrari, lanari, askiestasunari, antze eta jakitaten amodioari laketarazten baitzituzten; erlijoneko zirimonia guzien alderako zorrotasunaz; zuzentasunaz, ohore lehiaz, gizonen alderako zintasunaz, eta jainkoen beldurkundeaz, aita bakotzak bere umei sarrarazten ziotzaten. Manu eder hortaz espantitzeaz etzen unhatzen. Erraiten zaudan bethi:

— Zorion, errege zuhur batek hola manatzen duen populuari! Bainan oraino dohatsua go hanbat populuen zoriona egiten duen erregea eta zoinak berea prestutasunean edireiten baitu! Gizonak idukitzen ditu beldurkundearena baino ehun aldiz bortitzagoa den estekaz, zeina baita amodioarena. Ez xoilki haren manuak bethetzen dituzte, bainan oraino maite dute heien bethatzea. Bihotz guzietan erreginatzen da. Bakotzak, urrun hartaz gabetzetik lehiatzeaz, beldur da hura gal, eta harentzat eman lezake bere bizia.

Entzuten nintuen Mentorren solasak, eta, adiskide zuhur hura mintzo zaudanaren ereduraz usnatzen nuen kalipua ene bihotzaren zolan atzartzen zela.

Heltu ginen bezain sarri Menfizera, hiri aberats eta ederra, hango buruzagiak Tebezeraino goanen ginela manatu zuen, errege Zezoztrizen aintzina, zeinak nahi baitzituen berak ikartu gauzak eta tirindarren alderat hainitz sumindua baitzen. Oraino beraz, Nilaz igan ginen ehun athetako Tebes deitatu hartaraino. Han egoten zen errege handi hura. Eremita izigarrikoa iduritu zitzaizkion hiri hura eta Greziako freitosenak baino jendeztatuagoa. Han karriken garbitasunarentzat, uren, mainhuen errextasunaren, antzeen ikaskuntzaren, eta deskantsuarentzat, manurik hoberenak dira. Plazak ithurriz eta obelizkaz berreginduak dira. Tenploak marmola harriz dira eta argindura laño bainan misegarri batez. Erregeren jauregia bera hiri handi baten pare da: ez da han ageri marmolazko harroin, piramida, obelizka, gizon molde ikaragarri eta tresna urhe eta zilharrezko baizen.

Erregeri erran zioten gure atzamailek Feniziako untzi batean aurkitu gaituztela. Egun guziez oren ber batzuetan, entzuten zituen zerbait arrankura edo mesu egin nahi zioten guziak. Etzuen nehor arbuaitzen ez eta ere esker gaixtorik emaiten, eta etzuen uste errege zela ongi egiteko baizen bere azpiko guziei, zeinak bere haurrak bezala maite baitzituen. Begitarte ona egiten zioten arrotzei, eta nahi zituen ikusi, zeren uste baitzuen beti zerbait probetxagarri ikasten dela urruneko populuen aztuz eta errantzez jakintsun egitean.

Erregeren lehia horren gatik, eramanak izan ginen haren aintzina. Urhe zigor bat eskuan, iberazko tronu baten gainean jarria zagoen. Ordukoz zahartua zen, bainan atsegina eta ezintasunez eta maiestatzet betha. Egun oroz populuak juiatzen zituen pairakortasun eta zuhurtzia batekin, lausengurik gabe espantagarriak. Goizetik arrats egitekoen xuxentzen eta justizia zorrotz baten emaiten haizan ondoan, arratsean haren abusamendua zen gizon jakintsunen entzutea edo behar den bezalako jendekin eleztatzea, zeinak bere xehetasunean sarrarazteko ongi berezten baitzakien. Haren bizi guzian etzitatekin bertze goibelduririk ediren, sobra balenoriorekin, garhaitu zituen erregez trionfatu zela baitzen, eta fidatu bere azpiko gizon bati berehala erakatsiren derautzutedana. Ikusi ninduenean, ene gaztetasunaz ukitua izan zen. Galdegin zerauzkidan ene izena eta ene sor-lekua. Espantituak izan ginen haren ahotik mintzo zen zuhurtzia.

Ihardetsi nioen:

— Oi errege handia! Jankintsun zira hamar urte iraun duen Troiesko sethioaz eta haren funditzeaz hanbat odol Greziari gusta denaz. Hiri hura herrastu duten errege aintzindarietarik bat izan da Ulize ene aita. Itsaso guzien hedadura Itakako irla, bere erresuma, ezin edirenez dabil. Haren bilha nabila, eta gisa bereko zorigaitz batez atzamana izan naiz. Bihur nazazu nere sor-lekuari eta nere aitari. Higual, nonbait jainkoek begiraturen ahal zaituzte zure haurrei, eta gozaraziren ahal diote hanbat aita onaren azpian bizitzeko atsegina!

Urrikalmenduzko begi batez beha zaudan Zezoztriz, bainan heia ene erranak egiak ziren jakin nahiz, egorri izan gaintuen bere azpiko aintzindari bati, zeinak jakin behar baitzuen gure untzi atzaman zutenetarik, heia zinez grekak ala feniziendarrak ote ginen. Erregek erran zuen:

— Baldin feniziendarrak badira, bi aldiz gaztigatu behar dira, gure etsaiak direlakotz, eta oraino gehiago gezur tzar batez nahi izan gaituztelakotz enganatu. Aitzitik grekak balin badira, ongi erabiliak izan ditezin nahi dut, eta ene untzi batean beren sorlekura egorriak, ezen Grezia maite dut. Han egiptoar batek baino gehiagok legeak eman izan dituzte. Ezagutzen dut Herkulan bertutea; gutaino heldu izan da Achilen ospea; eta espantitua nago Ulize dohakabearen zuhurtzia. Bertute dohakabeari laguntza emaita da nere atsegina.

Zenbatenaz Zezoztriz zinago eta bizarrago baitzen, hanbatenaz barnea gaixto eta amarrutsuagoa zuen, erregeren manuz, gure egitekoaren ikarkuntza zuen gizonak. Aintzindari hura Metofiz deitzen zen. Bi hitzetan ediren nahiz, asko galde egin zeraukun, eta nola ikusten baitzuen



Mentorrek nik baino zuhurtasun gehiagorekin ihardesten zuela, higuintza eta idurikortasunekin behatu izan zioen, ezen gaixtaginak onen aldera sumintzen dira. Berezi gaintuzten, eta ordutik ez nuen jakin zer bilhakatu zen Mentor.

Berezikuntza hori ortziri kolpe bat izan zen enetzat. Galdeak guri bereziki eginez, hitz makurretan erorarazteko peskiza zuen bethi Metofizek. Oroz gainetik uste ninduen bere agintza balakariez liluraz, eta aitorraraz Mentorrek gordetzen zioketena. Hitz batez, etzuen egia zintasunean bilhatzen, bainan zerbait estakuru nahi zukeien erregeri erraiteko feniziendarrak ginela eta bere gatibu egiteko, eta hogendun ezkinen arren, eta errege umoa zen arren, ediren zuen haren enganatzeko bidea.

Oi zorigaitza! Zeren menturan diren erregeak! Zuhurrenak berak ardua dira enganatuak. Gizon amarrutsu eta diru gosez inguratuak daude. Onak gibela doazi, zeren ez baitira ez balakari, ez lausengatzaile artosak. Onak bilhatuak izan arteo daude, eta erregeek ez dakite hanbat heien bilha goaten. Aitzitik gaixtaginak ausart dira, enganatzaile, beren buruen onhetsarazteko eta atsegin egitera artos; gordetzen amutsu, ohorearen eta kontzientziaren axolik gabe, zernahidenean egitera abian, erregeen lehiak askiesteko. Nonbait dohakabe dela errege bat gaixtaginen amarruen menturan izaitiaz! Galdua da lausengua ez balin badu arbuia-tzen, eta ausarki egia erraiten diotenak ez balin baditu maite. Horra zer gogoeta nabilan ene zorigaitzean, eta Mentorri entzun guziez orhoitzen nintzen.

Bizkitartean, Metofizek bere gatibuekin Oazizeko mortuko mendietara egorri ninduen, heikin zaint netzan haren artalde handiak.

Hemen Kalipzok trikarazi zuen Telemake, erraiten ziolarik:

— Zer egin zinduen orduan zuk, Zizilian herioa gatibutasunari hautatu izan zinduen?

Telemakek ihardetsi zuen:

— Bethi handituz zohan ene zorigaitza. Ez nuen gehiago heriotzearen eta gatibutasunaren artean hautatzeko atsegin lastimatia. Gatibu izan behar zen, eta, hala erraiteko, zoriaren garratzasun guziak ahitu. Etzitzaudan gehiago peskizarik den gutiena gelditzen, eta ez nezakeien ere hitz bat erran ene libratzera destatzeko. Mentorrek geroztik erran deraut etiopiar batzuei saldua izan zela eta heiei Etiopiara jarraiki zitzaioleta.

Ni mortu izigarri batzuetara heltu izan nintzen. Han, zelhaien erdian legartze erregarri batzu ikusten ziren. Egun daino urtu ez diren elhur batzuek mendi gainetan bethi irauten duen negu bat egiten zuten, eta xoilki mendi zut heien mazelen erditsuan, gerenden artetan, artaldentzat edi-

reiten ziren bazkaleku batzu. Haranak hain barnak dira, non doidoia iguzkiak han distiraraz baitetzake bere argiak.

Ez nuen toki hartan bertze gizonik ediren artzain batzu baizik, lekua bera bezain basak. Han, gauak iragaiten nituen ene zorigaitzaren auhendatzen, eta egunak artalde baten ondotik, gathibu buruzagi baten gaixotasunari ihes egiteko, zeinak, bere libratzeko irritsean, bertzeak bethi belzeten baitzituen, nausiaren aintzinean baliarazteko bere kharra eta haren onentzat zuen jarrikimendua. Gathibu hura Butis deitzen zen. Hestura hartan behar nintzen arras erori. Egun batez, oinhazeak zapatzen ninduelarik, ahantzi nuen nere artaldea, harpe baten aldean, belharraren gainean hedatu nintzen, eta nere atsekabeak gehiago ezin jasanez, han herioaren begira nindagon.

Ordu berean, ohartu nintzen mendi guzia ikaritzen zela. Haitzek eta lerrek haren kapetatik jausten zirela iduri zuten. Jabaldurik zauden haizeak. Harpetik boz ikaragarri bat ilki zen eta hitz hauk adiarazi zerauzkidan: «Oi Ulize zuhurraren semea, hura bezala, pairakortasunaz behar duk handi bilhakatu. Bethi dohatsu izan diren printzek ez dute hala izaitea hanbat merezi: faunkeriak galtzen ditu eta urguiluak zorutzen. Oi! nonbait dohatsu izanen haizela, baldin bentzutzen badituk hire ondikoak, eta behin ere ez ahanzten! Berriz ikusiren duk Itaka eta zeruetaraino iganen duk hire ospea. Bertze gizonen nausi izaiten haizenean, orhoit hadi, hek bezala herbal, erromes eta oinhazean izatu haizela. Maita zatzik hire azpikoak, lausengua higuint, eta jakin zak ez haizela handi izanen, non ez haizen begiratu eta bihoz dun izaiten hire lehien bentzutzeko.

Jainkozko solas horiek ene bihotzeko zolaraino sartu ziren. Han, berriz sorrarazi zutzen bozkarioa eta kalipua. Jainkoak gizonei mintzatzen direnean zainetan odola hormarazten eta buruan ileak zutarazten dituen lazgun hura ez nuen frogatu. Deskantsu jaiki nintzen. Belauniko, eskuak zerura goititurik, adoratu nuen Minerba, zeinari uste izan bainuen orakle hura zor niola. Ordu beretik gizon berri bat ediren nintzen: zuhurtziak argitzen ninduen, indar gozo bat ezagutzen nuen emarazteko ene lehia guziak eta baratzeko ene gaztetasunaren oldarra. Mortuko artzain guziez nere burua maitarazi nuen. Azkenekotz ene eztitasunak, ene pairakortasunak, ene zorrotzasunak ezitu izan zuten Butis krudela, zeinak esku-dantzia baitzuen bertze gathibuen gainean, eta hastean nahi izan baini-tuen toleiatu.

Hobeki jasaiteko nere gathibutasuneko eta bakartasuneko unhadura liburu bilha nindabilan, ezen nere izpiritua mantena eta lagunt zezakeien zerbait ikaskuntzaren eskasian, tristeziaz gaintitua nintzen. Dohatsu,



nioen, atsegin muthiriak higuintzen dituztenak, eta bizi zuzen baten gozotasunaz dakitenak askiesten! Dohatsu, ikasteen dostatzen direnak, eta maite dutenak beren izpirituaren jakitatez berregintzen! Edozein tokitara bulka detzan zorigaitzak, bethi berekin dakarkete beren hazgarria, eta bertze gizonak atseginen beren erdian hiratzen dituen unhadura ez dute ezagutzen, irakurtzean beren astien bethatzen dakitenek. Dohatsu, irakurtzea maite dutenak, eta, ni bezala, irakurkuntzaz gabetuak ez direnak!

Holako gogoetak erabiltzen nintuelarik, oihan ilhun batean sartu nintzen. Bat batean ikusi nuen adineko gizon bat liburu bat eskuan zadukana. Gizon haren belhar handia kartzoila zen eta zimurtuxea. Bizar zuri bat gerriraino zarraikan. Haltura handia zuen eta ohoragarria. Larrua oraino fresko eta gorri, begiak bizi eta sarkor, boza ezta, eta solasak laño eta maitagarri. Egundaino zaharrik ez dut ikusi hanbat ahalkezunik. Termoziriz deitzen zen, eta Apolonen apeza zen, zoina zerbitzatzen baitzuen Egiptoko erregek oihan hartan jainko hari ibendu izan zioten marmolazko tenplo batean. Eskuan zadukan liburua kanta bilduma bat zen jainkoen ohoretan.

Begitarte ezti batekin hurbiltzen zait. Solas egiten dugu. Hanbat ongi erraiten zituen gauza iraganak, non uste izaiten baitzen ikusten zirela. Bainan laburzki erraiten zituen, eta egundaino ez naute haren kondagailuek unhatu. Aintzineria ethorkizuna ikusten zuen, gizonak eta hek gai diren gogoak ezagutarazten zeikan zuhurtzia handiaren kariaz. Hanbat umotasunekin, boza zen eta atsegina, eta gaztetasunik arraienak ez du hanbat maitagarritasun nola baitzuen gizon harrek hain adin handian. Hartarakotz maite zituen gizon gazteak etorkor zirenean eta prestutasunaren lehia zutenak.

Laster amodio samurraz maitatu ninduen, eta sosegatzeko liburuak eman zerauzkidan. Semearen izenaz deitzen ninduen. Erraiten nioen ardura:

— Ene aita, jainkoek Mentor edeki ondoan, nitaz urrikaldu dira. Zutan bertze laguntza bat eman deraute. Gizon hura Orfe edo Linuz iduria, duda gabe jainkoek usnatua zen. Berak egin zituen bertsuak erraiten zerauzkidan, eta emaiten Musez dohatuak ziren bertze zenbait bertsulari onenak ere. Jaunzten zuenean bere aldagarri luzea, elhurra baino xuriagoa, eta eskuetan hartzen zuenean bere iberazko arrabita, tigreak, lehoiak, hartzak heldu ziren haren lausengatzera, eta haren oinen milikatzena. Zahirak oihanetarik atheratzen ziren haren inguruan jauzkatzena. Zuhane berek ukituak iduri zuten, eta usteko zinduen, gerendak, samurturik, mendi gainetarik jaustera zoazela, haren kantu ezti atseginari. Jainkoen

handirasuna, bihotz handien bertutea, atseginak utzirik ospea hautatzen duten gizonen zuhurtasuna baizik etzuen kantatzen.

Bihotz hartu behar nuela erraiten zeraudan ardura, etzutela jainkoek ez Ulize, ez haren semea debalde utziren. Azkenean bururatu zeraudan, Apolonek bezala, artzainei behar niotela Musen ohoratzen erakatsi.

— Apolon —zioen—, sumindua, Jupiterrek, egunik ederrenetan, zerua bere ortzantzez asaldatzen zuelakotz, nahi izan zen aspertu Tartaroen gainean, zeinek lantzen baitzituzten ozpinak, eta bere flexez hil zituen. Ordu beretik Etnako mendia gelditu zen eragoiztetik garrezko zirimolak. Etziren gehiago entzuten mailu ikaragarrien kaskak, zeinek, ingudioa joitearekin, auhendarazten baitzituzten lurreko zenterna barrenak eta itsasoko hondarrak. Burdina eta eraina, gehiago Tartaroez argituak etzirenak, herdoiltzen abiatu ziren. Bulkain, errabian, bere erremetatik ilkitzen da, eta, nahiz maingua, laster egiten du Olinpara. Jainkoen bilkua, izerdiz eta herrauts beltz batez estalia ardiesten du. Arrankura minak egiten ditu. Apolonen aldera sumintzen da Jupiter. Khentzen du zerutik eta lurraren gainera bulkatzen. Haren karrosa hutsak, ohiko ingurua, bere baitarik egiten zuen, gizonen gauak eta egunak emaiteko, hilen mudantza higualekin.

Apolon, bere arraio guzietarik buluzia, artzain egitera bortxatua izan zen, eta Admete erregearen artalden zaintzera. Xirula joiten zuen, eta bertze artzain guziak heldu ziren, zuharren itzalean, iturri garbi baten bazterretan, haren kantuen entzutera. Ordu arteraino bizitze basa eta abre bat erabili izan zuten. Ardi zaintzen, heien moztzen eta daizten, eta gasna egiten baizik etzakiten. Elgi guzia mortu lazgarri baten pare zen.

Epe laburrik artean, Apolonek bertze artzain guziei bizia atsegingarri eragin dezaketen antzeak erakatsi ziotzaten. Kantatzen zituen liliak, zoinetaz koroatzen baita udaberria, berduratzen dituen baltsamuak eta haren zango pean sortzen den hostaia. Gero kantatzen zituen udako gau gozoak, zeinetan haize eztiak gizonak freskatzen baitituzte eta ihintzak asetzen baitu lurraren egarria. Bere kantetan aipatzen ere zituen fruitu urhezatuak, zeinetaz udazkenak laborarien nekheak sariztatzen baititu, eta neguko astia, zeintan sutondoan jauzkatzen baita gazteria erhoa. Azkenekotz, erakusten zituen mendiak estaltzen dituzten oihan ilhunak eta haran barrenak, zoinetan hibaiak, mila itzul inguruz iduri baitute dosatzen direla pentze xarmagarrietan. Huneletan artzainei erakatsi izan zioten zein diren elgiko biziaren atseginak, ethorki lañoak dituen maitagarritasunez gozatzen dakitenentzat.



Laster artzainak, beren xirulekin, erregeak baino dohatsuago ediren ziren, eta heien etxolek, jauregi urheztatua ihes egiten dioten atsegin garbiak, multzuka bereganatzen zituzten. Egun guziak best-egunak ziren. Etzen gehiago entzuten xorien kantu errepika baizen, edo zuhañ adarretan dostatzen ziren haizeen hats ezta, edo zenbait gerenden gainetik erortzean ur argi batek egiten zuen azantza, edo Musek Apoloni zarratzikon artzainei usnatzen ziotzaten kantoreak. Jainko hark erakasten lasterkako prezioaren eramaiten, eta oihanetan oreñen eta orkatzen hiltzen. Jainkoak berak artzainez bekaiztu ziren. Gozoagoa iduritu zitzaizen bizi hori ezenetz beren ospe guziak, eta Apolon Olinpara berriz deitu izan zuten.

Ene semea, kondera hunek argitu behar zaitu, Apolon izan zen hein berean zarenaz geroztik. Lur basa hori apaintzazu, hark bezala liliaraz zazu mortua. Kanta zoin den xarmagarri erakats zozute artzain hoiei guziei. Goza zaitzu hoién bihotz basak. Erakuts zozute prestutasun maiztagarria. Usnaraz zozute, apartasun hunetan, zein diren gozagarri laido gabeko atseginak, artzainei deuserék idek ez dirotanak. Izanen da egun bat, ene semea, non erregeak inguratzen dituzten lastima eta grina minek, tronuaren gainetik, artzainen bizitzeaz bekaiztiaraziren baitzaitzute.

Hola mintzatu ondoan, Termozirizek xirula bat eman zeraudan, hanbat ezta, non ene ingurura hauzoko artzain guziak laster bilarazi baitzituzten mendietako oiharzunek, zeinek alde guzietara ihardetsi baitzuten. Ene boza ahoak ezin erran bezain goiherea zen. Nere baitan irakin bat eta zoramendu bat bezala frogatzen nintuen, ethorkiak elgia apaintzen duen berregintzen kantatzeko. Egun osoak eta gauetarik parte bat kantuz elkarrekin iragaiten gintuen. Artzain guziak, etxolak eta artaldeak ahanztirik, luzatuak, muiitu gabe, ene inguruan bazauden, erakasten hari natzaiotenean. Mortu heiek iduri zuten deus basarik etzutela gehiago. Han oro ezti eta xarmagarri ziren. Hango jendeen gortesiak iduri zuen lurra amultsutzen zuela.

Ardura sakrifizio egitera biltzen ginen Apolonen tenplo hartara, zeinetan Termoziriz apez baitzen. Artzainak, jainkoaren ohoretan, erremuz khoroaturik hara goaten ziren. Neskatilak ere dantzan goaten ziren, lili khoroekin eta dohain sakratuak saskietan. Sakrifizioaren ondoan, ontuntza laño bat egiten ginduen. Gure janharirik gozoenak ziren ahuntzen eta ardien esnea, —zeinen daizteko arta gerorrek hartzen baikinduen—, gure eskuz berriki bildu fruituak, hala nola datak, pikoak eta mahatsak. Sorropilak ziren gure jarlekuak. Gure zuhañek itzal bat emaiten zeraukuten erregeen jauregiatako bobeda urheztatuena baino atsegingarriagoa.

Bainan huna zerk artzainen artean ezarri nintuen arras ospe handitan. Egun batez, lehoín goseak errabiatu bat nere artaldera jauzi zen. Jadanik abiatzen zuen sarraski izigarri bat. Nere makila baizik ez nuen eskuan. Ozarki hurbiltzen naiz. Lehoínak harrotzen du bere ilaia, bere litaginak eta aztaparrak erakusten deraizkit. Zabaltzen du zintzur bat idorra eta su zariona. Bere bi saihsak bere buztan luzeaz zaflatzen ditu. Lurrera ardikitzen dut. Egiptoko artzainek ibiltzen duten erreztunka egin gerruntzea soinean nuen, eta hark porroskatzetik begiratu ninduen. Hirur aldiz erauzi nuen, hirur aldiz xutitu zen. Haren marrobiek oihan guziak inharrusten zituzten. Azkenekotz besoen artean itho nuen, eta artzainek eta garhaizaren ikuslek, nahi izan zuten jauntz nezan bestia izigarri haren larrua.

Egintza horren ospeak eta gure artzain guzien ganbiamendu ederraren berriak, Egipto guzia jo zuten. Heltu ere izan ziren Zezoztrizen beharrietaraino. Jakin zuen feniziendartzat gathibu hetarik bietarik batek, urhezko mendea bihurrazi zuela nehor ezin egonezko mortu hetara. Nahi izan ninduen ikusi, ezen Musak maite zituen, eta gizonak argi diroten gauza guziek ukitzen zuten haren bihotz handia. Ikusi ninduen, eta atseginekin entzun, eta agerri zuen Metofizek jaramankeriaz enganatu zuela. Behin-bethiko zepoetara kondenatu zuen, eta zuzen kontra gozatzen zituen aberastasun guziak edeki ziotzan. Erraiten zuen:

— Ala dohakabe baita bertze gizonak baino gorago izaitea! Maiz egia ez daite bere begiz ikus. Manatzen dueneraino heltzetik trabatzen duten jendez inguratua izaiten da. Bat bederari bazaio haren enganatzea. Bakotxak, khar itxura baten azpian, bere anbizioa gordatzen du. Alegia errege maite, ez dute maite hark emaiten dituen aberastasunak baizen. Hain guti maite dute, non haren begitartearen bereganatzeko, lausengatzen baitute eta traditzen.

Gero amodiotsuki erabili ninduen, eta ene Itakara egortzeko gogoa hartu zuen untzi eta tropekin, Penelopa bere gizongei guzietarik libratzeko. Jadanik unzia abian ziren, eta ezkinduen hetan sartzea baizik gogoa. Miretsia nindagoen zoriaren ukaldiei, zoinak bat batean goratzen baititu gehienik apaldu izan dituenak. Frogantza horrek, Ulize, zombait pairakuntza luzeren ondoan, bere erresumara bihur ahal zitakeielako peskiza emaiten zerautan. Gogoratzen zitzaudan oraino berriz ikusiren ahal nuela Mentor, Etiopiako herririk gutienik ezagutueta era mana izan zen arren.



Haren berririk jakin ahal nironetz, ene abiadura apur bat gibelatzen nularik, Zezoztriz, zeina adin handian sartua baitzen, bet-betan hil izan zen, eta haren heriotzeak zorigaitz berri batzuetan pulunpatu ninduen.

Galtzape hortaz ezin sosegatua agertu zen Egipto guzia. Mainada bakotzak, bere adiskiderik minena, bere laguntza, bere aita galdu zuela uste zuen. Zaharrek, eskuak zerura goitituz, erraiten zuten:

— Egundaino Egiptoak ez du izan errege bat hain ona! Behinere bertze holako bat ez du izanen! Oi jainkoak! Edo etzen behar gizonei erakutsi, edo etzizaioten behin ere khendu behar! Zertako behar dugu Zezoztriz handia hil ondoan bizi!

Gazteriak erraiten zuten:

— Egiptoaren peskiza galdua da. Dohatsu izan dira gure aitak hanbat errege onaren azpian bere biziaren iragaiteaz. Guk, ez dugu ikusi, zein lastimagarria den haren galtzapena jakiteko baizen.

Haren sehiak gau eta egun nigarretan zauden. Erregeren froguak egin zirenean, berrogoi egunez populurik urrunenek multzuka hara laster egin zuten. Bat bederak oraino behin nahi zuen ikusi Zezoztrizen gorputza. Bakotzak haren iduria nahi zuen begiratu. Bat baino gehiagok nahi izan zuten harekin ehortziak izan.

Bainan huna zerk mindu zuen oraino haren galtzeko atsekabea. Bokoriz, haren semeak, etzuen ez ikustaterik arrotzentzat, ez jakitatentzat lehiarik, ez prezamendurik gizon prestuentzat, ez ospearen amodiorik. Aitaren handitasunak parte, semea bilhakarazi zuen erreginatzeke hain merezimendu gabea. Gurikerian eta buruipe muthiri batean hazia izan zen. Ez deusentzat hartzen zituen gizonak, ustez harentzat baizik etzirela eginak, eta bera hetarik bertze ethorki batetako zela. Etzen alha bere lehien asetzeaz baizen. Barraiatzeaz haren aitak hanbat artarekin bildu izan zituen dirutze ezin kondatuak. Populuaren toleiatzeaz, dohakabeen odolaren zurgatzeaz, eta inguratzen zuten gazte zoroen erran lausengariei jarraitzeaz, noiz-eta-ere bere ganik arbuigarriki urruntzen baitzituen haren aitaren konfidentzia izan zuten zahar umoak. Abre basa bat zen etez errege. Auhenetan zagoen Egipto guzia, eta nahiz Zezoztrizen ize-nak, Egiptoarrei hanbat maitea, jasanarazten zioten semearen bizitze bihotz gabea eta krudela, bere galtzapenera semeak laster egiten zuten; eta printze batek, erreginatzea hain guti merezi zuena, tronuan etziron luzez iharduk.

Ez nuen gehiago zeren alha Itakara itzultzeko peskizarik. Dorre batean egon nintzen itsas bazterrean, Pelusako ondoan. Han, Zezoztriz hil ez balitz, behar ginene untzietan sartu. Metofizek bere zepoetarik atha-

ratzeko eta errege berriarekin ongi jartzeko xotiltasuna izan zuen. Dorre hartan preso ezararazi ninduen, eragin niotzan bidegabek aspertzeko. Gauak eta egunak ilhundura lastimagarri batean iragaiten nintuen. Termozirizen ethorkizuneko solas guziak eta harpean entzun nintuenak, etzitzauzkidan gehiago amets bat baizik iduritzen. Atsekaberik minenean mainhatua nintzen. Ikusten nuen nola uhinek zafrazten zuten dorrearen hondoa. Ardura beha egoiten nintzen pesiaz erabiliak ziren untziei, eta zoinak dorrea asentatua zen gerendetan porroskatzeko lanjeretan baitziren. Urrun hestura hartan zirenak urrikari izaitetik, heien zoriaz bekaizten nintzen. «Laster —nioen nere baitan—, beren biziko dohakabetasunak ahituren dituzte, edo beren sor-lekura helturen dira. Oi nonbait! Ez bataren, ez bertzearen peskizarik ezin duket».

Hola damu alferretan hirutzen hari nintzelarik, ikusi nuen mastazko oihan bat bezala. Haizeek hanpatzen zituzten belaz estalia zen itsasoa. Ura harrapoz zuritzen zen ezin kondatuzko arrauen ukaldien azpian. Alde guzietarik oihu nahasi batzu entzuten. Itsas bazterrean ikusten nuen egiptoarretarik parte bat, izitua, harmetara laster egiten. Bertze batzuek iduri zuten heltzen ziren untzien aintzina zoazela. Laster ezagutu nuen untzia arrotz hek batzu Feniziakoak eta bertzeak Ziprakoak zirela, ezen ene dohakabetasunak itsasoko goiti beheitietan jakintsun eragiten abiatu ninduten. Egiptoarrak iduritu zerauzkidan bi aldetara bereziak. Errexki sine-tsi nuen Bokoriz zoroak, bere bihurrikeriez, oldarrarazi zuela bere azpi-koetarik parte bat eta elkarren arteko gerla biztu. Dorrearen gainetik sarraskizko gudu baten lekuko izan nintzen.

Kanpotarrak laguntzara galdegin zituzten egiptoarrek. Heien jauspena lagundu ondoan, akometatu zituzten bertze parteko egiptoarrak, zeinek errege baitzuten buruzagi. Errege hura ikusten nuen bere soldadoen sustatzen bere egintzez. Marz jainkoaren pare agertzen zen; odol ithurriak zurrutatzen ziren haren inguruan; odol beltz, lodi eta harrapotsu batez kutsatuak ziren haren karrosako arrodak, eta nekez baizen etzitzazkeien iragan hil lehertu meten gainetik. Errege gaste hura, ontsa egina, hazkarra, bekoki gora eta superrekoa, errabia eta etsimendua begietan zabilan. Ahorik ez duen zaldi eder baten pare zen. Bere bihotzak itsura bulkatzen zuen, eta zuhurtasunak etzuen amorrean idukitzen haren balentzia. Etzakien ez bere hutsen xuxentzen, ez manu garbien emaiten, ez hedatzen mehatxatzen zuten gaitzeraino, ez gehienik behar zituen gizonen ihardukitzen. Ez antze eskasa zuelakotz. Haren argiek haren bihotza higualtzen zuten, bainan etzen behin ere zorigaitzaz erakatsia izan. Haren nausiek lausenguaz gaizkuratu zuten haren ethorki ederra.



Bere bothereaz eta bere zorionaz horditua zen. Uste zuen guziek haren lehia erhoi amor eman behar ziotela. Kontrestarik den gutienak jauzarazten zuen haren oldarra. Orduan etzen gehiago zuzen mintzo, bere baitarik kanpo bezala zen; bere urguilu muthiriak abre basa bat eragiten zuen. Berenaz zuen ontasanak eta adimendu zuzenak uzten zuten apur bat. Haren zerbitzari zinenek ihes egitera bortxatuak ziren. Etzuen gehiagoko maite haren lehiak lausengatzen zituztenak baizen. Hala hala, bethi bere egiazko onaren bidegabekin, sobranietan zuen laket, eta behar den bezalako jende guziak bere manamendu erhoaren higuintzera bortxatzen zituen.

Luzez etsaien osteari ihardu ki zioen bere balentziaz, bainan azkene-kotz gaingitua izan zen. Hiltzen ikusi nuen. Bulharretan sartu zitzaioen feniziendar baten dardoa. Estekak galdu zituen eskuetarik, karrosatik zaldien azpira erori zen. Ziprako soldado batek burua ebaki zioen, eta iletarik harturik, ospez bezala, armada garhaitzaile guziari erakutsi zioen.

Bizi naizeno orhoituren naiz buru hura ikusirik odolean igeri, begi hek hertsia eta iraungituak, begitarte hura hitsa eta desegina, aho hura erdi-idekia, hasi zituen zombait hitz akabatu nahi zituela iduri, bekunde super eta mehatxagarri hura herioak berak ezin borratu zuena. Bizi naizeno ene begien aintzinean izanen da, eta egun batez jainkoek erregina-razten balin banindute, ez niro ahantz, hanbat ikusgarri dohakaberen ondotik, errege batek ez duela manatzea merezi eta bere botherean ez dela dohatsu, non ez duen bothere hura zuhurtziari azpikotzen. Eta zer dohakabetasuna gizon batentzat, bertze guzien zorionaren egiteko berezia, hanbat gizonen nausi ez izaita heien dohakabe eragiteko baizen!

#### BIGARREN LIBURUAREN AKABANTZA

## HIRUGARREN LIBURUA

Kalipzok espantiturik entzuten zituen hain solas zuhurrak. Xarmagarienik edireiten zuen ikusteaz Telemake lañoki aithortzen, sobra lastertasunez eta ez aski ethorkor izanez, Mentor zuhurraren alde-  
ra egin zituen hutsak. Bihotz bat miregarri bezain handia eta gora edireiten zuen gizon gazte haren baitan, zoinak bere burua hogendun aitortzen baitzuen, eta bere arinkeriez hanbat ongi baliatu zela, zuhur, geroaren beldurti, eta oraikoan begiratu bilhakatzeko.

— Nere Telemake maitea, —zioen— aintzina mintza zaite. Berantzen zaut jakitea heia nola athara zinen Egiptotik eta non berriz ediren zinduen Mentor zuhurra, zeinaren galtzea hanbat arrazoinekin minki hartu baitzinduen.

Telemake huneletan bere solasari berriz lotu zen:

—Egiptoar prestuenak eta erregeren aldera zinenak, bentzutuak izanez, eta errege hila zela ikusirik, bertzei amor emaitera bortxatuak izan ziren. Termutis deitzen zen bertze errege bat altxatua izan zen. Feniziendarrek Ziprako tropekin gibelat bihurtu ziren errege berriarekin batasuneko patuak egin ondoan. Termutizek bihurtu zituen preso ziren feniziendar guziak, eta heiekin batean sartua izan nintzen. Dorretik ilkiarazi ninduten. Bertzeekin baltsan sartu nintzen untzian. Berriz peskiza abiatu zen ene bihotzaren zolan izarniatzen. Jadanik haize on batek gure belak hanpatzen zituen. Sakerek arrauekin urratzen zituzten uhin harropotsuak. Itsaso zabala untziz estalia zen. Mariñelak irrintzinaz zauden. Goihenak eta mendiak higualtzen ziren emeki-emeki. Abiatzen ginen ez gehiagoko ura eta zerua baizik ikusten, noiz-eta-ere atharitzen zen iguzkiak iduri baitzuen itsaspetik bere su izarniatiak ilkiarazten zituela. Haren arraiok urheztatzen zituzten mendi gainak, zeinak oraino apur bat ortzira ikusten baikintuen, eta zeruak, urdin uher batez karantzatuak, piaia on bat agintzen zeraukun.

Feniziendarra bezala egorria nintzen arren, enekin ziren feniziendarretarik batak ere ez ninduen ezagutzen. NARBALEK, zeinak manatzen baitzuen ni ezarri ninduzten untzian, galdegin zerauzkidan ene izena eta ene herria, ziolarik:

— Feniziako zein hiritako zara?

— Ez naiz feniziendarra —ihardetsi noien—, bainan egiptoarrek Feniziako untzi batean itsasotan atzaman ninduten. Feniziendarra bezala



Egiptoan gathibu egotu naiz. Izen hunen azpian luzez pairatu izan dut; izen hunen azpian libratu naute.

— Zein tokitakoa zara bada? —erran zeraudan Narbalek.

Orduan huneletan mintzatu nintzaioen:

— Telemake naiz, Ulize, Grezian Itakako erregearen semea. Ene aitak bere burua deitatu du Troiesko hiria sethiatu izan duten bertze errege guzieren artean, bainan ez diote jainkoek eman bere sor-lekuaren berriz ikustea. Asko lekutan bilhatu izan dut. Zoriak hari bezala jazartzen deraut. Dohakabe bat ikusten duzu, zoinak beretara itzultzeko eta bere aitaren edireiteko zorionarentzat baizen ez baitu lehiarik.

Narbal espantimendurekin begiratzen zitzaudan eta ene baitan ez dakit zer dohatsurik ikusten zuela iduritzen zitzaioen, bertze gizonen arrontean edireiten ez denik. Ethorkiz zina eta bizarra zen. Ukitua izan zen ene dohakabetasunaz, eta mintzatu zitzaudan fidantzia batekin, zeina jainkoek usnatu baitzioten, hestura handi batetarik begira nintzan amoreagatik.

— Telemake —erran zeraudan—, zure erranez ez dut dudarik, eta hetaz dudatzen ere ez nakike. Begitaratean izartuak dituzun eztitasunak eta prestutasunak zure gainean idurikortasunik ez deraute uzten. Hautemaiten dut ere jainkoek, zeinak bethi zerbitzatu baitituz, maite zaituztela, eta nahutela nik ere maita zaitzadan, nere semea bazina bezala. Kontseilu on bat emanen derautzut, eta saritzat ixiltasuna baizen ez derautzut galdegiten.

Ihardetsi nioen:

— Etzaitzela beldurti lerrakortasunik den gutiena izan dezadan niri konfidatu nahiko dituzun gauzen gainean. Zenbat gazte naizen arren, nere sekretuaren behin ere ez erraiteko azturan ohitua naiz, eta oraino hobeki bertzerena, zer nahi estakururen azpian, ez behin ere salhatzean.

Erran zeraudan:

— Nola, hanbat gartzetasun handian ixiltasunari jarri ahal izan zara? Ongi atseginekin adi nezake heia zer mainaz onhetsi izan duzun begirakortasun hori, zeina baita gobernu zuhurrenaren asentua, eta zeina gabe alferrak baitira bertze antze guziak.

— Ulizek —erran nioen—, Troiesko sethiora abian, besoetan eta belhaunen gainean hartu omen ninduen. Maiteki besarkatu ondoan, hitz hauk erran zerauzkidan, ezin entzun netzakeien arren: «Oi ene semea! Jainkoek begira nezatela hire sekulan ikustetik. Lehenago Parkek hire egunen haria ebaki dezatela, noiz-eta-ere hasia baizik ez baita, hala nola epai-leak bere segaz zabaltzera abiatzen den lore uzter bat ebakitzen baitu.

Ene etsaiek leher ahal hezabela hire amaren eta nere begietan, gaizkindu behar balin baduk egun batez eta prestutasunari ihes egin! Oi ene adiskideak! —zioen oraino—. Hanbat maite dudan seme hau uzten derautzuet. Hunen haurtasunaz arta izan zazue. Baldin maite banauzue lausengu galgarria urrutazue hunenganik. Bere buruari gaihentzen erakatozue. Izan dadiela zuhañ tantai baten pare, zoina uzter delarik xuxentzeagatik zuffarazten baitute. Oroz gainetik ez dezazuela deusere gupidets hunen bilhakarazteko zuzen, ongiegile, egiati, eta zin ixiltasunaren begiratzeko. Gezur erraiteko gai denak ez du gizontzat behatua izaita merezi, eta nork ere ixiltasunaren begiratzen ez baitu haina manamenduaz ez da gai.

Hitz hauk erraiten deraizkitzut, neorriri ardura erraiteko arta hartu izan baitute, eta nere bihotzaren barrenaraino sartu baitira. Ardura nere baitan erreberitzen dituz.

Goizdanik ixiltasunari laketarazi ninduten nere aitaren adiskideek. Haurtasunik samurrenean nintzen oraino, eta jadanik konfidatzen zerauzkidaten jasaiteko zituzten bihotz minak, ikusteaz ene ama ausart multzu handi baten buruiopean, zeinek harekin ezkondu nahi baitzuten. Hola, ordudanik gizon umo eta segur batentzat nindaukaten. Egiteko handienez ixilik mintzatzen zeraizkidan. Gizongeien urrutzeko egin gogo ziren gauza guziez jakintsun egiten ninduten. Hazia nintzen nere baitan zuten konfidentziaz. Jadanik gizon egin batentzat naukan nere burua. Behinere ez dut hutsik egin. Egundaino etzait hitz bakar bat lerratu sekreturik ttipiena agerazaz zezakeienik. Ardura gizongeiak ni mintzarazi nahiz destatzen ziren, haur batek zerbait inporta zuenik ikusi edo entzun balin bazuen etzuelakoan jakinen begiratzen. Bainan, gezurrik gabe, eta erran behar etzirenak begiratzuz, ihardesten ongi jakina nintzen.

Orduan Narbalek erran zeraudan:

— Ikusten duzu, Telemake, feniziendarren botherea. Beren ezin kondatuzko untziez lotsagarri dira inguruetakoko jendaia guzici. Herkulen harroinetaraino egiten duten tratuak, aberastasun batzue emaiten diotzate, jendaia aberatserenak iragaiten dituztenak. Zezoztriz handiak, zeinak itsasoz behin ere ez baitzituen bentzuturen, ongi nekhez garhaitu zituen lurrez, Oriente guziaz nausitu zen armada berekin. Luzez pagatu ez dugun zerga bat ibendu zeraukun. Aberatsegi eta sobra botheretsu ziren feniziendarrak luzez pairatuki egartzeko gathibuen uztarrak. Gure libertateaz jabetu ginen. Gure kontrako gerlaren akabatzeke astirik Zezoztrizi heriotzeak etzioen utzi izan. Egia da haren zuhurtasunaz guziz beldur izaiteko ginduela, oraino haren bothereaz baino gehiago, bainan haren botherea, haren semearen eskuetara iragaitean, zoina baitzen zuhurtzia



guzitarik gabea, egin ginduen ez ginuela gehiago deusen beldur izaitekorik. Haletan, egiptoarrak urrun berriz gure lurretara harmetan sartzetik, gu zebatu nahiz oraino behin, bortxatuak izan dira gure deitzera laguntzara, errege inpio eta erho hartarik beren buruen libratzeko. Heien libratzaileak izan gara. Zer ospea feniziarren libertateari eta aberastasunei eratzikia!

Bainan bertzen libratzen gabiltzanean, geror gathibu gara. Oi Telemake, eror beldur izan zaite Pigmalion, gure erregearen eskuetara. Esku krudel hek, Didon bere arrebaren senharraren odolean baltsatu ditu. Didonek, aiherkandezko lehiaz bethea, Tirretik ihes egin du unti multzu batekin. Prestutasuna eta libertatea maite duten gehienak hari jarraiki dira. Afrikako bazterrean, Kartago deitzen den hiri eder bat asentatu du. Pigmalion, aberastasunen egarri ezin ase batez toleiatua, bere azpikoei egunetik egunera arbuigarriago eta higuinago eragiten du bere burua. Dainu beltza da Tirren ontasun handiak izaitea. Jaramantziak gibel-beldur, aiherutsu eta krudel bihurtzen du. Aberatsei jazartzen diote. Errromesen beldur da.

Prestu izaitea Tirren dainu bat da oraino beltzagoa, ezen Pigmalionek uste du onek ez dirotela jasan haren egitate zuzen kontrakoak eta laidotsuak. Berthuteak kondenatzen du. Uhortzen, sumintzen da haren alderat. Orok, asaldatzen, khexatzen eta korromiotzen dute. Lazten du bere itzalak. Ez du lorik ez gabaz, ez egunaz. Jainkoek, haren mortitzeko, gozatzera ezin mentura daiten aberastasunez gaintitzen dute. Zer ere dohatsu izaiteko bilhatzen baitu, hark berak dohakabetzen du. Emaiten dituen guziak gupidesten ditu, bethi gal beldur da. Irabazi nahiz bere burua toleiatzen du.

Bakan agertzen da. Bakarrik, ilhun, eroria, bere jauregiaren zolan dago. Adiskideak berak etzaitza hurbiltzera ausartatzen, begietan har detzan beldurrez. Guardia lazgarri batek bethi ezpatak buluziak eta pikak airean dauska haren egoitzaren inguruan. Hogoi eta hamar gela batetik bertzera bidea dutenak eta burdinazko athe bana seira pintroil lodirekin, dira Pigmalion sarturik dagon lekua. Nehork behin ere ez daki gela heterik zeintan etzaten den, eta sarraski beldurrez, ez omen da behin ere ber batean bi gauz etzanen. Ez ditu ezagutzen ez atsegin gozoak, ez adiskidantza oraino gozoagoa. Baldin bozkarioa bilhatzeaz aipatzen bazaio, haren ganik urrun ihes egin duela ohartzen da, eta haren bihotzean sartzea herabe duela. Haren begi sartuak su karrats eta basa batez betheak dira. Baratu gabe alde guzietara nahasiak dabilta. Azantz den gutienari beharria luzatzen du. Dena lastua edireiten du bere burua. Zurpildua da

eta desegina. Grina beltzak karantzatuak dira haren bekunde bethi ifrentziatuan. Ixiltzen da, auhendatzen da, hasbeherapen luze batzu ilkitzen ditu bihotzaren zolatik. Barrena sastakatzen diotzaten korromioak ezin gorde detzake. Janharirik gozoelek nakaizten dute. Haren haurrak, urrun haren peskiza izaitetik, haren lazgarri dira. Bere etsairik gaitzenentzat dauzka. Bizi guzian apur bat ez du izan segurik. Bere burua ez du begiratzten beldur denen odola ixuriaren bortxaz baizen. Erhoa, ikusten ez duena bere krudeliteak, zeinetan fidatzen baita, galduren duela! Haren sehietarik zombait, hura bera bezain idurikorrik, lehenduko da abre basa hartaz gizonen libratzera.

Ni, jainkoen beldur naiz. Zer nahi gostarik ere, eman derautedan erregeari zin geldituen naiz. Nahiago nuke hilarazten banindu, ezenet nerorrek hari bizia khendu, edo haren alde jartzeari huts egin. Bainan zuk, oi Telemake, begira duzula Ulizen semea zarela erraitetik! Uste luke Ulizek, Itakara itzultzean, zerbait dirutze handi eman lezokeiela zure gibelat erosteagatik, eta preso iduk zintzake.

Tirrerera heltu izan ginenean, Narbalen erranei behatu nintzen, eta ezagutu nuen egiaz mintzatu zitzaudala. Nere baitan etzitaken sar, Pigmalion iduritzten zaudan bezain dohakabe, gizon batek bere burua eragin zezakeiela.

Harritia nintzen. Egundaino ez nuen ikusi hain gauza izigarririk. Nere baitan egiten nuen: «Horra gizon bat bere buruaren dohatsu eragitea baizen bilhatu ez duena. Aberastasunez eta nausitasun gaintitu batez uste izan du zoriona ardietsiko zuela. Nahi duzkeien guziak baditu, eta bere aberastasunek eta bere nausitasunak berak daukate lazerian. Artzain balitz, ni berriki nintzen bezala, ni izatu naizen bezain dohatsu leiteke. Elgian izaiten diren goibelgabeko atseginez goza laite eta korromiorik gabe goza laite. Ez luke ez marrauzaren ez pozoinaren beldurrik. Maita leitzake gizonak eta hetaz maitatua laite. Ez lituzke aberastasun handi hek, legarra bezain alfer zaitzanak, heien ukitzera ezin mentura ditakenaz geroz, bainan lurreko fruituez bere gogara goza laite eta ez liro paira egiazko beharrik. Bere nahikari guziak bethatzen dituela iduri du, bainan hartarik urrun da. Bere lehia basek nahi dituzten guziak egiten ditu. Bethi, bere jaramantziak, bere beldurak, bere aiheruek herrestatzen dute. Bertze gizonen nausi dela iduri du, bainan ez da bere buruaren jabe, ezen hanbat nausi eta burreu baditu, nola lehia muthiri.

Holako gogoetak nerabiltzan Pigmalionen gainean, bera ikusi gabe, ezen etzen ikusten. Bakarrik lasturarekin behatzen zen dorre gora heiei, gau eta egun guardiaz inguratuak, zeinetan bere burua preso bezala eza-





rri baitzuen bere diruekin. Ezin ikus daiten errege hura Zezoztriz konparatzen nuen, zeina baitzen hain ezia, hurbil errex, lañoa, arrotzen ikusteko lehiatia, hain atzarria guzien entzutera, eta gizonen bihotzetik atheratzera erregei gordetzen ohi zaien egia. «Zezoztriz —nioen—, etzen deusen beldur, eta etzuen ere deusen beldur izaitekorik. Bere umei bezala bere azpiko guziei agertzen zen. Orogen beldur da Pigmalion eta ororen beldur izaiteko du. Heriotze lastimagarri bati bethi paratua dago errege gaixtagin hau, bere jauregi ezin hurbilduan ere bere gardien erdian. Aitzitik, Zezoztriz ona segurean zen populu osteen erdian, aita on bat bere etxean bere mainadaz inguratua dagoenean bezala».

Pigmalionek manatu zuen gibelat egorriak izan zitezin Ziprako tropak, haren laguntzera ethorriak zirenak, bi populuen artean ziren batasuneko patuen kariak. Narbal gerthu hartaz baliatu izan zen ene libertatean ezartzeko. Zipriendarren artean iraganarazi ninduen, ezen errege aihertsu zen gauzarik tipienetan.

Errege sobra errexen eta alferren baia da, gizon galdu eta amarrutsu mañtatu dituzten zonbaiti konfidentzia itsu baten emaita. Aitzitik, hunen baia zen, gizon prestuenentzat mesfida izaitea. Etzakien berezten gizon zuzenenak, arronkienik eta beren buruak gorde gabe zabiltzanak. Hargatik etzun egundaino gizon zuzenik ikusi, ezen halako gizonak ez dabilta hain errege galduaren ondoan. Bertzalde, tronuraz geroz, zerbitzatu zen gizonetan ediren zuen hanbat gorderailu, fede gaixto eta bizio izigarri, bertutearen itxuraren azpian agertzen zirenak, non guziei arrontean gordeak balira bezala behatzen baitzairen. Prestutasun zinik lurraren gainean etzela asmatzen zuen. Holetan gizon guziak higualtsuak zauzkan. Gizon bat tzarra edo faltsua edireiten bazuen, etzuen bertzerik bilhatzen, bertze bat ustez etzela izanen hobea. Onak gaixtagin agerrituena baino areagoak iduritzen zaitzan, zeren bardin gaixto eta enganatzaileago uste baitzitu.

Nitara itzultzeko, zipriendarren artean itzalia izan nintzen, eta erregeren idurikortasun zorrotzetik begiratua. Narbal ikaran zagoen, agertua izan nindedin beldurrez: bizia bieci gostaren zitzaukun. Ezin sinetsia zen zenbat zen khexu gu abiatzen ikusi nahiz, bainan kontrako haizeek aski luzez Tirren igurikazi zeraukuten.

Epe hartaz baliatu nintzen feniziarren azturen ezagutzea, populu bertze guzietan hanbat deitua. Miretsia nindagoen hiri handi haren estanta prezagarriari. Irla batean itsasoaren erdian jarria da. Hurranekeo itsas bazterra xarmagarri eragiten dute bere nasaiziak, ekartzen dituen fruitu onek, hiri eta herrien usutasunak, zoinak abantzu elkar ukitzen bai-

tute; azkenekotz, airearen ezitasunak, ezen mendiek bazter hura gerizatzen dute eguerdiko haize erregarrietarik. Iparrak itsas aldetik frezkatzen du. Toki hura Libango mendiaren azpian da. Mendi haren kapeta, hodoiak urratuz, izarretaraino heltzen da. Egundaino urtu ez den horma batek estaltzen du haren bizkarra. Hibiaiak, elhurrez betheak, farrastaka jausten dira haren kaskoa inguratzen duten gerenda muturren gainetik. Beherago ezagun da zedre zaharrezko oiha handi bat. Iduri dute berak landatuak diren lurrak bezainbat urte badutela, eta beren besanga lodiak hedoietaraino heltzen dituzte. Oihan haren azpiko aldean, mendiaren mazelan, badira alhapide gizen batzu. Han, alde guzietara barraiatuak, ageri dira zezanak orroaz eta ardiak marrakaz beren bildots amultsuekin, belhar freskoaren gainean jauzika dabiltzanak. Han, mila xirripak bolatzen dute beren ur argia. Azkenekotz, alhapide hetarik beherago, ezagun da mendi azpia, baratze baten pare dena. Han, udaberria eta udazkena elkarrekin erreginatzen dira, loreak eta fruituak batetartzeko. Egundaino ez hegoaren hats izurritia bazter guziak idortzen eta erratzen dituen, ez mendebal garratza, ez dira ausartatu baratze hura berregintzen duten karantza bizien histera.

Bazter ejer haren aldean altxatzen da Tir jarria den irla. Hiri handi harek igeri dagola iduri du uraren erdian, eta itsaso guziko erregina dela. Han lehor hartzen dute lurraren aurkintze guzietako tratulariek, eta hango berekoak berak dira munduko tratularirik aipatuena. Hiri hartan sartzean, ez da behin iduritzen populu bakar batena dela, bainan populu guziena higuale dela eta han dela heien tratuaren zentroa. Bi kaia handi, bi beso bezala, itsasoan sartzen dira eta portu zabal bat besarkatzen dute, zeinetan ez baitake haizerik sar. Portu hartan, untzi mastek oihan bat iduri dute, eta untziak hain dira usu, non doidoia ageri baita hek egartzen dituen itsasoa. Hiritar guziak tratuari destatzen dira eta beren aberastasun handiek, heien berhatzeko premia den lana, ez diote behin ere gaitzetsarazten. Han, alde guzietarik ezagun dira Egiptoko liho hautua eta Tirreko purpura, bi aldiz tindatua, distira miregarri bat duena. Hain da bizia tinta doble hura, non denborak ez baitezake hits. Ile hautentzat zerbitzatu da, zoinak urhe eta zilhar aihendaduraz berregintzen baitituzte. Feniziarrek populu guzien tratua egiten dute Kadizeko artekaraino eta sartu ere izan dira Ozeano zabalean, zoinak lur guzia inguratzen baitu. Piaia luzeak ere egin izan dituzte Itsaso Gorriaren gainean, eta bide hartaz goatzen dira ezagutuak ez diren irla batzuetara, urhearen, baltsamuen eta bertzetan ikusten ez diren azienda batzuen bilha.



Ez nintzakeien begiak ase hiri hartako begi ukaldi miresgarriaz. Han, guziak bazabiltzan bere hara-hunetan. Han, etzen ageri Greziako hirietan bezala, gizon alfer eta ikuslari batzu plazara berriketa goaten direnak, edo portura heltzen diren arrotzei behatzera. Han, gizonak badabiltza batzu untzien husten, bertzeak bere hatuen eramaiten edo saltzen, edo arrimatzten eta tratulari arrotzek zor diotzatenez kontu zuzen baten begiratzen. Emaztekiak ez dira behin ere gelditzen edo ileen irutetik, edo oihal baliosen aihendaduraz edertzetik edo plegatzetik.

Narbali erraiten nioen:

— Nontik darraio feniziendarrak lur guziko tratuaz nausitzea eta aberastea populu guzien gustuz?

— Ikusten duzu —ihardetsi zeraudan—, tratu-bidearentzat Tirren estanta ezin hobea dela. Gure sor-lekuari zaio zor itsasoen untziz ibiltzeko asmuaren ohorea. Menderik zaharrenez diotena sinetsi behar balin badugu, tiriendarrek lehenbizikorik hezi izan dute itsasoa, Tifizen eta Argonoten mende Grezian hanbat aipatua baino hainitz lehenago. Lehenbizikoak, diot, izan zirela ausartatu zirenak unti flux batean uhinen eta kalernen gogara jartzen, itsasoko hondarrak izartu zituztenak. Lurretik urrun, egitoarren eta babiloniendarren jakitateen arabera, izarrak kontutu zituztenak. Hitz batez, hanbat jendaia itsasoaz urrundak eratxi zituztenak. Tiriendarrak, antzos, pairakor, langile, zuhur eta bizitore dira. Polizia zorrotz bat dute. Elkarren artean batasun handian bizi dira. Ez da egundaino izan populurik gutiago mudakorrik, zinagorik, zuzen, segur eta atseginagorik arrotz guzien aldera.

Horra, gehiagokorik gabe, zerk emaiten dioten itsasoko nausitasuna, eta distirarazten duen heien portuan hain balios den tratua. Makurra eta bekaizgoa heien artean jartzen balira, gozokerietan eta alfertasunean guritzen abiatzen balira, buruzagiek lana eta zuhurtasuna arbuiatzen balute, antzeak hirian ohoretan izaitetik gelditzen balira, berek arrotzei fede eskas egiten balezate, den gutienaz mudatzen balituzte tratu libro baten bide bereziak, esku lanetan laztatzen balira, eta ez balute gehiago egin nahi premia diren abantzuak martxandisei, bakotxari bere motan, azken berreginduraren emaiteko, lurreratzen ikus ziniro miresgarri zeraitzun bothere hau.

— Bainan —nioen Narbali—, xeheki argi nazazu egun batez Itakan, hunelako tratu baten asentatzeko bideen gainean.

— Egizu —ihardetsi zeraudan—, hemen egiten den bezala. Errexki eta begitarterekin errezibi zaitzu arrotz guziak. Zure portuetan edirenarazozute segurtasuna, aisia eta libertate osoa. Ez dezazula behin ere utz

zure burua, ez jaramankeriaz ez urguiluaz erabiltzera. Irabazi handiaren egiteko zinezko bidea, ez behin ere sobra irabazi nahi izaitza da, eta jakitea behar denean galtzen. Zure burua maitaraz zazu kanpotar guziei. Heien aldetik ere zerbait jasan behar duzu. Beldur izan zaite zure super-tasunaz heien bekaizgoa jauzeraz dezazun. Etzaitzila mudakor izan tratuaren gaineko manamenduetan: errexak eta xeheak izan ditezila. Zure azpikoak ohiaraz zaitzu heien zorrozki begiratzen. Garrazki enganioa gaztiga zazu. Higual tratularien lazakeria edo handirasuna, zeinak tratua galtzen baitu tratulariak galtzearekin batean.

Ororen gainetik etzaitzila behin ere abia tratuari traburik emaiten, zure gogaretara hura itzularazi beharrez. Printzea ez dadiela hartan sar, traba dezan beldurrez eta utz dezala irabazi guzia bere azpikoei, zeinentzat baita nekhe guzia, bertzenaz gogoa galaraziren diote. Aski progotxu izanen du haren erresuman sartuko diren aberastasun handiez. Tratua zombait iturrien pare da, agortzen dira beren bidetik aldarazteaz. Irabaziak eta errextasunak baizen ez dituzte zutara biltzen kanpotarrak. Gutiago errex edo balios eragiten balin badiozute tratu bidea, emeki emeki gibelatzen dira eta azkenean ez dira gehiago itzultzen, zeren bertze populu batzuek, zure zuhurtzia eskasaz baliatuz, bereganatzen eta zu gabe iragaiten ohiarazten baitituzte. Aitortu ere behar derautzut, zombait orduz geroz, hainitz goibeldua dela Tirren ospea. Oi ene Telemake maitea, Pigmalion erregetu aintzinean ikusi bazindu, hanbatez harrituagoa izaturen zinen! Ez duzu hemen gehiago edireiten kordokan dagoen handitasun baten hondar erromesak baizen. Oi Tir dohakabea! Zer eskutan eroria hago! Bertze orduz itsasoak lurreko jendaia guzien zergak erakartzen zerauzkikan.

Ala arrotzen, ala bere azpikoen aldetik Pigmalion zer-nahidenean beldur da. Bere portuak ideki behar bidean, gure ohikunde zaharraren arabera, jendaia apartatuenean guziei libertate oso batean, jakin nahi du zenbat unti heldu diren, heien herria, zenbat gizon dakarketen, zer tratu derailkaten, gauzen mota eta balioa, eta hemen iragaiteko duten epea. Sordei egiten du oraino: jokotria derabila tratularien enganatzeko, heien martxandizen arrestatzeagatik. Aberatsenik uste dituen tratulariak gorrotatzen ditu. Asko estakururen azpian zerga berriak ibentzen ditu. Berak ere tratuan sartu nahi du eta guziak harekin zerbait egiteko izan beldur dira. Holetan iraingitzen hari da tratua. Kanpotarrei emeki emeki arrotzen zaiote Tirreko bidea, bertze orduz hanbat maite zutena, eta, baldin Pigmalion moldez ez bada ganbaitzen, laster gure ospea eta gure bothe-



rea eramanak izanen dira bertze zombait jendaia gu baino hobeki mana-tua denera.

Gero galdegin nioen Narbali heia nola tiriendarrak jarri ziren itsasoz hanbat botheretsu, ezen erresuma baten manatzeko premia diren jakitate guziez nahi nintzen argitu.

— Libaneko oihanak —ihardetsi zeraudan—, untzietako zura emaiten derauku, eta hortako begiratzen dugu artoski. Hango zuhañik ez dugu behar publikoentzat baizen ibakitzen. Guk dugun on bat da, untzien egiteko, ofiziale antzosen izaita.

Erran nioen:

— Nola egin duzue ofiziale heien edireiteko?

Ihardetsi zeraudan:

— Emeki emeki lekuaren gainean egin dira. Ongi sariztatzen direnean antzetan artexenak agertzen direnak, segur izanen da atzamaitea gizonak, hek hel ahal ditazken bezain urrun helturen dituztenak. Ezen zuhurtasun eta asmu gehienik duten gizonak egundainotik sari ona dakarketen antzei estekatzen dira. Hemen ohorezki erabiliai dira marinako zerbitzatzen diren antze eta jakitatetan gaihentzen direnak. Heinen eta negurrien ongi hartzen dakien bat behatua da. Hainitz prezatzen da izarretako ezagutza handia duena. Ontasunez gaintitzen da lema idukitzaille bat, bertzeak, bere sailean, bentzutzen dituena. Ez da arbuiatzen zurgin on bat, aitzitik ongi pagatua eta ongi erabilia izaiten da. Saker onek ere badituzte bere sari segurak eta beren zerbitzuen araberakoak. Ongi mantenatuak dira. Artatuak dira eri direnean. Piaietan direnean arta izaiten da heien emazteez eta haurrez. Nofraia batean galtzen balin badira, heien mainaden bidegabeak askiesten dira. Beren herrietara bidaltzen dira hein bat zerbitzatu direnean. Holetan bada nahi bezenbat. Aitak gogotik altxatzen du semea hanbat ofizio onean, eta haur-haurretik, arrauaren erabiltzen erakasten dio, soken hedatzen eta kalernaren arbuiatzen. Hola erakartzen dira gizonak, bortxaririk gabe, sari eta manamendu onez. Nausitasun bakarrak ez du egundaino ontsa egin. Azpikoen amorra ez da aski. Bihotzak behar dira bereganatu eta gizonen beren probetxua edirenarazi, non eta ere heien antzeaz nahi baita zerbitzatu.

Solas horiek iduki ondoan, Narbalek eraman ninduen magasin, artzenalen eta untzien egiteko zerbitzatzen diren ofizio guzien ikustera. Gauzarik ttipien xehetasuna galdegiten nuen, eta ikasi nituen guziak iskribatzen nituen, beldurrez ahantz zerbait puntu premia zitakeienik.

Bizkitartean Narbalek, zeinak ezagutzen baitzuen Pigmalion eta maite baininduen, asti gabekiene abiatzeari begira zagoen, beldurrez agert

nintzaten erregeren salhatariak, zoinak gau eta egun, hiri guzian baitzabiltzan. Bainan haizeek ez gaintuzten oraino abiatzera uzten. Xeheki portuaren ikartzen ginabiltzalarik, eta tratulari batzuei asko galderen egiten, ikusi ginduen gure gana etortzen Pigmalionen azpiko aintzindari bat. Erran zioen Narbali:

— Errege jakinik heldu da zurekin Egiptotik etorri diren untzi buruzagi batetarik, arrotz bat erakarri duzula zipriendartzat iragaiten dena. Erregek manatzten du atzamana izan dedin, eta gerthuki jakina heia zein tokitako den. Zure biziarek ihardetsiren duzu.

Ordu berean apartatuxea nintzen hurbilagotan ikusteagatik zer hein iduki izan zuten tiriendarrek untzi berritsu baten egitean. Hain negurri zuzenetan zituen untzi harek bere alderdi guziak, non portu hartan egundaino izan zen lasterrena baitzen, eta asko galderen egiten hari nintzen, hein hek hartu izan zituen ofizialeari.

Narbalek, harriturik eta iziturik ihardetsi zuen:

— Bilhatzera noha Ziprako den arrotz hura.

Bainan aintzindari hura begietarik galdu zuenean, laster egin zuen ene gana zer hesturetan nintzen albistearen emaitera.

— Ene Telemake maitea, sobra baizen ez nintzen beldurtu! Galduak gara! Errege gau eta egun bere idurikortasunaz toleiatua, etzarella zipriendarra beldurtua da. Hartua izan zitezin manatzten du. Hilarazi nahi nau ez balin bazaitut haren eskutan ezartzen. Zer eginen dugu? Oi jainkoak! Iguzue zuhurtzia hestura huntarik ilkitzeko. Telemake, erregeren jauregi-rama eraman beharko zaitut. Zipriendarra zarella jazarriren duzu, Amatonteko hirikoa, molde-egile baten semea. Nik erranen dut bertze orduz ezagutu izan dudala zure aita, eta behar bada erregek, gehiago ikartu gabe, goatera utziren zaitu. Ez dut gehiago zure eta ene biziaren begirtzeko bertze biderik ikusten.

Ihardetsi nuen Narbali:

— Hiltzera utzazu zoriak galdu nahi duen dohakabe bat. Oi Narbal, hiltzen badakit, eta sobra derauzut zor, zure sarrarazteko ene zorrigaitzean. Gezur erraitera ene gogo ez dirot behar. Ez naiz zipriendarra, eta ez nakike erraiten hala naizela. Jainkoek ene egitasuna ikusten dute. Heiei dagokote, hala balin bada heien nahia, beren bothereaz ene biziaren begirtzea, bainan ez dut gezur batez begiratu nahi.

Narbalek ihardetsi zeraudan:

— Gezur hortan, Telemake, gaizkirik ez da. Jainkoek berek onhets lirate. Ez du nehorri bidegabe egiten. Bi hogengabei biziarek begiratzen du. Errege bera ez du enganatzen, egitate izigarri batetarik gibelatzeko



baizen. Prestutasunaren amodioa eta jainkoen damuztatzeko beldurra urrunegi heltzen dituzu.

— Aski da —erraiten nioen—, gezurra gezur izan dedin, jainkoen aintzinean mintzo den eta guzia egia zor dioen gizon batez ez aiaher izaiteko. Egia bidegabe egiten dionak, jainkoak damuztatzen ditu eta higuale bere burua, ezen bere barnearen kontra mintzo da. Ez dezazula, Narbal, gehiago aipa zutaz eta nitaz aiaher ez den gauzarik. Jainkoek urrikari balin bagaituzte, bere jakinen dute gure begiratzen. Baldin utzi nahi bagaituzte galtzera, hiltzean egia bitimak izanen gara, eta utziren diotegu gizonen non ikus laido gabeko prestutasun bat bizitze luze bati hautesten. Jadanik nere bizi luzea baizen ez da, hanbat dohakabea denaren gainean. Zuk bakarrik, oi ene Narbal maitea, erdiratzen duzu nere bihotza. Behar ote zen bada zure amodioa arrotz baten alderat hanbat lastimagarria izan zeitzun.

Luzez guduka hortan iraun ginduen, bainan azkenekotz gizon bat hatsak hatsari heldu zena. Erregeren bertze aintzindari bat zen, Aztarbak bidalia. (...)

Ema hura alegera, lausengaria eta sarkorra zen, bainan sedenek bezala, bihotz krudel eta gaixakeriaz bethe bat zuen. Pigmalionen bihotzaren beretzen jakin izan zuen bere edertasunaz, izpirituaz, boz eziaz, eta bere arrabitararen soinu xarmagarriaz. (...) Bizkitartean, harentzat etzuen arbuiorik eta nakaiztasunik baizen. Barnean emaiten zioena gorderik, hura jasan etzazeien ordu berean, egiten zuen harentzat baizen bizi nahi ez balu bezala.

Tirren bazen Malakon deitzen zen lidiendar gazte bat, fauna, nagia, atseginetan pulunpatua. Etzuen gogorik bere larruaren garbitasunaren begiratzeko baizen, sorbalden gainera dilindan zituen ile horien kuskuitatzeko, eta bere xamarraren ixurrei bihurtune pollit bat emaiteko. (...) Arbuio Aztarberentzat erakutsi izan zuen, zeinak hartu baitzuen hisiarik gaixtoena.

Bere hudigoan, asmatu zuen Malakon iraganaraz zitakeiela erregek bilharazten zuen arrotzarentzat, eta ziotenaz, Narbalekin ethorria.

Nahi bezala sinetsarazi zioen Pigmalion, eta egia jakinaraz zezoketen guziak irabazi zituen. Nola erregek gizon presturik ez baitzuen maite, eta heien berezten ez baitzakien, etzen inguratua gizon jaraman eta amarrutsuz baizen, bethi abian haren manu zuzen kontrako eta odol-goseen bethatzera. Holako gizonak Aztarberen eskudantziaren lotsa ziren eta erregeren enganatzen laguntzen zuten beldurrez damuzta emazte burgoitsu hura, zeinak baitzuen haren fidantzia osoa.

Holetan, Malakon, hiri guzian lidiendartzat ezagutua izanagatik, Narbalek Egiptotik erakarri izan zuen arrotz gaztearentzat iragan zen. Preso ezarri zuten.

Aztarbak, beldurrez erregeri mintzatzera goan zedin Narbal eta haren enganioa ager zezan, lehen bai lehen aintzindari hura egorri zioen, hitz hauekin:

— Aztarbak debekatzen derautzu erregeri agertzetik zein den zure arrotza. Ixiltasuna baizik ez derautzu galdegiten, eta jakinen du nola errege geldiaraz zuretzat arrangurarik gabe. Bizkitartean lehen bai lehen untzietan zipriendarrekin sarrarazazu Egiptotik erakarri duzun arrotz gaztea, ez dedin ager hirian gehiago.

Narbalek, bien biziak hola begira ahal izaitiaz loriatua, ixiltasuna agindu zuen eta aintzindari, nahi zuena ardietsi izaitiaz askietsia, itzuli zen Aztarberi bere mezuaz kontu bihurtzera.

Narbalek eta nik ederretsi ginduen jainkoen ontasuna, zeinek zintanari bere golardoa emaiten baitiote, eta baitute hanbat ukigarri den arta prestutasunaren gatik oro menturetaz ezartzen dituztenentzat. (...)

Ordu berean haizeak mudatzen zirela ohartu ginen, eta Ziprako untzientzat alde jartzen zirela.

— Jainkoak agerritzen dira! —oihu egin zuen Narbalek—. Ene Telemake maitea, segurean nahi zaituzte ezarri. Lur krudel eta madarikatu huni ihes egiozu. Dohatsu zuri jarraik ahal lizatena bazterrik gutienik ezaguetaraino! Dohatsu zurekin bizi eta hil ahal lizatena! Bainan dohamen zorrotz batek eraxkitzen nau sor-leku dohakabe huni. Hunekin pairatu behar da. Heltu bada hunen pusken azpian ehortzia izan beharko da. Deus ez du egiten, bethi egia erraiten balin badut, eta nere bihotzak zuzentasuna baizik ez balin badu maitatzen. Zuretzat, oi nere Telemake maitea, errekeritzen ditut jainkoak, eskutik bezala zerabiltzatenak, eman dezazuten dohain guzietarik prezagarriena, zeina baita prestutasun garbia eta goibelik gabea, hil arterainokoa. Bizi zaitzei. Itakara itzul zaitzei. Sosega zazu Penelopa. Libra zazu bere gizongei ausartetarik. Zure begiek ikus ahal dezatela, zure besoek besarka ahal dezatela Ulize zuhurra, eta zure baitan seme bat ediren dezala haren zuhurtzia higualtzen duena! Bainan zure zorionean Narbal dohakabeaz orhoit zaitzei, eta bizi zireno, begira zazu ene alderako amodioa.

Hitz horiek erran zitueneko, ihardetsi gabe, ene nigarrez busti nuen. Asperen luze batzuek ez ninduten mintzatzera uzten. Elkar besarkatzen ginduen hitz bat erran gabe. Untziraino lagundu ninduen. Itsas bazte-



rrean gelditu zen eta untzia abiatu zenean, bata bertzeari beha ginaudezin, elkar ikus ahal izan gindueneraino.

### HIRUGARREN LIBURUAREN AKABANTZA

## LAUGARREN LIBURUA

Kalipzo maitu gabe ordu arteo egon zen, lorietan, Telemaken gertakuntzen entzuten. Solasa trenkatu zioen zer bait pausu har zezan amoreagatik.

— Ordu da —erran zioen—, hanbat neke frogatu ondoan goan zitezien loaren gozoez dastatzera. Ez duzu hemen deusen beldur izaitekorik. Oro alde zaizkitzu. Utzazu beraz zure burua bozkalentziari. Goza zaite bakeaz eta jainkoez bertze emaitza guziez, zoinetaz gainditua izaitera baitzoaz. Bihar, noiz eta ere Ostargiak bere erhi gorriekin zabaltzen hasiko baititu Orienteko athelada urheztatuak, eta Iguzkiaren zaldiek, itsaspetik ilkitzean, hedaturen baitituzte egunaren sugarrak beren aintzinean ihes eragiteko zeruko izar guzietan, orduan berriz loturen gara zure dohakabetasunen kondagailuari. Egundaino zure aitak ez du higu aldu zure zuhurtasuna eta zure bihotza. Ez Achile, Hektorren garhaitzaileak, ez Theze ifernuetarik gibelat itzuliak ez eta ere Alzide handiak berak lurra hanbat mustroetarik garbitu duenak, ez dute erakutsi zuk bezenbat indar eta berthute. Zoazi, ene Telemake maitea jainkoez bihurtu derautzuten Mentor zuhurrarekin. Zoazi harpe berezi hortara, zeinetan behar diren gauza guziak zuen pausuarentzat moldatuak baitira. Otoizten dut Morfe zuen begi erorietara bere gozorik eztenak ixur detzan, jainkozko bafada bat lerraraz dezan zuen alderdi nekatuetan eta zuei igor detzatzuen amets arin batzu, zeinak zuen aldaketan dabiltzalarik zuen izpirituak lausengaturen baitituzte iduripen xarmagarrienez, eta zuenganik urrun bulkaturen, zuek lasterregi atzarraraz zaitzaketen gauza guziak.

Jainkosak berak lagundu zuen Telemake harpe berezi batetara. Etzen ez harena baino gutiago lañoa, ez gutiago atsegina. Iturri batek zoko batetarik, loa deitzen zuen azantz eme bat egiten zuen. Leku hartan ninfek arrimatu zituzten bi ohe hostoila guziz, zeinen gainean hedatu baitzituzten bi larru handi, bata lehoinarena Telemakentzat, eta bertze hartzarena Mentorrentzat.

Loaz begiak hestera utzi gabe, Mentor hunela mintzatu zitzaioen Telemaki:

— Zure gertakuntzen kondatzeko atseginak lerrarazi zaitu. (...) Hortik gathibutasun gaitzago baten atheratzea baizen ez duzu egin. Nola uste duzu jainkosak orai bere iriatik ilkitzera utziren zaituela zure gertakuntzen kondagailuaz zoratu duzun ondoan. Balenorioaren amodioak zuhurtziarik gabe mintzarazi zaitu. Gertakuntza batzuen kondatzea agin-



du zerautzun eta Ulizen dohamena jakinaraztea. Horietaz aipatu gabe, luzez mintzatzeko bidea ediren du eta jakin nahi zituzkeien gauza guzien xeheki erraitera amoratu zaitu. Holakoa da emazte lausengarien antzea. Oi Telemake, noiz aski zuhurturen ote zara balenorioz ez behin ere mintzatzeko? Noiz jakinen ote duzu zure alde diren gauzen begiratzen, heien erraitetik onik ez dukezunean? Bertzeak zure umotasunaz espantitzen dira, adin batean zeintan eskas izaita barkakizun baita. Nitaz den bezen-batean, ezin deusere barka dezazuket. Bakarra naiz ezagutzen zaitudana eta aski maite zaitudana zure huts guziak zerorri erakusteko. Zonbatez oraino zure aitaren zuhurtasunetik urrun zaren!

— Zer bada —ihardetsi zuen Telemakek— gibela nintakeien Kalipzori ene dohakabetasunen kondatzetik?

— Ez —erran zuen Mentorrek—. Kondatu behar zitzaizkon, baina egin behar zinduen urrikalmendua eman zezoketenak baizen ez erranez. Erran zinezokeien aldiz ibildaun baten pare erabilia izan zinela, aldiz gathibu Zizilian, gero Egiptoan. Aski erraita zen.

— Zer eginen dut beraz? —erran zioen Telemakek boz eme eta ethorkor batekin.

Mentorrek ihardetsi zioen:

— Ez da gehiago muga zure gertakuntzen gainerakoa Kalipzori gordetzeko, aski badaki ezin enganatua izaiteko oraino ez dakien gainean. Zure begirakortasuna haren behartzeko baizen ez laite orai zerbitza. Bihar akabaturen duzu beraz erraitetik zuretzat zer egin duten jainkoek, eta ikas zazu bertze aldi batez begiratukiago mintzatzeko zerbait laudorio bihurraz dezazuketen gauzez.

Telemakek amodiorekin onhetsi zituen hanbat solas zuhurrak eta etzan ziren.

Febuzek bere lehen arraioak lurreraino hedatu zituen bezain laster, Mentorrek, entzunik jainkosaren boza, zeinak bere ninfak oihanetara deitzen baitzuten, atzarrarazi zuen Telemake. Erran zioen:

— Loaren garhartzeko ordu da. Bihur gaitezin Kalipzoren gana. Bainan nabarmen zaitezi haren solas ezkiez. Ez dezozula behin ere idek zure bihotza. Haren balakuen pozoadura lausengariak beldurti zaitezi. Barda heltzen zintuen zure aita zuhurra baino gorago, Achile ezin garhaitua, Theze deitatu, Herkule jainko bilhakatu ere baino gorago. Ohartu ote zinen zenbatez den sobranioa laudorio hori? Sinetsi ote zintuen haren solasak? Jakinzazu ez dituela berak sinesten. Etzaitu lausengatzen fluxuste zaituelakotz baizen, eta aski balenoriotsua zure burua enganatzera uzteko zure egintzei hurbiltzen ez diren laudorio batzuez.

Gero goan ziren jainkosa heien begira zagoen lekura. Iri aire batekin behatu zioten, eta, bozkario itxura baten azpian gorde zituen bihotza asaldatzen ziotzaten beldurkundera eta irakidura, ezen aintzinetik ikusten zuten, Telemake, Mentorrez lagundua, Ulize bezala eskapaturen zitzaioela.

— Ene Telemake maitea —erran zuen—, lehen bai lehen askies zazu ene lehia. Gau guzian, iduritu zaut ikusten zintudala Feniziatik abiatzen eta Zipran dohamen berri baten bilhatzen. Erran dezaguzu beraz zer izan zen piaia hura, eta ez dezagun astirik gal.

Orduan jarri ziren sorro bioletez estali baten gainean, itzal handi baten azpian. (...)

Bizkitartean ninfa guziak malgutzen ziren beharriaren hedatzeko eta ustei erdi baten moldean zauden hobeki entzuteagatik eta ikusteagatik. Guzien begiak geldi geldiak gizon gaztearen gainean zauden.

Telemake, begiak beheiturik eta ahalke maitagarri batekin, berriz hunela lotu zen bezperako solasari:

— Haize on baten bafada eztiak gure belak hanpatu zituen bezain laster, Feniziako lurak gure begietarik suntsitu ziren. Nola zipriendarrekin bainintzen, zoinen azturak ez baintuen ezagutzen, gogoan hartu nuen ixil-ixila gauza guziak kontuz egon behar nintzela, eta begirakortasuna hein guzietan iduki, heien peretxuaren irabazteagatik. (...)

Bizkitartean beren buruak bozkalentzia zoro bati uzten zituzten. Sakerak, lanaren etsai, arrauen gainean lohakartzen ziren. Pilotoak, lorez koroaturik, lema konturik gabe, eskuetan zaukan pegar handi bat hurran hustua. Hark eta bertze guziek arnoaz nahasirik ematen zituzten kantu batzu, bertutea maite dituzten guziak lastu behar zituztenak.

Hunela itsasoko lanjerak ahanzten zituztelarik, bet-betan kalerna batek zerua eta itsasoa asaldutan ezarri zituen. Haizeak, nausituak, orroa muthiri batekin inharrusten zituzten gure belak. Tirain beltzek untziaren saihsak zafratzen zituzten eta ahueendarazten ukaldien azpian. Aldiz tirain goratuen biskarrera igaiten ginen, aldiz iduri zuen itsasoak untziaren azpitik ihes egiten zuela eta hondarrera ardikitzen gaintuela. Gure aldean ikusten gintuen harkadi batzu, zoinen kontra uhin muthirituak orroa lazgarri batekin lehertzen baitziren. Orduan frogantzaz ezagutu nuen Mentorri ardura entzun nioena: gizon faun eta atseginetan pulunpatuei hesturetan bihotzak eskas egiten diotela. Zipriendar guziak, eroriak, ema batzu bezala nigarrez zauden. Ez nuen entzuten oiuhu urrikalkizunik baizen, biziko atseginen doluak, sakrifizio egiteko agintza alferrak jainkoei, portura heltzen ahal balin baziren. Ez manatzeko, ez egiteko nehork etzuen idukitzen aski adimendu. Iduritu zitzaudan nere bizia begi-



ratzearekin batean bertze guziena begiratu behar nuela. Lema eskuratu nuen, zeren pilotoa, Bakanta baten pare arnoak nahasia, hesturaren eza-gutzeko ez baitzen gai. Bihotz eman nioten saker izituei. Beheitiarazi nioztaten belak. Indar handi batekin arrauak erabili zituzten. Harkadien erditik iragan ginen eta hurbildanik ikusi gintuen herioaren lazgarritasun guziak.

Gertakuntza hori amets bat bezala iduritu zitzaizkien bizia zor zerautaden guziei: behatzen zerautaden harridura batekin. Azkenean heltu ginen Ziprako irlara. (...)

Leihorrera bezain laster, oihan baten itzalgunean, nere ganik aparsko, ikusi nuen Mentor zuhurraren begitartea, bainan hunen bekundea hain hitsa, goibela eta garratza iduritu zitzaudán, non den gutiena ezin goihereatu bainintzen. Oihu egin nioen:

— Zu ote zara bada, oi nere adiskide maitea, nere peskiza bakarra? Zu ote zara? Zer bada! Zu bera ote zara? Ala itxura enganagarri bat heldu da nere begien burlatzera? Zu zara Mentor? Ala ez ote da zure itzala nere ondikoez oraino axolduria? Ez ote zara bere prestutasunaz gozatzen diren arima dohatsuetarik eta zoinei jainkoek Elizeko baratzetan atsegin garbiak emaiten baitiotzate bethiereko bake batean? Mintza zaite, Mentor. Bizi zara oraino? Zutaz gozatzeko aski zorion ote dut? Ala ez ote da nere adiskidearen itzal bat baizen?

Hitz hauk erraitearekin batean, guzia bozkariotan, hunen gana laster egiten nuen, hatsa galtzeko heineraino. Oi jainkoak! Badakizue nolakoa izan zen nere bozkarioa hauteman nuenean nere eskuek ukitzen zutela! «Ez, ez da itzal faun bat! Badaukat, besarkatzen dut. Oi nere Mentor maitea!». Hola egin nuen oihu. Hunen begitartea nigar zurrutaz bustitzen nuen. Hunen lepoari lotua nindagoen ezin mintzatu gabez.

Noizbait erran nioen:

— Oi! Nondik heldu zara? Zer hesturetan ez nauzu utzi nereganik urrunduz! Eta orai, zer egin niro zu gabe? (...)

Mentorrek ihardetsi zeraudan:

— Utzi behar zaitut, orai berean banoha. Ez naiz trikatzera haizu.

— Nora zoazi bada? —ihardetsi nioen—. Zein da leku ezin egona ni jarraikiren ez natzaitzuna! Niri espakatzetik ez dezazula uste izan. Lehenago hil nindaite zure urhatsen gainean.

Hitz horiek erraitearekin nere indar guziaz tinkaturik naukan. Erran zeraudan:

— Alferretan uste dukezu idukiren ahal nauzula. Metofiz krudelak etiopiar edo mairu batzuei saldu ninduen. Beren tratua zela medio, goan

ziren Ziriako Damasera. Saldu nahi izan ninduten dirutze handi baten peskizan Azael deitzen den baten ganik, zeinak gathibu grek bat bilhatzen baitzuen Greziako azturak ezagutzeagatik eta gure jakitatez argitu nahiz. Haletan Azaelek karasti erosi ninduen. Gure azturez jakintsun egin dudanak eman dio lehia Kretako irlara iragaiteko, Minozen lege zuhurrak ikartzeagatik. Gure piaian Zipran leihorreratzea haizeek bortxatu gaituzte. Haize on baten haiduru, tenplora bere emaitzen egitera etorria da. Hara non ataritzen den. Haizeek deitzen gaituzte, jadanik betetzen dituzte gure belak. Adio, Telemake maitea, jainkoe beldurra duen gathibu bat zuzenki bere nausiarri jarraiki behar zaika. Jainkoek ez naute gehiago uzten nere buruaren jabe. Baldin hala balin banintz, badakite, zurea nindaite bakarrik. Adio! Ulizen nekheez orhoit zaitezi, eta Peneloparen nigarrez. Jainko zuzenez orhoit zaitezi.

— Ez, ez —erran nioen—, nere Mentor maitea, ez da zure baitan izanen ni hemen bakarrik uztea. Lehenago hil ezenetz zu ikus ni gabe hemendik abiatzen. Nausi ziriendar hori urrikalmendurik gabekoa ote da? Tigrina baten ditiak zurgatu ote ditu haurrean? Nahiko ote zaitu nere besoen artetik irazi? Heriotzea eman behar deraut edo onhetsi behar du zuri jarraiki nedin. Zerorrek ihes egitez erraiten derautazu eta zure urhatsen jarraikiz ihes egin dezadan ez duzu nahi! Azaeli mintzatzera noha. Behar bada nere gaztetasunari eta nere nigarrei urrikalduren da. Zuhurtzia maite duenaz geroztik eta hain urrun haren bilha dohanaz geroz ez diro izan bihotz bat barbaroa eta samurtasunik gabea. Haren oinetara eroriko naiz, haren belhaunak besarkaturen ditut, ez dut abiatzera utziren non ez duen onhesten zuri jarraikitzea. Nere Mentor maitea, zurekin gathibu jarriren naiz. (...)

Ordu berean Azaelek Mentor deitu zuen. Ahuspez jarri nintzen haren aintzinean. Balditu zen hala ikusteaz ezagutzen etzuen arrotz bat.

— Zer nahi duzu? —erran zeraudan.

— Bizia —ihardetsi nioen—. Ezen, ez naite bizi, zurea den Mentor huni jarraik nedin ez balin baduzu onhesten. Ulize handiaren semea naiz. Hura da Troiesko hiri ederra, Asia guzian aipatua, herraustu duten Greziako erregetarik zuhurrena. Ez derautzut balenorioz erraiten nere sortzea, bainan bakarrik zerbait urrikalmendu nere dohakabetasunentzat ardiesteagatik. Bilhatu dut nere aita itsaso guzietan gizon hunekin, zeina bertze aita bat neretzat baitzen. Ondiko guzien gaintzeko, zoriak hau ere khendu deraut. Zure gathibu egin du. Onhets nazazu ni ere hala izan nedin. Baldin egia bada zuhurtziaren amodiorik baduzula eta Kretara zoazila Minoz errege onaren legeen ikastera, nere hasgorapenei eta nere niga-



rei ez dezazula gogor zure bihotza. Errege baten semea ikusten duzu gathibusunaren galdez bere azken iheslekua bezala. Bertze orduz Zizilian hil nahi izan dut gathibusunari ihes egiteagatik. Bainan nere lehenbiziko ondikoak, zoriaren arbuioen hasikuntza mendre bat baizik etziren. Orain nere beldurra da zure gathibuen artean ez hartua izatea. Oi jainkoak! Ikus zatzue nere ondikoak. Oi Azael! Minozez orhoit zaitenzi, zoinaren zuhertasuna miresten baituzu eta zoinak Plutoneren erresuman biak jujaturen baikaitu.

Azaelek begitarte ezti eta urrikalmendutsu batekin eskua hedatu zeraudan eta eraiki ninduen.

Erran zeraudan:

— Badakizkit Ulizen zuhurtzia eta prestutasuna. Ardura Mentorrek erran izan deraut zer ospetan jarri den greken artean, eta bertzalde haro lasterrak haren izena iguzki aldeko jendaia guzierei entzunarazi du. Jarraiki zaite niri, Ulizen semea. Zure aita izanen naiz bizia eman derautzun hura edirenen duzun arteo. Zure aitaren ospez, haren dohakabetasunez eta zerorrenez ez balin banintz ere ukitua, Mentorrentzat dudan amodioak erakar nintzake zutaz arta hartzera. Egia da gathibu bezala erosi dudala, bainan adiskide zin bat bezala begiratzen dut. Hunentzat eman dudan diruak adiskiderik maitena eta prezagarriena eman deraut. Hunen baitan zuhurtzia ediren dut. Huni diot zor prestutasunarentzat dukedan amodio guzia. Ordu huntarik beretik libro da. Zu ere hala izanen zara. Batari eta bertzeari ez derautzuet bihotza baizen galdegiten.

Apur batez, atsekaberik minenetik, gizonak froga ahal dezakeien bozkalenziaz handienara iragan nintzen. Nere sor-lekuari hurbiltzen nintzen. Hartara bihurtzeko laguntza bat edireiten nuen. Prestutasunaren amodiorik garbienaz maite ninduen gizon baten aldean izateko atseginaz gozaten nintzen. Azkenekotz oro edireiten nintuen, gehiago ez uzteko-tan Mentor edireitean.

Azael aintzinatzen da itsasoko legarraren gainean. Jarraikitzen gatzaitzo. Sakerek arrauz urratzen dituzte uhin deskantsuak. Haize arin bat gure beletan dostatzen da, ernatzen du untzia dena eta bizitasun ezti bat emaiten dio. Zipra laster suntsitzen da. (...)

Bidean, Azael eta Mentor eleztatzen ziren bothere lehenbiziko hartaz, zeinak egin baititu zerua eta lurra. Argi bakun hartaz, ezin mudatua eta zoinaren hedadurak zedarririk ez baitu. Guzierei emaiten dena zatitu gabe. Egia nausi hartaz orotara hedatzen dena. Izpiritu guziak argitzen dituen, iguzkiak gauza guziak argitzen dituen bezala. Azaelek erraiten zuen:

— Nork ere ez baitu egundaino argi arraso hura ikusi, haina itsua da, sortzez itsu den bat bezala. Gau ilhun batean iragaiten du bere bizia, hala nola urteko zombait hilabetez iguzkiak argitzen ez dituen jendaia. Zuhur derauka bere burua, erhoa da. Oro ikusten dituela uste du, eta ez du deusere ikusten. Hiltzen da, nehoiz deusere ikusi gabe. Gorenaz zombait distiradura ilhun eta faltsu ikusten ditu, itzal faun batzu, zombait iduripen zirik deusere ez dutenak. Hala dira gizon guziak haragiaren atseginenez eta izpirituko xarmadurez herrestatuak. Ez da lurraren gainean egiazko gizonik, bethiereko sentsu hura behartzen, maitatzen et hari jarraikitzen direnez kanpo. Hark ibentzen deraiku gure gogoeta onak, hark iroi egiten derauku gaixtoez. Adimendua eta bizia higuak harengatik idukitzen ditugu. Argizko itsaso handi baten pare da. Gure izpirituak dira hala nola iturri ttipi batzu handik ilkitzen direnak eta hara bihurtzen direnak han suntsitzeko.

Nahiz ongi sar ez nindedin solas horien zuhertasun handian, bizkitartean ez dakit zer garbirik eta gorarik hetan edireiten nuen. Su bat nere bihotzean ibentzen zuten. Eta egia distiratzen iduritzen zeraudan solas horietan orotan. Aintzina mintzatu ziren jainkoen ethorkiaz, gizon handiez, bertsulariez, urhezko mendeaz, uholdeaz, gizonkiaren hasteko iztorioez, ahantzpeneko hibaiaz, zeinetan pulunpatzen baitira hilen arimak, Tartaroko leze beltzean gaixtaginentzat bereziak diren sekulako oinhaveez, eta zorionezko bake hartaz, zeintaz justuak, gal beldurrik gabe, gozaten baitira Elizeko baratzetan.

Azael eta Mentor mintzo zirelarik, delfin multzu bat ikusi ginduen ezkatat estaliak, zeinak urhez eta ostargizkoak iduri baitzuten. Dostatzean ura harrapoz betherik jauzarazten zuten. Heien ondotik heldu ziren Tritonak, zeinek turuta joiten baitzuten bere mazkor karabilatuekiñ. Amfitriten karrosa inguratzen zuten. Hura herrestatzen zuten itsas-zaldi batzuek elhurra baiño xuriagoak, zoinek, uhin gaziak urratzean, beren ganik urrun gibelat uzten baitzuten hildo luze bat itsasoan. Begietarik sua zarioten eta ahotik khea. Jainkosaren karrosa mazkor bat zen bilgura miretsagarri batetako. Iberak baino xuritasun distirantagoa zuen, eta arrodak urhez ziren. Karrosa harek itsaso deskantsuaren axalean hegaldaka zohala iduri zuen. Ninfa saihera bat, lorez koroatua, multzuan igerikatzen zen karrosaren giblean. Heien ile ederrak sorbalden gainera dilindan zauden, eta haizeek beren gogara bulkatzen zituzten. Jainkosak esku batean zigor urhe bat ekartzen zuen tirainei manatzeko, bertzeaz belhauen gainean idukitzen zuen Palemon jainko ttipia, bere semea, bulharrari lotua. Begitarte goiherea zuen eta supertasun ezti bat haize burgoiei eta





kalerna beltz guziei ihes eragiten ziotena. Tritonek zaldiak bidatzen zituzten eta soka urheztatuak idukitzen. Purpurazko bela handi bat airatzen zen karrosaren gaineko aldean. Erdi hanpatua zen haize xume multzu baten bafadaz, zeinek egin ahalaz bulkatzen baitzuten beren hatsez. Airearen erdian ageri zen Eola, guzia hara-hunetan, khexu, sutan; haren begitarte zimur eta samurrak, haren boz mehatxagarriak, haren bekhein beltz eta dilindariak, haren begi su uher eta dorpe batez beteek, ixilik idukarizten zituzten ipar muthiriak eta hodoi guziak gibelat bulkatzen. Bale izigarriak eta bertze itsasoko mustroak, ur karatsa sudur mizpiretarik zurrustatzen zutela, lehen bai lehen beren harpe barrenetarik jainkosaren ikustera atharatzen ziren.

#### LAUGARREN LIBURUAREN AKABANTZA

## BORTZGARREN LIBURUA

Gauza ikusgarri hortaz miretsiak egon ginen ondoan, Kretako mendiak abiatu ziren agertzen. Zeruko hodoietarik eta itsasoko uhinetarik oraino aski nekez berezten gintuen. Laster ikusi ginduen Idako mendien kaskoa, zeina irlako bertze mendien gainetik altxatzen baita, hala nola oreñ zahar batek oihanean ekartzen baititu bere adarrak, jarraitzen zaizkon ume gazteen buruen gainetik. Emeki emeki garbikiago ikusi gintuen irlako leihorak, zeinak bihurtunean begietara agertzen baitzeraizkigun. Zenbatenaz ere Ziprako lurra iduritu baitzeraukun artarik gabe eta larre utzia, hanbatenaz Kretakoa ageri zen nasaia eta fruitu guziez berregindua hango jendeen nekheen medioz.

Alde guzietan ikusten gintuen herrixka batzu ongi jarriak, herri batzu hiri eta hiri ederrenei higualtzen zirenak. Ez ginduen alhorrik edireiten non laborari ernearen eskuen hatzak etziren ageri. Orotan goldeak utzi zituen hildo luze batzu. Elhorriak, arranzeak eta lurra alferretan poxelatzen duten bertze basate guziak etziren leku hartan ezagutuak. Atseginekin begiratzen ginduen haran barrenei, zeinetan idi artaldeak orroaz baitzauden alhapide gizenetan, ur basterrean; zikiroei, goihen baten mazelan alhan zoazenak; elgi zabalei, estaliak ogi horituz, Zerez podorosaren emaitza aberatsak; azkenekotz mendiei, aihenez eta mahats mulko jadanik gorrituz berreginduak, zeinek biltzailei Bakuzen emaitza eztiak agintzen baitzairen gizonen grinena gozatzeko.

Mentorrek erran zeraukun Kretan bertze orduz izan zela eta argitu gaintuen berak zakitzan gauzez.

— Irla hori —zioen—, kanpotar guziez ederretsia da eta bere ehun hiriez aipatua. Errexki hazten ditu bere jende guziak ezin kondatuak diren arren, eta hori, zeren lurra ez baita behin ere unhatzen lantzen dutenen gainera bere onen ixurtzen. Ezin ahi daite haren sabel podorosa. Zenbatenaz ere baita jende gehiago toki batean, hanbatenaz, langileak balin badira, gozatzen dira nasaizia gehiagoz. Batzu bertzez ez dute zeren behin ere bekaiztu. Lurrak, ama on harek, bere dohainak nasaitzen ditu, lanaren kariaz, fruituak merezitzen duten bere haurren multzuaren arabera. Gizonen bethiereko gosea eta jaramankeria dira heien zorigaitzaren iturri bakarrak. Gizonek oro bereganatu nahi dituzte eta sobrakinarean lehiaz beren buruak dohakabetzen dituzte. Lañoki bizi nahi balute eta



egiazko beharren sasiatzeaz askietsi, nasaizia, bozkarioa, bakea eta batasuna orotan ikus laitezte.

Hori Minozek, errege guzietarik zuhurren eta hoberenak ezagutu zuen. Irla huntan espantagarrienik ikusiren dituzun gauza guziak haren legeen ondoreak dira. Haurrak altxarazten zituen moldeak gorputzak sanho eta hazkar eragiten ditu. Laketarazten dira lehenik bizitze arront, zuhur eta langile bati. Ustez gozokeria guziek gorputza eta izpiritua gurtzen duztela, etzaiote behin ere bertze atseginik aipatzen, ezenetz ospe handitan jartztea, eta prestutasunaren medioz ezin bentsutuak bilhakatztea. Ez da hemen bakarri bihotza emaiten herioaren arbuioan gerlako hesturatan, bainan oraino aberastasun sobra handien eta atsegin ahalkagarrien ostikatzean. Bertze jendaien artean egartzen diren hirur bizio gaztigatzen dira hemen: ezagutzagabetasuna, egoskeria eta jaramantasuna.

Handiratasunak eta nagikeriak ez dute zebatu beharrik, ezen Kretan ez dira ezagutuak. Han guziak lanean hari dira, eta nehorik ez dute aberasterik amesten. Bat bederak bere nekeez bere burua askietsia derauka bizitze ezti eta begiratu batez, zeinetan egiazki premia diren gauza guziez bakean eta nasaizian gozatzen baita. Han ez da behar ez etxeko tresna balios, ez arropa berregindu, ez bazkari handi, ez jauregi urheztaturik. Arropak ile hautuzkoak dira eta karantza ederrekin, bainan higuialak zeierkadurarik gabe. Ontuntzak zuhurrak dira, arno gutirekin. Ogi ona parterik hoberena da, zuhainek berariaz bezala eskeintzen dituzten fruituekin eta artaldean esnea. Gorenaz ere, han, zenbait haragi pozin onkailurik gabe jaten da, eta oraino, laborantzaren argiarazteko, artalde larrietan diren idirik ederrenak begiratzeko arta hartzen dutelarik. Han etxeak garbiak dira eta atseginak, bainan edergailurik gabe. Argindura superra ezagutzen dute, bainan jainkoen tenploentzat berezia da, eta gizonak ez laizte ausarta beren egoitzak izaitea, herioaren nausienen pare. Kretoarren ontasun handiak dira osagarria, indarra, bihotzotasuna, etxe barneko bakea eta batasuna, herritar guzien libertatea, premiazko gauzen nasaizia eta sobrakinen arbuioa, laneko ohikuntza eta alferkeriaren higuintza, prestutasunean elkarren lehia, legeei amorra eta jainko zuzenen beldurkundera.

Galdegin nioen heia zertarainokoa zen erregeren eskundantzia, eta ihardetsi zeraudan:

— Nausitasun osoa badu bere azpikoen gainean, bainan nausitasun bera legeek badute haren gainean. Ongiaren egiteko indarririk hedatuena baditu eta eskuak amarratuak gaizkia egin nahi duen ordu beretik. Legeek, populuak eskuetara emaiten diotzate, zaintzeko gauzarik baliosena beza-

la, bere azpikoen aita izaitekotan. Nahi dute gizon bakar bat bere zuhurtziaz eta begirakortasunaz hanbat gizonen zorionari zerbitza dedin, etez hanbat gizon, bakar baten urguiluaren eta faunkeraren, bere erromeseriaz eta gathibusun apalaz lausengatzeko zerbitza ditezin. Erregek ez du deusere behar bertzeek baino gorago, salbo bere eginbide nekhatuetan laguntzeko premia direnak eta populuei ibentzeko legeak ihardukarazi behar dituenaren ahalkea. Bertzalde, erregek behar du bertze nor nahik baino nagikeriaren etsaiago. Jan-edanetan, urguiluan eta handiratasunean begiratuago. Ez du bertze gizonen baino aberastasun eta atsegin gehiago behar, bainan zuhurtzia, prestutasun eta ospe gehiago. Kanpoan behar du herriaren begirale armadak manatz, eta barnean populuen juje, heien on, zuhur eta dohatsu eragiteko. Jainkoek ez dute beretzat egin errege. Ez da hala populuen gizona izaitekotzat baizen. Populuei ditu zor bere asti guziak, bere arta guziak, bere amodio guzia, eta ez du erreginatzea merezi non ez duen bere burua ahanzten, bere buruaz arnegu egiteko populuen onaren gatik.

Minozek ez du nahikatu bere haurrak ondolik erregina zitezin, lege horien arabera erreginatzekotan baizen. Bere populua bere haurrak baino maiteago zuen oraino. Horrelako zuhurtziaz hanbat bothere eta zorion ibeni du Kretan. Begirakortasun hortaz itzali zuen gerlari handi guzien ospea, zeinek beren populuak zerbitzarazi nahi baitituzte beren handitasunari, erran nahi da, beren urguiluari. Azkenean, bere zuzentasunaz merezitu du ifernuan izaitea hilen juje soberanoa.

Mentorrek solas horiek ihardukitzen zituelarik, irlan leihorreratu ginen. Ikusi ginduen labirenta aipatu hura, Dedale antzosaren lana, Egiptoan ikusi izan ginduen labirenta handiaren idurian egina. Etxe ikusgarri hari begira ginaudelarik, ikusi ginduen itsas bazterra jendez estalia eta multzuan itsasotik hurbilsko zen toki batetara laster egiten zutela.

Galdatu ginduen heia zer zuten laster hura, eta huna zer erran zeraukun Nozikrate deitzen zen kretoar batek:

— Idomene, Dukalioenen semea eta Minozen ilobasoa, Greziako bertze erregeak bezala, goan zen Troiesko sethiora. Hiri hura herraustu ondoan, untzietan abiatu zen Kretako aldera. Bainan kalerna bat hain muthiria altxatu zen, non haren untziko lema idukitzen zuenak eta itsasoetan ezagutza duten bertze guziek ere nofraia ezin bertzea zela uste izan baitzuten. Bat bederak ikusten zuen herioa begien aintzinean. Bat bederak itsasoko hondarrak ikusten zituen hurrupatzeko hirrikatuak. Bat bederak bere zorigaitzaz heia goa zuen. Etzuen ere xoilki igurikitzen ehortziak izanik, Stixa iragaiten duten itzalen pausu lastimatia. Idomenek



begiak eta eskuak zerura goitituak othoizten zuen Neptune. Oihu egiten zuen:

— Oi jainko botheretsua, itsasoetako erreinua idukitzen duzuna, dohakabe bat entzun dezazu! Haizeen oldarraren bortxa Kretako leiho-rrera helarazten balin banerauzu, agertuko zaudan lehenbiziko burua sakrifikaturen derautzut.

Bizkitartean, haren semea, lehen bai lehen bere aita ikusi nahiz, haren besarkatzera laster egiten zioen bidera. Dohakabea, bere galtzape-nera laster egitea zela etzakiena! Aita, pesiatik begiratu, hanbat lehiatu portu hartara heltzen hari zen. Neptuni eskerrak bihurtzen zioizkien zeren entzun izan zituen haren botuak. Bainan laster ezagutu zuen zein ondikoakoak zitzaizkon bere botuak. Bere zorigaitzaren iduripen batek, hain guti umoturik egin zuen botuaz urriki samin bat ibentzen zioen. Bere herritarren erdira agertzeaz lazten zen eta ikaran zagon beldurrez ikus lurraren gainean zuen gauzarik maitena. Bainan Nemeziz krudelak, jainkosa urrikalmendurik gabea eta bethi gizonen eta bereziki errege supe-rren gaztigatzeko erne dagoenak, ageri gabe, esku ondikoako batez bulkatzen zuen Idomene. Heltzen da. Begien altxatzera doi doa menturatz-zen da. Bere semea ikusten du. Lazturik gibelatzen da. Haren begiek bilhatzen dute, bainan alferretan, gutiago min egiten dioen bertze buru bat bitimatatz zerbitzatzeko.

Bizkitartean semea lepora jauzten zaio eta guzia harritua gelditzen da aitak hain gaizki ihardesteaz haren amodioari. Nigarretan urtzen ikus-ten du.

— Oi nere aita! —erraiten dio—. Zerk emaiten derautzu bihotzmin hau? Zer! Hain luzez urrundua egon ondoan urriki ote duzu bada zure burua berriz ikusteaz zure erresuman eta zure semearen bozkalentzia egi-teaz? Zer egin dut? Ni ikus beldurrez begiak aldaratzen dituzu.

Atsekabearen sartua, aitak etzuen deusere ihardetsi. Noizbait, hasbe-herapen luze batzuen ondoan erran zuen:

— Oi Neptune! Zer agindu deraiat! Zer preziotan nofraitatik begira-tu nauk! Bihur nezak uhin eta harkadie, zoinek ni puskatzean, akabatu behar baitzuten nere bizi dohakabea. Utzak nere semea bizitzera. Oi jain-ko krudela! To, huna nere odola, horrena utzak.

Solas horiekin batean ezpata atara zuen bere buruari sartzeko, bai-nan haren inguruan zirenek, baratu zioten besoa.

Zofronime zaharra, jainkoen xedearen erraileak, seguratu zioen, bere semeari heriotzea eman gabe, Neptune askies zezakeiela.

— Zure agintza —zioen—, ez da umoa izan. Jainkoak ez dira gizon odolaz ohoratu nahiak. Zure agintzaren hogenari begira duzula eratziki-tzetik haren bethatzea lege guzien kontra. Ehun zezen elhurra baino xuriagoak eskein zotzu Neptuni. Haren aldare, liliz khoroatuen inguruan ixur-arazazu heien odola. Jainko haren ohoretan altxaraz zazu isentsu goxo baten khea.

Buru behetitua eta ihardetsi gabe, Idomenek entzuten zituen solas horiek. Errabiak haren begietan argitzen zuen. Haren begitarte hitsa eta desegina noiz nahi mudatzen zen. Haren alderdi guziak ageri ziren ikaran. Bizkitartean semeak erraiten zioen:

— Huna non naizen, aita. Neptunen emarazteagatik, zure semea heriotzerat abian da. Ez dezazula haren hisia zure gainera bihur. Gogotik hilen naiz, nere heriotzeaz zuretik begiratu izanen zaituenaz geroz. Jo zazu, aita. Etzaitzila beldur izan nitan edireitea seme bat zutaz gai ez dena eta herioak izitzen duena.

Orduan Idomene, bere baitarik galdua, eta ifernuko fuliek toleiatzen balute bezala, hurbildanik begia idukitzen zioten guzien oharkabean, ezpata sartzen du haur haren bihotzean. Khea eta odola dariola athara-tzen du bere buruari sartzeko. Oraino berriz lotzen zaitzo inguruan zituen jendeak.

Haurra bere odolean erortzen da. Heriotzeko lanbroez goibeltzen dira haren begiak. Argiari erdi-zabaltzen ditu, bainan hura ediren bezain laster ez diro gehiago jasan. Nola alhorren erdian Ama-lili eder bat, pikoiak bere erroan ebakia, iraungitzen da eta gehiago xutik ez dagoke. Ez ditu oraino galdu xuritasun bizi hura eta begiak zoratzen dituen disti-ra hura, bainan ez du gehiago lurra hazten, eta iraungi da haren bizia. Higual Idomenen semea, lili gazte eta samur baten pare, ebakia da bere haurtasunetik.

Aita, atsekabearen minenean, sorhaitzen da. Ez daki non den, ez zer hari den, ez zer egin behar duen. Kordokan badoha hiriko aldera eta bere semea galdegiten du.

Bizkitartean populuak, haurarentzat urrikaldia, aborritzen zuen aitaren egitate izigarria eta oiuhu egiten zuen jainko zuzenek fulien eskue-tara eman zutela. Errabiak emaiten diotza harmak. Makilak eta harriak biltzen ditu. Makurrak bere pozoadura beltzaz bihotz guziak gaizkuratzen ditu. Kretoarrek, kretoar zuhurrek, hanbat maitatu duten zuhurtzia ahanzten dute. Ez dute gehiago Minoz zuhurraren ilobasoa ezagutzen. Idomenen adiskideek ez dute gehiago harentzat untzietan baizik salba-mendurik edireiten. Harekin sartzen dira heien barnean eta uhinen goga-



ra ihes egiten dute. Bere baitara itzuli zenean, Idomenek eskerrak bihurtzen diotzate zeren athara duten bere semearen odolaz busti duen lur batetarik eta zeintan gehiago ezin egon bailaite. Hezperiako aldera haizeek bulkatzen dituzte eta zalantindarren lurretan erresuma berri baten asentatzera badoazi.

Bizkitartean kretoarrek ez dute gehiago erregerik. Baten berezteko xedea hartu dute, zeinak oraiko legeak bere garbitasunean begiraturen baititu. Huna nola egin behar duten hautamen hori. Hemen bilduak dira ehun hirietako lehenbiziko guziak. Jadanik sakrifizioetarik hasi dira. Gizon zuhur aipatuen guziak inguruko lekuetarik bilarazi dituzte, manatzeko gai agertuko direnen zuhurtasuna ikar dezaten amoreagatik. Arrimatuak dira joko publikoak. Han gudukaturen dira erregetasuna nahi duten guziak, ezen erreinua saritzat eman gogo diote izpirituz eta gorputzez bertze guzien garhaitzaile berezten dutenari. Errege bat nahi dute gorputzean indar eta maina duena eta arima zuhurtziaz eta prestatutasunaz berregindua. Hunat arrotz guziak deituak dira.

Iztorio harrigarri hori guzia kondatu ondoan, Nozikratek erran zeraukun:

— Oi arrotzak, laster egizue beraz gure bilkura Bertzeekin gudukaturen zarete eta zuetarik bati garhaizia dohatu balin badiote jainkoek, haina leku hautan erreginaturen da.

Jarraiki gintzaizkon bentzutzeko lehiarik batere gabe, bainan xoilki hain sendagaila handiaren ikusteko nahikundeagatik.

Oihan handi batez inguratua den zirka zabal batera heldu ginen. Zirkaren erdian gudularientzat toki bat xuxendua zen. Inguruan, zohizko jarleku batzuen gainean ezin kondatuzko oste bat lerroka jarria bazagoen. Heldu ginenean, ohorezki errezibituak izan ginen, ezen kretoarrek dira populurik noblekienik eta artoskienik arrotzak errezibitzen dituztenak. Jarrarazi gaintuzten eta gonbidatu gduetara. Mentor bere adinaren gainean aitzakiatu zen eta Azael bere osagarri mendrearen gainean.

Ene gaztetasunak eta ene indarrak etzerautaden estakururik uzten. Halarik ere, begia eman nioen Mentorri haren gogoko berria jakiteagatik eta ezagutu nuen guduka nindedin nahi zukeiela. Onhetsi nuen beraz eгина izan zerautan eskeintza. Nere arropetarik buluzi nintzen, olio gozo eta distirant batez gantzutu zuten nere gorputz guzia eta bertze gudularien artean nahasi nintzen. Alde guzietara hedatua izan zen Ulizen semea zela prezioa eraman nahiz etorria eta nere haur denboran Itakan izan ziren kretoar zonbaitek ezagutu ninduten.

Lehenbiziko gudua borroka izan zen. Hogoï eta hamabortz urtetako errodiendar batek aintzineria menturatu zitzaizkon guziak garhaitu zituen. Gaztetasuneko indar guzian zen oraino. Haren besoak zaintsuak ziren eta ongi haziak. Den gutiena higitzean haren zain guziak ageri ziren. Higual hazkar eta zalhu zen. Etzitzaioen iduritu garhaitua izaitea merezi nuela eta urrikariz begiratzan ziola nere adin guriari, nahi izan zen gibelat itzuli, bainan aintzineria jarri natzaioen. Orduan bata bertzeari lothu ginen. Hatsa gal arteraino elkar tinkatu ginduen. Sorbalda sorbaldaren kontra, zangoa zangoaren kontra, zain guziak tiran eta besoak sugeak bezala amarratuak, bat bedera, bere partidari lurra galarazi nahiz, bere egin ahal guziez bermatzen zen. Aldiz destatzen zen eskuinera bulkatuz, artearen atzamaitera, aldiz ezkerreara makurrarazi nahiz, egin ahalak bazaramatzen. Horrela haztakan hari zitzaudalarik, halako oldarrean bulkatu nuen, non haren erraiek amor eman baitzuten. Erori zen legarraren gainera, eta berekin eraman ninduen. Ni azpira beharrez alferretan bermatu zen, kantitu gabe nere azpian iduki nuen. Populu guziak oiuhu egin zuen: «Garhaizia Ulizen semeari!». Eta xutitzen lagundu nuen errodiendar ahalkatua.

Eskularruaren gudua gaitzagoa izan zen. Zamoztar aberats baten semea, gudu hartan ospe handitan jarria zen. Guziek nausi utzi zuten. Bakarra izan nintzen garhaitziaren irrisa zuenik. Hasteko, eman zerauzkidan behin buruan eta gero bulharretan odola goiti eragin zerautaden ukaldi batzu eta zoinek lanbro beltz batez begiak ilhundu baitzeraizkidaten. Kordokatu nintzen. Bulkatzen ninduen eta ez niron gehiago hatsik har. Bainan berriz sutan ezarri ninduen Mentorren bozak. Oiuhu egiten zeraudan:

— Oi Ulizen semea, garhaitua ote zindeke?

Errabiak indar berri batzu eman zeraizkidan. Hutsegin nintuen bentzutuko ninduten zonbait ukaldi. Zamoztarrak ukaldi huts bat ekarri bezain laster, haren besoa alferretan hedatzen zenean, makurtua zagoelarik joiten nuen. Jadanik gibelka zohan, eskularrua goititu nuenean indar gehiagorekin haren gainera erortzeko. Huts-egin nahi izan zuen eta kordokan jartzearekin lurrera ardikitze bidea eman zeraudan. Lurrera erori zen bezain laster eskua xutitzeko hedatu nioen. Altxatu zen bera herrautsez eta odolez bete. Haren ahalkea ezin gehiagokoa izan zen, bainan guduaren berritzera etzen ausartatu.

Berehala hasi zen karrosen lasterra, zoinak zortera emanak izan baitziren. Arroden arintasunez eta zaldien indarrez nere txarrena gertatu zen. Abiatzen gara. Herrauts zirimola bat airatzen da eta zerua gordatzen



du. Hastean bertzeak utzi nintuen aintzintzera. Lehenik Krantor deitzen zen lazedemoniar gazte batek guziak giblean uzten zituen. Poliklete kretoarra hurbildanik jarraitzen zitzaion. Ipomake, Idomenen ahaideak, haren erreinuaren ondoregoaz lehia zuen. Sokak largaturik bere zaldiei, izerdiz khea zariotela, dena heien ilaia harroen gainera makurtua zohan eta haren arroden lasterra hanbatekoa zen non, airean dohan arrano baten hegalean pare, ez baitzuten higitzen zirela iduri. Nere zaldiak ernatu ziren, eta emeki emeki hatsera jarri. Hainbertze surekin abiatu zirenetarik guziak hurran gibelat utzi nituen. Ipomake, Idomenen ahaideak, bere zaldiak sobra bulkatzen zituen. Hazkarrena behaztopatu zen eta bere erori-koaz nausiarri erreinuan irritsa galarazi zioen.

Polikletek, sobra makurtuz zaldien gainera, kordokaldi batean ezin iharduki zuen. Erori zen, sokak eskutik lerratu zitzaizten eta sobra zorion herioari eskapa ahal izateaz. Krantorrek errabiazko begi batzuekin hurbil-hurbila nintzela ikusten ninduen. Erresumindurik bere sua, aldiz jainkoak othoizten zituen eta emaitza aberats batzu agintzen ziotzaten; aldiz bere zaldiei mintzo zen heien subermatzeagatik. Zedarriaren eta beraren artean iragan nindedin beldur zen, ezen nere zaldiak harenak baino hobeki begiratuak, haren aintzintzeko gai ziren. Niri bidearen zerratzea zuen bere azken giderra. Hartarakotz arroda zedarriaren kontra lehertzera destatu zen. Nahi bezala lehertu zuen. Haren nahasmenduan ez sartzeko inguruaren agudo egitera destatu nintzen eta apur batez mugaren buruan ikusi ninduen. Oraino behin populuak oihu egin zuen: «Garhaizia Ulizen semeari! Hori da jainkoek gure gainean erregiñatzeko berezten dutena!».

Bizkitartean kretoarretarik deitatuenean eta zuhurren, oihan zahar eta sakratu, gizon profanoen begietarik urrundua den batetara eraman gainituzten. Han bildu gainituzten Minozek populuen juie eta legeen zaiñ ibeni zituen zaharrek. Jokoetako gudulari berak giñen. Etzen bertze nehor harat haizu izan. Zaharrek Minozen lege guziak idukitzen dituen liburua zabaldu zuten. Ahalketua eta balditua nere burua ediren nuen hurbildu niñtzenean zahar hekiei, zoiñak adiñak, izpirituko indarrrik gutitu gabe, ahalkezun eragiten baitzituen. Lerroan jarririk, geldi-geldiak zauden beren tokietan. Heien ileak xuriak ziren. Askok etzuten kasik batere. Heien bekunde umoetan zuhurtzia ezti eta deskantsu baten distiadura ageri zen. Etziren mintzatzera kexatzen. Etzuten erraiten erran behar zutela gogoan hartu izan zuten hura baizik. Gauza baten gainean etzizaiotenean higuak iduritzen, hain begiratu egiten zuten xuritasuna, non guzien usteak higuak zirela iduriko baitzen. Iraganaren jakitate luzeak eta lanaren ohikuntzak asmu gorak emaiten ziotzaten gauza guzien gai-

nean. Bainan huna zerk heien adimendua gehienik argitzen zuen: heien izpiritu deskantsatuak, lehia erhoi eta gaztetasuneko par guziei gaihendua. Heien baitan bakarrik zuhurtzia zerabilan. Heien prestutasun iraunkorraren fruitua zen beren parrak hain ongi zebatu izaita non errexki prezatzen baitzuten adimenduaren entzuteko atsegin gozoa eta noblea. Hekiei miretsia nindagoelarik, nahiko nukeien nere bizia labor ahal zitekedin, bat batean jausteko hain zahartze prezagarria. Dohakabea edireiten nuen gaztetasuna hain lasterra izateaz eta hain urrundua hanbat prestutasun deskantsutik eta argitutik.

Zaharren aintzindariak Minozen legetako liburua ideki zuen. Liburu handi bat zen, arduraz urhe kopa batean baltsamuz estalirik egoten zena. Errespeturekin zahar guziek musu eman zioten, ezen erraiten dute jainkoen ondokik, zeinetarik heldu baitira lege onak, deusere ez dela hain sakratu behar gizoni nola heien on, zuhur eta dohatsu eragiteko legeak. Nork ere populuen manatzeko eskutan baititu legeak, hainak bethi bere burua legeez manatzera utzi behar du. Legea etez gizona erreginatu nahi da. Hunelakoak ziren gizon zuhur heien solasak. Gero buruzagiak eman zituen hirur galde, zoinak Minozen erranetarik trenkatubehar baitziren.

Lehenbiziko galdea zen jakitea heia zein den gizon guzietarik libreena. Batzuek ihardetsi zuten, errege bat zela bere azpikoen gainean eskudantzia oso bat zuena eta garhaizia bere etsai guzien gainean. Bertze batzuek gizon bat zela, zioten, hain aberatsa, non bere nahikara guziak askies baizetzakeien. Bertze batzuek erran zuten gizon bat zela eskontzen etzena eta bere bizi guzia piaietan zabilana, behin ere nihongo legeei azpiratu gabe. Zenbaitek asmatu zuten gizon basa bat zela, oihanetan bere ihizitik biziz, lege eta behar guzietarik salbo zena. Bertze batzuek uste izan zuten gathibu bat zela, berriki libratua, zeren gathibutasuneko garratzasunetarik lekora, libertatearen gozoak nor-nahi-denek baino hobeki prezatzen baitzituen. Bertze batzuei azkenekotz gogoratu zitzaizten erraitea, hiltzera zohan gizon bat zela, zeren herioak guzietarik salbo ezartzen baitzuten, eta gizon guziek elkarrekin demendren eskudantziarik ez baitzuten haren gainean.

Nere aldia ethorri zenean, erraxki ihardetsi nuen, zeren ez bainuen ahantzi Mentorrek ardura erran izan zeraudana. Ihardetsi nuen:

— Gizon guzietarik libreena da, gathibutasunean berean libro izan daitena. Zein-nahi tokitan, zein-nahi heinetan gerta gaitezin, osoki libro gara jainkoen beldurra balin badugu eta bertze nehorrenik ez. Hitz batez



egiazki libro den gizona da, beldur eta nahikari guzien axolarik gabe, jainkoen eta bere adimenduaren eskudantzia baizik ezagutzen ez duena.

Zahar guziak irri aire batekin elkarri begira jarri ziren eta nere solasa Minozen errana bera zela ikusteaz baldituak gelditu ziren.

Gero hunela emana izan zen bigarren galdea:

— Zein da gizon guzietarik dohakabeena?

Bat bederak gogora heldu zitzaioena erraiten zuen.

Batek zioen:

— Hura da gizon bat, ontasunik, osagarririk ez ohorerik ez duena.

Bertze batek erraiten zuen:

— Hura da adiskiderik ez duen gizon bat.

Zonbaitek erraiten zuten, hura zela gizon bat ikustate gabeko haurrak zituena eta haren odolaz gai etzirenak. Ethorri zen Lezbozoko gizon zuhur bat zeinak erran baitzuen:

— Gizon guzietarik dohakabeena da, bere burua hala deraukana. Dohakabetasuna ezik gutiago derraika oinhazeari berari ezenetz irakidurari, zeinarekin gure dohakabetasuna mintzen baitugu.

Solas hunen ganean guziak miretsirik mintzatu ziren. Laudoriorik baizik etzen, eta bakotxak uste izan zuen galde hartako prezioa Lezboztar zuhurrak eramanen zuela. Bainan nere ustea galdegin zerautaden, eta Mentorren sinestean arabera ihardetsi nuen:

— Gizonik dohakabeena da errege bat, bertze gizonak dohakabe eraginez, bere burua dohatsu deraukana. Bere itsutasunaz bi aldiz dohakabe da, bere zorigaitza ez ezagutuz. Ez daite hartarik sendo eta hari ohartzear ere beldurti da. Egiak ez diro, lausengatzaileen ostearen artetik, hura ganaino biderik egin. Bere lehia burgoiez toleiatua dabila. Ez ditu bere eginbideak ezagutzen. Ez du egundaino ongiaren egiteko atsegina gozatu, ez etere frogatu prestutasun garbiaren maitagarritasuna. Dohakabe da eta merezi du. Egun oroz haren zorigaitza handitzen hari da. Bere galtzapenera lasterrean doha eta jainkoak akabantza gabeko gatzigu batez haren konfonditzera dohazi.

Lezboztar zuhurra bentzutu nuela guziek aitortu zuten eta zaharrek erran zuten, Minozen xede bera ediren nuela.

Huna zer izan zen hirugarren galdea:

— Zein da hobe, ala errege konkest egile, gerlan ezin bentzutu bat, ala errege bat gerlako jakitaterik gabea, bainan bakean bere azpikoak zuhurki argitzeko gai dena?

Gehienek gerlan ezin bentzutu zaiten erregea zela hobe ihardetsi zuten ziotelarik:

—Zertako da bakean manatzen dakien errege bat, gerla heldu denean erresumaren begiratzen ez balin badaki? Etsaiek garhaituren dute eta haren azpikoak gathibu eraginen.

Zonbaitek bakezko erregea hobe zela erraiten zuten, zerren, gerlaren beldurrez, bere artez ihes eginen baitzioen. Bertze batzuek erraiten zuten, errege gerlari bat, berearen bezain ongi, populuaren ospearen hedatzera destaturen zela eta bere azpikoak bertze populuaren nausi eraginen zituela. Bakezko errege batek ordean, nagitasun ahalkegarri batean idukiren zituela. Nere sinestea jakin nahi izan zuten. Hunela ihardetsi nuen:

— Edo gerlan edo bakean baizik manatzen ez dakien erregea, eta hein horietarik bietarik batean baizen bere populuaren erabiltzeko gai ez dena, erdizkako errege bat da. Bainan hurbiltzen balin baduzu gerlan baizik ez dakien errege bat, bertze errege zuhur bati, zoinak, gerlan jakin gabe, behar orduetan, bere azpiko aintzindariak gerlaren ihardukitzeko gai baita, hau hobe dela edireiten dut. Guziz gerlara bihurtua den erregeak bethi gerla nahi luke, bere ospea eta bere nausitasuna hedatzeagatik. Erromes eragin letzake bere azpikoak. Heientzat zer luke balio erregek bertze jendaiak bentzutu ditzan, berak haren erreinuan dohakabe balin badira? Bertzalde, bethi gerla luzeak beren ondotik, hainitz nahasmendu dakarkete. Garhaitzaileak berak, biahorezko ordu hetan norabait barraiatzen dira. Ikus zazu Troiesen bentzutzea zer gosta zaikan Greziari. Hamar urtez baino gehiagoz bere erregeetarik gabetua izan da. Gerlaz bazter guziak sutan direnean, legeak, laborantza, antzeak iraungitzera daude. Gerla bati iharduki behar diotenean, erregetarik hoberenak berak bortxatuak dira gaizkirik handienaren egitera, zoina baita barraiaduraren jasaitea eta gizon gaizkinez zerbitzatzea. Zenbat gaixtagin ez da bakean gatziga leiztekeienik eta zoinen ozartasuna sariztatu behar baita gerlako nahasmenduetan! Egundaino populu batek ez du errege gerlaririk izatu, haren anbizioneagatik hainitz jasaitekorik izan gabe. Gerlari batek, bere ospeaz zoratua, hurran populu bentzutuak bezenbat erromesten du bere populu garhaitosa. Bakean premia diren jakitateak ez dituen erregeak, zorionez akabatua izan den gerla baten fruituak ez detzoke bere azpikoei gozaraz. Hura da hala nola gizon bat bere ontasuna hauzoenganik begiratzen dakiena eta heienez ere zuzen kontra jabe leitekena, ordean, uzten biltzeko, ez heien iraulden ez eraiten ez lakikena. Holako gizon batek iduri du, barraiatzeko, sakailatzeko, lurraren azpikoaz gora itzultzeko sortua, eta ez populu baten dohatsu eragiteko manamendu zuhur batez.

Goazen orai errege bakezkora. Egia da konkesta handiez ez dela gai, erran nahi da, ez dela sortua bere populuaren zorionaren asalatzeko,



zuzentasunak haren azpiko ezarri ez dituen populuak bentzutu nahiz. Bainan bakean manatzeko egiazki aiher balin bada, etsaietarik bere azpikoen begiratzeko premia diren antze guziak baditu. Huna nola: zuzena da, begiratua eta konpunken bere hauzoen aldera. Ez du behin ere heien kontra deusere abiatzen bakea ezezta dezakeienik. Zin dago bere patuetan. Hauzoek maite dute, ez dira haren beldur, eta sineste oso bat haren baitan badute. Errege mugakide bat gertatzen balin bazaio nahasia, handiratia eta anbizionetsua, bertze guziak nahasi harentzat beldur dira eta bakezko erregearentzat bekaizgorik ez dute. Errege on hunekin batzen dira ez dedin zebaturia izan. Bere zuzentasunak, fede onak eta begirakortasunak mugakide guzien juie egiten dute. Noiz-eta-ere errege anbizionetsua guziek higuin baitute, eta noiz-nahi-den haren kontra batera ditezin beldur izaiteko baitu, orduan bakezkoa bertze errege guzien aita eta begiralea bezala izaiteko ospearen erdian jarria dago. Horra zer onak dituen kanpotik.

Barnean gozatzen dituenak oraino solidoagoak dira. Bakean ongi manatzeko aiher denaz geroz, emaiten dut lege zuhurrenekin manatzen duela. Ebakitzen ditu handiratasuna, nagikeria eta jaidura tzarren lausengatzeko baizik ez diren antzeak. Egiazko beharrentzat balios diren antzeak argiarazten ditu. Orogen gainetik bere azpikoak laborantzari jarraikarazten ditu. Halaz, premiazko gauza guzien nasaizian ezartzen ditu. Populu nekhatzaile hura, bere azturetan lañoa, gutiz bizitzera ohitua eta laborantzian bere bizia errexxi irabazten duena, ezin gehiago purpuratzen da. Hara erresuma hartan ezin kondatuzko populu bat, bainan populu bat, sasuala, hazkarra, bortitza, atseginek nagitu ez dutena, prestutasunari jarria, bizitze alfer eta atseginkari batentzat axolarik gabea, herioaz nardatzen dakiena eta zoinak nahiago bailuke hil, ezenetz, zuzentasunaren erregiñaraztera baizik destatua ez den errege zuhur baten azpian gozatzen duen libertate hura galdu. Gerlari mugakide batek akometa dezan populu hura, ez du behar bada aski trebatua edirenen kanpatzen, lerroka jartzen edo hiri sethiatzean, bainan ezin bentzutua edirenen du bere osteaz, bihotzaz, nekheen pairakortasunaz, lazeriaren egartzeko ohikuntzaz, indarraz gduetan, eta gertu gaixtoek berek bentzu ez diroten berthute batez. Bertzalde errege hura ez balin bada aski jakintsun berak bere armaden manatzeko, manamendua gai direnei emanen diote, eta bere eskudantziarik galdu gabe hetaz zerbitzatzen jakinen du. Bitartean bere adiskidetarik laguntzak ardietsiren ditu. Haren azpikoek nahiagoko dute hil, bertze errege muthiri eta zuzen konturik ez deraukan baten nau-sitasuna onhetsiren duten baino lehenago. Jainkoak berak haren alde

gudukaturen dira. Ikusazue zonbat gider geldituren zaitzon hesturarik handienetan!

Nik diot beraz, gerlan ez dakien errege bakezko bat hainitz errege eskasa dela, ezagutzen ez duenaz geroztik bere eginbide handientarik bat, zoina baita etsaien garhaitzea. Bainan oraino erraiten dut hainitzez gaihentzen dela errege gerlari bati, zoina gerlako baizen aiher ez baita eta bakean premia diren antzeak eskas baititu.

Ohartu nintzen hainitz bazirela bilkuan nere sinestea onhesten etzutenak, ezen gizon gehienak, zoratuak gauza ospetsuez, hala nola garhaziez eta konketez, hek hautatzen dituzte gauza laño, deskantsu eta solidoen gainean, hala nola baitira bakea eta populuen arteko manamendu zuhurra. Bainan Minozekin higual mintzatu nintzela zahar guziek agerritu zuten.

Zaharren buruzagiak oiuhu egin zuen:

— Gure irla guzian ezagutua den Apolonen erran bat ikusten dut bethatzen. Minozek galdegin zioen jainko hari heia noiz arteo haren ondoregoa erreginaturen zen ezarri zituen legeen arabera. Jainkoak ihardetsi zioen: «Hire haurrak erreginaturen dituk, hire legeen erreginarazte-kotzat arrotz bat hire irlan sartu arteraino». Beldur izan ginen Kretaren zebatzera ethor zedin zonbait arrotz, bainan Idomenen zorigaixtoak eta Ulizen semearen zuhurtziak, zoinak edozein gizonek baino hobeki aditzen baititu Minozen legeak, erakasten deraukute jainkoaren erranen xedea. Zertako luzatzen dugu koroatetik dohamenek emaiten deraukuten erregea?

#### BORTZGARREN LIBURUAREN AKABANTZA



## SEIGARREN LIBURUA

Ordu berean zaharrak oihan sakratutik ilkitzen dira. Trenkadura jakin nahiz, jadanik populua khexatua zagoen. Buruzagiak eskutik hartzen nau, eta prezioa eman dudala banatzen dio. Hura mintzatu bezain laster oste guzia harramantz handi batean jarri zen. Guziak irrintzinaz eta oihuz abiatu ziren. Itsas bazterrak eta inguruetako mendi guziek ihardetsi zuten oihu hau: «Ulizen semea, Minozen iduria, kretoarren gainean erregina dadiela!».

Apur bat iguriki nuen, eta eskuz keinuka hari nintzen entzun nintzen amoreagatik. Bitartean Mentorrek beharrira erraiten zeraudan:

— Zure sor-lekuari arnegu egin gogo diozu? Erreginatzeo lehiak ahantzazirenen ote deraitzu Penelopa, zeinak bere azken peskiza bezala igurikitzen baitzaitu eta Ulize handia, jainkoek bihurtu gogo zerautzutena?

Solas horiek bihotzeraino sartu zeraizkidan eta erreginatzeo lehia zoroari ihardukarazi zerautadaten.

Bizkitartean bilku biahoretsu hura ixiltasun handi batean jarri zen eta eman zeraudan hunela mintzatzeko bidea:

— Oi kretoar ospetsuak! Ez dut nik merezi zuen manatzea. Orai erreberritu duten Apolonen erranak irakasten du Minozen ondoregoa erreginatzetik geldituz dela, irla huntara arrotz bat ethortzen denean, errege zuhur haren legeak erreginaraziren dituenak. Ez da ordean errana arrotz hura erreginatuz dela. Nahi dut sinetsi ni naizela Apolonek aipatu arrotza. Haren errana bethe dut. Irla huntara ethorri naiz. Legeen egiazko xedea asmatu dut eta ongi nahi nuke nik eman dudana argia, hautatuko duzuen gizonarekin heien erreginaraztera zerbitza baledi. Nitaz den bezenbatean, Kretako ehun hiriak baino, erresuma eder huntako aberastasuna baino, nahiago dut nere sor-lekua, Itaka ttipi eta erromesa. Othoi, utz nezazue nere dohamenari jarraikitza. Zuen jokoetan gudukatu balin banaiz, etzen hemen erreginatzeo irritsean, bainan bai zuen peretxuaren eta zuen urrikalmenduaren merezitzea gatik, eta nere sorlekura bihurtzeko ahalak zuenganik ardiesteagatik. Nahiago dut Ulize nere aitaren eskupean bizi eta Penelopa nere amaren gozagarriz izan, eze-netz lurreko jendaia guzien gainean erreginatuz. Oi kretoarrak! Ikusten duzue nere bihotzaren erdia. Utzi behar zaituztet, bainan herioak bakarrik iraingiko du nere ezagutza. Bai, azken hatseraino Telemakek maitaturen

ditu kretoarrak, eta heien omenari ber-bereari bezain ontsa begiraturen dio.

Ni mintzatu bezain laster, bilkuan altxatu zen haro-burrnba bat, kalernetan itsasoko uhinek elkar joitea egiten duten bezalakoa. Batzuek erraiten zuten:

— Jainko bat ote da gizon itxuraren azpian?

Bertze batzuek ihardukitzen zioten bertze tokitan ikusi nindutela, eta ezagutzen nindutela. Zonbaitek oihu egiten zuten:

— Hemen erreginatza bortxatu behar da!

Azkenean hartu nuen berriz solasa, eta bakotxa lehiarik ixildu zen, ez jakinez heian hartuko ote nuen behin nahi izan ez nuena. Huna zer erran nioten:

— Oi kretoarrak! Etzaitzuela gaitzi nik gogoan dudana erraitea. Populu guzietarik zuhurrenak zarete, bainan zuhurtziak, nere iduriz, galdegiten du ohartzten etzaitzuen kontu bat. Hautatu behar duzue ez legeen gainean umokienik mintzo den gizona, bainan hek berthute iraunkorrenarekin begiratzen dituenak. Ni gazte naiz, eta beraz deus guti ikusia, lehien oldarrari paratua, eta orai manatzeko baino, hein hobean manamenduaren azpian argituz, ondoan nerorrek manatzeko. Ez dezazuela beraz gizon bat bilha, bertzeak gorputzeko eta izpirituko mainetan garhaitu dituenak, bainan bai bere burua bentzutu duena. Bilha zazue beraz gizon bat zuen legeak bihotzaren erdian iskribatuak derauzkana eta lege hek bizi guzian begiratu dituenak. Bere egintzen gatik hautazazue etez bere elheen gatik.

Zahar guziak nere solasez hartuak zauden, eta ikusirik bilkuaren laudoriozko oihuak geroago eta geroago zoazela, erran zerautaden:

— Gure baitan zure erreinuaren ikusteko peskizarik jainkoek uzten ez deraukutenaz geroz, lagun gaitzazu bedere errege baten edireiten, zoinak gure legeak erreginaraziren baititu. Behar den begirakortasun harekin manatzeko gai den norbait ezagutzen duzu?

Kuxean ihardetsi nioten:

— Ezagutzen dut gizon bat zoiñaren ganik idukitzen baititut nere baitan prezatu dituzten gauza guziak. Haren zuhurtzia mintzatu da etez nere. Ihardetsi ditudan gauza guziak hunek nere baitan ibeniak ziren.

Ordu berean, eskutik naukalarik Mentor, bilkuari erakusten nioen eta guzien begiak hunen gaiñera bihurtu ziren. Erraiten nuen zonbat arta izan zuen nere haurtasunaz, zonbat hesturetarik athara ninduen eta hunen errancei jarraiki ez niñtzen ordu beretik zonbat ondiko erori ziren nere gaiñera.





Hastean etzen behatua izan bere arropa arrot eta lañoak gatik, bere egoiteko molde begiratua gatik, bere kasik kontinoko ixiltasuna gatik eta bere begitarte hotz eta begiratua gatik. Baiñan ez dakit zer bihotzoirik eta goihenik agertu zitzaizaten hunen begitaratean, kontuz begiratu ziotenean. Ohartu ziren hunen begietako bizitasunari eta zer bipiltasunekin egiten zituen gauzarik ttipienak. Asko galde egiñ ziotzaten. Guziak espantiturik gelditu ziren. Errege egiteko xedea hartu zuten. Bere burua deskantsuki aitzakiatu zuen. Erran zioten, bizitze arrontera baten gozoak nahigo zituela, ezenetz erreñuko distiadura. Erregerik hoberenak dohakabe zirela zeren kasik behin ere etziroten egiñ nahi luketen ongia, bai ordean, ardura, lausengatzailleen enganioz, nahi ez luketen gaizkia. Erran zuen oraino baldin gathibutasuna arbuigarri bazen, erregetasuna etzela gutiago, gathibutasun itxuraz ukatu bat zenaz geroz.

— Errege denean —zioen—, manamenduen ihardukaraztekoztat behar diren gizon guzien menjorian izaiten da. Dohatsuak manatzera bortxatuak ez direnak! Gure sor-lekuari baizen ez diogu zor, manamendua eskuetan emaiten deraukunean, gure libertatearen sakrifizioa, gero guzien onari destatzeko amoreagatik.

Orduan Kretoarrek, beren harriduratik ezin atharaz, zer gizon hautatu behar zuten galdegin zioten.

— Gizon bat —ihardetsi zuen—, ongi ezagutzen zaituztena, manatu behar zaituztenaz geroz, eta zuen manatzeko beldur dena. Erregetasunaren lehia lukeienak, zer den ez daki, eta hartako eginbideak nondik bethako ditu, ez dituenaz geroz ezagutzen? Hark bere gatik bilhatzen du, eta zuek, zuen amoreagatik baizen harturen ez duena nahi behar zindukeie.

Kretoarrek ezin gehiago harritu ziren ikusteaz bi arrotz nahi etzutenak erregetasuna bertze hanbatek bilhatzen dutena. Norekin ethorri ginen nahi izan zuten jakin. Nozikratek, portutik haraino lagundu gaintuenak, Azael erakutsi zioten, zeinarekin Zipratik ethorri izan baikin. Bainan heien harridura etzen gutiagoa izan, jakin zutenean Mentor Azaelen gathibu izana zela. Azaelek bere gathibuaren zuhurtziaz eta prestutasunaz ukiturik, bere kontseilari eta bere adiskiderik hoberena egin zuela. Gathibu libratu hura bera zela erregetasuna nahikatu etzuen, eta Azael, Damas Ziriakotik etorria zela Minozen legeeaz argitzeagatik, hain zen haren bihotza zuhurtasunaren amodioz bethea.

Zaharrek Azaeli erran zioten:

— Gure manamendua har dezazun ez gara zure othoiztera menturatzten, ezen Mentorren gogo berak dituzula iduritzen zerauku.

Gizonentzat sobra arbuio dukezu heien manatzera jarri nahi izaitekotzat. Bertzalde aberastasunez eta erregetasuneko distiaduraz axola gutiegi dukezu distiadura hura erosi nahi izaitekotzat populuen manamenduak dakarken endresuez.

Azaelek ihardetsi zuen:

— Ez dezazuela usten izan, oi kretoarrek, gizonak arbuigarri zeraizkidala. Ez, ez. Heien on eta dohatsu eragitera destatzean badakit zenbat handiratasun den. Bainan hainitz nekhe eta ateka lan hortan bada. Horri darraion distiadura ez da zina eta izpiritu zoroak baizen ez ditzake lilura. Bizia laburra da. Handiratasunek sasia diroten baino gehiago kilikatzen dituzte lehiak. Hain urrundik ethorri naiz itxurazko ontasun hetaz iragaiten ikastera, etez heien bilha. Adios. Nere xede guzia bizi deskantsu eta urrundu batera itzultzekoa da, zeinetan zuhurtziaz nere bihotza mantena dezan eta zeinetan prestutasunak hil ondoan bertze bizi hobe bate-tako emaiten dituen peskizek, zahartzeko nahigabeak goza deitzadaten. Baldin zerbait nahi izaitekorik banu, ez laite errege izaitea, bainan ikusten dituzuen bi gizon hauetarik behin ere ez partitza laite.

Azkenean, kretoarrek, Mentorri mintzo zirelarik, oi hu egin zuten:

— Oi gizonetarik zuhurrena eta handiena, errazaguzu bada nor hauta dezakegun erregetzat. Zer hautu egin behar dugun erakutsi gabe, etzaituztegu abiatzera utziren.

Ihardetsi zioten:

— Bertze ikusle guzien erdian nintzelarik, gizon bati ohartu naiz, zoinak surik batere erakusten ez baitzuen. Adineko gizon bat da, oraino aski bizkorra. Galdegin dut heia nor zen gizon hura. Aristodeme deitzen dela ihardetsi derautade. Gero entzun dut erraiten ziotela bere bi semeak gudularietan zituela. Hartaz atsegirik batere bazuela ez du agertu. Erran du batarentzat erregetasuneko lanjerak ez dituela lehiatzen, eta sobra duela maite bere sorlekua bertze erregeta dedin behin ere onhestekotzat. Solas horietarik ezagutu dut aita hark amodio zuhur batez maite duela bere ume prestua eta bertzeari ez diola bere barriaduretan lausengurik emaiten. Nere jakin-nahia tirriatuz, galdegin dut zer izan den gizon zahar haren bizia. Zuen herritar batek ihardetsi deraut:

— Harmak luzez ekarri izan ditu eta sarraskiduren uspelez estalia da. Bainan bere berthute zinak eta lausenguen etsaiak, Idomenei kexagarri eragin zioten. Hartakotz etzen errege hura Troiesko sethioan huntaz zerbitzatu. Beldur izan zen gizon batentzat, zoinaren erran zuhurrei jarraikitza ezin bortxaturen baitzuen bere burua. Bekaizti ere izan zen gizon hunek laster eraikaraziren zuen ospez. Hunen zerbitzu guziak



ahantzirik hemen utzi izan zuen behar, eta aberastasunentzat baizen prezamendurik ez duten gizon bihotz eta ikustate gabeen arbuigarri. Bainan, boz bere behartasunean, bere alhorra bere eskuz laboratuz, irlako leku apart batean bizi da. Bere semetarik bat berekin lanean hari du. Elkar amodio min batez maite dute, zorionean bizi dira. Beren zuhurtasunaren eta lanaren medioz bizitze arront batean premia diren gauza guzieren nasaizian jarri dira. Agude prestuak bere eta bere semearen beharren sobrakinak hauzoko eriei emaiten diotzate. Gazteak lanean harrarazten ditu. Argitzen ditu eta kontseiluz laguntzen. Hauzoko makur guzieren juie da. Mainada guzieren aita da. Berearenaren zorigaitza du, bigarren seme bat izaitea aitaren erranei jarraiki nahi izan ez dena. Aitak, ahalaz onera bihurtarazi nahiz luzez jasan ondoan, azkenean etxetik khendu du. Anbizione zoro bati eta atsegin guzietatik barraiatu da.

Oi kretotarrak, horra zer erran izan zeraudan. Heian egia denetz badakikezue. Bainan gizon hori erraiten duten bezalakoa balin bada, zerentzat egin jokoak? Hunenbat arrotz zerentzat bilaraz? Zuen artean baduzue gizon bat ezagutzen zaituztena eta ezagutzen duzuen, gerla dakiena, bere bihotza erakutsi duena ez bakarrik etsaien kontra, bainan oraino behartasun izigarriaren kontra. Lausenguen medioz biltzen diren aberastasunak arbuaiatu dituen, lana maite duena, jende xehearentzat laborantza zein balios den dakiena. Urguluzko edergailuak higuin dituen. Bere haurren amodio itsu batez bere burua beratzera uzten ez duena. Baten prestutasuna maite duena eta bertzearen tzartasuna arbuaitzen. Hitz batez, gizon bat jadanik populuaren aita dena. Horra zuen erregea, Minoz zuhurraren legeak zuen gainean erreginarazi nahi dituzuela egia balin bada.

Guziek oiuhu egin zuten:

— Egia da, Ariztodeme, zuk erraiten duzun bezalakoa da. Hura da gure errege izaitea merezi duena.

Zaharrek deitarazi zuten. Bilhatua izan zen ostean, zeinaren erdian jende xehearekin nahasia baitzagoen. Deskantsu agertu zen. Errege egiten zutela erran zioten. Ihardetsi zuten:

— Zuen eskeintza ez dirot hirur paturen azpian baizik onhets. Lehenbizikoa da, bi urteen buruan erregetasuna utziren dudala baldin ez bazaituztet zaretan baino hobek eragiten eta legeei bihurtzen balin bazarete. Bigarrena da, nere bizitze laño eta arrontari jarraikitzea libro izanen naizela. Hirugarrena da, nere haurrek herronkarik izanen ez duten, eta ni hil ondoan, bertzeak bezala, beren merezimenduaren arabera higualtasunean idukiak izanen diren.

Hitz horien gainean, etzen alde guzietarik irrintzinarik baizen. Legezainen buruzagiak Ariztodemen buruan ezarri zuen koroa. Sakrifizioak eginak izan ziren Jupiterri eta bertze jainko handi guzietatik. Ariztodemek egin zautzuen emaitza batzu, ez erregeek laket duten ospearekin, bainan lañotasun noble batekin. Azaeli eman ziotzan Minozen legeak, Minozen beraren eskuz iskribatuak. Eman ere zioen Kretako ixtorio Saturnen eta urrezko mendetik hasten zena. Ezarrarazi zituen haren untzian fruitu mota guzietarik, zoinak Kretan onak baitira eta Zirian ez baitira ezagutuak, eta behar izan ahal zetzazkeien laguntza guziak eskeini ziotzan.

Nola lehen bai lehen abiatzera baginauden, unti bat arrimarazi zeraukun saker on eta gizon harmatu saihera hazkar batekin. Han guretzat arropak eta bizigarriak ezarrarazi zituen. Ordu berean Itakara goateko haize on bat altxatu zen. Nola haize hura Azaelentzat kontrakoa baitzen, igurikitzea bortxatua izan zen. Abiatzen ikusi gintuen, behin ere berriz ikusi behar etzitzen adiskide batzu bezala besarkatu gaintuen.

— Jainkoak —zioen—, zuzenak dira. Adiskidantza bat ikusten dute prestutasunaren gainean asentatua ez dena. Egun batez elkargana bilduren gaituzte eta gure arimak gehiago ez partitzeko elkarganatzuten ikusiren dituzte baratze dohatsu heiek, zoinetan, diotenaz, prestuak, hil ondoan, bethiereko bake batez gozaten baitira. Oxala nere hautsak zuenekin bilduak ahal balitezi! Hitz horriek erraitearekin nigarretan zagoen eta hasperenek mintzoa ithotzen zioten. Ez ginduen hark baino nigar gutiago egiten eta untzira lagundu gaintuen.

Ariztodemek erran zeraukun:

— Zuek egin nauzue errege, zer irriskueta ezarri nauzuen orhoit zaitezte. Jainkoei galdegiozue egiazko zuhurtzia ibent dezadaten eta begirakortasunez bertze gizonei gaihen natzaioten eskudantziak gaihentzen natzaioten bezala. Nitaz den bezenbatean, zuen sor-lekura zorionean bida zaitzaten othoizten ditut, zuen etsaien ozartasuna konfondiaraz dezaten eta han erakuts dezazuten Ulize, bakearen erdian, bere Penelopa maitearekin erreginatzen. Telemake, unti on bat emaiten derautzut sakerez eta gizon harmatuz bethea. Zure ama toleiatzen duten gaixtaginen kontra zerbitzaturen ahal zeraizkitzu. Oi Mentor! Zure zuhurtziak deusen beharrik ez du, eta ez deraut zure aldera deusera lehiarazten. Zoazte biak, elkarrekin bizi zaitezte, orhoit zaitezte Ariztodemez, eta egun batez itakarrek kretotarren behar ordurik izaiten badute, nere azken hatseraino kondazazue nere gainean. Besarkatu gaintuen eta eskerrak bihurtzean, nigarrak ezin iduki gintuen.



Bizkitartean gure belak hanpatzen zituen haizeak piaia nahi bezalako bat agintzen zeraukun. Jadanik Idako mendia gure begietan goihen baten pare zen. Itsas hegiak suntsitzen ziren. Peloponezako bazterrek iduri zuten itsasoan heldu zirela gure aintzineria etortzeko bezala. Bet-betan, pesia beltz batek zerua inguratu zuen eta itsasoko uhinak samurrazazi. Eguna gau bilhakatu zen eta herioa aintzineria jarri zitzaukun. (...) Gure lema idukitzaila asaldatu, oihuz abiatu zen, harkadietara muthiriki bulkatzen gaintuzten haizeei ezin iharduk ziola. Haize buelta batek gure masta kraskatu zuen eta apur baten buruan, harkadien muturretan urratzen entzun ginduen gure untzia zola.

Ura alde guzietarik sartzen da, untzia hondatzen hari da, gure saker guziak heia goraz daude zerura. Besarkatzen dut Mentor, eta erraiten diot:

— Huna herioa, bihotzoiki hartu behar dugu. Egun galaraztekozat baizen, ez gaituzte jainkoek hanbat hesturetarik athara. Hil gaitezen, Mentor, hil gaitezen. Alfer lizate gure biziak pesiaren kontra begiratu nahi izaitea.

Mentorrek ihardetsi zeraudan:

— Bethi zerbait gider atzamaiten du egiazko bihotzoitasunak. Ez da aski heriotzeari deskantsuz begiratzea. Haren beldur izan gabe, haren urruntzeko egin ahal guziez bermatu behar da. Har dezagun bieki saker alki luze horietarik bat. Noiz-eta ere gizon izipera eta asaldatu multzu hori biziaren dolamenetan baitago, haren begiratzera destatu gabe, guk gurearen atharatzeko astirik gal ez dezagun.

Berehala haizkora bat hartzen du, arras ebakitzen du masta, zeina lehenago kraskatua itsasora makurtua baitzagoen eta untzia saiheitsaren gainera ezarri baitzuen. Untzitik bulkatzen du eta bera uhin muthirien erdira jausten da. Deitzen nau nere izenaz eta hari jarraikitzea esportzatzan nau. Hala nola haize guziek batean akometatzen dute zuhañ bat eta higitu gabe badago bere erro barrenen gainean, hostoak baizen pesiak inharauz ez detzak bezala, higuak Mentor ez xoilki bihotzdun eta kordokatu gabea, baiñan ezti eta deskantsu iduri zuen, haizeei eta itsasoari manatzen zuela. Jarraikitzen natzaio. Eta nor egonen ahal zen jarriki gabe, hark esportsatuz geroztik?

Masta igeri zagoen haren gainean gerorrek gure burua eramaiten dugu. Guretzat laguntza handi bat zen, ezik gainean jarri ginaiztekeien eta laster iraungiak izanen ziren gure indarrak, gelditu gabe, bethi igerikatu behar izan baliñbagindu. Baiñan zur handi hura pesiak maiz itzulikatzen zuen eta itsasoan pulunpatuak gelditzen giñen. Orduan ur gazia iresten ginduen, zeina ahotik, sudurretik eta beharrietarik baitzariogokun eta

mastaren gainera berriz igaiteko uhiñen kontra gudukatzerantz bortxatuak giñen. Aldi batzuez ere tiraiñ handi bat, mendia bezaiñ gora, gure gainetik iragaitera heldu zen eta tinki egoiten giñen, beldurrez kordoka muthiri hartan gal giñezan masta, gure azken peskiza.

Hestura izigarri hartan giñelarik, Mentorrek orai zohizko jar-leku hortan den bezaiñ deskantsu erraiten zeraudan:

— Uste ote duzu Telemake, zure bizia haizeen eta uhiñen gogara utzia dela? Uste ote duzu jainkoen manamendua gabe, galaraz ahal zezaketela? Ez, ez. Jainkoek trenkatzen dituzte gauza guziak. Beraz, jainkoen beldur izan behar da etez itsasoaren. Hondarren zolan ere baziña, Jupiterren eskuak handik athara ahal ziñtzazke. Baziña ere Olinparen gainean eta izarrak oiñen azpian, Jupiterrek honda ahal ziñtzazke lezeen zolan edo bulka Tartaro beltzeko su lamena erdira.

Solas miresgarri horiek entzuten nituen eta apur bat sosegatzen niñduten. Baiñan ez nuen ihardesteko izpiritua aski librea. Ez niñduen ikusten, eta nik ere ez nezaken hura ikusi. Gau guzia hotzez daldaran eta erdi hilak iragan giñdun, pesiak nora bulkatzen giñtuen jakin gabe. Azkenean haizeak ezitzen abiatu ziren eta itsasoak orroaz iduri zuen norbait luzez samur egona eta bere hisiaz unhatirik, asaldu eta irakidura hondar bat baizik ez duena. Burrumba ilhun bat bazagokan eta haren uhiñak etziren kasik lur iraulietako hildoak baiño gehiago.

Bizkitartean argizkorria ethorri zen iguzkiari zeruetako athalaie idekitzera eta egun eder bat agiñdu zuen. Iguzki aldea oro sutan zen eta izarrak haiñ luzez gordeak egon zirenak agertu ziren eta ihes egiñ zuten Febuz ethortzearekin. Urrundanik lurra ikusi giñdun eta haizeak haren gana hurbiltzen giñtuen. Hauteman nuen orduan peskiza berriz sortzen nere bihotzean. Baiñan gure lagunetarik bati ere ez giñen ohartu. Iduriaren arabera, bihotza ttipitu zitzaie eta pesiak untziaekin guziak hondatu zituen. Lurrari hurbildu giñenean, itsasoak bulkatzen giñtuen porroskatuko gainituzten harkadi mutur batzuetara, baiñan ahalaz, mastaren burua erakusten ginoten. Mentorrek masta hura erabiltzen zuen pilotu umo batek lemarik hoberena erabiltzen duen bezala. Haletan huts egiñ giñtuen gerenda izigarri hek eta noizbait bazter bat ezti eta zelhaia ediren giñdun. Orduan erraxki igerikatuz, legarrean leihorra hartu giñdun. Han ikusi gainituzun, irla huntan egoten zaren oi jainkosa handia. Han nahi izan gainituzun errezi bitu.

SEIGARREN LIBURUAREN AKABANTZA



## ZAZPIGARREN LIBURUA

Telemakek solas horiek akabatu zituenean, ninfa guziak maitu gabe zaudenak, begiak haren gainean landatuak, elkarri begira jarri ziren. Espantiturik batak bertzeari erraiten zioten:

— Nor dira beraz jainkoek haiñ maite dituzten gizon hauk biak? Nork egundaino entzun ote du horren gertakuntza miragarriarik? Mintzatzeko dohaiñean, zuhurtasunean eta balentzian Ulizi jadanik bere semea gaihentzen zaio. Zer bekunde! Zer edertasuna! Zer eztitasuna! Zer [...]! Baiñan zer noblezia eta zer handiratasuna! Ez baliñbaginaki gizon baten semea dela, erraxki har laite Bakuzentzat edo Merkurentzat, edo Apollon handiaren berarentzat. Baiñan nor da gizon itxuraz, sortzez eta heñiez arrot iduri duen Mentor hau? Hurbil-danik begiratzean hunen baitan edireiten da ez dakit zer gizonaz goragokorik.

Bere baitan gorde etziron asaldu batean Kalipzok entzuten zituen solas horiek. Haren begiak, sesurik gabe, Mentorren ganik Telemaken gainera eta Telemaken ganik Mentorren gainera bazabiltzan. Aldi batzuek nahi zukeien Telemakek berriz has zezan bere gertakuntzen kondagaillu luze hori. Gero bet-betan berak bere solasa trenkatzen zuen. Azkenekotz brastakoan altxatu zen eta eraman Telemake bakarrik mitresko oihan batera. Han gogora zitzaizkon asmu guziez destatu zen, haren ganik jakin nahiz heia Mentor jainko bat ote zen gizonaren itxuraren azpian gordea. Eziñ argi zezakeien Telemakek, ezik Minerbak, haren lagun etortzearekin Mentorren iduriaren azpian, haiñ gazte zelakotz etzioen bere burua agerri. Bere xedez jakiñtsun egiteko etzen oraiño haren begirakortasunari aski fida. Bertzalde, hestura handienez frogatu nahi zuen, eta Minerba berekin zuela jakin izan baliñbalu, horrelako laguntza batez sobra indar hartu zukeien, axolarik gabe nardatuko zen estrapu izigarrien guziez. Mentorrentzat zeraukan beraz Minerba eta alferrak izan ziren Kalipzoren amarru guziak jakin nahi zuen gauzaren agertzeko.

Bizkitartean ninfa guziak Mentorren inguruan, hari asko galderen egiten zuten bere atsegiña. Batak galdegiten zioen Etiopiako piaino xehetasunak. Bertzeak jakin nahi zuen heia zer ikusi izan zuen Damasén. Bertze batek galdegiten zioen, heia bertze ordut Troiesko sethioaren aintziñean ezagutu izan zuenetz Ulize. Guziei eztitasunekiñ ihardesten zioten eta haren solasak lañoak ziren arren, esker gozo bat bazuten.

Elhe horietan etzituen Kalipzok luzez utzi. Bihurtu zen heien gana eta noiz eta ere Telemaken dostarazteagatik, lili biltzen eta kantuz ninfak abiatu baitziren, Kalipzok zenbait solas atarazi beharrez, Mentor bazterrerera deitu zuen. Loaren hasma gozoa ez da eztekiago lerratzen unhatua den gizon baten begi errietara eta haren alderdi nekhatuetara, ezenetz jainkosaren elhe lausengariak linburtzen baitziren Mentorren bihotza zoratu beharrez, baiñan hautemaiten zuen bethi ez dakit zer haren egiñahal guziak bulkatzen zituenik eta haren antze amarrutsuez irri egiten zuenik. Hodoietan kaskoa gordetzen duen gerenda gaitz baten pare eta hai-zeen errabiaz irri egiten duena, Mentor bere xede zuhurretan maitu gabe, bere burua Kalipzok behartzera uzten zuen. Noizean behin ere, galdeka hertsatzeko eta egia bihotzaren erditik atarazteko peskiza uzten zioen. Baiñan noiz-eta-ere bere lehia sasía uste baitzuen, orduan suntsitzen ziren haren peskiza guziak. Segur idukitzen zituen guziak batean eskapatzen zitzaizkon, eta Mentorrek ihardestean solas labur batez egundaino bezala bere duda-mudetan sartzen zuen.

Egunak holaxe iragaiten zituen, batzuetan Telemake lausengatuz eta bertze batzuz hura berezi nahiz Mentorrenganik, zoiñaren mintzarazteko peskiza galdu baitzuen. (...) Beldurrez printze gaztea eskapa zakion, milla amarru suerte erabiltzen zituen hura bere erresuman begiratu nahiz, bizi-tze nagi bati eta pausu total bati laketaraztearekin.

Telemaken bihotza emeki emeki fauntzen hari zen. Mentorri erraiten zioen:

— Zergatik ez gaintezke irla huntan gelditi? Ulize ez da gehiago bizi, aspaldi huntan itsasoan ehortzia bide da. Penelopak, ez ikusirik ez hura ez ni gibelat itzultzen, eziñ iharduki duke hanbat galdegillari. Ikara bere aitak bigarren senhar baten hartzera bortxatu duke. Bihurturen ote naiz Itakara hura bertze ezkontza batean sartua ikusteko eta nere aitari eman zioen fedeari ukho egiña? Itakarrek Ulize ahantzi dute. Ez gaitezke orai harat bihur heriotze seguratu baten bilha baizik, Penelopen senhargeiek portuko helbide guziak hartu dituztenaz geroz hobeki gure galtzapena segurazteagatik, gibelat itzultzen gareneko. (...)

Mentorrek ihardesten zuen:

— Bertuteak Ulizen eta Penelopen ikusteko zure sorlekura deitzen zaitu. Jainkoek hanbat hesturetarik athara zaituzte zuri prestatzeagatik ospe bat zure aitarenaren higuñala, eta irla huntarik ilkitzea manatzen derautzute. Zu zure sorlekura bihurtzeagatik egiñ dituzten gauza guziak ahantziak ote dituztu? Ziziliatik nola athara zare? Egiptoan frogatu dituzun ondikoak ez ote dira bat batean zorianetan bihurtu? Tirreko hirian



zure buruari dixidutan zauden lanjer guzietarik zein berariazko eskuk athara zaitu? Hanbat sentagaillen ondoan ez ote dituzu oraino ezagutzen prestatu deraizkitzuten dohamenak? Baiñan zer diot? Ez dituzu merezi. Ni, banoa, eta jakiñen dut irla huntarik ilkitzen. Oi, aita haiñ zuhur eta haiñ bihotzdun baten seme banoa! Higa zazu hemen emaztepean bizitze nagi eta ospe gabeko bat. Egizu jainkoen desgogara, zure aitak bere buruarentzat ez gaiez utzi zuena.

Arbuiozko solas horiek urratu zuten Telemake bihotzeraino. Bere burua Mentorren alderat erdiratua hautematen zuen. Haren bihotzmiña ahalkez bethea zen. Nahi zukeien Mentorrek bortxaz irla hartarik herrestatu balu. Baiñan berriz laster erortzen zen bere fluxkerietara. (...)

Orduan Mentorrek Telemake eskutik harturik itsas hegira erakarri zuen, uhiñek bethi joiten duten gerenda baten gaiñera. Hantik, urrunera ikusi zuten, itsasoaren erdian, untzi bat gelditua, eziñ ausartatuz irlari hurbiltzera, zeren piloto guziek baitzakiten Kalipzoren irla hilkitzuz guziei debeku zitzaiotela.

— Oi Ulizen semea —dio Mentorrek untzia erakusten diolarik—. Zertarainoan maite zaituzte jainkoek, zure sorleku maitea bihurtzeko horren bide ederra erakusten derautzutenaz geroztik! Atzarrezazu zure bihotz guzia eta ilki gaitezien egoitza galgarri hunetarik.

Haiñbertzenarekiñ, bulkatzen du Telemake, itsasora ardikitzen du eta berak harekiñ batean jauzi egiten du.

Telemake jauzi gaitz hartaz harritua, ur gazia edan zuen, eta uhiñak nausitu zitzaizkon. Baiñan bere baitara ohartzearikiñ batean eta ikustearikiñ Mentor igerika laguntzeko eskua hedatzen zioena, ondikozko irla hartarik urruntzera destatu zen. (...)

Gelditua zagoen untzia eta zoiñaren alderat abiatuak baitziren, Epirarat zohan Feniziako untzi bat zen. Feniziendar heiek ikusi izan zuten Telemake Egiptoko piaian, baiñan uhiñen erdian eziñ ezagut zezaketen. Aski hurbil izan zenean Mentor bere buruaren adiarazteko, burua uraren gaiñera altxatuz, gora oiñu egiñ zioten:

— Oi feniziendarrak, populu guziei haiñ laguntza emailleak, bizia ardiets zozuete bi gizonei zoiñek zuen ontasunetik igurikitzen baitute. Jainkoen beldurrak ukitzen baliñ bazaituzte, har gaitzatzue zuen untzian eta zuek goaten zaitezten leku guzietara gu ere goanen gara.

Manamendua zuenak ihardetsi zuen:

— Gogotik harturen zaituztegu. Horren dohakabe iduri duten arrotzen alderako egiñbideak badakitzaugu.

Ordu berean hartzen dituzte untziaren barnera.

Sartu bezain laster, hatsa eziñ hartuz, hillak bezala gelditu ziren, ezen luzez igerikatu ziren eta indar haiñitz egiñez tirainei ihardukitzeko. Beren indarrak emeki emeki itzuli zitzaizkoten. Arropak ganbiatu zaizkoten, ezen soiñekoak urez hantuak zituzten eta alde guzietarik zurrutan bazarrioten. Solas egiteko heinean jarri zirenean, feniziendar hek guziak heien inguruan multzuka heien gertakuntzak jakiñ nahi zituzten. Manamendua zuenak erran zioten:

— Nola sartu ahal izan zarete ilkitzen zaretan irla hortan? Diotenaz jainkosa gaixto bat da horko jabe eta nihor leihorrera dakion ez du jasaiten. Inguratua ere da gerenda izigarriz zoiñen kontra zoro baten pare itsasoa bulkatzen baita eta untzia porroskatu gabe eziñ hurbil dakiokete.

Mentorrek ihardetsi zuen:

— Estrapuz horrat eroriak izan gare. Grekak gare. Gure sorlekua Itaka da, Epira zuek zohazten leku hartako hauzoa. Nahi ez baziñdute ere trikatu Itakan, zoiña zuen bidean baita, aski ginduke Epirarat eramaitea. Han edirenen ditugu geldituko zeraukun piaia labur horren eragiteko arta izanen duten adiskideak eta bethi zor izanen derautzuegu lurraren gaiñean gehienik maite ditugunen berriz ikusteko atsegiña.

Holetan Mentorrek ihardukitzen zuen solasa. Telemake ixilik bazagoen eta usten zuen mintzatzera. Bere buruaz mesfida zen. (...) Mentorren erran umoei bethi begiratzeko beharra ezagutzen zuen eta noiz-eta-ere, zer iduritzen zitzaioen galdegiteko eziñ mintza baitzaiokeien, bedere haren begiak kontutuzen zituen eta haren gogoeten usnatzera destatzen zen.

Feniziendar aintzindariak Telemaki begiratu zioen, eta iduritzen zitzaioen lehen nonbait ikusi izan zuela, baiñan eziñ erreberri zezakeien orhoitzapen-iduri bat zuen. Erran zioen:

— Barka dizadazu, othoi, heia ni bertze orduz ikusirik orhoitzen zaren, hala nola iduritzen baitzait nik zu ikusi zaitudala. Etxait arrotz zure begitarte. Lehenbiziko begi ukalditik miretsi nau, baiñan non ikusi zaitudan ez dut gogoan. Zure orhoitzapenak nerea menturaz lagunduko du.

Orduan Telemakek ihardetsi zioen harridura eta bozkarioarekiñ:

— Zu ikustean, zure alderat naiz hala nola zu nererat. Ikusi izan zaitut, ezagutzen zaitut, baiñan Egiptoan ala Tirren denetz eziñ orhoit naiteke.

Orduan feniziendarra, hala nola gizon bat goizean atzartzen dena eta emeki-emeki urrunetik orhoitzen dena atzartzearikiñ suntsitu den amets arinaz, bat-batean oiñu egiñ zuen:

— Telemake zare, zoiña Narbalek, Egiptotik bihurtu giñenean amodiotan hartu baiziñtuen. Haren anaia naiz eta duda gabe nitaz ardura miñ-



tzatu izan zautzuke. Egiptoko gerlaren ondoan, harekin utzi ziñtudan. Goan behar izan nuen itsaso guziez haiñdira, Betika aipatu hartara, Herkulen harroinaren ondo-ondora. Haletan doi-doi ikusi izan ziñtudan eta ez da harritzeko berehala haiñ nekez ezagutu baliñbazaitut ere.

Telemakek ihardetsi zioen:

— Ongi ohartzen naiz Adoam zarela. Orduan erraiteko diña ikusi ziñtudan, baiñan Narbaleen solasetarik ezagutu izan zaitut. Oi zer bozkarioa zureganik jakiñ ahal izaita bethi haiñ maite izanen dudan gizon baten berriak! Tirren ote dago bethi? Ez ote du Pigmalion aiherutsu eta krudelarenganik egitate gaixtorik pairatzeko?

Solasa trenkatu zioen Adoam, ihardesten ziolarik:

— Jakiñezazu, oi Telemake, zorion batek eman zaituela gizon baten eskuetara, zeñiak zutaz harturen baititu izan daizten artha guziak. Epirarat gabe, Itakara bihurturen zaitut eta Narbaleen anaiak ez du Narbalek berak baiño zuretzat amodio gutiago izanen.

Solas horiek erraiterekin batean, igurikitzen zuen haizea abiatzen zela ohartu zen. Aiñgurak altxarazi zituen, belak ezarrarazi eta arrau ukaldika bidegiten abiarazi. Ordu berean bazterrazi zituen Telemake eta Mentor, heiekin solas egiteagatik.

Telemaki begiratu zuen erraiten ziolarik:

— Zure lehiaren askiestera noha. Zendua da Pigmalion. Jainko zuzenek lurra hartarik libratu dute. Nola nihori ez baitzen fida, nihor etzakiokeien hari ere fida. Gizon prestuak auhenetan baratzen ziren, haren gaixtakerici ihes egiñez, hari gaizkirik egitera gogoari eziñ emanez. Gaixtagiñek etzuten uste haren bizia akabatu gabe berenak segurean iduk zezaketela. Etzen tiriendarrrik haren begiko pitsa bilhakatzeko egun oroz lanjeretan etzenik. Haren guardiak berak bertze guziak baiño lanjer handiagoan ziren. Nola heien eskuetan baitzuen bizia, bertze gizon guzien baiño heien beldurrago zen. [...] txarrenaren gaiñean, bere seguratasunagatik sarraskiarazten zituen. Horrela, bere seguratasuna bilhatuaren bortxaz, etzezakeien gehiago atzaman. Zeiñen eskuetan baitzen haren bizia, haiñak bethi lanjeretan zauden haren beldurrak zirela kasu, eta haiñ hesura izigarritik eziñ athara zaizten, non etziren gaixtagiñ haren herioaz haren bekaizgo krudelei aiñtziñtzen.

Aztarbe gaixtoa, zeñetaz hanbat aldiz mintzatzen entzun baituzu, lehen-lehenbizikoa izan zen erregeren heriotzea burutan hartu zuena. Itsutuki maitatu zuen Joazar deitzen zen tiriendar gazte aberats bat. Errege eragiñ zezakela buruari eman zioen. Hartarakotz, Pigmalioni siñe-tsarazi zioen bere bi semetarik zaharrena, Fadael deitzen zena, bere aita-

ren koroa lehen-bai-lehen eskuratu nahiz, ixilka haren kontra bermatzen zela. Gauza horren frogatzeko lekuko falsoak atzaman zituen. Errege dohakabeak bere semea hogenik gabe hillarazi zuen. Baleazar, bigarrena, Zamozer aigorria izan Greziako azturak eta jakitateak ikusteko estakuruaren azpian, baiñan egiara, zeren Aztarbek erregeri bururarazi baitzioen urrundu behar zela, arrankura zirenekin ihardukizionerik har zezan beldurrez. Abiatu zen bezaiñ laster, haren untzia zaramatenak, emazte gaixto harrek irabaziak, gabaz kost-egiteko negurriak hartu zituzten. Heien begira zauden barku arrotz batzu igerika ardietsi zituzten eta printze gaztea itsasoaren zolara ardiki. (...)

Aztarbek orduan uste izan zuen hura zela bere xede bethatzeko tenora. Ikusten zuen jauregiko lehenbiziko aiñtziñdaria erregeren odolean eskuak sartetik etzirela urrunduak. Egun oroz miñtatzeten entzuten zuen ixilka erregeren kontra zabiltzan patuez, baiñan salduko zuen norbaiti fida beldur zen. Azkenekotz, Pigmalion pozoatzea segurenik iduritu zitzaioen.

Ardurenik erregek harekin bakarrik jaten zuen, eta bertzei eziñ fidatuz, bere eskuz xuxentzen zituen bere janhariak. Bere jauregiko tokirik gorderenean sartzen zen, bere beldurkundera hobeki estaltzeagatik eta bere jantorduen xuxentzen nihork ikus etzezan amoreagatik. Mahaiñeko atsegiñetarik batere bilhatzera etzen menturatzen. Berak xuxentzen etzakienetarik deusetarik jatera eziñ ausarta zitakeien. Holetan etzaiteken zerbitza ez xoilki kozinerek saltsekin moldatzen dituzten haragietarik, baiñan oraiño ez arnotik, ez ogitik, ez gatzetik, ez oliotik, ez esnetik ez eta ere egun orozko bertze janhari guzietarik. Etzuen jaten baratzean berak biltzen zituen fruituetarik, berak eraiñ eta berak xuxentzen zituen belharretarik baizen. Gaiñerakoan etzuen behin ere bertze urik edaten jauregiko tokirik zerratuenean zen ithurri batean berak hartzen zuena baizik eta zoiñtako gako bethi berekin baitzeraukan. Aztarberen alderat hanbat fidantzia bazuela iduri zuen arren, haren kontra ere bere artak hartu gabe etzagoen. Berak dastatu aiñtziñean bethi janarazten zioen eta edanarazten ontuntzan zerbitzatu behar zituen guzietarik, etzediñ hura gabe pozoatua izan ahal eta luzezago bizitzeko irrisik begira etzezan amoreagatik. Baiñan Aztarbek bera baiño gaixtoagoko atso zahar batek eman zioen kontra-pozoa hartu zuen. Gero etzen gehiago erregeren pozoatzeko lotsa izan.

Huna nola egiñ zuen. Noiz-eta-ere jatera baitzoazen, erran dugun atsoak bet-betan atean harramantz egiñ zuen. Errege bethi hil beldurretan zagoena, asaldatzen da eta athe hartara laster egiten du heia aski ongi



hertsia zenetz ikustera. Atsoa badoha. Errege balditua gelditzen da eta entzun duen harramantzaz ez jakiñez zer asma. Argitzeagatik bizkitartean ez da athearen idekitzera menturatzen. Aztarbek deskantsatzen du, lausengatzen du eta hanbat egiten dio jan dezan. Ordukotz, errege athean izan zen artean, pozoa ezarri zuen haren xata urhearen barnean. Bere azturara, Pigmalionek lehenik edanarazi zioen, eta Aztarbek, kontra pozoari fidaz, beldurrik gabe edan zuen. Pigmalionek ere edan zuen eta hantik laster alditxartu zitzaioen.

Aztarbek ezagutzen baitzuen bekaizgo ttipienaren gaiñean haren hiltzeko gai zela, abiatu zen bere arropen xehatzen, illeen erroitik atharutzen eta hegiogora miñ batzuetan. Besarkatzen zuen errege hiltzen hari zena, besoetan tiñkatua zaukan eta nigarrezko hibaiez bustitzen zuen, ezen emazte amarritsu hari nigarrak deusik etzaitzon gostatzen. Azkenekotz ikusi zuenean ethenduak zirela erregeren indarrak eta azken ordura hurrandua zela, flakaza hartarik altxa zediñ eta berekiñ hillarazi nahi izan zezan beldurrez, lausenguetarik eta amodiozko seiñale miñenatarik errabia izigarrienera iragan zen. Lothu zitzaion eta itho zuen. Gero erhitik khendu zioen errege erraztuna, ideki zioen khoroa, sarrarazi zuen Joazar, zeñari bata eta bertzea eman baitziotzan. Uste izan zuen berari ordu arte estekatuak izan zitzaizkon guziak bere lehiari jarraikiren zitzaizkola eta bere gizongea errege izendatua izanen zuela. Baiñan haren baitan gehienik sartu nahi izan zirenak, gizon barne apal eta diru gose batzu ziren, amodio ziñ batez gai etzirenak. Bertzalde, eskas zuten bihotza eta Aztarbek egiñ zituen izterbegien beldur ziren. Guzien buru, beldurrago ziren oraiño emazte gaixto haren supertasun, egositasun eta krudeltasunarentzat. Bat bederak, bere onarengatik gal zediñ nahi zukeien.

Bitartean biahore izigarri batean dago jauregi guzia. Alde guzietarik entzuten da errege hilla dela diotenen oihua. Batzu izituak daude, bertzeek harmetara laster egiten dute. Guziek iduri dute ondorioez khexu, baiñan berri hortaz atsegiñez. Haroak ahotik ahora bolatzen du Tirreko hiri handian guzian, eta bat bakarra erregez dolu duenik ez da gertatzen. Haren herioa guzien librantza eta sosegua da.

Narbal, haiñ estrapu lazgarriaz harritua, gizon behar den bezalako baten gisa, urrikalmendutan izan zuen Pigmalionen zorigaitza zeñak bere burua saldu baitzuen Aztarbe gaixtoaren eskuetara jarriz eta zeñak hautatu baitzuen gaixtagiñ izigarri bat izatea, ezenetz bere azpikoen aita, errege on baten egiñbidearen arabera. Erresumako ona gogoan harturik, lehen bai lehen gizon prestu guziak bateratu zituen, buru egiteko

Aztarberi, zeñaren azpian, akabatzetik heldu zen erreinua baiño gogorago bat oraiño ikusiren baitzen.

Narbalek bazakien Baleazar etzela itho itsasora ardikia izan zenean. Aztarberi hilla zela erran ziotenak, ustez eta hala zen, haletan mintzatu izan ziren. Baiñan gauaren medioz, igerika salbatu izan zen eta Kretako tratulari batzuek, urrikalmenduz, beren untzian hartu zuten. Bere aitaren erresumara bihurtzera etzen ausartatu, berariaz galarazi nahi izan zutela nabarmendurik eta Pigmalionen bekaizgo krudelarentzat hanbat beldurrez nola Aztarberen amarru gaixtoentzat. Luzez iheska eta arropa gantiotan ibilli izan zen Ziriako itsas hegietan, non utzia izan baitzen kretotar tratulariez. Bere biziaren irabazteko ere artzain egotera bortxatua izan zen. Azkenekotz ediren zuen bidea nola gertatzen zen Narbali jakinaraztekoa. Bere segetua eta bere bizia haiñ berthute frogatuko gizon bati fida ahal uste izan zituen. Narbal aitaz gaizki erabillia izan zen arren, maite izan zuen semea, eta haren onez kontu iduki izan zuen. Baiñan hartaz artarik etzuen izan baizik eta ere bere aitaren alderako eginbideei hutsik egin etzezan amoreagatik, eta pairatuki bere zorigaitza jasaitera erakarri izan zuen.

Baleazarrek Narbali gaztiatu izan zioen:

— Uste izaten duzunean zure alderat ethor naitekeiela, erreztun urhezko bat bidaliren derautazu eta zureganatzea ordu ditakeiela entzunen dut.

Narbalek, Pigmalion bizi zeno, Baleazarren erakarratzea etzuen on uste izan. Printzearen bizia eta berea ere lanjerik handienean ezartzea zitakeien. Haiñ zen gaitz Pigmalionen kontu zorrotzetarik begiratzea! Baiñan errege dohakabe hark, haren gaixtakeriek merezi zuten herioa egin zuen bezain laster, Narbalek herresakan Baleazarri urhezko erreztuna bidali izan zioen. Ordu berean abiatu zen Baleazar eta Tirreko atheladetara heldu izan zen, noiz-eta-ere Pigmalionen ondoko nor izan behar zen hiri guzia asaldutan baitzagoen. Erraxki ezagutua izan zen Tiriendar lehenbizikoez eta gero populu guziaz. Maitatua zen, ez bere aita zenaren kariaz, zeña guziez gaitzetsia baitzen, baiñan bere eztitasunaren eta begirakortasunaren medioz. Bere dohakabetasun luzeek bere ematen zioten ez dakit zer distira bere ethorki on guziak goratzen ziotzana eta haren alderat Tiriendar guziak urrikalmendutan jarrarazten zituena.

Narbalek, populuaren buruzagiak, bilzarreko agudeak eta Feniziako jainkosa handiaren apezak bilarazi zituen. Baleazarri beren erregeri bezala agur egiñ zioten eta orotan oihu egiñarazi zuten. Populuak milla alegrentziatzko irrintzinaz ihardetsi zuen. Aztarbek entzun zituen jauregiko



zolatik, zeinetan sartua baitzagoen bere Joazar galdu eta tzarrarekin. Hura, Pigmalionen denboran zerbitzatu izan zuten gaixtagiñ guziek orduan debalde utzia zuten, ezen gaixtagiñak bere lagun beldur dira, hetaz mesfida dira eta hek indarretan ikusteko lehiarik ez dute. Gizon galduek ezagutzen dute zein gaizki beren lagunak nausitasunaz balia laiztekiein eta zer laiztekiein heien muthiritasuna. Baiñan prestuak hobeki onhesten dituzte gaixtagiñek, zeren igurikitzen baitirabedere heien baitan ezitasuna eta barkhua edireiteaz. Etzen gehiago Aztarberekin gelditzen haren gaixtakeria izigarrienetako lagun bakar batzu baizen eta zeiniek urkhabeaz bertzerik ez baitzuten igurikitzen ahal.

Jauregiko sartzea bortxatua izan zen. Gaixtagiñ hek etziren indar hainitzen egitera menturatu eta ihesari eman zuten. Aztarbe, gathibu arropan, nahi izan zen jende multzoan nahasi baiñan soldado batez ezagutua izan zen. Hartu zuten eta ez erraxki baratu populua oldarrean haren puskatzetik. Jadanik lohian herrestatzen abiatu zuten. Baiñan Narbalek jende xehearen eskuetarik athara zuen. Orduan galdegiñ zuen Baleazarri mintzatzea bere edertasunaz haren ilusitzeko irritsean eta siñetsaraziko ziola koan agerituko ziotzala segeretu miñ batzu. Baleazarrek entzutea eziñ aitzakiatu zioen. Hasteko erakutsi zituen bere edertasunarekin ezitasun bat eta ahalkeria bat bihotzik hasarretuenen bentzutzeko gai zirenak. Lausengatu zuen Baleazar balaku xotilen eta sarkorren guziez. Erakutsi zioen zenbat izan zen Pigmalienez maitatua. Haren odolaz errekeitu zuen urrikalmendutan har zezan. Jainkoak errekeitu zituen, ziñez adoratu izan balitu bezala. Nigar zurrutetan urthu zen. Errege berriaren oiñetan ahuspez jarri zen, baiñan gero etzuen deusere ahantzi nabarmen eta higuñ eragiteko haren zerbitzari ziñenen guziak. Hogenan eman zuen Narbali, Pigmalionen kontra ixilka destatzen ziren batzuei esku eman ziotela eta bermatu zela jendeen eskuratzen Baleazarren bidegabetan errege jarri nahiz. Erran zuen oraiño printze gaztea pozoatu nahi izan zuela. Gisa bereko gezurrak asmatu zituen berthutea maite duten bertze Tiriendar guzien belzteko. Igurikitzen zen Baleazarren bihotzean edireitea haren aitaren baitan ediren zituen bekaizgo eta aiheru berak. Bainan Baleazarrek ezin gehiago jasanez emazte haren barneko belztasuna, solasa trenkatu zioen eta deitu zituen guardiak. Zepoetan ezarria izan zen. Agude zuhurrenak ezarriak izan ziren haren egitate guzien ikartzeko.

Aborrimendurekin ezagutu izan zuten Aztarbek Pigmalion pozoatu eta itho zuela. Haren bizi guzia agertu izan zen egitate izigarrienezko segida bat. Haren kondentzera zoazen suplizio batetara zoiñtaz Fenizian gaxtigitzen baitituzte gaixtakeria handienak. Hura da su eztiz emeki

emeki errea izaitea. Baiñan Aztarbek ezagutu zuenean etzitzaiola gehiago deusen peskizarik gelditzen, ifernutik atharitzen den Fulia baten pare jarri zen. Irets zuen pozoñ bat bethi berekin zabilkana bere buruaren hillarazteko oiñhaze luzeak jasanarazi nahi balin baziotzaten ere. Haren zaiñ zaudenak ohartu ziren oiñhaze samiñ batean zegoela. Laguntza zer-bait nahi izan zioten eman baiñan hark etzioten nahi izan behin ere ihardetsi eta keiñu egiñ zuen etzuela laguntzarik nahi. Samurraziti zituen jainko zuzenez aipatua izan zitzaioen. Erakutsi behar bidean haren hogenek merezi zuten ahalkea eta urrikia, zerurat begiratu izan zuen begitarte arbuigarri eta ozar batekin jainkoei eskarnio egiteko bezala.

Errabia, herioa eta jainkoen kontrako lehia haren begitartean irazkiak ziren. (...) Haren propitasun guzia histua zen. Haren begi iraungiak buruan nahasiak zabilzkon eta so basa batzu ardikitzen zituzten. Ikara batek dardaratzen ziotzan ezpaiñak eta idukitzen zioen ahoa izigarri zen beziñ zabal. Haren begitarte guzia ethendua eta hertsatua ihakiñ izigarri batzuetan zagoen. Ubeldura belz batez eta heriotzeko hormaduraz josiak ziren haren alderdi guziak. Bizten zela aldi batzuz iduri zuen, baiñan etzen uhuria batzuen egiteko baizik. Noizbait hatsa ardiki zuen, hura ikusi zuten guziak ikaratuak eta laztuak utzirik. Jautsi zen duda gabe haren arima beltza toki ilhun hetara non Danaida gaixtoak bethi urez bethe nahiz hari baitira unti zilhatu batzu; non Ixionek bethi errota bat biratzen baitu; non egarriak ithoa, Tantalek eziñ irets baitezake haren ezpaiñetarik ihes egiten duen ura; non Zizifek alferretan goititzen baitu bethi beherera erortzen zaion harri bat; non Titiak aztore batek jaten bethi hautemanen baititu bethi erreberritzen zaizkon gibel errai batzu.

Baleazarrek, gaixtagiñ hartarik libratu ondoan, milla sakrifizioz jainkoei eskerrak bihurtu ziotzaten. Bere erreinua hasi du Pigmalionen gobernuaz ez bertzela. Tratua gerotik gerora iraungitzen hari zen. Destatu da haren altxatzera. Narbalen erranei begiratu izan da egiteko miñenetan eta bizkitartean ez delarik haren eskudantziaren azpian jarri, ezen gauza guziak bere begiz ikusi nahi ditu. Guzien erranak entzuten ditu eta hoberena iduritzen zaionari begiratzen da gero. Guziez maitatua da. Jendearen bihotza izaitearekin, badu aitak bere diru-gose krudelaz bildu zuen baiño ontasun gehiago, ezen ez da etxerik bere izaite guzia eman ez lezokeienik baldiñ behar miñ batean gerthatzen balitz. Holetan Baleazarrek uzten diotena bereago du ezenetz khentzen balezote. Ez du zeren bere biziaren segurean idukitzeko konturik hartu, ezen bere inguruan du guardiarik segurena, zeina baita guzien amodioa. Ez da haren azpikorik hura gal beldur ez denik eta bere bizi mentura ez lezakeienik





haiñ errege onaren begiratzeko. Zorionean bizi da eta guziak harekin batean zori onean bizi dira. Beldur da bethi sobra bizkarkiñ izan dediñ eta aldiz jendea beldur da ez diola bere ontasunetarik aski zathi handia eskeintzen. Nasaizian uzten ditu eta nasaizia harek ez ditu ez bihurri ez ozar eragiten ezen langileak dira, tratuari jarraikiak eta sendo lege zaharretako garbitasunaren begiratzen. Fenizia ikhan da botherezko eta ospezko heñik goreneraiño. Bere errege gazteari zor diotza hanbat zorion.

Narbalek haren azpian manatzen du. Oi Telemake! Orai ikusten baziñtu zer bozkalentziarekiñ etzintzazke dohaiñez betha! Zer ez laite haren atsegiña zu zure sorlekura osperekiñ igortzeaz! Ez ote naiz bada dohatsu egiteaz hark berak egiñ-ahal nahi lukeiena, eta Itakara goateaz tronuaren gaiñean ezartzera Ulizen semea, han erregiña dediñ amoreagatik Baleazar Tirren egiten den bezaiñ zuhurki?

#### ZAZPIGARREN LIBURUAREN AKABANTZA

## ZORTZIGARREN LIBURUA

Adoam horrela mintzatu ondoan, Telemakek feniziendar harek kondatu zioen ixtoriaren atsegiñez, eta oraiño gehiago hark, bere zorigaitzean ematen ziotzan amodiozko seiñaleez, xitezki besarkatu zuen. Gero Adoamek galdegiñ zioen heia zer gerthakuntzaz jauki izan zen Kalipzoren irlara. Telemakek, bere aldian, kondatu ziotzan nola abiatu izan zen Tirretik; nola iragan izan zen Zipren; nola berriz Mentor atzaman izan zuen; zer piaia egin izan zuten Kretan; hango jokoak errege baten hautamenekotzat, Idomenek ihes egiñ ondoan; (...) nola kost-egiri izan zuten; zer atsegiñekin Kalipzok errezibitu izan zituen (...) eta nola Mentorek bere adiskidea itsasora bulkatu izan zuen feniziendar untzia agertu zen bezaiñ laster.

Solas horiek egiñ ondoan, Adoamek zerbitzarazi zuen bazkari handi bat eta bozkario gehiago erakusteagatik, orduan goza zezazketen atsegiñ guziak billarazi zituen. Feniziendar gazte batzu, xuriz bezi eta lorez kho-roatuak ziren mahaiñeko zerbitzari. Ordu berean erretzen zituzten Orianteko baltsamu usaiñik goxoenekoak. Xirula joilez beteak ziren sakheren alki guziak. Akitoazek noiztenka trikarazten zituen kantua arrabitarakiñ batean emanez, zeñiek merezi baitzuten entzunak izatea jainkoen mahaiñean eta zoratzea Apolonen beraren beharria. Tritonak, Nereidak, Neptunen azpiko jainko guziak, itsasoko arraiñik ikharagarrienak ere, obeta hartaz ederretsiak, beren egoitza busti eta barrenetarik atharutzen ziren untziaren ingurura multzoka ethortzeko. Feniziendar gizon gazte propi andana batek, ille fiñ, elhurra baiño xuriagoko arropetan, denbora luzez eman izan zituzten beren aldetako dantzak, gero Egiptokoak eta azkenik Greziakoak. Noizetik noizera turuta batzuek itsasoa bere hegi urrunetaraiño ihardetsarazten zuten. Gauazko ixiltasunak, itsasoaren emetasunak, ilhargiaren argi ikharazkoak uraren gaiñean hedatua, zeru zohar batek, zeñietarik dirdirutzen baitzuten izar argiek, haiñitez ederrago eragiten zuten gauza ikusgarri hura.

Telemake, zeña ethorkiz atzarria eta barne samurrekoa baitzen, gozatzen zen atsegiñ hetaz guzietaz, baiñan etzen hetan bere bihotzaren barraiatzera menturatzen. (...) Mentorri begiratzen zioen. Haren bekunde an eta begietan bilhatzen zuen heia zer xede behar zuen atsegiñ hetaz guzietaz iduki.



Mentorrek hura faxeria hartan ikusteaz atsegiñ zuen eta ez ohartuarena egiten zuen. Noizbait, Telemaken begirakortasunaz ukiturik, erran zioen irri batekiñ:

—Ezagutzen dut zeren beldur zaren. Zure beldurkudea laudagarria da baiñan ez du urrunegi heldu behar. Nihork ez du nik baiño nahiago izanen goza detzatzun atsegiñak, baiñan atsegiñ batzu ez zoratuko ez etare beraztuko zaituztenak. Behar ditutzu atsegiñak abusatuko zaituztenak eta zure buruaren nausi zarelarik, gozaturen dituzunak. Baiñan ez atsegiñ batzu beren ondotik herrestaturen zaituztenak. Nahi deraizkitzut atsegiñ eztiak eta gainditu gabeak, adimendua khenduren ez derautzutenak eta azienda oldartu baten pare eragiñen ez zaituztenak. Orai zure nahigabe guzietarik abusa zaitezziñ komeni da. Adoamen gatik, gostuz goza zaizkitzu eskeintzen deraizkitzun atsegiñak. Har zazu bozkario, Telemake, har zazu bozkario. Zuhurtziak ez du deus idorrik ez eta gezurrezko itxurarik. Hark ematen ditu ziñezko atsegiñak. Hark daki bakarrik heien heinkatzen, hek garbi eta iraunkor eragiteagatik. Hark daki josteten eta irrien nahastatzen arta eta umotasun behar dituzten egitekoen artean. Atsegiñera lanaz erakartzen du eta lanetik atsegiñaz abusatzen du. Behar denean boz agertzeaz, zuhurtziak ahalkerik ez du.

Hitz horiek erraitearekiñ, Mentorrek hartu zuen arrabita bat eta hartaz jo zuen haiñ ederki non, Akitoazek bekhaizturik, berea, gaitzez eskue-tarik erortzera utzi baitzuen. Haren begiak sutan jarri ziren. Haren begitartea asalduan mudatu zen. Oro haren damuari eta ahalkeriari oharturen ziren, Mentorren arrabitak guziei arimak ez baliotzate zoratu. Doi-doia menturatzen ziren hatsaren hartzera, ixiltasuna asalda eta jainkozko kantu hartarik zerbait gal beldurrez. Sobra laster geldi zediñ bethi lotsa ziren. Mentorren bozak etzuen ez-titasun emakoirik batere baiñan zuplanta eta bortitza zen batean eta gauzarik ttipienak zoragari eragiten zituen.

Hasteko kantatu zituen Jupiterren laudorioak, jainkoen eta gizonen aita, zeñak buru higitze batez mundu guzia inharrusten baitu. Gero erakutsi zuen Minerba haren burutik atharutzen, erran nahi baita zuhurtzia jainko hark bere baithan ibentzen duena eta hantik jalgitzen dena gizon ethorkorren jakintsun eragiteko. Mentorrek, haiñ boz samurraz eta ukigarriaz egia horiek kantatu zituen, non guziei iduritu baitzaien airatuak zirela Olinpako goreneraiño, Jupiterren aintzina, zeñaren begiak sarkorragoak baitira ezenetz haren orziria Gero kantatu zuen Narziza gaztearen zorigaitza, zeñia bere buruaren edertasunaz zoroki amorosturik, bethi hari begira egonez ithurri batean bere hiraz iraungitu baitzen eta mudatua izan baitzen haren izena ekartzen duen lili batetara. Azkenekotz kantatu

zuen oraiño Adoniz ederraren heriotze dohakabea, zeñia bas-urde batek porroskatu baitzuen eta zeñia Benuzek, zeruari arrankura miñ batzu egiñez eziñ berriz bitzarazi baitzuen.

Hura entzun zutenek eziñ iduki zuten nigarra eta bat bederak ez dakit zer atsegiñekiñ nigar egiten zuen. Kantutik ixildu zenean, fenizien-darrak miretsiak elkarrri begira jarri ziren. Batak erraiten zuen:

— Orfe da. Hark ere hola arrabita batekiñ maltsarazten zituen ihizi basak eta oihanak eta gerendak ederretsarazten. Horrela Zerberari xarma eman zioen. Horrela trikarazi zituen Ixionen eta Danaiden oinhazeak; horrela Uridize ederra ifernuetarik atharazteko hautsi zuen Pluton urrikalmendu-gabea.

Bertze batek erraiten zuen:

— Ez, Linuz da, Apolonen semea.

Bertze batek ihardesten zuen:

— Ez da hura. Apolon bera da.

Telemake etzen bertzeak baiño hanbat gutiago miretsia, ezen etzakien Mentorrek haiñ ederki bazakiela kantatzen eta arrabita jaiten.

Akitoazek izan zuen bere bekaizgoaren gordetzeko astia. Abiatu zen Mentorri laudorio ematen, baiñan gorritu zen hura laudatzean eta solasa eziñ akhabatu zuen. Mentorrek ezagutzen zuen haren nahastura. Mintzatzen hasi zen solasaren trenkatze bezala eta ahalaz sosegatu zuen, merezi zituen laudorio guziak emanez. Akitoaz etzen sosegatua gelditu ezen ikusi zuen Mentorrek bere begirakortasunaz bozaren edertasunaz baiño gehiago oraiño gainditzen zuela.

Bizkitartean Telemakek Adoami erran zioen:

— Orhoit dut aipatu derautazula Betikan egiñ zinuen piaia batez Egipton izan giñen geroztik. Betika da toki bat zeñitaz hanbat gauza miresgarri erraiten baitute, non doiez siñets ere baititazke. Erradazu, othoi, heia leku hartaz diotzaten guziak egiak direnetz.

Adoamek ihardetsi zioen:

— Atsegiñekiñ begietara emanen derautzut lekhu deitatu hura, zuk duzun ezagutzeko lehia merezi duena eta zeñak jendeen arteko erran guziak gainditzen baititu.

Ordu berean huneletan mintzatzen abiatu zen.

— Betiza deitzen den uhaitza herrialde gizen batean iragaiten da, zeru ezti eta bethi arraso dagoen baten azpian. Tokiari bere izena eman dio uhaitz hark eta Ozeant handira jausten da hurbilsko Herkulen harroiñetarik, eta epaitza hartarik non itsasoak, bere oldarrean, trabu



guziak hautsiz, bertze orduz partitu baitzuen Tarzizen lurra Afrika handitik. Iduri du toki hark urhezko mendeko gozoak begiratu dituela. Han, neguak epelak dira eta haize beltz garratzek ez dute behin ere joiterik. Han, udako beroak gozatuak dira ipar freskoez zeñiak egunaren erditsutan ethortzen baitira airearen eztizera. Holetan urthe guzia da udaberriaren eta udazkenaren zorionezko ezkontza bat. Iduri dute eskua elkarri ematen dutela. Lurrak, elgietan eta lekhu zelhaietan bi aldiz ekartzen ditu sasoiñak. Bide bazterrak betheak dira erramuz, millagranaz, kasmiñez eta bertze zuhamu bethi ferde eta lilitan daudeziñez. Mendiak estaliak dira arthaldez, zeñiek ematen baitute ille fiñ bat, ezagutuak diren jendaia guziek bilhatzen dutena. Asko urhe eta zilhar mia badira leku eder hartan. Baiñan hanko jendeak arrontak dira eta bere arrontasunean dohatsu. Ez diote urheari eta zilharrari beren ontasun bati bezala begiratu ere nahi. Ez dute peretxurik gizonen beharrei ziñez zerbitzatzen diren gauzei baizik.

Jende heien baiñan hasi izan dugunean gure tratua, urhea eta zilharran han atzaman izan ditugu burdinaren zerbitzu beretan, hala nola golde-nabarretan. Nola ez baitzuten kanporako traturik, diru beharrik etzuten. Gehienak artzaiñ edo laborari dira. Ofiziale guti da leku hetan, ezen ez dute gizonen egiazko premientzat zerbitzatzen diren antzeak baizen egarri nahi, eta oraiño hango gizon gehienak laborantzari eta artzaiñtzari jarraikiak diren arren, beren bizitze laño eta arrontari premia diren ofizioetan hartzen dira.

Emaztekiek iruten dute ille eder hura eta ehaiten dituzte oihal fiñ batzu xuritasun miretsagarri batetakoak. Laborea egiten dute eta jatekoa xuxentzen. Lan hura errexa zaiote ezen toki hartan fruituz eta esnez baizik ez dira bizi, gutitan haragiz. Zikiroen larruetarik egiten dituzte oiñetako ariñ batzu berentzat, beren senhar eta haurrentzat. Etxolak egiten dituzte batzu larru ziratzuz eta bertzeak zuhaiñ azalez. Etxeko arropa guziak egiten eta xuritzen dituzte eta barneak idukitzen arranju eta garbitasun miresgarri batean. Heien arropak egiten errexak dira, ezen leku ezti hartan oihal fiñ ariñ puska bat ezartzen da, pikorik gabea, eta bat-bederak bere nahikundera ixur luzetan, gerriaren inguruan, ahalkearen gatik, antolatzen du.

Gizonek, laborantzaz eta artzaintzaz bertzalde, ez dute bertze ofiziorik zuraren eta burdiñaren lantzea baizen, nahiz oraiño ez ditezen burdiñaz hanbat zerbitza laborantzako tresnetan baizik. Etxetako edergailuetako bertze gaiñerako antze guziak, antze alfer batzuentzat idukitzen dituzte, ezen ez dute etxerik behin ere egiten. Erraiten dute, lurrari sobra estekatzea dela, haren gaiñean egitea berak baiño gehiago irauenen duen

egoitza bat. Aski dela airearen bidegabetik begiratzea. Grekek, egiptoarrak eta bertze jendaia ongi argituek prezatzen dituzten antze gaiñerako guziak higuñ dituzte, urguluaren eta nagikeriaren asmu batzu bezala.

Gizon heiei aipatzen zaiotenean etxe eder egiteko antzea duten jendaiez, urhezko eta zilharrezko tresnez, oihal, zeikerkaduraz eta harri pollitzez ederztatuez, baltsamu gozoez, janhari bereziez, zoragarritzko soiñua duten tresnez, huneletan ihardesten dute:

— Ongi dohakabeak dira jende hek hanbat lan eta antze beren buruen galtzeko erabiltzeaz! Sobraniokeria harek berazten, zorutzen eta toleiatzen du bere jabea. Gabe dagoena lehiarazten du hura zuzen-kontra eta indarrez biltzera. Ontasuntzat deit ote ditake sobraniokeria bat gizonen gaixtatzeko baizen ez dena? Leku hetako gizonak gu baiño sanhoagoak eta hazkarragoak ote dira? Luzezago bizi ote dira? Elkarren artean xitagoak ote dira? Heien bizia libroagoa, deskantsuagoa, alegeragoa ote da? Aitzitik, bata bertzeaz bekaitz izan behar dute, inbidia apal eta beltz batez hiratuak, bethi egarri batez, beldurkudeaz eta jaramantziaz khexatuak, atsegiñ garbi eta laño ez gai, hanbat gezurrezko premiatasunen gathibu daudenaz geroztik eta zeñetarik baiteraukate derraiola heien zoriona.

Adoamek zioen aiñtziña:

— Horrela mintzo dira gizon zuhur hek, zeñiek ez baitute zuhurtzia beren adimendu xoiletik baizen ikasi. Gure kortesia higuñtzan dute eta aithortu behar da, heiena handia dela beren arrontasun maitagarrian. Guziak elkarrekiñ bizi dira, lur berezkuntzarik gabe. Etxe bakotza bere buruzagiak manatua da eta zeña baita hartako egiazko erregea. Aita zuzenetan da gaztigatzeaz bere umetarik edo ilobasoetarik gaizki batez hogendun dena. Baiñan gaztigua eman aiñtziñean, bertze askaziei zer iduritzen zaioten galdegiten du. Gaztigu hek arras dira bakhanak ezen zorionezko toki hartan daudezi aztura garbiak, fede ona, ethorkortasuna eta gaizkiaren higuñtza.

Erran daite Aztze, zerurat itzulia omen den hura, lurraren gaiñean gizon heien artean gordea dagoela oraiño. Ez da heien artean juie beharrik, ezen beren bihotzek berak juiatzen dituzte. Ontasun guziak komun dira. Zuhaiñen fruituak, baratzekariak, arthaldeen esnea, haiñ dira abaratasun nasaia non jende haiñ zuhur eta begiratuek ez baitute heien partitze beharrik. Familia bakotxa, ibildaun haiñ leku ederretan, bere etxolak epaitza batetarik bertzera eramaiten ditu toki batetako fruituak eta bazkak jan ondoan. Holetan ez dute elkarren artean goiti beheitirik ihardukitze-ko, eta guziek elkar, deusek asaldatzen ez duen amodio batez, anaiak



bezala maite dute. Gezurrezko abarastasunen eta atsegiñ enganagarrien gabeak begiratzten diote bake hura, batasun hura eta libertatea. Guziak libro, guziak higualtasunean dira.

Ez da heien arteko berezkuntzarik, baizik eta ere agude umoen argitasunetik heldu dena, edo agude berthutean alhatuenean umotasuna higualtzen duten gizon gazte zombaiten zuhurtzia goixtiarretik heldu dena. Jokotriak, indarrezko garhaiziak, fede ukhatuak, hauziek, gerlek, jainkoek maitatuzko toki hetan ez dute behin ere beren boz krudel eta izurritzkoa entzunarazten. Egundaiño gizonaren odolak ez du lur hura gorritu. Doi-doia han ikusten bada bildotsena ixurtzen. Gizon heiei mintzatzen zaienean gerla sarraskitsuez, konkesta lasterrez, erresumen porroskatzeaz bertze jendaian artean ikusten direnez, ez dakite non aski harri, diotelarik:

— Zer bada! Gizonak ez ote dira aski hilkizun, elkarri oraiño heriotze lasterrago bat eman gabe? Haiñ laburra da bizia! Eta luzegia zaiotela iduri du! Batak bertzea porroskatzeko eta elkar dohakabe eragitea-gatik ote dira bada lurraren gaiñean?

Gaiñerakoan, Betikako jende ez dezakete endelga nola hanbat ederre ditazken erresuma handiak zebatzen dituzten gerlariak. Erraiten dute:

— Zer erhokeria bere zoriona emateaz bertze gizonen manatzean, zein manamenduak hanbat lastima ematen baitu, adimenduaren eta zuzentasunaren arabera manatu nahi dituenari! Baiñan zertako atsegiñ izan heien bortxara heien manatzean? Gizon umo batek egin dezaken guzia da, nahi izaita jarri jende ethorkor batzuei manatzera, zein etaz jainkoek kontu eman baitiote edo jende batzuei zeinek othoizten baitute izaitaiz heien aita eta artzaiña bezala. Baiñan gizonak manatzea heien nahiaren kontra, beren buruak ongi dohakabe eragitea da, hek gathibutasunean idukitzeko gezurrezko ohorea gatik. Gerlari zebatzaille bat da, jainkoek, gizonkiaren kontra samurrez, lurrari beren hasarregoa igorri dioten gizon bat, erresumen desmasiatzeko, orotan barraiatzeko lastura, erromeseria, etsia, eta zenbat gizon libro baita, hanbat gathibu eragiteko. Ospea bilhatzen duen gizonak ez ote du hura aski ongi ardiesten, zuhurtasunean erabilliz jainkoek eskuetan eman diotena? Ez ote du uste merezi laudoriorik, muthiri, zuzenaren ertxatzaille, burgoi, ohoiñ eta hauzo guzien alderat dorpe bilhakatzu baizen? Ez da behin ere gerlarik gogoan iragan behar, non ez den bere libertatearen begiratzegatik. Dohatsu haiña hura, zeina ez baita bera bertzen gathibu eta ez baitu bertzeak bere gathibu eragiteko lehia zoroa! Gerlari handi hanbat osperen erdian era-

kusten deraizkiguten heiek iduri dute gaiñdika doazen uhaitzak, irudiz ederrak, baiñan freskatu baizen behar ez lituzketen elgiak desmasiatzen baitituzte.

Adoamek Betika horreletan erakutsi zuen ondoan, Telemakek, atsegiñ harturik, asko galde lehiatzeko egiñ ziotzan. Erran zioen:

— Gizon heiek edaten ote dute arnorik?

Adoamek ihardetsi zioen:

— Begira dute edatetik, ezen ez dute egundaiño edari hartarik nahi izan egiñ, ez mahats eskasik dutelakotz, —lurrik ez da hobeagorik ekartzten duenik—, baiñan aski zaiote mahatsa, bertze fruituak bezala jatea eta arnoarentzat beldur dira gizonaren galgarriarentzat bezala. Erraiten dute pozoiñ mota bat dela gizona oldarrean ezartzen duena, hilarazten ez duena, baiñan abere baten pare jarrazten duena. Gizonak arnorik gabe begira detzakeiela bere osagarria eta bere indarrak. Baiñan arnoarekin lanjeretan jartzen dira osagarriaren dainatzeko eta aztura garbien galtzeko.

Telemakek erraiten zuen gero:

— Ongi jakiñ nahi nuke heia zer legeren arabera gizon heien artean egiten ote diren ezkontzak.

Adoamek ihardesten zioen:

— Emazte bat baizen ez dezake gizon bakotzak izan eta hura bizi deno begiratu behar du. Leku hetan gizonen ohorea derraio hanbat beren emazteen alderako fedearen begiratzetik, nola bertze tokietan emaztekien ohorea baiterraio senharren alderako fedearen begiratzetik. Egundaiño jendakiarik ez da izan hura den baiño garbitasunaren gainean begiratuagorik eta lehiakorrakorik. Han emaztekiak ederrak dira, baiñan lañoak, ahalkedunak eta langilleak. Han ezkontzak bakezkoak, podorosak eta notharik gabeak dira. Senharrak eta emazteak jende ber bat bi gorputzetan iduri dute. Senharrak eta emazteak elkarren artean partitzen dituzte etxeko lanak. Kanpoko egiteko guziez artha hartzen du senharrak. Emaztea ez da barnekoetarik atharazten. Bere senharrari laguntza ematen dio. Hari atsegiñ egiteko baizik ez dela iduri du. Haren fidantzia irabazten du eta bere burua maitarazten bere berthuteaz ezenetz edertasunaz. Heien batasuneko gozoak biziak bezenbat irauten du. Jende heien ontuntzetako zuhurtasuna, heien begirakortasunak, heien aztura garbiek, bizi bat ematen diote luzea eta eritasunik gabea. Heien artean ikusten dira ehun eta seietan hogoi urtetako agudeak, oraiño arraizia eta indardunak.

Telemakek zioen oraiño:

— Gelditzen zait oraiño jakitea heia hurbilleko bertze jendaiekiñ gerlatik begiratzeko nola egiten ote duten.



Adoamek ihardetsi zioen:

— Jendaia hura gerthatzen da bertze guzietarik berezia alde batetik itsasoaz eta bertze aldetik, iparreko alderat, mendi gora batzuez. Bertzalde ere ingurutako bertze jendaiek, hari bere berthutearen kariaz, agurra ekartzen diote. Ardura hartu izan dute gizon prestu bezala, elkarren artean eziñ konpunduz eta guardiatzera eman diotzate khimerako lurrak eta hiriak. Nola egundaino jendaki umo hark ez baitu nihori bortxarik egiñ, hala-hala nihor ez da hari mesfida. Irri egiten dute, erresumetako mugez konpunduz eziñ daizten erregeez aipatzen zaienean. Orduan erraiten dute: «Lurrak gizonei eskas egiñ dezon beldur izaiteko ote da? Bethi izanen da lantuko ahal izanen duten baiño gehiago. Ez giñduke nahi ere, larre librorik gelditzen deno, orai ditugun lurrak gure hauzoen kontra indarka begiratu, baldin hetaz jabetu nahiz heldu balira. Betikako jende guzietan ez da ez buruipe, ez burgoitasun ez fede gaixto ez beren nau-sitasunaren hedatzeko lehiarik edireiten. Holetan inguruneko jendaiek ez dute zeren horrelako gizonen aldetik deuseren izan beldurti, ez eta-ere zeren uste izan larderiarik heiei emanen diotela. Hura dela medio deskantsuan uzten dituzte. Betikako jendeak desterrua edo heriotzea gathibutasuna baiño lehenago hauta lezake. Holetan hura zebatzeko haiñ da gaitz, nola bera bertzeen zebatzeko lehiaz haiñ guti baita gai. Hori dela medio bake handi bat izaten da haren eta haren hauzoen artean.

Adoamek bere solasa akabatu zuen erranez nola feniziendarrek egiten zituzten Betikan beren tratuak. Erraiten zuen:

— Espantitu ziren hanko jendeak ikusi zuztenean itsasoko uhinen erdian untziz gizon arrotz batzu haiñ urrundani heldu zirela. Utzi gaitzuzten hiri baten altxatzera Gadeseke irlan. Errezibitu ere gaitzuzten beren tokietan begitarterekiñ eta berek zituzten guzietarik eman zeraukuten, saririk batere gureganik hartu nahi gabe. Eskeiñi zeraukuten oraiño bihotz onez, ematea beren illeen sobrakiñak, urteko premia zitzaioletena hartu ondoan. Holetan igorri izan zeraukuten illez dohaiñ balios bat. Atsegiñ zaiote arrotzei beren sobrakiñak ematea.

Beren miak gogo onez utzi zeraizkuten. Heientzat alferrak ziren. Iduritzen zaien etzirela haiñitz gizon zuhurrak goateaz hanbat nekherekiñ lurraren sabelean bilhatzera dohatsu eragiñ eta egiazko behar bat eziñ askiets dezakeien gauza bat. Erraiten zeraukuten:

—Ez dezazuela lurra horren barna zilha. Labora zazue xoilki eta mantenaturen zaituzten egiazko ontasun batzu emanen deraizkitzue. Hantik atharaturen dituzue sasoiñ batzu urhea eta zilharra baiño balio-

sagoak, gizonak urhe eta zilharra, bizia mantenatzen dituzten janhariaren erosteko baizen nahi ez dituenaz geroztik.

Asko aldiz nahi izan diotegu itsasoz ibiltzen erakatsi eta heien gizon gaztetarik Feniziarat eraman, baiñan ez dute egundaino nahi izan heien umeek gu bezala bizitzen ikas zezaten. Erraiten zeraukuten:

—Premia bilhakatu zaizkitzuen gauza guzietarik behar izaiten ikas lirote. Heien lehia baluke, hek jokotria tzarrez atzematagatik, berthuteari ukho egiñ lirote. Bilhaka laizte hala nola zanko onak dituen gizon bat, zeña, ibiltzeko aztura galduz, noizbait jartzen baita eri bat bezala ekharria izaiteko beharrik.

Untzietan ibiltzeko jakitateaz ederretsiak dira, jakitate hartako antzea dela medio, baiñan heien ustez, jakitate galgarri bat da. Erraiten dute:

—Gizon heiek bizitzeko premia diren gauzak beren tokietan baliñbadituzte, zeren bilha doatzi bertzetara? Ziñezko beharrentzat aski dena, ez ote dute heiek aski? Tratularien jaramantziaren askiesteko eta bertze gizonen jaidura tzarren lausengua gatik, pesien erdian herioaren bilha dabilzanaz geroztik kost-egitea merezi lukete.

Telemake Adoamen solas horietaz ederretsia zegoen eta bozten zen lurraren gaiñean bazelakotz oraiño jendakia bat zeña, ethorki zuzenaren legetarik ez urrunduz, haiñ zuhur eta hanbatean haiñ dohatsu bizi zena. Erraiten zuen:

— Oi zeñ urrunduk diren aztura horiek, zuhurrenak derauzkaten bertze jendaian aztura balenoriotsu eta lehiatsuetarik! Haiñ galduak gare, non doi-doi siñets baitezakegu arrontasun bat horren lañoa ziñez badi-takeiela. Gizon heien azturak kondera eder bat bezala iduritzen zaizku, eta gureak heiei amets izigarri bat bezala iduritzen zaitzote naski.

## ZORTZIGARREN LIBURUAREN AKABANTZA



## BEDERATZIGARREN LIBURUA

Telemake eta Adoam solas horietan zaudelarik, eta gaua erditsutara heldua zela ohartu gabe, jainko etsai enganatzaille batek urruntzen zituen Itakatik. Akamaz heien pilotoa alferretan zabillan irla haren ondotik. Neptunek feniziendarrak maite zituen arren, eziñ gehiago paira zezakeien Telemaken zoriona, zeren salbu atara zen Kalipzoren irlako harkadietara aurdiki zuen pesiatik. Samurrago zen oraiño Benuz, grek gazte hura Itakara osperekiñ bihurtzen ikusteaz. Nahigabearen miñenean, uzten ditu Zithera, Pafoz, Idalia eta Ziprako irlan bihurtzen deraizkoten ohore guziak. Igaiten da Olinpa distiragarriara zeinietan jainko guziak Jupiterren tronua inguruan bilduak baitzaudeziñ. Hantik ikusten dituzte izarrak heien oiñen azpian dabilzala eta lurra lohi poxi bat iduri. Itsaso zabalak etzaizkote iduritzen ur iñhar batzu bezala baizen, zeiniek lohi poxi hura doi-doia bustatzen baitute. Erresumarik handienak ez dira heien begietan legar pikor batzu bezala baizen, zeiniek lohi haren gaina estaltzen baitute. Eziñ kondatuzko jendaiak, armadarik botheretsuenak ez dira zenbait xiñ-haurri bezala baizen belhar izpi baten gatik lohi haren gainean aharratzen direnak. Gizon herbalen egitekorik handienez jainkoek irri egiten dute eta haur dostetak iduritzen zaizkote. Zer ere gizonak deitzen baitute handiratasuna, ospea, botherea, antze handia, jainko botheretsu heiei etzaitzote iduritzen erromeseria eta herbaltasun baizen.

Lurretik haiñ gora den egoitza hartan Jupiterrek jarri du bere tronua geldia. Haren begiak sartzen dira lezetako zolaraiño eta argitzen dute bihotzetako azken gordegietaraiño. Haren begiratze ezti eta arrasok bakea eta bozkalentzia hedatzen dituzte bazter orotan. Aitzitik bere ilaia iñharruzten duenean, zerua eta lurra ikharatzen ditu. Bertze jainkoak ere haren inguruko dirdirek ahalketuz harenganat ikhara batean baizik ez dira hurbiltzen.

Ordu hartan berean zeruetako jainko guziak haren ingurura bilduak zauden. Benuz agertu zen bere edergaillu guziekiñ. Haren zaia harroak distira gehiago bazuen ezenetz Irizek jaunzten dituen karantza guziek hodoi goibelen erdian, heldu denean gizon izituei kalernak akhabatzera doazela eta denbora ederra bihurtzera. Arropa hura bildua zen gerriko aipatu hartaz zeinietan Graziak seiñale baitira. Jainkosaren illeak urhezko ezpartzu batez laxoki gibelean lothuak ziren (...), baiñan haren begiak

nigarrez ithoak ziren eta nahigabe samiñ batez haren begitartea goibeldua ageri zen.

Bizkitartean Jupiterren tronura hurbiltzen zen patxada ezti eta arin batean, airetan hegaldaka dohan hegaztiñ baten pare. Aire atsegiñ batekiñ begiratu zioen Jupiterrek. Irri ezti bat egiñ zioen eta xutitzen zelarik besarkatu zuen. Erran zioen:

— Nere alaba maitea, zer da zure bihozmiña? Ukitua izan gabe, eziñ ikus detzaket zure nigarrak. Zure bihotzaren zabaltzeko etzaitezilla izan beldurti. Badakizu zer den nere samurtasuna eta zein naizen zure alderat eroria.

Benuzek ihardetsi zioen boz ezti baiñan hatsbeherapen miñez trenkatu batez:

— Oi jainko eta gizon guzien aita, gauza guziak ikusten dituzuna, ote daite zuk jakiñ gabe zerk deraukadan bihotzean miña! Minerbarentzat ez da izan aski asentuetaraiño urratzeaz Troiesko hiri ederra nere gerizean zagoena, eta bere burua Parisez aspertzeaz, zeren hautatu izan zuen nere edertasuna harenaren aldean. Lur eta itsaso guzien gainean laguntzen du Ulize troiestarren galtzaille gaixtagiñ haren semea. (...)

Jupiterrek ihardetsi zioen:

— Egia da, oi nere alaba, Minerbak grek gazte hura bere gerizean idukitzen duela, eta egundaiño gizon gazte batek merezitu ez duen ospe bat berezten dioela. Ez dirot ezar gizon gazte hura zure eskudantziaren azpian. Zure amoregatik bizkitartean onhesten dut izan dedien oraiño itsasoaren eta lurraren gainean ibildaun. Bere sor-lekhitik apart bizi dedien, gaitz eta lanjer guziei paratua. Baiñan ez dute nahi dohamenek ez bera gal dedien ez eta ere garhaitua izan dedien haren berthutea.

Horiek erraitearekiñ, egiñ zioen Benuzi irri aire bat arraiziaz eta handiratasunez bethea. Sismistatik argienaren pare, dirdira batek izarniatu zuen haren begietarik. Benuz xitezki besarkatzearekiñ, Olinpa guzia bethe zuen anbroazi usaiñ bat berduratu zuen. Jainkorik handienaren lausengu hartaz ukitu gabe eziñ egon zen jainkosa. Bere nigar eta bihotzmiñ guziengatik agertu izan zen bozkarioa haren begitartearen goihereatzen. Bere bela behehitu zuen, bere matheletako eta bere faxeriaren gordetzeko. Jainko guzien bilkuak Jupiterren solasari laudorio gorak eman ziotzan eta astirik galdu gabe, Benuz Neptunen gana goan zen harekiñ berezteko Telemakez aspertzeko bideak.

Jupiterren solasak Neptuni erran ziotzan. Neptunek ihardetsi zioen:

— Lehenago ere banakitzen dohamenen manu eziñ ganbiatuak, baiñan eziñ fundi badezakegu ere Telemake itsasoko tiraiñen erdian, ez



dezagun bedere deusik ahanz hura dohakabe eragin dezakenik eta gibelatzeko haren Itakara bihurtzea. Ezin onhets dirot galaraztea hura eramaiten duen feniziendar untzia. Feniziendarrik maite ditut. Hura da nere populua, nere erresuma hark baiño lakhetago duen jendaiarik ez da lurra- ren gainean. Heien medioz itsasoa bilhakatu da lurreko jendaia guzien batasuneko lokharria. Nere aldareen gainean egun oroz sakrifizioz oho- ratzen naute. Zuzenak dira, prestuak eta tratuari jarraikiak. Bazter orotan aisia eta nasaitasuna hedatzen dituzte. Ez, jainkosa, heien untzi batek kost-egin dezan ezin onhets dirot, baiñan heien pilotoak bere bidea gal dezan eginen dut eta aparta dedin Itakatik zeinetara goan nahi baitu.

Agiñtza hortaz bozik, Benuzek irri egosi bat egin zuen eta bere airezko karrosan itzuli zen Idaliako sorro lilituetara zeinetan Graziek, Jokoe eta Irriek hura berriz ikusteko atsegiña erakutsi baitzuten, haren inguruan dantzatzu egoitza xarmagari hura usainzatzuten duten lilien gainean.

Ordu berean Neptunek igorri zuen jainko enganatzaille bat Ametsei iduria, salbu eta Ametsek ez dutela lo daudeziñak baizik enganatzen eta aldiz bertze jainko hark atzarriak daudeziñak xarmatzen dituela. Jainko gaizki-egille hura, Gezur hegaldun oste ezin kondatuko batez inguratua, haren itzulian derabiltzanak, ethorri zen ur mehe xarmatu baten ixurtze- ra piloto Akamazen begietara, zeina ilhargiaren argira, ernerik begira bai- tzagoen izarren ibil-bideari eta Itakako bazterrari, zeinetako gerenda sutak ordukotz hurbil bezala ikusten baitzuten.

Ordu beretik pilotoari bere begiek etzioten gehiago deus egiazkorik erakutsi. Gezurrezko zeru bat eta alegiazko lur bat aintziñera agertu zitzaizkon. Izarrak agertu ziren iduri beren ibilbidea ganbiatu zutela eta gibelerat itzuli zirela. Iduri zuen lege berri batzuetan zabillala Olinpa guziak. Lurra bera ganbiatua zen. Gezurrezko Itaka bat pilotoari bethi aintziñera haren abusatzeko heldu zitzaion, noiz-eta-ere zinezkotik urru- narazten baitzuen. Zenbatenaz-ere hurbiltzenago baitzen irlaren leihorre- ko itxura enganagarri hartara, hanbatenaz itxura hura apartatzen zen. Haren aintziñean ihes zohan bethi eta etzakien ihes hartaz zer asma. Aldi batzuez amesten zuen entzuten zuela portu batean egiten den harraman- tza. Ordutik prestatzen zen, manua izan zuen bezala, irla handiaren aldean bertze ttipi batetan jaustera, Telemaken bihurkuntza gordetzeaga- tik Penelopen gizongeiei, zeinak printze gazte haren kontra patu hartuak baitziren. Aldi batzuez itsas hegi hura inguratzen duten harkadien beldu- rretan jartzen zen eta harkadi heien kontra porroskatzera doaziñ tiraiñen orroa izigarria entzuten zuela iduritzen zitzaioen. Gero bet-betan ohar-

tzen zen lurra oraino urrun iduri zuela. Haren begietan mendiak etziren, urrun hartan, hodoi ttipi batzu bezala baizik, zeinek aldi batzuz ortzia goibeltzen baitute iguzkia etzatera dohanean. Holetan harritu zen Akamaz eta ordu arteo ezagutu etzuen laztura bat hautemanarazten zioen haren begiak xarmatzen zituen jainko enganatzaille haren indarrak. Jartzen ere zen siñestera etzagoela atzarririk eta amets baten enganoetan zela.

Bizkitartean Neptunek iguzki haizeari manatu zioen altxa zedin untzia Hezperriako hegira bulkatzeko. Haizeak hain indar muthiriarekin bethi zuen bere manua, non untzia Neptunek erran leihorrera laster heldu izan baitzen. Jadanik Argizkorriak eguna agintzen zuen; jadanik iza- rrek, iguzkiaren distiraren beldur eta hartaz bekaitz direnek, beren su goi- belak itsaso handian gordetzera zaramatzaten, pilotoa oihuz abiatu zenean:

— Noizbait bederen, dudarik ezin duket gehiago! Itakako irlari hurran hunkitzen dugu! Oi Telemake, alegera zaitezi. Oren baten buruko ikusiren ahal duzu Penelope eta atzamanen duzu menturaz Ulize bere tro- nuaren gainera berriz igana.

Oihu hartan, Telemake loaren besoetan maitu gabe zegoena, atzar- tzen da, jaikitzen da, igaiten da lemara, pilotoa besarkatzen du eta bere begi oraino doi-doi idekiak leihor hurbillekoaren gainean finkatzen ditu. Auhenetan jartzen da, ezaguturik ez dela hura haren sor lekuko hegia.

— Oi! Non gare? —dio—. Ez da hori nere Itaka maitea! Enganatu zare, Akamaz. Ez duzu ongi ezagutzen zure herri aldetik horren urrun den itsas bazter hori. Akamazek ihardetsi zioen:

— Ez, ez, ezin engana naite, irla hortako bazterrak ikustean. Zenbat aldiz ez naiz zuen portuan sartu? Horko har-peñarik ttipienak ezagutzen ditut. Tirreko itsas hegiaz ez naiz hanbat hobeki orhoit. Ezagutazu aint- tziñatzen den mendi hori. Ikusazu dorre baten pare altxatzen den geren- da hori. Ez duzuia entzuten bertze gerenda horien kontra urratzen den tiraiña? Iduri dute itsasoa beren kargaz mehatxatzen dutela. Baiñan ez duzuia berezten Minerbaren tenploa hodoiak urratzen dituela? Horra Ulize zure aitaren dorrea eta jauregia.

Telemakek ihardetsi zioen:

— Enganiotan zare, oi Akamaz! Aitzitik ikusten dut leihor bat aski gora baiñan ordokia. Itaka ez den hiri bat ikusten dut. Oi jainkoak, horre- letan dostatzen ote zarete bada gizonez!



Solas horiek erraiten zituelarik Akamazen begiak bat-batean gantzia-  
tuak izan ziren. Xarma hautsi zen. Leihorra ikusi zuen egiazki zen bezala  
eta enganiotan zela ezagutu zuen. Erran zuen:

— Oi Telemake, aithortzen dut. Zenbait jainko etsaik nere begiak  
xarmatu zituen. Itaka ikusten nuela uste nuen eta haren iduria oso-osoa  
aĩntziñera agertzen zitzaudan, baiñan orai, amets baten pare suntsitzen  
da. Ikusten dut bertze hiri bat. Duda gabe Zalanta da, Idomenek Kretatik  
ihes egiñik Hezperian orai asentatu duena. Altxatzen hari diren murraila  
batzu ikusten ditut, eta oraiño akhabatuak ez direnak. Portu bat ikusten  
dut, gerlakotzat oraiño ongi hazkartua ez dena.

Hiri hortako obra berriei Akamaz begira eta Telemake bere dohaka-  
betasunaren arranguretan zaudelarik, Neptunek igorri haizeak bela  
betean untzia sarrarazi zuen arrada batean, non gerizean eta portuaren  
aldean gelditu baitziren.

Mentorrek, zeĩña jakiñtsun baitzen nahiz Neptunen mendekioaz,  
nahiz Benuzen amarru gaixtoaz, etzuen irri baizik egiñ Akamazen enga-  
namenduaz. Arrada hartara heldu zirenean Mentorrek Telemaki erran  
zioen:

— Jupiterrek frogatzen zaitu, baiñan etzaitu galdu nahi. Aitzitik,  
ospeko bidea zuri idekitzeagatik baizen etzaitu frogatzen. Herkulen nek-  
heez orhoit zaitezi. Bethi begien aĩntziñean zure aitarenak iduk detzatu.  
Zoiñak ere ez baitaki nahigabeen jasaiten, haiñak ez du bihotza handi.  
Zure pairakuntzaz eta bihotzotasunaz etsiarazi behar diozu zure toleia-  
tzen baizik onik ez duen zoriari. Zuretzat ez naiz hain lotsa Neptunen  
bidegabe ikharagarrien, nola beldur bainiñtzen bere irlan idukitzen ziñ-  
tuen jainkosaren balaku lausengarien. Zertan gaude hemen? Sar gaiteziñ  
portu hortan. Huna jendaia adiskide bat. Greketara heltzera goazi.  
Zoriaren aldetik berak hanbat damu izan ondoan, Idomene dohakabe  
batzuei urrikalduren da.

Ordu berean sartu ziren Zalantako portuan, non feniziendar untzia  
trabarik gabe errezibitua izan baitzen, feniziendarrek lurreko jendaia  
guziekiñ bakean eta tratutan direlakotz.

Telemakek ederretsirik begiratzen zioen hiri berri hari, landare gazte  
bati iduria, zeĩña, izar-ihintz gozoaz hazia izan ondoan, haren ederztatze-  
ra heldu diren iguzkiaren arraiok goizetik hautemaiten baititu.  
Handitzen da. Idekitzen ditu bere bote guriak. Hedatzen ditu bere hosto  
ferdeak. Milla karantza berrirekiñ zabaltzen ditu bere lili usaiñdunak. Ikus  
aldi guziez distira berri bat atzamaiten zaio. Huneletan itsas bazterrean  
argitzen zuen Idomenen hiri berriak. Egun oroz, oren guziz, berregiñ-

ki zabaltzen hari zen, eta itsasoaren gaiñean ziren kanpotarrei urrundarik  
erakusten ziotzaten zeruetaraiño heltzen ziren hargindurazko edergaillu  
berriak. Langilleen oihuek eta mailluen kaskak itsas hegi guzian ihardes-  
ten zuten. Harriak sokekiñ boleietan airatuak ziren. Argi urratzetik aĩñ-  
tziñdari guziek jendea lanera sustatzen zuten, eta Idomene erregeak, oro-  
tan berak manuak emanez, harrigarri zen bezenbat lan guziak aĩntziña-  
razten zituen.

Feniziendar untzia porturatu zen bezaĩn laster, kretorrek Telemaki  
eta Mentorri ziñezko amodio baten seiñale guziak eman ziotzaten.  
Lehen-bai-lehenka Ulizen semearen ethortzeaz jakiñtsun egiñ zuten  
Idomene. Oihuz abiatu zen:

— Zer Ulizen semea! Ulize, adiskide maite harena! Gizon handi eta  
zuhur harena, zeĩñaren medioz noizbait bedere eragoitzi izan baitugu  
Troiesko hiria! Erakar dezatela hunat, eta erakuts dezodala zenbat maita-  
tu izan dudan haren aita!

Ordu berean aĩntziñera erakartzen diote Telemake, zeĩñak leihor  
galdegiten baitio bere izena erraitearekiñ batean.

Idomenek ihardetsi zioen begitarte ezti eta arrai batekiñ:

— Baldiñ erran ere ez balautet nor zaren, uste dut ezaguturen ziñ-  
tudala. Horra Ulize ber-bera. Horra haren begi suz betheak eta zeĩnen  
begiratzea haiñ baitzen bipilla. Horra haren bekundea, behiñ hotza eta  
begiratu, hanbat su eta xarmagarritasun gordetzen zituena. Harren irri-  
aire xotila ere ezagutzen dut, haren patxada kontu gabea, haren miñtzo  
legun, laño eta sarkorra, gizona siñestetan jarraraziko zuena hartaz beldur  
hartzeko astirik gabe. Bai Ulizen semea zare, baiñan nerea higual izanen  
zare. Oi nere semea, nere seme maitea! Leihor huntara zer gerthakuntzak  
erakartzen zaitu! Zure aitaren bilhatzera heldu zireia? Oi! Ez dut haren  
berririk batere! Zorigaitza haren eta ene ondolik ibilli izan da. Bere sor-  
lekhua berriz eziñ atzamaiteko dohakabetasuna izan du eta nik izan dut  
nerea atzamaitekoa jainkosen hasarregoaz bethea nere kontra.

Huneletan miñtzo zelarik Idomenek kontuz begiratzen zioen  
Mentorri, hala nola gizon bati zeĩñaren begitarte ez baitzitzaioen arrotz,  
baiñan zeĩñaren izena eziñ aurkhi baitzezakeien.

Bizkitartean Telemakek nigarra begietan ihardetsi zioen:

— Oi errege! Barka diezadazu eziñ gorde dezakezudan atsekabea  
noiz-eta-ere bozkalentziarik eta zure ongi egiñ guzientzat ezagutzarik bai-  
zen ez bainautzuke erakutsi behar. Ulizen galtzapenaz erakusten duzun  
damuaz nere aita eziñ aurkitzeko zorigaitzaren hautemaiten zerorrek era-  
kusten derautazu. Aspaldi du ja itsaso guzien gaiñean haren bilha nabila-





la. Jainko samurrek ez naute uzten ez hura berriz ikustera ez eta jakitera heia kost-egiri duenetz, ez eta itzultza Itakara non Penelopa, bere gizon-geietarik libratzeko lehian, iraungitzen baitago. Kretako irlan uste izan zintudan kausi. Han jakiri izan dut zure dohamen gaixtoa eta ez nuen uste hurbil behin ere Hezperiatik non erresuma berri bat altxatu baituzu. Baiñan zoriak, zeina gizonen dostatzen baita eta zeinak bazter guzietan idukitzen bainau Itakatik urrun, azkenekotz zure leihorretara bulkatu nau. Hark egiñ deraizkidan bidegabe guzietarik hau da gogo hobereenez egartzten dudana. Nere sor-lekutik urruntzen baliñbanau ere, bederen errege guzietarik bizarrena ezagutarazten deraut.

Hitz horien gainean, Idomenek Telemake xitezki besarkatu zuen eta bere jauregira zeramararik, erran zioen:

— Nor da zu laguntzen zaituen agude umo hori? Bertze orduz ardu-  
ra ikusi izan dudala iduritzen zait.

Telemakek ihardetsi zioen:

— Hori da Mentor, Ulizen adiskidea eta zeinaren gomendioan utzi izan bainañduen haurrean. Nork erran ahal lezakezuke zenbat diodan zor!

Berehala hurbiltzen da Idomene eta Mentorri eskua hedatzen dio erraiten diolarik:

— Bertze orduz elkar ikusi izan dugu. Orhoitzen zireia Kretan egiñ izan zintuden piaiaz eta niri eman zinerazkidan abisu onez? Baiñan orduan gaztetasuneko berotasunak eta atsegiñ alferretarako suak bolatzen niñduten. Siñetsi nahi ez niñtuen gauzez jakintsun eragiteko, nere dohakabetasunen beharretan izatu naiz. Oxala siñetsi izan baziñtut, oi agude umoa! Baiñan harriturik ohartzen naiz etzarella hanbat urte hauetan kasik batere mudatu. Begitartean orduko freskotasan bera duzu. Patxada zuzen bera, indar bera dituzu. Bakarrik zure illeak xuriagotuxe dira.

Mentorrek ihardetsi zioen:

— Oi errege handia, lausengatzaille baliñbanintz, higualek erranezakezuke begiratu duzula Troiesko sethio aiñtziñean zure begitartean distiratzten zuen gaztetasuneko lili hura. Baiñan nahiago nautzuke nere burua gaitzetsarazi ezenetz egiari khendu. Ikusten dut bertzalde zure solas zuhurretan, lausengua ez duzula maite, eta zuri egiatasunean miñtzatuz ez dela deuseren beldurrik izaiten ahal. Ongi mudatua zare, eta nekez ezaguturen zintudan. Garbiki ikusten dut zerengatik: zeren zure dohakabetasunetan haiñtuz pairatu izan duzun. Baiñan ongi irabazi duzu zure atsekabetan, zuhurtasuna irabazi duzunaz geroz. Begitartean heldu diren zimurrez gogo onez sosegatu behar da, bihotza bertuteari jartzen eta hartan fiñkatzen hari den orduan. Gaiñerakoan, jakiriñ zazu erregeak bertze gizo-

nak baiño goizago higatzen direla. Zorigaitzean gogoko arrangurek eta gorputzeko nekheek goizegi zaharrarazten dituzte. Zorionean, bizitze guri batetako gozoek, gerlako nekhe guzietan baiño hobeki higatzen dituzte. Deus ez da kaltekorragorik ezenetz atsegiñak zeinatan bere burua negurriran eziñ iduk baititake. Hantik derraika erregeek, nahiz bakean, nahiz gerlan izaiten dituztela arrangurak eta atsegiñak, zeinek adiñ gabe zahartzea erakartzen diotena, bere bidean ethorri behar lukeen baiño lehenago. Bizitze zuhur, begiratu, arront, arrangura eta lehia bortitz gabe batek, negurriru eta langille batek, gizonaren baitan gaztetasun lilia begiratzten du, zeina arta horien eskasian bethi airatzera baitago denboraren hegalean gainean.

Idomene, Mentorren solasek egiñ zioten atsegiñarekiñ oraiño luzezago egonen zen haren entzuten, Jupiterri egiñ behar zioen sakrifizio batera baldin ez balute deithu. Telemake eta Mentor jarraiki zitzaizkon jende oste handi baten erdian. Oro bi arrotz hekiei begira zauden alde guzietarik. Zalantarrek batak bertzeari erraiten zioten:

— Gizon hoiek zein guti duten elkarren eite! Gazteenak badu ez dakit zer atzarririk eta maierik. Edertasuneko eta gaztetasuneko lili guziak horren begitarte eta gorputz guzian hedatuak dira. Baiñan horren edertasunak ez du deus faunik ez eta emakoirik. Gaztetasuneko lili samur horrekiñ, ezagun du hazkarra, gothorra, eta nekeari gogortua. Bertze horrek, haiñtuz adiñ handiangoan den arren, ez du oraiño deus galdu bere indarretik. Lehenbizian horren patxadak iduri du ez dela haiñ gora eta horren begitarteak haiñ atsegiña, baiñan hurbil danik begiratzuz, horren lañotasunean ezagun dira umotasunaren eta bertutearen seinale batzu, ederretsgarri den handiratasun batekiñ. Jainkoak lurrera jautsi izan direnean gizonekiñ ihardukitzeko, horrelako arrotz eta piaianten itxurak duda gabe hartu izan dituzte.

Bizkitartean heltzen dira Jupiterren tenplora. Ospe handi batekiñ edergailatua zen Idomenek, zeina jainko haren odoletik baitzen bera. Marmola jaspatuzko bi harroiñ lerroz inguratua zen tenploa. Xapitalak xilharrak ziren. Tenplo guzia marmola lauzaz bernuzatua zen eta pintaduraz ederretzatua. (...) Han ageri ziren Minozen sortzea eta gaztetasuna, eta errege zuhur hura, adiñ handiango batean, bere irla guziari legeak ematen, bethikotz toki hura dohatsu eragiteko amoregatik. Telemake ohartu ere zen Troieseko sethio gertakari berezienei. Idomenek sethio hartan irabazi izan zuen gerlari handi baten omena. Gudu mustra hetan Telemakek bere aita bilhatu zuen. Ezagutu zuen Rhezuzen zaldiak hartzen, Diomedek errege hura hil zuenean. Gero, greken armadako buru-



zagi guzien kapitoan, Ajaxen kontra Achilen harmez ihardukitzen; eta azkenekotz, zorigaitzezko zurezko zalditik jaustera zohala, hanbat troies-tarren odolaren ixurtzeko.

Telemakek berehala ezagutu zuen egiñtza deitatu hetarik, zeñak Nestorrek berak kondatu baiiotzan eta hanbat espanturekin asko aldiz aipatzen entzun baitzituen. Nigarrak begietarik abiatu zitzaizkon. Begitarte mudatu zitzaioen eta bihotza asaldatu. Telemake, bere asalduaren gordetzeagatik baztertu zen arren, ohartu zitzaioen Idomene eta erran zioen:

— Etzaitezela ahalka guri uzteaz ikustera zenbat zaren ukitua zure aitaren ospezaz eta dohakabetasunez.

Bizkitartean, jendea multzoka biltzen hari zen tenploa inguratzen zuten bi harroin lerroek egiten zituzten aperiku zabaletara. Neskatxa eta gizon gazteko bi saldok bertsuak kantatzen zituzten ortziria eskuan dagokan jainkoaren ohoretan. Haur gazte hek, propienetarik hautatuak, ille luzeak zituzten sorbaldetan behera. Heien buruak usain onez betheak ziren eta arrosaz koroatuak. Oro xuriz bezi ziren. Idomenek Jupiterri ehun zenezeko sakrifizio bat egiten zioen, jainko hura bere alde jarrarazi nahiz bere hauzoen kontra zeraman gerla batean. Alde guzietarik khea zation bitimen odolari. Urhezko eta zilharrezko untzi handien barnera zurrutan jausten ageri zen.

Sakrifizioan, Teofane agudea, jainkoen adiskidea eta tenplo hartako apeza, burua estalia zegoen bere purpurazko arroparen izkinaz. Gero ikartu zituen bitimen erraiak oraino pilpiratzen zirenak. Gero jarri zen alki sakratuan eta oiuhu egiñ zuen:

— Oi jainkoak, nor ote dira bada zeruak toki hautara igortzen dituen arrotz hauk biak? Hauk gabe, zorigaitzezkoa lizakegu hasia den gerla eta Zalanta, bere asentuen gainean akabatu gabe, herrautsia lizate. Ospezko gizon gazte bat ikusten dut zuhurtziak berak eskutik deramana... Hilbizun baten ahoari gehiago erraitea ez da zilhegi.

Hitz horiek erraitean, haren begitarte basatua zen eta haren begiek pindarrak ardikitzen zituzten. Aintziñean zituen gauzez bertzerik ikusten zuela iduri zuen. Sutan zegoen haren begitarte guzia. Nahasia zen eta bere baitarik kanpoan. Haren illeak xutuak ziren, haren ahoa harrapoa zariola. Besoak goitituak zauzkan, eta higitu gabe nihorat. Haren boza ganbio egundaino gizonak izan duen baino bortitzagoa zen. Hatsangatua zen eta bera asalduan atxikitzen zuen jainkozko izpiritu hura bere barnean eziñ iduk zezakeien.

Oihu egiñ zuen oraino:

— Oi zorionezko Idomene! Zer ikusten dut! Zer ondikoak hutsegiñak! Zer bake gozoa barnean! Baiñan zer guduak! Zer garhaiziak kanpoan! Oi Telemake, hire egiñtzak hire aitarenak baino handiagoak dituk. Etsai burgoia, hire marrauzaren azpian, herrautsean auhenetan ziaogok. Erezko atheladak, murraila eziñ gaindituak, hire oiñetan erortzen dituk. Oi jainkosa handia! Horren aita... Oi gizon gaztea, azkenekotz ikusiren duk...

Hitz horiek erraitearekin, solasa ahitzen da haren ahoan eta gelditzen da bere bortxaz bezala, harridurazko ixiltasun batean.

Jende guziak beldurrak lastua derauka. Idomene, ikharan, akaba dezan galdegitera ez daite ausarta. Telemakek, harritua, doi-doia endelgutzen du entzun duena. Doi-doia siñets diro agiñtza handi horiek entzun dituela. Mentor da bakarra jainkozko izpirituak harritu ez duena. Idomeneri erraiten dio:

— Entzuten duzu jainkoen xedea. Edo-zeiñ jendaiaren kontra izan dezazun gerla, garhaizia zure eskuetan izanen da eta zure adiskidearen seme gazteari zor izanen diozu zure harmetako suerte ona. Etzaitezela bekaizti izan. Xoilki progotxutan ezartzu jainkoek haren medioz ematen derautzutena.

Idomene etzen oraino bere harriduratik atharaia. Alferretan bilhutzen zuen bere ahoan solasa. Haren mihia josia zegoen. Agudoago Telemakek Mentori erraiten dio:

— Hanbat ospe agiñduk ez nau ukitzen. Baiñan zer erran nahi ote dute bada azken solas horiek, «ikusiren duk» Nere aita ote edo xoilki Itaka? Ai, zeren ez du akabatu! Lehen niñtzen baino duda gehiagotan utzi nau! Oi Ulize! Oi nere aita! Zu ote ziñdazke, zu bera nik ikusi behar dudana? Egia ote laite? Baiñan nere nahiari lausengu egiten diot. Orakle krudela! Atsegiñ hartzen duk dohakabe batez irri egiten. Solas bat gehiago eta zorionik handiñean niñtakeien.

Mentorrek erran zioen:

— Ez laidorik eman jainkoek agertzen derautzuten gauzari eta gorde nahi dutenaren agertzera ez abia. Sobera jakiteko lehia ozar batek ahalketan bihurtua izaitea du merezi. Bihotz-ontasunez bethea den zuhurtzia batekin jainkoek gizon fluxei beren dohamenak nihork argi ez dezakeien gau batean gordetzen diotzate. On da aintziñetik ezagutzea gure ahalari derraiion gauza, hura ongi egiteko amoreagatik. Baiñan gure ahalaren menean ez dena eta gutaz jainkoek zer egiñ nahi duten ez ezagutzea ez da gaixtoago.



Telemake solas horietaz ukitua izan zen baiñan etzen erraxki bere buruari nausitu.

Idomene bere harriduratik athara zen ordukotz. Bere aldetik jarri zen Jupiter handiaren laudatzen, zeren igorri ziotzan Telemake gaztea eta Mentor zuhurra, etsaien gaiñean garhaizia eraman zezan amoreagatik. Sakrifizio ondoan, bazkari handi bat eman zuen eta gero bazterturik huneletan miñtzatu izan zen bi arrotzei:

— Aithortzen dut, Troiesko sethiotik Kretara bihurtu niñtzenean ez nakiela oraiño ongi nola erregiñatu behar den. Badakizue, nere adiskide maiteak, zer dohakabetasunek khendu zerautedan irla handi hartako erreñua, erraiten derautazunez geroz han izan zaretela ni hantik atharaz geroztik. Oraiño sobra dohatsu zoriaren kolpe garratzenak ni jakiñtsunago eta negurrituago eragiteko izan baliñ badira! Itsasoak iragan nituen hala nola ihesari ematen duen gizon batek eta zoiñari jarraikitzen baitzaio jainkoen eta gizonen aherkundera. Nere bothere iragan guzia etzen nere erorikoa neroni ahalketsuago eta eziñ jasanago bihurtzeko baizik. Ethorri niñtzen nere jainko Penaten gerizan ezartzera leihor basa huntara, zeifñetan ez bainuen atzaman larrerik baizen, estaliak sasiz eta laparrez, oihan lurra bezaiñ zaharrez eta gerenda gaitzez, zeifñetara biltzen baitziren ihizi basa gaixtoak. Oraiño boztu behar izan niñtzan zeren goza ahal neza-keen, nere zorigaitzean jarraiki nahi izan zeraizkidan soldado eta lagun bakar batzuekiñ, lur basa hau, eta hemen egiñ ahal izaitiaz egoitza berri bat, ez giñduelakotz gehiago igurikitzen ahal berriz ikustea irla dohatsu hura zeifñetan sortarazi bainiñduten jainkoek han erregiñatzeko. Nere buruari egiten nioen:

— Ai, ai, zer ganbiamendua! Zer ikusgarri laztekoa ez naizen bertze erregeentzat! Erakutsi behar niñdukete lurraren gaiñean erregiñatzen diren guziei, hek nere gertakuntzaz jakiñtsunago eragitekotzat. Deusen beldurrik ez duketela iduritzen zaiote zeren bertze gizonak baiño gorago diren, eta bere goratasuna bera dela medio, dute zeren gehienik beldur izan! Ikarau nauzkan nere etsaiak eta maitatua niñtzen nere azpikoez. Jendaia botheretsu eta gerlari bati manatzen nioen. Haroak lekharrik urrunenetara heldu izan zuen nere izena. Irlarik gizenenean eta gozoe-  
nean erregiñatzen niñtzen. Ehun hirik, urte oroz, ematen zerautedaten bere aberastasunen zerga. Gizon heiek ezagutzen niñduten heien tokitan sortu zen Jupiterren odol beretik. Maite niñduten Minoz zuhurraren illo-basoa niñtzelakotz. Minoz, zeifñaren legeek haiñ boteretsu eta dohatsu eragiten baitituzte. Nere zorionari zer zen eskas, ezenetz jakitea hartaz negurritan gozatzen? Baiñan nere urguluak eta entzun ditudan lausen-

guez eragoitzi dute nere tronua. Horreletan lurrerako dira beren lehien eta gizon lausengarien eskuetara jautsiren diren errege guziak.

Niri jarraiki zirenei bihotza idukitzeko, egunaz erakusten nuen aha-laz begitarte alegera eta peskizaz bethe bat. Erraiten nioten:

— Hiri berri bat altxa dezagun galdu ditugun gauza guziez sosegu emanen deraukuna. Ingurunetako jendaiek lan hortako erakuzkuntza ederra eman deraukute. Ikusten dugu Taranta gure ganik aski hurbil altxatzen dena. Falantek bere lazedemoniendarrekiñ ezarri ditu erresuma berri horren asentua. Filoktetek Petilia izen ematen dio itsas hegi huntan berean altxatzen duen hiri handi bati. Metaponta ere gisa bereko kolonia bat da. Gu bezala iheska dabiltzan arrotz horiek guziek baiño gutiago egiñen ote dugu? Zoria ez da guretzat garratzagoa.

Noiz-eta-ere solas horietaz ahal bezenbat gozatzen baiñituen nere lagunak nahigabeak, nerorrek eziñ jasaneko atsekabea gordetzen nuen bihotzaren erdian. Sosegu bat zen neretzat egunaren argia itzal zakidan eta gauaren ilhunbeek ingura netzaten, nere dohamen urrikalgarriaz librok-ki auhenetan egon ahal niñdediñ. Nigar karatsa bi zurrutetan abiatzen zen nere bi begietarik eta lo gozoa etzuten gehiago ezagutzen. Su berri batekiñ lotzen niñtzen biharamunean lanei. Horra, Mentor, nola atzaman nauzun haiñ zahartua.

Bere nahigabeak erran ondoan, Idomenek Telemaki eta Mentorri galdegiñ zioten beren laguntza abiatzen zuen gerla hortako. Erraiten zioten:

— Itakara igorriren zaituztet gerla akabatu bezaiñ laster. Bitartean untziak bidaliren ditut leihorrik urrunen guzietaraiño Ulizen berrien jakit-  
tera. Nongo nahiko leihor ezagutara bulkatu duten pesiak edo jainko zeifñabaten hisia, jakiñen dut hura hantik atharitzen. Agian bizi da oraiño! Eta zuek, Itakara bidaliren zaituztet Kretan egundaiño egiñ izan diren untzirik hoberenetan. Jupiter sortu zen Idako mendian berean ebakiak izan diren zurez egiñak dira. Urean eziñ honda daite zuhamu sakratu hura. Ikaratzen ditu eta ahalkatzen haizeak eta gerendak. Neptune bera bere oldarrik handienez ez laite ausarta haren kontra bere tiraiñen bulkatzera. Segur izan zaitzte beraz, estrapurik gabe eta erraxki Itakara bihurtu-  
ren zaretela eta ez dela gehiago jainko etsairik izanen haiñbertze itsasotan zuek erabiliren ahal zaituztenik. Hementik Itakara epaitza laburra da eta errea. Hunaraiño ekarri izan zaituzten feniziendar untzia gibelat igorrazue. Ez dezazuela bertze gogoetarik ibil, baizik eta ere, Idomenen zorigaitz guzien ahantzazteko amoreagatik haren erresuma berria finkatzeko ospea zuen buruei emateaz. Horra, oi Ulizen semea, zer prezio-  
tan izanen zaren zure aitaren gai ezagutua. Baldiñ dohamen garratzek



Plutonen erresuma beltzera jautsarazi ere balute, Grezia guziak, zutaz harturik, usteko du zure baitan hura berriz ikusten duela.

Horren gainean, Idomeneri Telemakek solasa trenkatu zioen, ziolarik:

— Gibelat igor dezagun feniziendar untzia. Zertan gaude harmak hartu gabe zure etsaiei jazartzeko? Zure etsaiak gureak bilhakatu dira. Garhaizia izan baliñbadugu Zizilian, Azezte troiestarra eta greken etsaieren alde gudukatzean, ez ote dugu oraiño su gehiago izanen, ez ote gare jainkoez hobeki lagunduak izanen, gudukatuko garenean Priamen hiria herrautsi duten Greziako gizon handi baten alde. Doi-doia entzun dugun oraklek dudak debekatzen deraizku.

#### BEDERATZIGARREN LIBURUAREN AKABANTZA

## HAMARGARREN LIBURUA

Mentorrek begi ezti eta deskantsu batez begiratzen ziolarik Telemaki, zeïña jadanik gudutako su bihotzoi batez bethea baitzen, huneletan mintzatu izan zen:

— Atsegin dut, oi Ulizen semea, zure baithan ikusteaz ospearentzat haiñ lehia ederra, baiñan orhoit zaitezi zure aita Troieseko sethioan ez dela haiñ ospe handiaren jabe jarri, ezenetz bere burua erakutsiz guziatarik umoena eta begiratuena. Achilek, nahiz eziñ bentzu eta eziñ kolpa zaittekeien, nahiz segur zen lastura eta herioa eramanen zituela gudukatzen zen toki guziatara, eziñ hartu izan du Troieseko hiria. Bera erori izan da hiri hartako murraila ondora, zeinak garhaizia eraman baitu Hektorren bentzutzaillaren gainean. Baiñan Ulizek, zeïñaren baithan umotasunak bihotza argitzen baitzuen, troiestarren erdira sua eta herioa eraman izan ditu eta hari esker erori izan dira dorre gora eta super hek, zeïnek hamar urtez larderiatu baitzuten Grezia guzia batera bildua. Zenbatenez ere Minerba Marz baiño gorago baita, hanbatenez ere balentzia begiratu eta ohartu batek gainditzen du balentzia sukoi eta muthiri bat. Abia gaitezen beraz jakintsun egiten iharduki behar den gerla hortako xehetasun[ez]. Ez dut zer nahi lanyeri ukorik egiten, bainan uste dut, oi Idomene, lehenik behar deraukuzula xehatu heia zure gerla zuzena den; gero, noren kontra egiten duzun; eta azkenekotz zer diren zure indarrak, igurik ahal izaiteko ondorio on bat.

Idomenek ihardetsi zioen:

— Ardietsi giñduenean leihor hau, hemen ediren giñduen jendaia basa bat oihanetan zabillana, ihizitik eta zuhainek berenez ekartzen dituzten fruituetarik bizi zena. Manduriendarrak deitzen dira. Izitu ziren gure untxiak eta harmak ikustearekin eta mendietara sartu ziren. Baiñan nola gure ihiztariak tokiaren ikusteaz lehios izan baitziren eta nahi izan baitziren ihizian oreñei jarraiki, buru egiñ zuten jende basa iheskari heiekiñ. Orduan, heien buruzagiek erran zioten:

— Utzi daizkitzuegu zuentzat itsasoko bazter gozoak. Etzaizku mendi kasik eziñ ibilizko batzu baizik gelditzen. Zuzen da bederen, hautan bakean eta libro utz gaitzatzuen. Atzamaiten zaituztegu barbanakatuak eta gu baiño indar gutiagotan zabiltzatela. Gure eskuan laiteke baldin nahi bazintzuegu sarraskitu eta ere zuen lagunei khendu zuen zorigaitzaren ezagutzea. Baiñan gu bezala gizonak direnen odolean ez dugu



eskurik busti nahi. Zoazte eta bizia gure gizotasunari zor duzuela orhoit zaitezte. Ez dezazuela behin ere ahantz, jendaia ikustaterik gabea eta basa deitzen duzuen batenganik, begirakortasun eta bizartasuneko eskola hori izan duzuela.

Hunelatan gibelat gizon heiek kanpetara igorri izan zutenek, zer gerthatu zitzaioten lagunei erran izan zioten. Gure soldadoak subermatuak izan ziren. Ahalke zitzaioten bizia zor izatea gizon iheskari saldo bati, zeinak iduritzen baitzizaizkoten hobeki zutela hartzen kara ezenetz gizonena. Ihizira goan ziren lehenbizikoak baiño multzo handiagoan eta zer nahi harma motarekin. Laster gerthatu zitzaizkoten jende basa hek eta akometatu zituzten. Gudua sarraskitsua izan zen. Bi aldetarik flexak airean bazoazen hala nola harria erortzen baita kalernetan elgi batetara. Gure lagunek bortxatu zituzten beren mendi xut eta [...]tara zeinetan berak ez baitziren sartzera ausartatu. Hantik laster nere aintziñera jende heiek igorri zituzten bi agude umo niri bakearen galdegitera heldu zirenak. Ekarri zeraizkidaten dohaiñ batzu: azienda basa larru batzu eta tokioko fruituetarik. Dohaiñak eman ondoan hunelatan mintzatu ziren:

— Oi errege! Idukitzen ditugu, ikusten duzun bezala, esku batean ezpata eta bertzean olibera adar bat (eta egiazki, eskuetan zituzten bata eta bertzea). Huna bakea eta huna gerla. Hautazak. Nahiago giñduke bakea. Haren amoregatik ahalkerik gabe uzten deraukagu itsasoko bazter gozoa, zeinetan iguzkiak lurra ontzen eta hanbat fruitu gozo ekartzen baitu. Bakea fruitu hek guziak baiño gozoagoa duk oraiño. Haren amoregatik bildu gituk mendi gora hoietara, bethi hormaz eta elhurraz betheak direnak eta zeinetan ez baitira behin ere ikusten ez udaberriko liliak ez eta ere udazkeneko fruituak. Higuintzetan diagu bortxa gaizkina, zeina ohorezko lehiaren eta ospearen izen ederren azpian, zoroki goaten baita bazterren desmasiatzera eta ixurtzen baitu gizonen odola, zeinak oro anaiak baitira. Baldin gezurrezko ospe hartaz ederresten bahiz, begira daiagu hura lehiatzea. Urrikari hugu, eta horrelako errabiatik begirat gaitzaten othoizten ditugu jainkoak. Baldin jakitateak, zeinetaz grekak hanbat artharekin argitzen baitira, baldiñ kortesiak, zeintaz espantu baiteraukate, ez badiote bururatzen zuzen-kontra higuigarri hori baizen, probetxu horiek ez izaitiaz sobra zorion deraukagu. Ospe deraukagu bethi tonto eta basa izaitiaz, baiñan zuzen, gizon, fiñ, diru-axolagabe, gutiz askiestera jarraiki, haiñitz behartsu den delikatasun faun hartaz arbuio. Peretxugarri zeraukunak dira, osasuna, ontuntzetan begirakortasuna, libertatea, gorputzeko eta izpirituko indarra, berthutearen amodioa, jainkoben beldurkundera, gure askazien alderako ethorki ona, gure adiskideen-

tzat estekamendua, guzientzat fintasuna, zorionean begirakortasuna, zorigaitzean barne handia, bethi egiaren ausarki erraiteko bihotza eta lausenguaren higuintza. Horra zer jende hauoztat eta adiskidetzat eskeintzen deraizkagun. Baldin jainkoek samurrez itsutzen bahute bakea ez eman nahi izaiteraiño, jakiñen duk, baiñan berantegi, begirakortasunez bakea maite duten gizonentzat gerlan beldurrago izaiteko dela.

Agude hek horrela mintzo zeraizkidalarik ez niñdaiten heiei begiratzetaz unha. Bizarra luze zaukaten artharik gabe, illeak laburrago baiñan xuriak, begiak erneak, bekundera eta patxada bipilak, solasa maloa eta eskuduna, moldeak lañoak eta garbiak. Arropatzat zituzten larruak lotuak zuzten sorbaldaren gaiñean, eta agertzera uzten zituzten alderdi batzu zaiñtsuak eta junta batzu gure athletenak baiño haziagoak. Bi mandatari hoiei ihardetsi nioten bakearen lehia nuela. Fede onez elkarrekiñ patuak egiñ giñtuen. Jainko guziak lekhuko hartu giñtuen eta gizon hoik dohaiñ batzuekiñ beren tokira igorri nituen.

Baiñan jainkoak, zeiniek nere arbasoen erresumatik kasatu bainiñduten, nere toleiatzen etziren oraiño aseak. Gure ihiztariak etzitazkeien egiñ giñduen bakeaz haiñ laster jakintsun egiñak. Buruz buru egiñ zuten egun berean jende heietarik saldo handi batekiñ, zeiniek beren mandatariak laguntzen baitzituzten kanpetarik bihurtzen zirelarik. Oldar handi batean akometatu zituzten. Parte hil zituzten, eta gaiñerakoei oiñanetara jarraiki. Horra gerla berriz biztua. Jende heiek uste dute ez daiztela gehiago ez gure agiñtzei ez gure ziñei fida.

Gure kontra indar gehiago izateko, lokriendarrak, apuliendarrak, lukaniendarrak, bruziendarrak, krotoniendarrak, neritarrak, mezapiarrak eta brindarrak laguntzara deitzen dituzte. Orgato sega zorrotzdunekiñ heldu dira lukaniendarrak. Apuliendar bakotxa berak hil duen zenbait azienda basaren larruaz estalia da. Ibiltzen dituzte makhila borra batzu konkor handiz, eta burdiñ mokoz betheak. Handi dira hurran diganteak bezenbat eta heien gorputzak haiñ bortizten dira lan penhatuetan non hek ikusteak berak lazten baitu. Lokriendarrak Greziatik ethorriak dira. Ezagun dute oraiño zer iraulgitarik diren. Bertzeak baiño bihotz beratzagokoak dira, baiñan tropa greketako ordenu zorrotzarekiñ hanko jende basen indarra badute eta bizitze dorpe bati jarriak dira. Horren medioz eziñ bentzutuetak dira. Zumezko erredola ariñ batzu larruz estaliak erabiltzen dituzte. Heien ezpatak luzeak dira. Bruziendarrak lazterka oreñak eta orkatzak bezain zalhuak dira. Iduri du, belharrik goxoena bera, heien oiñen azpian ez dela zapatzen. Ikusten dira bat-batean beren etsaien gaiñera jauzten eta higuual agudo suntsitzen. Krotoniendarrak flexak tira-



tzen artexak dira. Greketarik edozeñek eziñ banda liro krotoniendarren artean ardurenik ikusten diren arkoak eta egun batez destatzen badira gure jokoetan, nausituren dira. Heien flexak bustiak dira Abernako ondoan heldu omen diren belhar batzuen urinean. Heien pozoiñak herioa ematen du. Neritakoek, Mezapiakoek eta Brindakoek ez dute bertze onik gorputzeko indarra eta balentzia antze gabeko bat baizen. Etsaia ikustearrekin heiek zeruetaraino egiten dituzten orroak izigarriak dira. Aski artexki erabiltzen dute habala eta babazuzak bezala airea harriz goibeltzen dute, baiñan guduan ez dute ordenurik idukitzen.

Mentor, horra zuk jakin nahi ziñduena. Gerlaren ithurburu eta nor diren gure etsaiak orai ezagutzen dituzu.

Garbitasun hori egiñ ondoan, Telemakek lehen bai lehen gudura nahiz, uste zuen etzuela gehiago harmen hartzea baizen. Mentorrek geldiarazi zuen oraino, huneletan Idomeneri mintzatzen zelarik:

— Nondik heldu da lokriendarrak berak, Greziatik atharaiak, greken kontra jende basa horiekin bateratzen direla? Nondik heldu da horrenbertze kolonia greka itsas bazter huntan berean ospetan jartzen direla, zuk bezala gerlarik ihardukitzeko izan gabe? Oi Idomene! Diozu ez direla oraino jainkoak zure toleiatzen aseak, eta nik diot etzaituztela oraino aski argitu. Hanbat zorigaitz egarri ditutzunek, ez derautzute oraino gerlatik begiratzeko zer egiñ behar den erakatsi. Jendaia basa haren fede onaren gainean zeronek erran dituztunak aski dira erakusteko harekin bakean bizi ziñtakeiela, baiñan gerlarik lanjerosenak erakartzen dituzte burgoitasunak eta larderiak. Heienganik har eta heiei eman ziñetzakeien bahiak. Heien mandatariekin zure azpiko aiñtziñdariatik zenbait igortzea etzitateien nekhe, hek salburik gibelat bihurrazteko. Gerla hori berrituz geroztik, eztiarazi behar ziñtukeien heiei erakutsiz akometatuak izan zirela, adiskidantzako patuak ziñen azpian egiñak zirela jakin gabez. Behar zitzaizoten nahi zituzten segurtasun guziak eskeini eta gaztigu garratzak manatu patuari huts egiñen zuten zure azpikoen kontra. Baiñan zer gertatu da gerla hasiz geroztik?

Idomenek ihardetsi zioen:

— Uste izan nuen gure buruak apaldu gabe ez giñtzakeiela jendaia basa haren ondotik ibil zein herresakan bildu baitzituzten gerlako on zituzten gizon guziak eta zein laguntzara othoiztu baitzituzten hauzotako jendaia guziak eta heiei nabarmen eta higuin eragin giñduten. Iduiritu zitzaudan biderik hoberena zela berehala hartzea mendietan iragangia gaizki zaiñduak ziren batzu. Hartu izan giñtuen erraxki eta horrela jarri gira jendaia basa hura nahi dugun bezala toleiatzeko heinetan. Han altxa-

razi ditut dorre batzu, zein barnetik gure soldadoek flexez xahuturen baitituzte mendietarik gure lurretara ethor laizteken etsai guziak. Heien lurretan nahi dugun sar gainteke eta heien herri berezienak desmasia. Horren medioz, indar gutiagorekin gure inguruan diren etsaiezko oste eziñ kondatu hari buru egiteko heinetan gare. Gaiñerakoan, bakea heien eta gure artean haiñtz nekhos bilhakatu da. Dorre hek eziñ utz ditzoketegu heien gaixtakerien menturari jarri gabe, eta heiek begiratzten diote heien gathibu eragiteko nahi ditugun zitadela batzuei bezala.

Idomenei Mentorrek huneletan ihardetsi zioen:

— Errege zuhur bat zare eta nahi duzu ezitasunik batere gabe erakuts dezazuten egia. Hura ikus beldur diren, etzira gizon flux heien pare, beren buruen ganbiatzeko bihotzik ez izanez, hutsegiñen gogortzeko baizen ez baitu beren eskudantzia erabiltzen. Jakiñezazu, beraz. Eskola miragarri bat eman derautzu jendaia basa hark zuri bakearen galdegitera ethorri denean. Apaltasunez galdegiten ote zautzun? Bihotz edo indar eskasetan ote zen zure kontra? Ikusten duzu segur ezetz, haiñ gerlaria denaz geroz eta lagun duen hanbat hauzo, zein etaz beldur izaiteko baita. Zertako etziñen haren begirakortasunari segitzen? Baiñan ahalke gaixto batek eta balenorioak ezarri zituzte zorigaitz hortan. Beldur ziñen utz etsaiari larderia sobra hartzera eta etziñen beldur utz hura indar sobretan sartzera, egitate burgoi eta zuzenkontrako batez zure kontra hanbat jendaia billaraziz. Zertako dira hanbat espantutan derauzkatzun dorre hek ezenetz zure hauzo guziak bortxatzeko berak galtzera edo zeroni galaraztera beren buruak gathibutasun laster batetarik begiratzegatik? Dorre hek segurean jartzeko baizen ez dituzu altxatu eta dorre heien medioz zare horren lanjer handitan.

Erresuma batetako murrailarik segurena da zuzentasuna, begirakortasuna, fede ona eta heien lurrez gaizki jabetzeko gai etzareloko deskantsua. Aiñtziñatik ikus ez daizten asko estrapuz eror daizte murrailarik hazkarrenak. Zoria partsu eta mudakor da gerlan, baiñan zure auzoen zure alderako amodioaren eta siñestearren medioz, zure begirakortasuna ezagutu dutenean, zure erresuma ez daite bentzu eta ez da kasik behin ere akometatua. Hauzo gaixtagiñ batez akometatua balitz ere, bertze guziek zure begiratzean beren ona lukete eta zure alde harmak har letzakete. Hanbat jendaien laguntzak, zeinek beren egiazko ona atzaman bailezakezate zureari indar ematean, haiñtz botheretsuago eragiñen ziñtuen ezenetz zure ondikoak ezin sendatuak eragiten dituzten dorre heiek. Hastetik gogoan izan baziñdu hauzoen bekaizgoa zureganik urruntzea, zure hiri



berria dohatsuzko bake batean ospetan jarriko zen eta Hezperia guziko jaun izanen ziñen.

Baiñan orai asma dezagun xoilki heia nola iraganak senda ditazkeien ethorkizunaz.

Erraiten hari zinaizkidan itsas hegi huntan asko kolonia greka bazi-rela. Zure laguntzera ekharriak izan behar dira. Ez dituzkete ahantzi ez Minozen izen handia, Jupiterren semea, ez zure nekheak Troieseko sethioan, zeñtan zure burua handizki eta hanbat aldiz erakutsi baitziñuen prinze greken artean, Grezia guziko makur hartan. Zertako etzira kolonia hek zure alde jarraraztera bermatzen?

Idomenek ihardetsi zioen:

— Nihoren alde ez jartzeko xedea hartu dute, ez nere laguntzera ekarriak bezala ez direlakotz. Baiñan hiri hunek hastetik ekarri izan duen distira handiegiak izitu ditu. Grekek, bertzeak beziñ ongi, heien libertatearen gaiñean zerbait xede bagiñduela beldurrak hartu izan ditu. Uste izan dute mendietako basak zebatu ondoan, urrunago helduren giñduela gure lehia. Hitz batez, oro gure kontra dira. Gerla ageri bat ez deraukute-nek ere, gure apaltzea nahi dute eta bekaizgoak adiskide bat ez derauku uzten.

Mentorrek erran zuen:

— Oi eziñ bertzezko hestura! Sobra botheredun agertu nahiz, zure botherea ezeztatzen duzu eta noiz eta ere kanpoan baitzare zure hauzoen lotsaduraren eta aiherkundearen suieta, barnean zure burua akhitzen duzu horrelako gerlari buru egiteko bermadura premia direnetan. Oi Idomene dohakabea eta bi aldiz dohakabea, zorigaitzak berak erdizka bai-zen eziñ argitu duena! Bigarren eroriko baten beharretan izanen ote zare bada, ikastekotzat aiñtziñetik ikusten erregerik handienei dixidu egiten diotzaten gaitzak? Utz nezazu egitera eta xoilki xehetasunean erradaizkitzu zurekiñ patu hartu nahi ez duten hiri grekak.

Idomenek ihardetsi zioen:

— Hiri hetarik buruzagiena Taranta da. Badu hirur urte Falantek haren asentuak jarri zituela. Bildu izan zituen Lakonian gizon gazte multzu handi bat Troiesko gerla denboran beren senharrak kanpoan zituzten emaztetarik sortuak. Senharrak gibelat itzuli zirenean, emazteek heien eztiarazteko beren hutsak ukhatu zituzten. Ezkontzaz kanpo sortu zen gazteria handi hura, gehiago ez ezagutzenetz ez aitarik ez amarik, barraia-dura handi batean bizi izan zen. Legeen garratzasunak heien nahasmen-duak gaztigatu zituen. Bildu izan ziren Falantaren azpira, buruzagi ausar-tatua, bihotzoia, egarria, eta bere amarruez bihotzen irabazten dakiena.

Ethorri da itsas hegi huntara lakoniar gazte heiekiñ eta egiñ izan du Tarantaz bigarren Lazedemonia bat. Bertze alde batetik Filoktetek, zeñak haiñ ospe handi bat irabazi baitzuen Troiesko sethiora Herkulen flexak ekartzean, hauzo huntan altxatu du Petilia. Egia erraiteko, hiri hori ez da haiñ hazkarra nola Taranta, baiñan zuhurkiago manatua da. Badugu oraiño hurbil huntan Metapontako hiria, Neztor zuhurrak asentatua bere piliendarrekiñ.

Mentorrek erran zioen orduan:

— Zer, Hezperian duzu Neztor eta ez duzu jakiñ hura zure alde jarrarazten! Neztor, zeñak hanbat aldiz ikusi izan baitzaitu troiestarren kontra guduan eta zeñarekiñ adiskide baitziñen!

Idomenek ihardetsi zioen:

— Galdu izan dut haren adiskidantza jendaia haren amarruaz, zeñek ez baitute basarik deusere izena baizen. Aski antze izan du Neztorri siñetsarazteko Hezperia guzia nere eskudantziaren azpian ezarri nahi nuela.

Mentorrek erran zuen:

— Egiaz argituren dugu. Telemakek ikusi izan zuen Pilozen, hiri berri horren altxatzera ethortzeko aiñtziñean, eta Ulizen bilha gure piaia handi horietan abiatu giñen baiño lehen. Ez duke oraiño Ulize handia ahantzi, ez eta ere Telemake haren semeari erakutsi zioen amodioa. Baiñan lehenbiziko gauza da haren mesfidantza haustea. Zure hauzo guziei eman diozuten gibelbeldurtasunak biztu [du] gerla hau eta gibelbeldurtasun ezdeus hek ohilduz gerla hau itho daiteke. Oraiño diot berriz, utz nezazu egitera.

Solas horiekiñ batean Idomenek besarkatzen zuen Mentor. Bihotza hausten zitzaioen eta etzaieken mintza. Noizbait, nekhez athara zituen solas hauk:

— Oi agude umoa, nere hutsen ezeztatzeko jainkoek igorria! Aithortzen dut zu beziñ garbiki nornahi mintzatu izan balitzait nere oldarra jauzaraziko zerautala. Aithortzen dut ez dela zu baizik ni bakearen ondotik ibillaraziko nauenik. Leher egiteko edo nere etsai guzien bentzutzeko xedea hartu nuen, baiñan zure umotasuna ezenetz nere lehia, zuzenago da siñestea. Oi zorionezko Telemake, behin ere ni bezala eziñ errebelaturen ahal zarena, holako aiñtziñekoa duzunaz geroz! Mentor, zu zare nausi. Jainkoen zuhurtzia guzia zure baithan da. Minerbak berak ez liro bide salbagarriagorik agert. Zoazi, agiñtzazu, egizu, emazu nik dituzten guziak. Idomenek onhetsiren ditu zuk egiñen dituzten guziak.



Solas horietan zaudelarik, bet-betan, orgatoak, zaldi irrintziñak, gizon orroa izigarri batzu eta airea soiñu gerlari batez ihardetsarazten zuten turutek egiten zuten harramantz ikaragarri bat entzuten da. Alde guzietarik jendea oihuz abiatzen da. Horra etsaia! Inguru handi bat egiñ du zaiñduak diren irangangiak hutsegiteko. Horra non diren Zalantaren sethiatzera heldu direla! Gizon zaharrek eta emaztekiek iduri zuten laz- tuak, ziotelarik:

— Oi zorigaitza! Zertako utzi behar giñduen gure sorleku maitea, Kreta aberatsa, eta haiñbertze itsasoen erditik errege dohakabe bati jarraiki, altxatzeagatik hiri baten asentuak, zeina, Troiesen pare, herraustua izanen baita!

Murru berrien gaiñetik elgi zabalean, ageri ziren etsaien kaskak, kuirazak eta erredolak iguzkira distirutzen. Lantzak xutuak ageri ziren lurra estaltzen zutela, hala nola estaltzen baitu sasoiñ nasai batek Zizilian, Ennako elgian, Zerezek udako beroetan handiarazten duena, laborariari beren nekhe guzieren saria emaitako amoreagatik. Jadanik begiek berezten zituzten orgatoak sega zorrotzez harmatuak, eta erraxki seiñale ziren gerla hartara ethorri jendaia bakotxa.

Mentor, dorre gora baten gaiñera igan zen guziak hobeki ikusteagatik. Idomene eta Telemake hurbildanik jarraiki zitzaizkon. Haren gaiñera igan bezaiñ laster ikusi zuten alde batetik Filoktete eta bertzetik Neztor bere seme Piziztratekiñ. Neztor bere adiñ ahalkezunetik errax zen ezagutzen.

— Zer bada! —oihu egiñ zuen Mentorrek—. Uste izan duzu, oi Idomene, Filokteteri eta Neztorri aski zitzaioleta zuri laguntzarik ez ematea! Horra non diren zure kontra harmak hartu dituztela! eta iduritzen zaudana egia baliñ bada, bertze tropa horiek, haiñ ordenu ederrean eta haiñ astiki heldu direnak, Falantak manatzen dituen lazedemoniar tropak dira. Guziak zure kontra dira. Ez da itsas hegi huntan zeronek nahi gabe zure buruari etsai jarrarazi ez duzun hauzo bat.

Solas horiek erraitearekiñ batean, Mentor berehala jausten da dorretik. Etsaiak hurbiltzen hari ziren hiriko athelada batetara badoha, zabalarazten du, eta Idomene, balditua zer handiratasunekiñ egiten dituen gauza hek, ez da ausartatzen ere galdegitera zer den haren xedea. Mentorrek eskuaz keiñu egiten du nehor ez dakion jarraik. Badoha etsaien alderat, zeina harrituak gelditu baitziren ikusteaz gizon bakhar bat heien aiñtziñera ethortzen. Bake seiñaleztat erakutsi zioten olibera adar bat, eta bozaren menera heldu zenean, galdegiñ zuen aiñtziñdari guziak bil ziteziñ. Aiñtziñdariak berehala bildu ziren eta huneletan mintzatu zitzairen:

— Oi gizon bizarrak, Hezperia aberatsean ospetan dauden hanbat jendaietarik bilduak, badakit libertatearen intres beraz hunat ethorriak zaretela. Zuen kharrari laudorio ematen diot, baiñan onetsazue erakuts dezadazuedan libertatearen eta zuen azpiko guzieren ozpearen begiratzeko bidea gizonaren odolik ixuri gabe. Oi Neztor, Neztor umoa, bilku huntan ikusten dudana. Jakintsun zare gerla zein ondikoakoa den, zuzentasunean eta jainkoen laguntzaren azpian egiten dutenentzat berentzat! Gerla da jainkoek gizonari ematen dioten gaitzik handiena. Grekek Troies dohakabearen aiñtziñean hamar urthez zenbat egarri duten behin ere ez duzu ahantziren. Zer makurrak aiñtziñdarien artean! Zer zoriaren parrak! Zer sarraskia greketan Hektorren eskuz! Zer ondikoak hiri bothorosen guzietan, gerlak ixuriak, hanko erregeaz haiñ luzez urrunduak zaudelarik! Gibelakoan batzuek Kafaren kost-egiñ dute. Bertzeek zorigaitzezko herio bat atzaman dute beren emazten beren aldean. Oi jainkoak! Zuen oldarrean harmatu ziñtuzten grekak gerla aipatu hartara goateko. Oi hezperriendarrik! Jainkoak othoizten ditut behin ere ez derautzutela haiñ ondikoak garhaizia eman. Egia da, Troies herraustua da, baiñan grekentang oraiño hobe laite bere ospe guzian balitz eta Paris bihotzgabea deskantsuan goza baledi oraiño bere amore tzarrez Elenarekiñ. Oi Filoktete haiñ luzez dohakabe eta Lemnozoko irlan utzia, etzareaia beldur gisa bereko gerlan gisa bereko ondikoak berriz kausi? Badakit lakoniarrek ere frogatu dituztela nahasturak, troiestarren kontra goan ziren printzeen, bertze aiñtziñdarien eta soldadoen haiñ luzez urruntzea zela medio. Oi grekak Hezperiarat iragan zaretanak! Troieseko gerlak ixuri zituen zorigaitzen ondorioz baizen etzarete hunat iragan.

Horrela mintzatu ondoan, Mentor hurbildu zen piliendarretara eta Neztor ere, zeinak ezagutu baitzuen, hurbildu zitzaioen agur egiteko. Erran zioen:

— Oi Mentor! Ongi atsegiñekin berriz ikusten zaitut. Asko urthe dira lehenbiziko aldikotzat Fozidan ikusi ziñtudala. Hamabortz urte bai- zik etziñtuen eta ordudanik ezagutu nuen ondoan izan zaren bezain zuhur izanen ziñela. Baiñan zer gerthakuntzaz ethorri zare toki hautara? Zer bide ematen deraukuzu gerla hunen akhabatzeko? Bortxatu gaitu Idomenek haren akometatzera. Ez giñduen bakea baizik galdegiten. Gutarik bat bederak intres miñ bat giñduen bakea nahi izaiteko, baiñan ez giñezakeien gehiago haren baithan fidantziarik batere ediren. Bere lehen- biziko hauzoei eman zioizkiten hitz guziak hautsi ditu. Bakea ez laite harekiñ bakea. Gure arteko patuen ezetzatzera zerbitza lakiok. Patu hek dira gure salbatzeko bide bakarra. Guziak gathibusanean ezartzeko





xede lehiatsua erakutsi izan du guziei eta gure libertatearen begiratzeko bertze biderik ez derauku utzi, haren erresuma berriaren herrausteko bermatzean baizen. Haren fede gaixtoa dela medio, bortxatuak gare edo leher egitera edo harenganik gathibutasuna errezibitzera. Baldiñ zerbait bide edireiten baduzu hari fida ahal izaiteko eta bake on batez segurtatzeko, hemen ikusten dituzun gizon guziek gogotik utziren dituzte harmak eta bozkarioekiñ aithorturen dugu zuhurtasunez gaintitzen gaituzula.

Mentorrek ihardetsi zioen:

— Oi Neztor zuhurra, badakizu Ulizek bere seme Telemake eskue-tan ezarri zeraudala. Gizon gazte hura, bere aitaren dohamenak lehen bai lehen ezagutu nahiz zure baithan, Pilozen iragan zen eta errezibitu ziñduen aitaren adiskide ziñ batenganik igurik ahal daizten arta guzikiñ. Zure semea eman ere ziñioien laguntzat. Abiatu zituen gero piaia luze batzu itsasoaren gaiñean. Ikusi ditu Zizilia, Egipto, Ziprako irla eta Kretakoa. Haizeek, edo hobeki erraiteko, jainkoek igorri dute itsas bazter huntara Itakara itzuli nahi zuelarik. Hunat heldu izan gira arras heñ onean zuei gerla gaixto batetako ondikoetarik begiratzeko. Ez da gehiago Idomene, Ulize zuhurraren semea da. Ni naiz zuei emanak izanen zaizkitzuen hitzez ihardesten dudana.

Huneletan Mentor tropa guzien erdian Neztorrekiñ mintzo zelarik, Idomene eta Telemake kretoar guzikiñ harmetan, heiei begira zauden Zalantako murrueen gaiñetik. Atzarriak zauden ezagutzeko heia Mentorren solasak errezibituak izanen ziren, eta entzun nahi zuketeien bi agude zahar heien solasak. Greziako erregetarik, Neztor bethi iragan zen guzietarik argituenarentzat eta mintzatzeko dohaiñik handiena zuenarentzat. Troieseko sethioan hark ezitzen zituen Achile jauzkorren oldarra, Agamenonen urgulua, Ajakzen burgoitasuna eta Diomeden bihotz sukoia. Haren ahotik eztizko ithurri baten pare jausten zen gizonei gauzen siñetsarazteko antze gozoa. Haren boza zen bakarrrik gizon handi heien guzien artean entzuna. Hark ahoa ideki bezain laster, guziak ixiltzen ziren eta etzen hura baizen kanpetan eztiaraz zezakeienik makur basa. Zahartasun hotzaren gaitzak hautemaiten abiatzen zen, baiñan oraiño haren solasa eztitasunez eta indarrez bethea zen. Gauza iraganak kondatzen zituen, gazteria berak ikusi zituenez argitzeko, baiñan graziarekiñ kondatzen zituen nahiz astiki kon[datu]. Grezia guziaz ederretria zen agude zahar hark iduri zuen bere mintzatzeko dohaiñ guzia eta bere ahalkezuntasun guzia galdu zuela Mentor haren aiñtziñera agertu zen bezain sarri. Haren adiñak iduri zuen hitsa eta eroria Mentorrenaren

aldean, zeññaren baithan urtheek ez baitzuten iduri ukitzera menturatu zirela haren bizkortasunari eta haren osagarri hazkarrari. Mentorren solasak, nahiz umoa eta lañoa, bazuen atzartasun bat eta larderia bat bertzeari eskasten abiatua. Haren erran guziak laburrak, garbiak eta zaiñhartak ziren. Etzuen behin ere errepikarik. Trenkatu behar zen egitekoarentzat premia ziren solasak baizik etzituen behin ere atharutzen. Baldiñ bortxatua bazen behiñ baiño gehiagotan solas bera aipatzera, hura buruetan sarrarazteko edo norbait siñestetan jarrazteko, bethi egiñen zuen molde berri batean eta konparantza garbi batzuetan. Bazuen ere ez dakit zer atsegiñik eta arrairik bertzeen beharren heñnera jautsi nahi zuenean eta zenbait egia buruan sarrarazi nahi ziotenean.

Noiz-eta-ere Zalantaren kontra patu hartu zuten guziak, bat bertzearen gaiñera igaiten baitziren hek hurbilagodanik ikusteko, eta heien solas zuhurrak entzun nahiz, Idomene eta haren lagun guziak, begiak harmaturik, ezagutzera destatzen ziren heia zer erran nahi zuten heien kheññuek eta begitarteko itxurak.



## HAMEKAGARREN LIBURUA

Bizkitartean Telemake, eziñ egonez, ixilik atharutzen da haren inguruan dagoen jende ostetik egiten du Mentor athara zen athelada berera. Buruiopez zabalarazten du. Idomenek, ustez oraiño bere aldean zuela, harritzen da fite hura elgiaren erdian egiten ikusirik eta jadanik Neztarren ondoan. Neztarren ezagutzen du eta berehala abiatzen da, baiñan urhats dorpe eta tonto batean, haren errezibitzera goatera. Telemakek jauzi egiten du haren lepora eta besoetan tinkatua derauka solasik egiñ gabe. Noizbait oiñu egiten du:

— Oi nere aita! Ez naiz zuri izen horren emaita beldur. Nere egiazko aita eziñ atzemaiteko zorigaitzak eta niri egiñ deraizatzun ongiek, haiñ izen maitea zuri emaiteko eskua uzten derautade. Nere aita! Nere aita maitea! Berriz ikusten zaitut! Oxala horrela ikusiren ahal dut Ulize! Baldin hartaz gabetua izaiteko bihotzmiña deusek nere baithan goza ahal baleza, hura laite zutan edireitea bertze Ulize bat.

Solas horien gaiñean Neztarren eziñ iduki zituen nigarrak. Atsegiñ ixil batez ukituia izan zen ikustearekiñ Telemaki, mathelak behera, grazia ederretsgarri batekiñ jausten zitzaizkon nigar punpuiak. Haiñbertze tropa etsaien artetik konturik gabe iragan zen arrotz ezagutzen etzuten haren edertasunak, ezitasunak eta deskantsu ederrak, gizon hek guziak harritu zituzten. Elkarren artean erraiten zuten:

— Ez ote da Neztarren mintzatzera ethorri den agude horren semea? Bai, duda gabe, umotasun bera da biziko bi adiñik desbardiñetan. Bataren baithan, loratzen baizik ez da oraiño; bertzearen baithan, nasaiki ekartzen ditu fruiturik ontuenak.

Mentorrek atsegiñekin ikusi zuen zer amodiorekiñ Neztarren errezibitu zuen Telemake eta abiadura on hartaz baliatu zen. Erran zuen:

— Huna non den Ulizen semea, Grezia guziak haiñ maite duena eta zeronek, oi Neztarren umoa, haiñ maite duzuna! Huna bahizat eta Idomenen agiñtzen herresa baliosena bezala ematen derautzuna. Segurki siñesten ahal duzue ez nukeela nahi aitaren galtzapenak ondoretzat izan lezan semearena, eta Penelopa dohakabeak Mentorri iroi egiñ ahal lezon haren semea Zalantako errege berriaren lehia tzarrari sakrifikatu duela. Bahi, berenaz bere buruaren eskeintzera ethorri den hunekiñ eta jainkoen bakea maite dutenek igorri derautzuten hunekiñ, abiatzen naiz, oi jen-

daia hanbat tokitarik bilduak, abiatzen nerautzu bethi iraun behar duen bake segur batetako patuen eskeiñtzen.

Bake solas hortan, haro handi bat lerrotik lerrora guzietan hedatu zen. Jendaia berez hek guziak irakiten ziren eta gudua luzatzen zioten asti guzia galdutzat idukitzen zuten. Iduritzen zitzaieten solas hek guziak etzirela egiñak heien oldarra histera uzteko baizen eta heien aztaparretarik etsaiari eskapatzeko astia emateko baizen. Manduriendarrek bereziki, eziñ bertzez jasaiten zuten Idomenek heien berriz enganatzeko peskiza izan zezan. Asko aldiz nahi izan zioten Mentorri hitza trenkatu, ezen beldur ziren haren solas zuhurtziaz betheek, heien adiskideak heienenganik partiaraz zitzaaten. Bilkuman ziren grek guzieñtzat beldurkudentan sartzen hasi ziren. Mentor hortaz ohartu zen eta beldurkunde horren handitzera berehala destatu zen, jendaia heien guzien artean nahasmendua ezartzeagatik. Erraiten zuen:

— Aitortzen dut, manduriendarrek arranguratzeko badutela eta egarri dituzten bidegabeen alderat zerbait galdegiñ dezaketela, baiñan ez da zuzen ere, itsaso huntako bazterretan egonleku berriak altxatzen dituzten grekak, tokiko jendaia zaharrari higuñ eta nabarmenduak gelditi ditezten. Aitzitik, grekek elkarren artean batasunean egon behar dute eta bertzei beren buruak ongi ikusarazi. Xoilki behar dute begiratuak izan eta ez behin ere abiatu beren hauzoen lurrez zuzen kontra jabetzerat. Badakit Idomenek bere burua nabarmentzera uzteko dohakabetasuna izan duela, baiñan zuen beldurkunde guziak garditzea errax da. Telemakek eta nik gure buruak bahi eskeiñtzen ditugu Idomeneren xede onaz ihardesteko. Zuen eskuetan egonen gare agiñduak izanen zaizkitzuen gauzak osoki betheak izan arteo. Oi manduriendarrek, zuek kexatzen zaituztena da — [...]— Kretoarrak oharkabean nausitu zaizkitzuen zuen mendietako athekez eta holetan jarri diren, zuek nahi eta ez, berek nahi duten aldi guziez sartzeko heinean lurretan, zeñetara gibelat egiñ baituzue heiei itsas hegiako zelhaiak uzteagatik. Atheka hek, zeñak kretarren estali baituzte dorre soldadoz bethe batzuez, dira beraz, gerla huntako egiazko hastapena. Ihardetsazue niri, bada oraiño bertzerik?

Orduan, manduriendarren buruzagia aiñtziñatu zen eta huneletan miñtzatu:

— Zer ez dugu egin gerla huni ihes egiteagatik! Jainkoak lekuko ditugu nola bakea hautsi ez dugun, kretoar eziñ sasiatuak diren horien medioz bakea eziñ bertzea izan denean baizen, eta noiz eta ere heien agiñtzeako siñestea galtzera bortxatu baikaituzte. Oi jendaia zoroa, zeinak gure nahikunde guzien kontra bortxatu baikaitu haren kontra desespara-



zionezko xede baten hartzeko premia sun izigarrira eta hura galduz baizik gure buruak gehiago eziñ begiratzera! Atheke hek idukitzen dituzte, usteko dugu gure lurrez jabetu nahi dutela eta gerorri gathibusanean ezarri. Baldiñ egia balitz beren hauzokiñ bakean egoteko xedea baizik ez dutela, askietsiak laizte gogo onez utzi diotegunaz eta ez lituzkete iduki nahi iragangiak toki batzuetara zeñak gathibusanean ezartzeko xederik ez balute. Baiñan ez dituzu ezagutzen, oi agude zuhurra. Zorigaitz handi batez ikasi izan dugu heien ezagutzen. Oi gizon jainkoez maitatua, ez dezazula gehiago gibelamendurik eman gerla zuzen eta premia bati, zeñia gabe Hezperiak ez baitu zeren usten izan bake onik. Oi jendaia esker gabea, enganatzaile eta krudela, zeñia jainkoez samurturik igorri izan baitute guregana gure bakea asaldatzeagatik eta gu gure hutsez gaztiazteagatik! Baiñan, oi jainkoak, gu gaztigatu ondoan gutaz mendekio atharako duzue. Etzarete gutiago zuzenak izanen gure etsaien kontra nola gure kontra.

Solas horien ondotik irakiduran jarri zen bilkuma guzia. Iduri zuen Marz eta Belona lerrotik lerrora zabiltzala bihotz guzietan bizten gerlako sua, zeñia Mentorrek bere egiñ ahalaz itho nahi baitzuen. Solasa berriz huneletan hartu zuen:

— Ez baliñ banu agiñtzarik baizen zuei egiteko, zuen baithan laiteke hetan ez fidatzea, baiñan gauza gertuak eta orai berekoak eskeiñtzen deraizkitzuet. Bahitzat Telemake eta ni ez baliñ bagira aski, emanaraziko daizkitzuet kretoar aitoren seme lehenbizikoetarik eta balentenatarik hamabi. Zuen aldetik ere zuzen da eman detzatzuen bahiak, ezen Idomeneke bakea nahi duelarik, nahi du beldurrik gabe eta apaldu gabe. Bakea nahi du, zerorrek diozuenaren arabera zuhurtziaz eta begirakortasunez, baiñan ez bizi nagi bat dela medio eta gizonak mehatxatzen dituzten lanjeren beldurrez. Hiltzera edo bentzutzera higual abian da, baiñan bakea nahiago du ezen garhaiziarik ospetsuena. Bentzutua izaiteko beldurkudeaz ahalketua laite, baiñan zuzenaren kontra ibiltzeaz beldur da, eta ez da ahalke bere hutsen zuzentzea nahi izaitzez. Harmak eskuan, bakea eskeiñtzen derautzu. Ez ditu larderiarekiñ patuak berak eman nahi, ezen ez derauka bortxazko bake batez konturik idukitzen. Guziak askiesten dituen bake bat nahi du, bekaizgo guziak geldiarazten dituen, herra guziak ixiltzen, eta beldurkude guziak ezeztatzen. Hitz batez, Idomeneren xedeak dira hek berak, zeinak segur bainaz ikusi nahi ziñtuzketela haren baitan. Ez da lanik gauza hori zuen baitan sarraraztea baizen. Siñetsaraztea ez da gaitz izanen gogo libro eta deskantsu batekiñ nahi baliñ banauzue entzun.

Entzunazazue beraz, oi gizon bihotzez betheak, eta zuek, oi aiñtziñdariak, zuhurtziaz eta batasunez hain betheak. Entzunazue zer eskeiñtzen derautzuetan Idomeneren partez. Ez da zuzen sar ahal dadien bere hauzoen lurretan. Ez da zuzen ere haren hauzoak sar ahal ditezen harenetan. Iragangiak dorre goraz hazkartuak, ez batoren ez bertzearen alde diren tropez zainduak izaitea onhesten du. Zu Neztor eta zu Filoktete, sortzez grekak zarete, baiñan aldi huntan Idomeneren kontra altxatu zarete. Hartakotz, sobera haren alde izan zaitetzen ez da beldur izaiteko. Zuek hunkitzen zaituztena da Hezperian guzien bakearen eta libertatearen alderdia. Gerla bitzarazten duten iragangia heien idukitzailleak eta zaiñak zerorrek izan zaitetze. Ez dagoka gutiago zuen onari Hezperia jendaia zaharrek desegiñ ez dezaten Zalanta, greken hiri berria eta altxatu dituzuen iduria, ezen Idomene bere hauzoen lurrez bortxaz nausi ez dadien. Batzuen eta bertzen artean balentza idukazue. Maitatu behar ziñduketen jendaia baten erdira gerla ekar bidean, juye eta konpuntaile izaiteko ospea hautazazue. Erranen derautazue patu horiek sentagallazkoak iduri lakizkitzuela seguratzan ahal baliñ baziñtazkete Idomeneke xede on batekiñ betheko dituela, baiñan zuen askiestera noha.

Bi aldetako segurtasunarentzat aiñtziñean nik aipatu bahiak izanen dira, iragangia guziak zuen eskuetara utzi arteo. Noiz eta ere Hezperia guziko ethorkizuna, Zalantakoa eta Idomenerena zuen eskuetan izanen baitira, askietsiak izanen ote zarete? Gerozgoiti norentzat izanen ahal duzue gibelbeldurrik? Zerorren buruaz ote? Etzarete Idomeneri fidatze-ra ausartatzen eta Idomene haiñ guti da zuen enganatzeko gai non zuei fidatu nahi da. Bai, fidatu nahi deraizkitzue bere eta bere azpiko guzien deskantsua, bizia eta libertatea. Bake on bat baizen ez baliñ baduzue egiazki nahi, horra non heldu zatzuen aiñtziñera eta gibelat egiteko estakuru guziak khentzen deraizkitzuen. Oraino behiñ, zuei eskeiñtza horien egitera beldurrik Idomene erakartzen duela etzaitzela alha. Zuhurtziak eta zuzentasunak hortara erakartzen du kexatu gabe heia flakiari eratxikitzen duzuen prestutasunez egiten duen gauza. Hastetik hutsak egiñ ditu eta ospe derauka hek ezagutzea egiten deraizkitzuen eskeiñtze. Emetasuna da, balenoria da, bere onaren haiñ guti ezagutzea da, bere hutsak gorde ahal uste izaitea, agerritzean hetan gogortzea burgoiki eta larderiak. Zeñak ere bere etsaiari bere hutsak aitortzen baititu eta heien ezeztatzea eskeiñtzen baitu, haiñak haletan erakusten du ez dela gehiago erortzeko gai, eta etsaiak zer nahi denen beldur izaiteko duela haiñ gobernu zuhur eta sendotik, baldiñ ez badu bakea egiten. Begira duzuela etzetzaten zuen aldi hutsean ezar. Baldiñ ez baituzue bakea eta zuzentasu-



na zuei heldu direnak entzuten, bakea eta zuzentasuna aspertuak izanen dira. Idomenek jainkoak bere kontra samur kausitu behar bidean, bere alde eta zuen kontra bihurraziren ditu. Telemake eta ni zuzenaren alde altxaturen gare. Zeruetako eta ifernuetako jainko guziak orai egiñ derai-zkizueten eskeiñtza zuzenez lekuko hartzen ditut.

Hitz horiek erraitearekiñ, Mentorrek besoa altxatu zuen hanbat jendaia-ri erakusteko oliberaren adarra, zeina haren eskuetan baitzen bakez-ko seiñalea. Hurbildanik begiratzin zioten aiñtziñdaria-riak miretsiak eta zoratuak izan ziren haren begietan dirdiratzen zuen su jainkozkoaz. Agertu izan zen handiratasun eta eskudantzia batekiñ, gizonen arteko handienen baitan ikusten dena baiño gaihenagoak. Solas ezti eta larderia-dun heien atsegiñak airatzen zituen bihotzak. Iduri zuten solas xarmadun hek, zoinek bet-betan, gabazko ixiltasun handiengan, trikarazten baitituzte Olinparen erdian ilhargia eta izarrak, maltsarazten baitute itsaso samurra, haizeak eta uhinak ixilarazten eta hibai bortitzenen ra baratzen.

Mentor zen jendaia samur heien guzien erdian hala nola Bakuz tigre- inguratua zenean, zeinek beren odol egarria ahantzirik, haren boz eztiaren indarrak ethortzen baitziren haren oinen milikatzer- eta maltso-ki haren eskupera. Hastean oro armadan ixil-ixila gelditu ziren. Aiñtziñdaria-riak elkarri begira zauden, gizon hari eziñ ihardukiz eta beren baitan eziñ endelgatuz nor ote zitakeien hura. Tropa guziak geldi-geldia zauden eta begiak haren gaiñean. Nihor etzaitekeien solas baten egitera ausarta, izan zezan beldurrez oraiño zerbait erraiteko eta etzediñ izan entzuna. Nahiz etzuten edireiten harek erran zuenei deusik emendatzeko, haren solasak laburrak iduritu zitzaizkoten eta atsegiñ zuketen gehi-ago miñtzatu izan balitz. Haren erran guziak gelditzen ziren bernuzatuak bezala guzien bihotzetan. Miñtzo zenean bere burua maitharazten eta siñtsarazten zuen. Bat bedera lehian zegoen eta luzatua, haren ahotik atharazten ziren demendren solasak ez galtzerat uzteko.

Azkenekotz apur handi bat guziak ixilik egon ondoan, emeki emeki haro ilhun bat orotara hedatu izan zen. Etzen lehen bezala jendeak beren erretrapioko irakiduran egiten duten biahorezko haro haren pare. Aitzitik barbara ezti fagorezko bat zen. Ordutik begitartetan ageri zen ez dakit zer deskantsuzko eta eztitarik. Manduriendarrak, haiñ gaizkuratuak zirenak, berek hautematen zituzten harmak eskuetarik erortzen zitzaizkotela. Falanta basa bere Lazedemondiarrez, harritua zegoen bere errai burdiñazko hek ukituak hautemaiteaz. Bertzeak, erakusten zioten zorionez-ko bake haren minez jarri ziren. Filoktetek, bere aiñtziñeko dohakabeta-sunen medioz, bihotza beraztua zuen. Begietarik eziñ iduki zuen nigarra.

Neztorrek, solas heiek eman zioten erhoduran, maiteki besoetan tinkatu zuen Mentor, hitz bat egiñ ahal gabe, eta jendaia hek guziak, elkar adituak izan balira bezala, batean oihuz abiatu ziren:

— Oi agude zuhurra! Harma eskuetarik khentzen daikuzu! Bakea! Bakea!

Apur baten buruan, Neztorrek miñtzatu nahi izan zuen, baiñan tropa guziak khexaduran, zerbait traba eman zezan beldurrez, oraiño berriz oihuz abiatu ziren: «Bakea! Bakea». Neztorrek, ikusirik solas segitu baten ematera etzutela utziko, erran zuen xoilki:

— Ikusten duzu oi Mentor, zer egiñ diron behar den bezalako gizon baten solasak. Prestutasuna eta zuhurtzia miñtzo direnean, hisia guziak ematen dituzte. Gure samurgo zuzena mudatzen da amodiotan eta bake iraunkor baten gutizian. Zuk eskeiñtzen deraukuzun bezala hartzen dugu. Haiñbertzenarekiñ, aiñtziñdaria guziek onhesmendutan besoak hedatu zituzten.

Mentorrek egiñ zuen hiriko atheladara, zabalarazteko eta Idomeneri gaztiatzeko guardiarik gabe athara zediñ Zalantatik. Bizkitartean Neztorrek besarkatzen zuen Telemake erraten zuelarik:

— Oi grek guzietarik zuhurrenaren seme maitagarria! Oxala hura beziñ zuhurra eta hura baiño dohatsuago izan baziñtedi! Haren dohamenatarik jakiñ duzia deusere? Zure aitaren eite baduzu eta haren orhoi-zapena zerbitzatu izan da gure erretrapioren hiltzen.

Falanta, nahiz bihotz gogorrekoa eta basa, eta nahiz etzuen egundaiño Ulize ikusi, etzen hartako guti-ago aita semeen zorigaitzez ukitu-ia izan. Jadanik Telemakeri ondotik zarraizkon erran zetzan bere gertakun- tzak noiz-eta-ere Mentor bihurtu baitzen Idomenerekiñ, eta ondotik jarraiki zitzaioen kretoar gazteria guziarekiñ.

Idomene ikusi zutenean, bertzeek hauteman zuten beren samurgoa berriz altxatzen, baiñan Mentorren solasek itho zuten biztera zihoan su hura. Erran zuen:

— Zertako luzaturen dugu patu saindu hunen zerratzea, zeinaren lekuko eta begiratzaille izanen baitira jainkoak? Asper dezatela baldiñ gaixtagiñik behin ere ausartatzen baliñ bada hunen haustera eta gerlako ondiko izigarriak, urrun jendaia hogengabeak eta zuzenki daudenak zeba- tzetik, eror ditzala gizon lehiatsu, fede gaixto, aborrigarrien buruaren gaiñera, zeinak ostikatuko baititu patu hunen zuzen sakratuak. Jainkoez eta gizon- ez gaitzetsia izan dadiela. Bere fede gaixtotik ez dezala behin ere onik goza. Ifernuko fuliak, mustrarik izigarrienen azpian, ethor ditezela haren errabiaren eta deseparazionearen zihitatzera. Hil hotza eror dadie-



la ehortzia izaiteko peskizarik gabe. Haren gorputza sakhurren eta sai en alha izan dadiela, eta izan dadiela ifernuetan, Tartaroko leze beltzean, Tantara, Ikzion eta Danaidak baiño izigarrikiago toleiatua. Baiñan hobeki bake hau izan dadiela zerua egartzen duen Atlas mendiko harri korrak bezala eziñ khordokatua. Jendaia guziek ederrets dezatela eta haren ondorioak mendetik mendera goza detzatela. Bake hunen gainean ziñ egiten dutenen izenak amodio eta errespeturekiñ izan ditezela gure azken illobasoen ahoetan. Bake hau zuzentasunaren eta fede onaren gainean asentatua, lurreko jendaia guzientzat ethorkizunean modelatzat zerbitza dadiela, eta elkargana bilduz dohatsu beren buruak eragiñ nahi dituzten guziek, Hezperiaok bezala egiñ dezatela!

Hitz horien gainean, Idomenek eta bertze erregek bakeaz ziñ egiten dute erran diren patuen azpian. Alde bakotxetik ematen dituzte hamabi bahi. Telemakek nahi du izan Idomenek ematen dituen bahietarik bat, baiñan ez daite onhets Mentor heietan izan dadien, zeren partzuerek nahi baitute Idomenen aldean geldi dadien haren egitatez eta haren kontseilarienez ihardets dezan amoreagatik, hitzeman gauzak ongi bethe arteo. Imolatuak izan ziren hiriaren eta etsaien armadaren artean, ehun miga elhurra beziñ xuriak eta bertze haiñbertze zezen karantza berekoak, zeinen adarrak urheztatuak baitziren eta lorez aihendatuak. Hurbileko mendiaraño entzuten zen marraua sakratuaren azpian erortzen ziren bitimen orro itsusia ihardesten. Libazionetan ausarki ixurtzen zuten arnorik hoberena. Aztiak ikartzen zituzten bitimen erraiak oraño pilpiratzen zirenak. Sakrifikatzaileek aldareen gainean erretzen zuten isentsu bat zeinaren usaiñ goxo berduratzen baitzen elgi guzian. Bizkitartean, bi alderdietako soldadoak, ixterbegiak utzirik, abiatzen ziren beren gerthakuntzen elkarri erraiten. Jadanik beren nekhetarik pausu hartzen zuten eta aiñtziñera gozatzen zituzten bakearen onak. Idomenerekiñ Troieseko sethioan izan ziren zenbaitek ezagutu zituzten Neztarrenak, gerla berean gudukatu zirenak. Amodioz elkar besarkatzen zuten eta bata bertzeari erraiten zer gertatu zitzaion herrautsiz geroztik hiri super, Asia guziko edergaillu hura. Ordukotz abiatuak ziren etzaten sorropiletan, liliz koroatzen eta elkarrekiñ edaten unti handi batzuetan hiritik ekartzen zuten arnoa haiñ egun zorionezkoaren bestetan.

Mentor xutitzen da, bilduak erregeei eta aiñtziñdariei erraiten diote:

— Egundanik, asko izen eta asko buruzagien azpian ez duzue gehiagopopulu bat baizik egiñen. Huneletan, jainko zuzenek, zeinek gizonak berek egiñak maite baitituzte, izan nahi dute heien bake onaren bethierzko lokarria. Gizonaren mota guzia ez da familia bat baizen, lur guzia-

ren gainean hedatua. Jendaia guziak anaiak dira eta haletan elkar maitatu behar dute. Zorigaitz gaixtagiñ hekiei, zeinek ospe krudel bat bilhatzen baitute beren anaien odolean, zeina beren odola baita!

Egia da aldi batzuez gerla premia dela, baiñan gizonkiaren ahalkea da bertze aldi batzuez gerla eziñ bertzea dela. Oi erregeak, ez dezazuela erran ospearen biltzeko haren gutizia behar dela! Ziñezko ospea ez da gizontasunetik kanpo edireiten. Zeinak ere bere ospea maiteago baitu gizonkiaren amodioa baiño, haiña urguluzko mustra bat da eta ez gizon bat. Ez da ere gezurrezko ospe batetara baizen helduko, ezen egiazkoa begikortasunean eta ontasunean baizik ez da edireiten. Lausengu eman dezokete haren balenorio erhoaren askiesteko, baiñan hartaz ziñean aipatu nahiko dutenean, bethi erranen dute ixilka: «Ospea gutiago izan du merezi, zenbatenez ere zuzen kontrako lehiaz gutiziatu izan baita. Ez dute gizonak harentzat prezamendurik behar, balenorio gaizkiñ bat dela medio heien odola nolanahe erabili duenaz geroztik. Dohatsu erregea bere azpikoak maite dituen eta hetaz maitatua dena; bere hauzoetan fidatzen dena eta heien fidantzia duena; zeinak urrun heiei gerla ematetik, beren artean izaitetik tratatzen dituen, eta zeinak bertze jendaia arrotz guziak bekaizgoan ezartzen baititu haren azpikoek hura errege izaiteko duten zorionaz!

Oi zuek, Hezperiaiko hiri botheretsuen manatzailleak, orhoit zaitezte beraz noizetik noizera elkargana biltzeaz. Egizue hirur urtetarik hirur urtetara guzien bilguma bat, zeinetara ethorriren baitira orai hemen diren errege guziak ziñ berri batez patu hunen berritzera, fiñkatzera hitzartu adiskidetasuna eta guzien onaren gainean patu egitera. Batasunean egoten zaitezteno, herri eder hauetan izanen duzue bakea, ospea eta nasaizia. Kanpoan bethi izanen zarete eziñ bentzutuak. Ez da makhurra baizik, ifernutik gizon zoroen toleiatzeko atharaia, jainkoek eskuperatzen derautzuten zoriona nahas dezakeienik.

Neztorek ihardetsi zioen:

— Ikusten duzu, bakea egiten dugun errextasunetik, zein urrunduak garen gerla nahi izaitetik ospe balenoriatsu bat dela medio, edo gure hauzoen bidegabeta irabazi nahi izaiteko tirria zuzen kontrakoarengatik. Baiñan zer uste duzu egiñ ditakela gertatzen denean prinze muthiri baten hauzoan, zeinak ez baitu bere ona baizen beste legerik ezagutzen eta zeinak ez baitu bertzeen lurrez jabetzeko suerterik huts egiten? Ez dezazula uste izan Idomenez aipu dutala. Ez, ez dut gehiago hartaz horrelako beldurrik. Miñtzo naiz Adraztaz, doniendarren erregeaz, zeinarenanik ororen beldur izaiteko baitugu. Jainkoak eskarniatzen ditu eta uste du lurraren gaineko gizon guziak ez direla sortuak beren gathibutasunaz



haren ospari zerbitzatzeko baizen. Ez du nahi azpikorik zein en erregea eta aita izanen baita. Gathibuak eta adoratzailleak nahi ditu. Jainkoei zor zaizkoten ohoreak bere buruari bihurtarazten ditu. Orain arteko zori itsu batek lagundu izan ditu haren egitate zuzen kontrakoak. Lehen bai lehen egin ginduen Zalantaren akometatzera, behin zebatzegatik gure etsairik errexena, zeina oraino doi-doia jartzen baizik itsas hegi huntan ez baitzen abiatu, gero bihurtzategatik gure harmak bertze etsai indar handiagodun horren kontra. Jadanik gure adiskidei zenbait hiri hartu diotzate. Krotonakoak bi gudutan bentzutuak izan dira. Bere lehiaren askiesteko bide guziak onak zaizko. Bortxa edo amarrua, oro higuak zaizko leher-tzen ahal baditu bere etsaiak. Dirutze handiak bildu ditu. Haren tropak ikasiak eta gerlarituak dira. Haren azpiko buruzagiak jakinak dira. Ongi zerbitzatu da. Berak begia idukitzen diote haren manuak bethetzen dituzten guziei. Huts tipienak garrazki gaztigatzen ditu eta frangoki saritzatzen egiten diotzaten zerbitzuak. Haren balentziak finkatzen eta sustatzen du haren tropa guziena. Itzalik gabeko errege bat laite baldin zuzentasunak eta fede onak bidatzen balitu haren egintzak. Baiñan ez du ez jainkoei, ez bere barneko harraren beldurrik. Omena bera ez deusentzat derauka. Izpiritu ximpleak baizen izitu behar ez dituen mamu baten-tzat hartzen du. Ez derauka on segur eta zinezko batentzat, aberastasun handiak izaiteko ona baizik, larderia emaitetkoa eta bere oiñetan gizonkieren mota guziak ostikatzekoa. Laster haren armada agertuko da gure lurretan eta hanbat jendaien batasunak ez balin bagaitu hari buru egiteko heñetan ezartzen, ez dugu libertatearen peskizarik izanen. Idomenen onak gureak bezain ongi galdegiten du hauzo hari bihurtzea, zeinak bere hauzoen deus librorik eziñ paira baitezake. Garhaituak izan baginñedi, Zalanta gure zorigaitz beraz dixidatu laite. Laster egin dezagun beraz guziak batean hari aiñtziñtzera.

Neztor huneletan mintzo zelarik hurrantzen hari ziren hirira, ezen gauaren iragaiteko han sartzeaz Idomenek othoiztu zituen errege eta aiñtziñdari gehien guziak.

## HAMABIGARREN LIBURUA

Ordukotz, partzueren armada guziak kanpak hedatzen hari zituen, eta elgi guzia karantza guzietako pabillon aberatsez estalia zen, zein etan hezperindarrak, unhatuak, loaren begira baitzuden. Erregeak, beren segida guziarekin hirira sartu zirenean, beren buruak harrituak erakutsi zituzten heia nola haiñ denbora gutiz egin ahal ziren hanbat etxe eder eta nola haiñ gerla handiko faxeriak, hiri hasi berri hura handitzetik eta bat-batean edertzetik etzuen trabatu.

Ederretsiak izan ziren Idomenen zuhurtziaz eta ernetasunaz, zeinak asentatu baitzuen haiñ erresuma ederra, eta bat bederak egiten zuen, bakea egiña zenaz geroztik harekin, partzuerrek haiñtz botheretsuago izanen zirela doniendarren kontra heien patuetan sartzen baliñ bazen. Idomene harat sartzea galdegin zuten. Haiñ galde zuzenari eziñ gibelerat egin zuen eta tropak aginñdu zituen. Baiñan nola Mentor jakintsun baitzen erresuma bat indarretan sarrarazteko premia diren gauza guziez, ezagutu zuen Idomenen ahalak etzirela iduri zuten bezain handiak. Bazterrera deitu zuen eta huneletan mintzatu zitzaioen:

— Ikusten duzu gure arthak ez direla zure alderat alferrak izan. Dixidatzen zuten ondikoetarik Zalanta salbu da. Zure eskuetan da orain hunen ospea zeruetaraino heltzea eta Minoz zure aitasoren zuhurtasuna higualtzea zuten populuen manamenduan. Aiñtziña librori miñtzo natzazu, ustez hala nahi duzun eta lauzenguak gaitzets dituzun. Noiz-eta-ere errege horiek zure handiratasuna laudatzen baitzuten, ni zure egiñtzen atrebentziaz gogoeta niñdagoen.

Atrebentziazko solas horren gainean, Idomenen begitartea mudatu zen. Haren begiak nahasi ziren, gorritu zen, eta gutik egin zuen Mentorri ez baitzioen solasa trenkatu bere erretsapioaren erakusteko. Mentorrek erran zioen boz eme eta begiratu batekin, baiñan librori eta herabe gabea:

— Ikusten dut atrebentziazko solas horrek damu egiten derautzula. Nitaz nornahi denek falta izanen zuen hori aipatzea, zeren erregeei errespetu behar zaioten ekarri eta heien miñberatasunari barkatu, nahiz heici hutsak agertzean. Baiñan uste izan dut jasan zinezakela eztimendurik gabe miñtza natzaitzun, egin duzun hutsa zerorri agerritzeko. Nere xedea izan da gauzak bere izenez deitzen entzuteari zu jarraraztea eta gogoan hartzeari, noiz eta ere bertzeek kontseilu emanen baiteratzute zure egiñ-



bideen gainean, ez direla behin ere gogoan dituzten guzien erraitera ausartatuko. Beharko da, ez baliñ baduzu enganamendutan egon, bethi gehiago endelga dezazun erraiten derautzuten baiño zure kontrako gauzetan. Nik nahi ditut zure beharraren arabera nere solasak eztitu, baiñan on duzu deus guti den eta egitekorik ez duen gizon bat, bakartasunean, solas gogorrekin miñtza dakizun. Nihor bertzerik ez da hetaz zuri miñtatzera ausartaturen. Ez duzu egia erdizka baizik ikusiren eta itzul-ĩnguru ederrekin.

Hitz horien gainean, Idomene, ordukotz itzulia bere lehenbiziko pizturatik, bere [...]tasunaz ahalketua agertu zen. Mentorri erran zioen:

— Ikusten duzu zer egiten duen lausengatua izaiteko azturak. Nere erresuma berriko salbamendua zor derautzut. Ez da egirik zure ahotik entzuteaz nere burua dohatsua idukitzen ez dudunik. Baiñan urrikal zaitezi errege lausenguak pozoatu duen bati, eta zeĩnak bere zorigaitzetan ere gizon aski bizarrrik eziñ ediren baitu hari egia erranen zioenik. Ez, ez dut egundaiño nihor ediren aski maitatu nauenik, niri damu egiteko egia osoa erranez.

Hitz horiek erraiterekin, nigarra begira jauzi zitzaioen eta Mentor maiteki besarkatu zuen. Orduan, agude umo harek erran zioen:

— Nahigaberekin ikusten dut nere burua bortxatua zuri gauza dorpeen erraitera, baiñan tradi ote zaizket zuri egia gordez? Jar zaitezi nere lekuan. Baldiñ orai arte enganatua izan bazare, hori da nahi izan duzula-kotz; hori da zeren erraille sobera egiatien beldur izan zarelakotz. Bilhatu izan dituzuia jendaia gutien intresatuak eta gehienik kontra egiñen zautzutenak? Arta izan duzuia miñtzarazteko gizonik zuri atsegiñ egitera gutienik ekarriak eta beren egitatetan gutienik intresatuak eta zure lehia eta gogo zuzenkontrakoei laudamenik ez emaiteko gehienik gai zirenak? Lausengaririk ediren duzunean, urrundu dituzuia zureganik? Hetaz beldurtu zireia? Ez, ez, ez duzu egiñ egia maite dutenek eta hura ezagutzea merezi dutenek egiten dutena. Heia, ikus dezagun orai, bihotzik aski, zure egiñen kontra miñtzo den egia hartaz zure burua frogatzera uzteko.

Nik erraiten nuen beraz, hanbat laudorio erakartzen derautzuten gauza heiek ez dutela gaizkirik baizen merezi. Noiz-eta-ere baitziñtuen kanpoan hanbat etsai, zure erresuma oraiño gaizki asentatu hau dixidatzen zutenik, zure hiri berriaren barnean etziñduen asmurik obra eder egiteaz baizen. Hori da, zerorrek aithortu derautazun bezala, hanbat gau gaixto iraganarazi derautzuna. Akhitu dituzu zure aberastasunak. Ez duzu asmurik izan, ez zure populua emendatzeko, ez eta ere itsas hegí hun-tako lurren lantzeko. Etzirena bi gauza horiek behatu behar zure bothe-

rearen asentu eziñbertzekoak bezala: izaitea gizon on haiñitz eta heien hazteko lur ongi lantueak? Hastapen hauetan bake luze bat behar zen populua emendazionea laguntzeko. Etziñduen asmurik izan behar laborantzaz eta lege zuhurren fiñkatzeaz baizen. Balenorio tzar batek lezearen hegiraño erakarri zaitu. Handi baiño handiago agertu nahiz, zure egiazko handitasuna galtzeko heinean ezarri duzu. Lehen bai lehen ezeztatu zatzu huts horiek. Trikaraz zatzu obra handi horiek oro. Zure hiri berria gal lezaken edergaillamendu hori debalde utzazu. Bakean uzkitzu zure populua hats hartzera. Ahalaz nasaizian ezarkitzu ezkontzak erraxtatzeagatik. Jakiñ zazu etzarella errege, azpikoak manatzeko dituzunaz bezenbatean baizik eta zure botherea negurtua izan behar dela ez lur arauka, baiñan lur hetan egonen diren gizonen arauka, eta zure manuei estekatuko diren arauka. Nahiz ttipia, izan zazu lur ona. Estal zazu hura eziñ konda daiten bezenbat jendez, lana eta manamendu ona maite dutenez. Egizu maíta zitzezaten. Botheretsuago, dohatsuago eta ospe handiagorekin zare ezenetz hanbat erresuma desmasiatzen dituzten gerlari hek.

Idomenek ihardetsi zioen:

— Zer egiñen dut beraz errege horien alderat? Aithortuko dioteta nere mendretasuna? Egia da konturik gabe utzi ditudala laborantza eta tratua bera, zeĩna haiñ baita itsas hegí hunetan errexa. Hiri eder baten egiteaz baizen ez dut asmurik izan. Nere Mentor maitea, beharko ote dut bada nere burua mendratu hanbat erregeen bilkuan eta nere kontu eskasa agertu? Hala behar baliñ bada, nahi dut. Duda-mudarik gabe egiñen dut, nahiz gostako zaudan, ezen jakiñtsun egiñ nauzu egiazko errege batek, zeĩna bere azpikoentzat egiña baita eta zeĩnak bere burua heici osoki zor baitiote, bere erresumaren salbamendua behar duela bere fama baiño lehen hautatu.

Erran zioen Mentorrek:

— Xede horrek ez du populuen aita ahalkatzen. Ontasun hortarik ezagutzen dut zure baitan egiazko errege baten bihotza etez edergaillu alfer batzuetarik. Baiñan zure ohorea gupidetsi behar duzu zure erresumaren ona beragatik. Utz nezazu egitera. Errege horiei adiaraziko diotet hitz eman duzula bere erregetasuna bihurrazteko Ulizei, oraiño bizi baliñ bada, edo haren semeari bederen, eta hantik indarrez nahi dituzula Peneloparen gizongeiak kasatu. Erraxki endelgaturen dute gerla horrek haiñitz indar galdegiten duela. Horreletan onhetsiren dute ez diezozuten behiñ laguntza ttipi bat baizen eman doniendarren kontra.

Horren gainean Idomene agertu zen hala nola gizon bat, zeĩna karga gaitz baten azpitik atharitzen duten. Mentorri erran zioen:



— Nere adiskide maitea, begiratzen dituzu nere ohorea eta hiri berri hunen fama, hauzo guziei hunen akhidura gordez, baiñan zer planta du erraiteko tropak nahi ditudala Itakara bidali bere botherea bihurrazteko Ulizei edo bederen Telemake haren semeari, noiz-eta-ere Telemake bera doniendarren kontra gerla egiteko hitzemanen baita?

Mentorrek ihardetsi zioen:

— Etzaitezela hortaz kexa. Ez dut deus egiarik baizen erranen. Zure erresumako tratua altxatzeko igorriren dituzun untiak, goanen dira Epirako leihor hegietara. Bi gauza batean egiñen dituzte. Bata izanen da zerga sobraniazkoek urrundu dituzten tratulari arrotzak berriz zuregana biltzea, eta bertzea Ulizen berriak bilhatzea. Bizi balin bada oraiño, ez du urrun behar Italia eta Greziaren arteko itsaso huntarik, eta segurtatzen dute ikusia izan dela feaziendarretan. Baldiñ ez balitz ere hura berriz ikusteko peskizarik, zure untziek endresu miñ bat bihurturen diote haren semeari. Hedaturen dute Itakan eta ingurun guzietan Telemake gaztearen izenaren larderia, zeña bere aita bezala hilla uste baitzuten. Peneloparen gizongeiak harrituak izanen dira jakiteaz bihurtzera dohala partzuner botheretsu baten laguntzarekiñ. Itakarrak ez dira nausi zutenaren ukatzera ausartaturen. Sosegatua izanen da Penelopa eta bethi gogortuko da bigarren senhar bat ez hartzeko. Horreletan Telemakei endresu egiñen diozu, noiz eta ere bera izanen baita zure ordaiñ doniendarren kontra zure partzunerekiñ.

Solas horien gainean Idomene abiatu zen hunela mintzatzen:

— Oi dohatsua dela erregea kontseilu zuhurrez lagundua dena! Adiskide zuhur eta zin bat hobe du ezenetz garhaizia eraman duten asko armada. Bainan dohatsu eta bietan dohatsu erregea, zeinak ezagutzen baitu halako zoriona eta dakiena hartaz baliatzen, progotxutan ezarritik kontseilu zuhurrak. Ezen ardura gertatzen da gaixtaginek erregeei galazten diotela gizon zuhur eta bertutetsuen baitako sinestea, heien zuzentasunaren beldurrez, eta aintzineren ematen dituztela lausengariak, zeinen aldetik ez baitute desgogararik igurikitzen. Neorri erori izatu naiz huts hortan, eta erranen deraizkitzuten erori zaizkitan ondiko guziak adiskide faltsu baten medioz, zeinak lausengu egiten baitzioten nere lehia tzar guziei, nik ordainez harenei orobat eginen niotelakoan.

Mentorrek errexi adiarazi zioten patu eginak ziren erregeei premia zela Idomenek eskutan hartzetzan Telemakoren egitekoak, Telemako bera heiekin goaten zen orduan. Onhetsi zuten Ulizen semea bakarrik ethor zedin heien armadara ehun kretoar gizon gazterekin, Idomenek laguntzat eman ziotzanak. Hek ziren Kretatik erregek berekin erakarri

izan zituen aitoren semeen liliak. Mentorrek Idomeneri adiarazi zioen bidali behar zituela gerla hartara, ziolarik:

— Bake denboran behar da artha izan usu dadien jendea, bainan beldurrez populu guzia beraztasunari jar dadien eta gal dezan gerletako jakitatea, gerla arrotzetara igorri behar dira aitoren seme gazteak. Hek berak aski dira populuaren hazteko ospeko besagita, harmetako gogoia, neketako eta herioaren beraren guti-axola, eta azkenik gerletako jakitatea.

Errege patu eginak Zalantatik ilki ziren Idomenez satifos eta Mentorren zuzentasunaz agradaturik. Atseginez zetzanzkeen zeren berekin zaramaten Ulizen semea. Telemako ezin nausitu zen bere bihozminari bere adiskidearengatik urrundu behartu zenean. Erregeek Idomeneri beren adioak egiten ziotzatelarik eta zin ihardukiren zutela harekin sekulako patu bat, Mentorrek besarka zeraukan Telemako eta hautematen bustatzen zuela hunek bere nigarrez. Telemakok erraiten zioen:

— Ospe altxatzera goateko atseginari eskerrik ez diot. Elkarganik urruntzeak egiten derautan bihozminak ukitzen nau bakarrik. Iduri zait berritan ikusten dudala zorigaitzezko ordu hura zeintan egitoarrek bortxaz athara baininduten zure besoetarik, utzi gabe berriz zure ikusteko peskizarik.

Nahiz gozotasuna ezarri Telemakoren bihotz miñari, Mentorrek solas horiei ihardetsi zioten ezintasunekin, zioelarik:

— Huna berezkuntza bat lehengoa ez bezalakoa. Hau gure aldetik hobe da, laburra izanen da. Garhaiziaren bilha zoaz. Premia da, nere haurra, nere alderako amodioa ez dezazun izan hanbat sarkorra, bainan bai bihotzoiagoa. Nere gabeari jar zaite, ezen ez nauzu bethi zurekin izanen. Ez nik, bainan zuhurtziak eta berthuteak bururatu behar derautzute zer dakizun egiteko.

Hitz horiek erraitearekin batean, Minerba, Mentorren itxuraren pean, zeinak bere erredolaz estali zuen Telemako, ezarri zuen haren baitan zuhurtziako eta aintzin-oharreko dohaina, balentzia lotsagabea eta egin-tzetako neurrimendu ezta, zeinak bakantxe elkarrekin gertatzen baitire.

— Zoaz —zioen Mentorrek—, hestura gaitzen erdira, ongiak hala manaturen derautzun aldi guziz. Printze batek gehiago gutiesten du oraiño bere burua guduetako hesturei ihes egitez, ezenetz behin ere gerletara ez goanez. Manamendua duenaren bihotzotasuna ez da behin ere izan behar dudakoa. Premia den arren populu batek gal ez dezan bere buruzagia edo erregea, premiago zaio oraino ez dezan ikus gutietsia haren bihotzotasuneko sinestea. Orhoit zaitezi madamenduan ihardukitzen duena izan behar dela ororen erakusgarri. Haren alaitasunak sustatu





behar du armada guzia. Oi Telemako! Etzaitezila bada deusen beldur izan! Gal zaitezila lehenago gduetan ezenetz sineste guti utziko duzun zure bihotzoitasunaren gainean. Gizon balakariak, lehiatukienik ethorriren zaizkitzunak zure uruntzera sartzetik behar-orduetako atheka gaitzetan, hek berak izanen dira lehenbizikoak gibeletik erraile bihotz-eskas zarella, baldinetaria errex edireiten badute behar-ordu hetan zure baratzea. Bainan hain guti bilhaizkitzu behargabeko hesturak. Balentzia ez da bertute zuhurtziak neurtzen duenean baizen. Gainerakoa biziaren ezaxola zoro bat da, berotasun bat egiazki abrekarako bat. Balentzia harramaskari bat fluxtasunari hurbilik dago. Hesturetan bere buruaren nausi ez den gizona, sukoi da hobeki ezenetz bihotzoi. Erhotu behar du lotsaren axola galdu nahi badu, zeren bertzenaz halakotu gabea, haren bihotza ez baita beldurraren garai. Hein hartan, ez badu ihesari ematen, asaldutan jartzen da bedere. Ez da gehiago bere buruaren jabe premia laiteken bezala, edo manu onen emateko, edo paradez baliatzeko etsaien gainazpikatzeko, eta bere herriari endresu egiteko. Soldado baten berotasuna duelarik ere, ez du buruzagiaren antzostasuna, eta halarik ere, ez dauka oraino soldadoaren egiazko bihotza, ezen soldadoak berak gduetan behar du bere buruaren nausitasuna iduki manatzen diotenaren egitekotzat. Ozartasunaz hesturetan sartzen denak, makurtzen du armadako segiantza, erakuskuntza txar bat ematen du, eta ardura armada guzia ondiko handien bidean ezartzen du. Guzien onari baino lehenago anbizione zoro bati esku hartzera uzten dioten gizonak, gatziguak merezi dituzte eta ez golardoak.

Begira duzula beraz ongi, nere seme maitea, abiatzetik osparean ondoan kexamendurekin. Osparean edireiteko biderik hoberena da haren atzamateko heldari deskantsuz begira egotea. Zenbatenaz ere bertutea baititake lañoago, negurrituago, espantu gutiagokitakoa, hanbatenaz onhetsiago izanen da. Noiz eta ere hesturak galdeginen baitu bipiltasun gehiago, hura ditake ordua agertzeko gehiago ohartura eta bihotzoitasun. Gainerakoan, buruan idukazu ez dela behar nihoren bekaizgorik bere alderat jauzarazi. Zure aldetik, bertzeen ongi eginaz etzaitezila izan bekaizti. Laudorio emozute laudagarri diren egintza guziei, bainan laudatzea egizu dakizularik zer laudatzen duzun, ongia aipatzen duzula bozgunerekin. Itzalzazu gaizkia, eta ez hartaz orhoit lastimarekin baizik. Ez dezazula trenka jeneral zahar hoién aintzinean, zoinek ikasi izan baitute zuk ikusi dukezun baino gehiago. Heien solasa entzun zazu ethorgoarekiñ, galdegin zute beren abisua, othoizkitzu antzetsuenak argi zaitzaten, eta ez dezazula izan ahalkeriarik iratxikitzeo heiek eman argie zere egin-

tzarik hoberenak. Orogen buru, bertze aintzindarién alderat zure aiheruak eta idurikortasuna jauzarazi nahiko duten gizonen solasak ez diezatzula entzun. Aintzindari heiei mintza zaite sineste on batekin eta garbitasun laño batekin. Uste izaten baduzu hutsegín dutela zure alderat, idekozute zure bihotza, xeha zoizkitzute zure erraitekoak. Baldin gai badira ezagutzeko zure gizatasunaren ederra, atsegínik baizen ez dukete, eta atheraturren duzu heieganik zor zaitezun guzia. Aitzitik, hain ezagutza [...] balira non zure egitatean eziñ sar baititezke, zeorri zere burutik [...] zare zer den heien baithan zuzenkontrakorik igurikitzeo. Zure neurriak harturen ditutzu heiekilako makur bideak hausteko gerlaren akabantza arteo, eta ez dukezu iroirik zure buruari egiteko. Bainan guzien gainetik, ez erran makur-sortarazle balakari tzar batzuei, armadako aintzindariéntzat izaiten ahal ditutzun arrangurak.

Ni hemen gelditurren naiz nere laguntza ekartzeagatik Idomeneri, orai den behar orduan, bere populuaren onari hats emateko eta ezeztatzeko hutsak, lausengari tzar batzuek eragin diotzatenak bere erreinu berriaren jarpenean.

Orduan Telemakok ezin hartu zuen bere gainean erakustetik Idomeneren egintzéntzat harridura eta erdeinu zerbait ere. Bainan Mentorrek azurriatu zuen zorrozki ziolarik:

— Harritzen zareia gizonik prezagarrienak gizon geldi daitezen oraino eta erakuts dezaten gizatasunari darraizkon fluxtasunetarik ondar zerbait, erregetasunari ezin aldara dakiozken arte eta faxerietan? Egia da Idomene altxatua izan dela handiosgo eta espantuzko gogoetetan. Bainan zein da gizon zuhurra bere burua begiratu ahal izaturen zuena balakuetarik, Idomeneren ordean gertatu izan balitz? Oraino ere egia da sobera atzamatera utzi izan duela bere burua bere sinestea eman duen gizonetaz, bainan erregerik zuhurrenarak ardura dire saretan sartuak, nahi bezenbat artha har dezaten ez izateko enganatuak. Errege batek guziak berberak ezin egin detzazkenaz geroztik, premia ditu ministroak bere laguntzeko, eta behar du heien baitan sineste. Bertzalde, urrun da errege batek ezagut ditzan bertze nihork bezain ongi bere inguruko gizonak. Itxurazko begitarte batekin jartzen dira haren aintzinean. Ez da amarrurik ibiltzen ez dutenik haren enganatzeko. Oi sobera ongi zerorrek frogatu behar duzu hori, nere Telemako maitea! Ez da ez edireiten gizonen baitan nahi litazkeen ala bertute ala antzostasunak. Hek miratu eta ikharturik ere nahi bezenbat, bethi heiekin gertatzen da asko ustegabekeria. Ezin burura ere daite, gizonik hoberenak bihurraztea guzien ona galdegiten duen heinera.



Badituzte beren themak, beren eskasak, beren bekaizgoak. Hanbat ezin dakiokete sinetsaraz, hanbat ezin daizte mudaraz.

Populuak handiago, eta ministro gehiago behar da heien medioz egiteko batbederak egin ez dezakeena, eta zenbatenez ere gizon gehiago baita, zeinei nausitasunean esku eman behar baitzaie, eta hanbatenez errexago da enganatua izatea horrelako hautuetan. Zeinak gaizki gehiago egun erranen duena erregeren manamenduen gainean, hura da gaizkiago bihar manatuko duena, huts berak eginen dituen eta bertze asko handiagorik, baldin erregetasuneko botherea eskuetarutzen balitzaio. Etxeko jauntasunak, ongi mintzatzeko antze poxi batekin, gordatzen ditu ethorkizko estakuruak, goratzen antze liluragarriak, eta gizona iduriarazten gai dela urrundua den kargu guziez. Baina manamenduak ezartzen ditu antze guziak frogapen txarretan eta agerritzen baia handiak.

Handitasunak iduri du berina bat gauza guziak larritzen dituen. Estakuru guziek iduri dute handituz doazila kargu goretan, zeinetan gauzarik xumeenek jarraikiza dorpeak baitituzte, eta hutsik arinenek ihardesten baitute bortizkienik. Mundu guzia ordu orotan gizon bakar bati begira jarria dago eta jujatzen du guzizko garraztasun batekin. Haren jujatzailerik ez dute hura edireiten den heinaren frogapenik deusere. Ez dituzte ezagutzen haren estrexak eta ez dute nahi gizon izan dadien gehiago, ezen hanbateko perfetasuna galdegiten dute haren ganik. Errege bat, izan dadien nahi bezain ona eta zuhurra, gizon gelditzen da oraino. Haren izpirituak baditu bethi bere zedarriak eta halaber haren bertuteak. Baditu bere oldeak, bere ohikundeak, zeinetaz ez baita bethi nausi gelditzen. Itzul-ingurukatua da gizon berekoi eta amarrukeriatu batzuez. Ez du bethi edireiten bilhatzen duen laguntza. Egun oro zerbait ustegabekieretan erortzen da, orai bere behargabeko lehien medioz, sarri bere ministroenen kariatz. Huts bati medeatu duen orduko, bertze batetara erortzen da. Horra errege argituenen eta prestuenen bizimena.

Erreinu luzeenak eta hoberenak laburregiak dira oraino eta erdizkatuegiak ongiaren gainean, xuxentzeko azkenerat hastapenetan nahigabez eginak izan diren makhurrak. Erregetasunak berekin dakartza lazeria guziak. Gizonaren ezinbertzeak amor ematen du hanbat dorpea den haxearen pean. Urrikari atxiki behar dira erregeak eta heien egintzak aitzakiatu behar dira. Ez othe dira bada urrikalgarri izateaz manatzeko hanbat gizon, zeinen beharrek negurririk ez baitute, zeinek hanbateko lanak ematen baitiotzate hek ongi manatu nahi dituen erregeari? Garbiki mintzatzeko, gizonak ongi urrikaltzeko dira, zeren berak idurikako gizon baten erregetasunaren behar baitira, ezen jainko behar laite izan errege

bati khentzeko gizon ethorkitik dohazkon estakuruak. Baina erregeak ez dira gutiago urrikalgarri, zeren gizon direlarik, erran nahi da, flux eta baia-dun, manatzeko duten gizon galdu eta enganatzailezko oste ezin kondatu bat.

Telemakok ihardetsi zuen bizitasunekin:

— Idomenek bere hogenez galdu izan du Kretan bere arbasoen erreinua, eta zure kontseiluen eskasean, bigarren bat galduko zuen Zalantan.

Mentorrek berriz:

— Aithor dut huts handiak egin dituela, baina bilha zaite heia Grezian eta bertze lekhu argituenetan badenetz errege bat egin ez duenik zombait huts ezin aitzakiatuzkorik. Gizon handienek, badituzte beren ethortzan eta bere izpirituko bihurturan, maingu batzu nausitzen zeraitzotenak. Laudagarrien direnak dira hainak zeinek indarririk aski baitute ezagutzeko beren zoramenduak eta medeatzeko hartarikako makhurrei. Bazindukeia ustekeria, Ulize zure aitak, Ulize handiak, Greziako erregeen modelak berak ere etzituela bere narraioak eta itzalak? Baldin Minerbak urhatsez urhats bidatu izan ez balu, zenbatetan ez othe zen eroriko hestura eta trabetan, zeinetan zoria hartaz dostatu izan baita? Zenbatetan Minerbak ez duia baratu eta makurretik xuxendu, bethi ospera bidatzeko bertutearen bidez? Eta oraino etzaitzela igurik itzalik gabe edirenen duzula, noiz eta ere ikusiren baituzu Itakan, hanbat osperen erdian erreginatzen. Zenbait ikusiren bide diotzatzu. Greziak, Asiak eta itsasoetako irla guziek ederretsi izan dute estakuru heiegatik. Hek mila dohain miragarrik ahantzarazten dituzte. Dohatsuxe, emana izanen baitzaizu zuri ere hari mirestea eta hari bethi sogitea model bati bezala.

Oi Telemako, emazu zure buruari ez duzula gizon handienetarik iguritzeko gizatasuna egiteko gai den baino gehiagorik. Gazteria ikaspen-gabea bere sendokerian hari da erraiteko bilhatzen. Holatan narda hartzen du modelentzat, zeineri bizkitartean jarraiki behar bailaiteke, eta gelditzen da ez hauts ez ikatz, deus gutitako on den bezala. Ez da aski maita dezazun zure aita, ohore ekar diozozun, haren urhatsari jarraiki zaiten, nahiz izan ditzan bere itzalak, baina oraino peretxu handitan iduki behar duzu Idomene, haren baitan aipatu ditudan erraitekoengatik. Bere ethorkiz zina da, zuzena, bide onekoa, bizarra, ongiegilea. Haren balentasuna gaingainekoa da. Higuintzetan derauka maula ohartzen zaionean, eta trabarik gabe dohanean bere bihotzeko egiazko ixuritik. Haren kanpozko antze guziak handiak dira eta haren karguari dohazkonak. Haren lañotasuna bere hutsen aithorreen, haren ezttasuna, haren jasankortasuna ene-



ganik entzuteko gauzarik gogorrenak, haren khabua bere buruaren kontra guzien aintzinean medeatzeko bere hutsei eta holatan jartzeko erranmerran guzien garai. Horiek orok erakusten dute haren baitan bihotz bat zin-zinez handia. Zoriak edo bertze norbaiten seiñak huts batzuetarik begira dezakete deus gutizko gizon bat, bainan ez da ezinbertzezko bertute bat baizik, bere hutsaren xuxentzera erakar dezakeiena errege bat hain luzaz lausengupean egona. Hainitez ospegarriago da holatan bere burua goititzea ezenetz behin ere behaztoparik ez egitea.

Idomenek egin dituen hutsak, errege gehientsuek egiten dituztenak dira, bainan gutiak dira mudatzeko egiten dutenak hunek orai egin duena. Nik bedere ezin aski mirets nioen kontrestatzera uzten ninduen ordu beretan. Ederrets ezazu zuk ere, ene Telemako maitea, eta seiña hori gutiago ematen derautzut zure omenagatik ezenetz zure onagatik.

Solas horietaz Mentorrek Telemakoren baitan sarrarazi zuen zein gaixto den zuzenbideari dainu egitea bere burua utziz zorrozkiegi ikartzera bertze gizonen egintzak eta bereziki hainenak zoinen gain baitaude manamenduko traba eta faxeria guziak. Ondotik erran zioen:

— Abia zaiten ordu da. Hemen igurikiren zaitut, oi nere Telemako maitea! Idukazu buruan, jainkoen beldurra duenak, ez duela gizonen alde-tik deuseren beldurrik izaiteko. Suertaturen zare athekarik gaitzenetan, bainan jakizu Minerbaren laguntzak ez derautzula eskas eginen.

Hitz horien gainean Telemakori iduritu zitzaioen hautematen zuela jainkosaren begitarte, eta ezaguturen ere zuen Minerba zitzaiola mintzo haren indarztatze, baldin jainkosak ez balu bihurrazazi haren gogoeta Mentorren gainera, bertze solas hauetaz:

— Ez dakitzula ahantz, nere semea, zure haurtasunean zutaz hartu izan ditudan artha guziak, zutaz egin nahiz gizon bat zure aita bezain zuhurra eta bihotzoia. Ez dezazula deus egin haren egintza ikusgarrieci eta zure baitan ahalaz sarrarazi ditudan bertutezko erakuskuntzei ez dohakotenik.

Jadanik iguzkia goratzen zen eta urhezatzten zituen mendi-gainak, noiz eta ere erregeak ilki baitziren Zalantatik bere tropei batzeko. Tropa hek, kanpatuak zirenak hiriaren inguruan, bideari eman ziren bere buruzagien manuen azpian. Alde guzietan ageri ziren piketako burdina zorrotzak. Erredolen argidurak begiak liluratzen zituen. Herrauts zirimola bat altxatzen zen zeruetaraino. Idomenek, Mentorrekin batean, laguntzen zituen elgian hiritik urruntzen ziren erregeak. Azkenekotz berezi ziren elkarganik, bi aldetarik emanik zinezko adiskidantza baten seinaleak, eta errege arrotzei etzitzaioleten dudarik gelditu bake iraunkor baten gainean, ezagutu zuten ondoan Idomenen bihotzeko ontasuna, nahiz Idomene

ongi etzen bezalakoia erakutsia izan zitzaioleten. Hori heldu zen, haren gainean hartzen zelakotz ez haren barneko sentimenduetarik, bainan bai bere burua eman zuen lausengari tzarretarik.

Armada goan izan zenean, Idomenek eraman zuen Mentor hiriko kartier guzietara.

— Ikus dezagun —zioen Mentorrek— zenbat gizon duzun hirian eta hiriz kanpoan. Athara dezagun kontua zenbat laborari den gizon horien tartean. Dugun ikus zure lurrek urthe artekoetan zenbat bihi, arno, olio eta bertze gauza progotxagarri ematen duketen. Horrelako bidez jakinen dugu heia lurra haz ditzakeienetz bere egoiliarak eta ematen duenetz soberakinik, leku arrotzekin egiteko tratu on zerbait. Ikar ere dezagun heia zenbat unti eta zenbat mariñel dituzun. Hortarik behar da ezagutu heia zer den zure indarra.

Mentor goan zen portuaren ikuskatzera eta sartu izan zen unti bakotxean. Galdegin zuen tokiaz zoinetan unti bakotxak baitzerailkan bere tratua. Galdegin zuen zer hatu harat zeramaten, zer erakartzen zuen gibelakoan, zer gastu zuen untiak bidaiako, zer mailegu tratulariek egiten zuten elkari, zer partzunergo egiten zuten elkarren artean, ezen jakin nahi zuen heia zuzenak othe ziren eta zuzenki atxikiak zirenetz. Azkenekotz galdatu zuen kost-egitez eta bertze tratuko goiti beheitiez, ezen nahi zuen negurriak har zaitezen begiratzeko beren galtzapenetik tratulariak, zeinek, irabaziko berotasunean hasten baitute ardura, hetaz ahalak manatzen duen baino gehiago.

Nahi izan zuen bankarrut guziak garraszi izan zitezen gaztigatuak, zeren maularik gabe direnak ez baitira behin ere kasik ausartkeria soberaturik gabe. Hanbatenarekin egin zituen manamendu batzu errex izan zedin amoreagatik behin ere bankarrutik ez egitea. Ezarri izan zituen juje batzu, zeinen aintzineratratulariek kontu eman behar baitzizozkaten beren paperez, irabaziez, gastuez, entepresez. Etzitzaioleten behin ere haizu menturan ezartzea bertzeen ontasuna eta berenetik ere etziroten erdia baino gehiago ausarta. Oraino ere, partzunergoan egiten zituzten berek bakarrik egin ahal etzezazketen entepresak eta partzunergo hetako patua ezin hautsia zen, hura idukiko etzutenei esleituak ziren gaztiguen garrasunaren medioz. Gainerakoan, tratuko libertatea osoa zen. Zergen medioz ongi urrun trabarik ekartzetik, golardoak agintzen ziotzaten tratulariei, zeinek Zalantara bilaraziren baitzuten zenbait jendaia berritako tratua.

Holetan, alde orotarik, populuek metaka laster egin zuten hiri hartara. Zalantako tratuak iduri zuen itsasoaren gorapena eta beherapena.



Dirua han sartzen zen hala nola uhinak metaka elkarren gainzka. Zernahi harat ekartzen zen librokari eta higualek atharutzen zen. Harat ekarri guziak progotxos ziren eta atharutzen zirenek, bere ordre kanporakoan uzten zituzten bertze aberastasun batzuek. Justizia garratza portuan jarria zagoen, hanbat jende suerteren erdian. Idekitasunak, fede onak, lainotasunak, iduri zuten dorre eder heien gainetik oihuz zaudezela leku urrunenetako tratulariei. Tratulari hetarik bakotxa, ala ethorria izan zedin iguzkia urpetarik altxatzen den tokietarik, ala itsaso handi hartarik, zeinetan iguzkia bere bidaiatzek nekatur goaten baita bere suen iraungitzera, bakean eta segurean bizi zen Zalantan, bere sortlekuan bezain ongi.

Hiriaren barnean Mentorek ikustatu zituen denda guziak, ofizialeen erremetak eta plaza publikoak. Debekatu zituen toki arrotzetako hatu guziak, arguillukeria eta gurikeria Zalantan sarraraz zetzaketanak. Manamenduak ezarri zituen arropa, bizigarri, etxetako tresna, etxetako handitasun eta edergailuen gainean, jendeen kondizione guzien arabera. Kasatu zituen urhezko eta zilharrezko edergailu guziak eta erran zioen Idomeneri:

— Ez dut bide bat baizik ezagutzen zure populua gastuan zuhur eragiteko. Hura da zerorri jartzea bertzeen ikusgarri. Premia da ager zaitezin maiestate apur batekin, baina zure nausitasuna aski ageriko da zure inguruko guardia eta zure azpiko aintzindari lehenetarik. Askikida dakizula aldagarri bat landar ederrenetik purpuraz tindatua. Zure erreinuko aintzindariak zure ondotik, izan daitezila arropatuak landar beretik, bertze diferentziarik gabe ezenetz karantzan eta zure aldagarriak izanen duen urhezko aihendadura arin batean. Karantza bereziek markaturen dituzte jendeen kondizione berezak, urhe, zilhar eta harri baliosik behar gabe. Kondizioeak marka zaitzu bat bederaren sortzearen araura.

Aintzin urhatsean ezarritu aitoren semetasun zaharrena eta deit-hore handienekoa duketenak. Merezimenduak eta karguak izanen dituztenak, arrangurarik gabe ethorriko dira etxe zahar eta ospetsu heien ondotik, zeinetan hain aspaldidanik baitaude ohore lehenbizikoak. Aitoren semetasun higualek bat ez duten gizonen aintzin aldean damukeria gabe utziren diote, baldin hauek ez badiozute zoramenduko bidea ematen altxatuz lasterregi eta goregi, eta laudorio egiten baduzu heien begirakortasunari, zeinak beren zoriaz hanpurusturen ezeptira. Bekaizgoak gutienik ukitzen duen berezkuntza, hura da, menderen mende arbasoen iraulgitik jausten dena.

Bertuteaz denaz bezenbatean, esportsamendurik aski baduke eta erreinuaren zerbitzatzean bat bedera aski sutatua izanen da, egintza ede-

ren saritzat ematen balin badituzu khoroak eta giza-moldeak, eta hetan balin bada aitoren semetasuneko hastapen bat heien egileen haurrentzat.

Zure ondotik, aintzin-urhatseko gizonak, izanen dira xuriz aldatuak, urhe franja batekin beren aldagarrien azpiko aldetik, eta ekarriren dute lepoan medela bat, zeinetan izanen baita zure begitarte. Bigarren urhatsekoak izanen dira urdinez aldatuak, zilhar franja eta erreztunarekin, medelarik gabe. Hirugarren urhatsekoak izanen dute arropa berdea, ez franja ez erreztunekin, baina zilhar medelarekin. Laugarren urhatsekoen arropa izanen da hori gorra. Bortzgarrenekoena gorri hits edo arrosa. Seigarrenekoena lihokara. Zazpigarrenekoena eta populuan azkenena, hori ta xuri nahasteka.

Horra zazpi kondizionetako gizonen arropa. Gathibu guziak aldatuak izanen dira nabar-beltzkaraz. Holetan, deus gasturik gabe, bat bedera berezia izanen da bere heinaren eredura, eta Zalantatik kasatuak izanen dira urgulukiaren hazteko baizik ez diren antze guziak. Antze galgarri hetako ofiziale guziak sarturen dira premia diren antze gutietan, edo tratuan, edo laborantzan. Ez da behin ere jasan beharko mudantzarik ez arropa motan ez etare arroparen pikoan, ezen itsusi da gizonak, bizitze serio eta noble bat erakarri beharrak, dosta daitezten apaindura ergel batzuen bilhaketa, ez eta ere zorokeria bera haizu utz dezaten beren emazte, zeinentzat ez bailaiteke bizkitartean hanbat ahalkagarri.

Hala nola baratzezain artex batek moztzen baititu zuhain fruitu ekarleen adar alfer guziak, Mentorek higualek kasatzen zituen urguluzko gauzak, aztura galgarriak. Gauza guziak erakartzen zituen lañotasun eder eta zuhur batera. Higualek manamenduak ezarri izan zituen hiritarren eta gathibuen janaren gainean.

— Zer ahalke —zioen—, gizonen hautetsienek beren ohorea ezar dezaten errekitu izpirituaren beratzgarri eta osasunaren galgarri diren batzuetan! Beren zoriona ezarri behar lukete begirakortasunean, bertze gizonen ongi egiteko duten eskudantzia eta beren egintza onen erakarri behar dioten aipamenean. Sobretasunak janhari lañoenari ematen dio gozogunerik handiena. Eta hori, ematen dituelakotz, osagarriak hazkarrarekin batean, atseginik garbienak eta iraunkorrenak. Behar zaitez beraz baratu zuen onthuntzetan haragi hobeeneri, baina saltsakeriarik gabe xuxendueri. Gizonen pozoatzeko antzea da heien janbidea tirritatzea egiazko beharrek manatzen dionetik gehiago.

Idomenek ezagutu zuen zer hutsa egin izan zuen ustea bere hiri berriko jendea bere azturen beraztera eta korronpitzera, hautsiz Minozen lege guziak sobretasunaren gainekoak. Baina Mentor zuhurak oharte-



man zioen lege hek berak berrituak izan zitezen arren, alferrak izanen zirela baldin erregeren etsenpluak ez bazioten ematen indar bat bertze nihondik ezin hel zakioketena. Berehala Idomenek egin zuen bere mahaineko arranjua. Han etzuen onhesten bertzerik ezenetz ogi on bat, herriko arnoa, zeina hainitz gozoa baita, eta negurri hertsian, eta haragi arront batzu, Troieseko sethioan bertze greziarrekin jaten zituen bezalakoak. Nehor etzen arranguratzera ausartatu manamendu batez, zeina erregek berak lehenbizikorik jasaiten baitzuen, eta holetan bazterrerat utzi izan zituen nasaizia gauditua eta delikatasuna, zeinetan pulunpatzen hasiak baitziren beren jan-edanetan.

Gero Mentorrek kasatu zuen musika beratz eta emakoia, gazteria guziaren galgarri zena. Garraztasun bera erakutsi zuen musika arnokiarrentzat, zeren ez baitu arnoak berak baino gutiago mozkortzen eta azturak eragiten baititu denak, oldarkeriaz eta erhokeriaz betheak. Musika zedarrizatu zuen tenploetako bestetakotz, han kantatzeko jainkoen otsak eta gizon handi bakharrenak, zeinek eman izan baitute bertute arraroenen etsenplua. Debekatu ere zituen tenploez landa hargintzako edergailu handiak, hala nola harroinak, athalada ederztatuak eta aperikuak. Eman zituen hargintzako plan laño eta plaxent batzu, egitekotzat hedadura gutitan, etxe arin eta komodos bat mainada handi batentzat, halako moldez non izan zedin alde sanora itzulia, egon lekuak zirelarik elkarganik ongi bereziak, garbitasunaren eta arranjua errestasunarekin eta gastu gutitako mantenantzarekin.

Nahi zuen zerbaitetako etxe guziek izan zezaten salha bat, ezkaratza gela xume batzuekin jende libro guzientzat, bainan debeku garratzak egin zituen egon lekuetako nonbrearen eta edergailu soberatuen gainean. Etxe egiteko plan mainada arauzko hek, baliatu ziren hiriaren alde baten edertzeko gastu gutirekin, eta izari beretan haren xuxentzeko, noiz eta ere lehenbiziko zatia, bitartean altxatua izan zena, bat bederaren tarantaren eta urguiluaren arabera, ez baitzen ez begiko ez zerbitzuko hain atsegin-karakoa. Hiri berri hori hainitz epe laburrean altxatua izan zen, zeren eta Greziako bazter hurraneotik athara baitziren hargin-nausi onak, eta erakarraziak izan baitziren Epiratik eta bertze asko lekutarik hargin hainitz, paturekin, lanen akabantzan, Zalantako ingurutan emanak izanen zitzaizkotela lurra athartzeko eta populatuko zutela elgia.

Mentorri iduritu zitzaioen pintura eta eskultura bazterrerat ezin utz zitazkeen antze batzu zirela, bainan nahi izan zuen Zalantan antze hek gizon gutiri zilhegi izan zakitzoten. Asentatu zuen irakaspeneko eskola bat, zeintan buruzagitzat emanak izan baitziren nausi ezagutza handiene-

koak apendiz gazteen etsaminatzekotzat. Mentorrek erraiten zuen etzela deusere nahi ez apalik, ez etare ilhaunik, baitezpadako premiatusun gabe diren ofiziotan. Hartarakotz, etzela hetan onhetsi behar agintza ederretako antzea zuten gizon gazteak baizen. Zioen oraino:

— Ofizio gutiako altxatzekotzat sortuak diren gaitikoak, progotxugarrikiago egunorozko beharretan enpleguak izanen dira. Eskultatzaileak eta pintatzaileak ez dira enplegu behar baizen-eta begiratzeko gizon handien eta egintza handien orhoitzapena. Hiriaren etxetan, tenploetan edo hobietan mustratzen dira, zerbitzu publikoaren onetan bertute gaingaineko baten medioz obratuak izan diren egintzak.

Gaitikoan, Mentorren begirakortasuna eta zuhurtasuna etziren harentzat gibelatzaile izan, esku emateko eginak izan zitezen plaza handi batzu zaldi eta karro lasterrentzat, borrokarien eta palangarien guduentzat, eta berze joko suerte gorputzak xotiltzen eta hazkartzen dituztenentzat.

Debekatu zuen tratulari oste bat, zeinak ordu arte saltzen baitzuten toki urrunetan eginikako oihal jestutsu batzu, soberaniozko prezioa zuten broderiak, urhe eta zilharrezko untziak, beren jainko, gizon eta azienda mustrekin, edari finak eta baltsamuak. Nahi izan zuen ere etxetako tresnak izan zitezen eginak lañoki bainan iraunkorki. Eta holetan zalantarrak, beren beharrieriaz goraki arrangura zirenak, hautematen hasi ziren zenbat aberastasun gaitikoen jabe ziren. Bainan halako aberastasunak enganagarri eta behargarri baizik etziren, eta egiaz aberasten ziren, hetaz beren buruak buluzteko bihotzeko indar hartzen zutenaren arabera. Berek ziotena:

— Aberastea da erdeñatzea horrelako izantzak erreinuaren iresgarriak, eta gutitza bere beharrak egiazko premiatusunetaraino.

Mentorrek lehiatuki ikartu zituen artzenalak eta bertze magasin guziak, jakiteko heia harmak eta gerletako bertze tresnak ongi zaudenetz, erraiten zuelarik bethi gerlara prest behar dela, nahi ez bada hartarat izan bortxatua. Alde guzietan asko gauza eskas ediren zuen. Berehala bilduak izan ziren langileak burdina, alzeru eta erearen lantzeko. Orotan alxtatzen ziren errementak sutan. Agertzen ziren khe zirimolak eta garrak, Etnako mendiak bulkatzen dituen su hek iduriak. Marteluak kaskaka hari ziren ingudietan, zeinek orroaz ihardesten baitzuten hanbat zanparen azpian. Oihartzunak iharosten zituen hurbileko mendiak eta itsas bazterrrak. Harat heldu zenak usteko zuen zela irla hartan, zoinetan Bulkanok, Tartaroak esportsatuz, ozpinak lantzen baititu jainkoen aitarentzat. Aintzin ohar baten kariaz, bakerik handienaren erdian ikusten ziren gerlako arrimu guziak.



Gero Mentor ilki zen hiritik Idomenerekin, eta ediren zuen lur gizezko eremu handi bat alfer zagoela. Bertze bat, erdizka baizik etzen lantua, laborarien ezaxolakeria eta erromesia zirela kasu. Besoz eta aziendaz eskas ziren. Bihotzak eta ahalak ere eskas egiten zioten laborantzaren altxatzeko hein hobeagora. Mentorrek, ikustearekin elgi etsitu hura erran zioen erregeri:

— Lurrak hemen ez du bertzerik galdegiten bere lurtiarrak aberas-tea baizik, bainan lurtiarrak lurrari eskasten zaizko. Har detzagun beraz zelhaien eta malden lantzeko, hirian dauden ofiziale soberakiñak eta zoinen ofizioak ez baitira azturen galgarri baizik. Egia da damugarri dela hanbat gizon, tokiaren gainean egoteko ofizioak dituztenak ez ditezen kanpo-lanetan ikasiak. Bainan huna horren xuxentzeko bide bat. Partitu behar dira hoiaren artean jabe berezirik ez duten lurrak eta hoiaren laguntzara deitu hurbiletako populuak, zeinek heien pean eginen baitute lan bortitzena. Populu hek hortara ethorriko dira baldin behar den saria agintzen bazaie lanturen dituzten lurretako uzten gainean. Geroxago emanen ahal zaiote parte baten jabetasun osoa eta haletan bat eginen dute zure populuarekin, zeinaren saldoa ttipiegia baita oraino. Baldin langileak eta legeari jarraikiak badira, zure azpiko gizonik hoberenak izanen dira eta handituko dute zure botherea. Hirian dituztun ofizialeak elgietan ezarriko dituztun ondoan, beren haurrak altxaturen dituzte trebaraziz elgiko lan eta premiatasunetara. Gehiago dena, zure hiriaren egiten hari diren toki atzetako hargin guziak hitzemanak dira atharatzeko zure lurren parte bat eta laborantzari jartzeko. Hiriko lanak akabatu dituztenean baltsazkitzu zure populuari. Hargin horiek atseginekin emanen dira biziaren iragaitera hanbat ezitasun egungo egunean hartu duen nausitasunaren azpian. Nola langileak eta hazkarrak baitira, horien etsenplua esportagarri izanen da hiritik elgira atheratuko dituztun ofizialentzat, zeinak horiekin baltsatuak izanen baitira. Geroago elgi guzia bethea izanen da familia hazkar eta laborantzari emanez.

Gaitikoan etzaitezila arranguretan jar heia nola emendatuko den populua. Ezin kondatuzkoa izanen da sarri, ezkontzak errexten balin badituzu. Errextasun horren emateko bidea lañoa da. Gizon gehienek ezkontzako jaidura badute. Ez da erromeseria baizen heien gibelgarririk. Zergapean ez badituzu ezartzen, ongi biziko dira beren emazte eta haurrekin. Ezen lurra ez da eskergabea, hazten ditu haren lantzeko artha hartzen duten guziak. Beren nekea gupida dutenentzat baizen ez da bekhaizti. Zenbatenaz laborariak baituke haur gehiago, eta hanbatenaz aberatsago da, baldin erregek ez badu erromesten. Ezen haren haurrak hasten

dira adin samurrenean berean, haren laguntzen. Gazteenek badaramatzate ardiak alhara. Handiago direnek eramaten dute azienda larria. Zaharrenek lurra iraultzen dute beren aitarekin. Bitartean amak ontuntza arront bat xuxentzen diote bere senharrari eta ume maiteei, egun guziko lanetik nekatuak bihurtu behar direnei. Behien eta ardien daizteko artha hartzen du, eta esnea ikusten da zurrutaka jausten kaikuetara. Su handi bat egiten du, zeinaren inguruan mainada inozent eta baketierra kantalo-tsez atseginekin hartzen baita arrats oroz, lo gozo bat ethorri arteo. Emazteak egiten ditu oraino gasnak eta xuxentzen fruituak, zeinak begiratzen baitira ondoaren gainean bezain fresko.

Artzaina gibelat heldu da ere xirolarekin, eta mainada guziari kantatzen diotza inguruko bazter herritan ikasi izan dituen kantore berriak. Laboraria sartzen da golde nabarrekin. Haren idiak, nekhearen ondotik heldu dira buruak beheiti beren urhats dorpe eta tontoan, akuloak sistatzen dituen arren. Laneko nekhe guziak akabo dira egunarekin batean. Jainkoez manuz loak lurraren gainera berduratzen dituen pabotek beren gozogunez jabaltzen dituzte grina samurrak eta mundu guzia idukitzen dute xarmatua iduri. Bat bedera loharkatzen da biharamuneko arrangurez orhoitzarik gabe.

Dohatsu gizon anbizione, gibel-beldur eta jokotria gabe hek, jainkoe-ek ematen badiote errege on bat beren boztario inozentean asaldatuko ez dituen! Bainan zer barbarokeria izigarria heiei atharatzea, anbizionezko eta urguilu mustrazko xede batzuetan, lurreko fruitu gozoak, jainkoez bizartasunari eta heien belharreko izerdiei baizen zorrik ez diotenak. Lurrak berak athara liro bere sabel emankorretik gizon begiratu eta langilezko ezin konda daiten oste batek behar lituzken guziak, bainan gizon bakar batzuen urgulua edo gurikeria aski dira hainbertzeen ezarraratzeko erromeseria izigarri batean.

Bainan zer eginen dut —zioen Idomenek—, baldin elgi gizen haue-tan hedatuko ditudan jendeek ardurarik gabe uzten badituzte lurreko lanak?

Mentorrek ihardetsi zioen:

— Gehienek holako orduetan egiten dutenaren kontrakoa egizu. Printze diru-gose eta geroari behatzen ez direnei etzaie bertzerik bururatz-zen ezenetz zergaz maldatzea beren azpiko erneen eta artexen direnak, ontasunen baliazteko. Eta hori, zeren pagamendu errax baten igurikitza baitute heien aldetik. Ordu berean arinkiago uzten dituzte alferkeriak erromesten dituenak. Ifrenziatik har zazu egiteko molde bertutearen gal-garri eta galdukeriaren laguntgarri den hori, eta ezaxolkeria sarraraziz,



erregeri erreinuari baino desmasia gutiago ekartzen ez dion hori. Ezarzkitzu xedeak, amanda, eta premia badira, gaztiga garratzagoak ere, beren alhorrak ez-axolatuki utziren dituztenei, hala nola gaztiga baitzinezazke gerletan beren tokia husten duten soldaduak. Aitzitik abantailazkitzu berhatzen hari diren mainadak, emazkiotzute zergetako librantzak eta librantza hek handizatzu lur gehiago lantzen duten arabera. Laster ikusiren dituzu mainadak berhatzen eta guziak lanari berotzen. Nekhea bera ohoragarri bilhakaturen da. Laborantza, hanbat gaizkurakerien azpitik ilki dena, ez da hantik aintzinat erdeinutan geldituzen. Berriz ere ohoretan agerturen dira golde pikoiak, herriko etsaien bentzutzailen eskuetan ikusten direnean. Ez da gutiago eder izanen bere arbasoen ontasuna iraultzea zorionezko bake baten tenoretan, ezenetz ontasun hura harnemez bihotzoiki zaintzea gerletako asalduetan. Distira berri bat harturen du elgiak. Ogi-buru urheztatuz koroaturen da Zerez. Bakuzek, matsak ostikatuz, nektarra baino gozoagoko arno bat hibaika jautsaraziren du mendi-maldak behera. Haren barrenek ihardetsiren dituzte artzainen kantaltsak. Artzainek, ur-erreka garbien bazterretan baturen dituzte beren bozak beren xirolekin, arthalde burbutzikariak alhan doazilarik belharran eta lilipean, otsoen beldurrikan gabe.

Oi Idomen! Etzireia dohatsuegi edirenen zure burua ikusteaz hanbat ongiren ithurburu eta biziarazteaz halako jendetzea hanbat laketgarriko deskantsuan? Ospe hori ez othe da ukigarriagoa ezenetz gerlariek bilhatzen dutena lurra desmasiatzean, hedatzean orotan eta bere tokitan, garhaizien erdian berean, kasik hanbertze nola arrotz bentzutuen baithan, sarraskiak, asalduak, izigarrikeriak, hagoadura, laztura, gosete garratza eta galetzia?

Oi, dohatsu erregea jainkoez aski maitatua eta bera aski bihotz handikoa, bere ahalaz destatzeko izateari hanbat jendetzen bozkari eta erakustari mende guziari bere erreinuko orduan hanbat ikusgarriko helantza! Lurreko populu guziak, urrun beren buruak guduka zaintzetik haren nau-sitasunetik, ethor lakiozke bere oinetara, othoizten dutelarik erregina dedien heien gainean.

Idomenek ihardetsi zioen:

— Bainen noiz eta ere populuak holetan jarriko direnean bakearen eta nasaiziaren erdian, gurikeriek galduren dituzte eta nere kontra bihurtzen dituzte nerorrek eman indarrak.

— Ez izan horrelako beldurkunderik —erran zuen Mentorre—.  
Hori da estakuru bat bethi aintzinerat ematen dena lausengatzeko xahutzaille diren printzeak eta beren populuak zergapean lehertzaille direnak.

Erremedioa errexa da. Laborantzaren gainean egin ditugun legeek populuaz ezarriren dute lanbidean, eta bere ongi-izatean ez duke gauza premiak baino gehiago, zeren kasatzen baititugu soberakina ematen dituzten antzeak. Nasaizia hura bera gutitua izanen da ezkontzetako errextasuna dela medio eta mainaden berhatze handiaz. Mainada bakotxa handia izatearekin eta lur eremua ttipia, bethi-dirauen lan baten medioz beharko da bizigarria athara. Alfer ibiltzeak eta nagikeriak ozarrazten eta errebesten dute jendea. Hunela jendeak izanen du ogia, egia erraiteko, eta izanen du nasaizia batean ere, bainen ez duke ogia baino gehiago eta kopetako izerdiaren medioz lurretik atharako dituen fruituak baizik.

Zure populua idukitzekotz begirakortasunean, oraidanik esleitu behar da mainada bakotzak beretuko dukeien lur eremua. Badakizu jende guzia xedatu dugula zazpi herronketan, kondizione berezen arabera. Ez da zilhegi utzi behar herronka bakotxean mainada bati bere hazkurriarentzat baitezpada premia duen baino lur eremu handiagoa beretzeko ahala. Xede hori ezin hautsia den ber, aitorensemeek erospentik ezin egiten dukete beharreganik. Orok izanen dituzte lurra, bainen bakotzak hainitz guti, eta holetan esportatua izanen da bere zathiaren ongi lantze-za. Baldin asko urteren buruan lurra eskasten balira hemen, bidal laizte bertetara koloniak, erreinuko botherearen behagarri laiztenak.

Uste nuke ere ohar-eman behar duzula arnoa sobera behin ere nasaitzetik zure erreinuan. Mahasti sobera landatua izan bada, erroitik athara behar da soberakina. Arnoa jende artean ondiko handien ithurburu da. Jauzarazten ditu eritasunak, aharrak, biahoreak, ibildaunkeriak, lanaren higuintza, mainadetako nahastura. Arnoa izan dadiela beraz atxikia erremedio bat bezala, edo hala nola edari hainitz arrarora, sakrifizioetan eta besta handienetan baizik arduratzen ez dena. Bainen ez dezazun uste izan hanbat mengoa den manamendua izanen dela begiratua baldin zero-reek ez baduzu ematen zere buruaz irakaspina.

Bertzalde, ukitu gabe begiratu behar dira Minozen legeak haurren altxatzeko moldearen gainean. Behar dira ezarri eskola publikoak, zeinetan irakatsiko baitira jainkoe beldurkundera, herriko amodioa, legeen larderia, ohorearen hautespena atseginen eta biziaren beraren gainetik.

Legeko gizonak behar dira, begia idukiren dutenak mainaden eta aztaren gainean. Oharreen zaudezi zeror, zeren etzarelakotz errege, erran nahi da, populuaren artzaina, zure arthaldearen gainean gau eta egun atzarrig egoteko baizen. Holetan bidea khenduren diozute asko nahastura eta krimei. Orogengatik egiten diren gaizkiak, berehala eta garrazki gaztiga zatzu. Bihotz-ontasun bat da hastetik ematea gaztiga irakasgarriak, gaiz-



takeriako bide-ebakitzaileak. Behar orduan ixurtzen den odol guti batek, hainitz bat espraniatzen du, eta erregei larderia bat ematen du garraztasuna arduratu gabe.

Baina zer sineste hastiagarria errege baten baithan, uste izatea populua lehertuz baizik ez dirola segurantzarik ediren! Populari ez argimendurik, ez berthuteko biderik erakastea, hartaz ez behin ere maitharaztea bere burua, hura izialduraren medioz galetsiraino bulkatzea, hura behardura izigarrian ematea edo, behin ere libroki hats hartzeko edo ostikatze-ko zure nausitasun barbaroa. Hori deia bada nahasturarik gabe erreginatze-ko bidea? Hori deia bada ospera daraman bidea? Orhoit zaitezi, erregeak nihon ez dira hain herbal nola heien nausitasuna negurri gabekoena baita. Lotzen dira zernahiri, bazter guziak desmasiatzen dituzte, erreinuko jabe bakharrak dira, bainan halaber, erreinua hagoan jartzen da. Elgiak larre daude eta kasik mortuak iduri. Hiriak urtuz doazi egun oroz, tratua agortuz. Errege ez daite errege izan bakartasunean, ez da handi bere azpikoen medioz baizik. Emeki-emeki bere burua ezeztatzen du, ezeztatzen dituenaren arabera bere populuak, zeinetaren atheratzen baitira haren botherea eta abarastasunak. Haren erreinua diruz eta gizonez ahituz doha, eta gizonez ahitzea da galtzapen guzietarik gogorrena eta gutienik medeagarria. Haren bothere neurrigabeak bere azpiko bakotxetik gathibu bat egiten du. Balakuen erdian deraukate, egiten dute haren adoratzeko alegia bat. Ikaran daude haren begi ukaldi ttipienari. Bainan zaudezi begira erreboluzione ttipienari. Ezin irauna da bothere neurrikaitz, sobranio-keria muthirienetara barraiatzen den hura. Giderrik ez du populuen bihoztetan. Ttipiak ala handiak, guziak ase ditu eta samurrean ezarri. Guziak nola nahiko mudantza bati lehiarazi ditu. Lehenbiziko zankak idola lurre-rat artikitzen du, porroskatzen da, oinpean ostikatua da. Arbuioa, herra, beldurra, asperra, gibelbeldurra, hitz batez, pasione guziak, biltzen dira halako higuintzetan den nausitasunaren gainera. Bere itxurazko handitasunean, erregek etzuen edireiten gizon bat aski bipila, egia bat erranen zioena. Ez du bere dohakaitzean bakar bat edirenen, ez aitzakiatuko duena, ez indar bat egin nahiko duena haren alde.

Solas horien guzien ondoan, Idomenek, Mentorren erranak sinhe-tsirik, berehala partitu zituen jabegabeko lurra, hetan ezarri zituen alferretako ofizialeak, eta obratu burutan hartuak izan ziren neurri guziak. Bakarrik zituen bazterrerat utzi harginentzat xedatzen zituen lurra, zeren hiriko lanen akabantzan baizik ez baitzitazkeen lot lur heien apaintzeari.